Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

# IRUÑEKO UDALAREN 2019eko MEMORIA



# AURKIBIDEA

**1.- ANTOLAMENDUA**

1.1- Politika- eta administrazio-antolamendua 004
1.2- Biztanleak 016
1.3.- Gobernu-organoen jarduera 021

**2.- UDAL ANTOLAMENDUA**

2.1.- Alkatetza 024
2.1.1- Ekitaldi instituzionalak eta protokoloak 024
2.1.2.- Komunikazio-Zerbitzua 025

2.2.-Gobernu Estrategikoa, Merkataritza eta Turismoa 027
2.2.1.- Plangintza Estrategikoa 027
2.2.2.- Merkataritza 031
2.2.3.- Turismoa 040
2.2.4.- Aholkularitza Juridikoa 052

2.3.- Zerbitzu Orokorrak 055
2.3.1.- Giza Baliabideak 055
2.3.2.- Ogasuna 063

2.4.- Herritarren Segurtasuna 070
2.4.1.- Eremu Publikoaren Kudeaketa 070
2.4.2.- Herritarren Segurtasuna 072
2.4.3.- Bide Segurtasuna 078
2.4.4.- Zirkulazioa eta Mugikortasuna 080

2.5.- Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteria 082
2.5.1.- Hezkuntza 082
2.5.2.- Herritarren Partaidetza 087
2.5.3.- Herritarren Dako Arreta Zerbitzua 096
2.5.4.- Gazteria 098

2.6.- Kultura eta Berdintasuna 110
2.6.1.- Kultura 110
2.6.2.- Udal-Artxiboa 131
2.6.3.- Berdintasuna 134

2.7.- Komunitate Ekintza, Lankidetza eta Kirola 139
2.7.1.- Lehen Mailako Arreta 139
2.7.2.- Komunitate Ekintza 152
2.7.3.- Kirola 156
2.7.4.- Garapenaren Aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal-Programa 161

2.8.- Hirigintza, Etxebizitza eta Osasuneko Alorra 164
2.8.1.- Hirigintza eta Etxebizitza 164
2.8.2.- Osasuna 172

2.9.- Proiektu Estrategikoak, Mugikortasuna eta Jasangarritasuna 185
2.9.1.- Proiektu Estrategikoak 185
2.9.2.- Mugikortasuna 195
2.9.3.- Jasangarritasuna 202

# 1.

# ANTOLAMENDUA

# UDAL-ANTOLAMENDUA. BIGARREN SEIHILEKOA

# UDALBATZA

## ZINEGOTZIAK

**Navarra Suma udal-taldea**

Enrique Maya Miranda
María Echávarri Miñano
Ana Elizalde Urmeneta
Javier Labairu Elizalde
María García-Barberena Unzu
Carmen Alba Orduna
Fernando Sesma Urzáiz
María Caballero Martínez
Fernando Aranguren Reta
Cristina Martínez Dawe
Juan José Echeverría Iriarte
Fermín Alonso Ibarra
Fernando Villanueva Mesa

**EH Bildu Udal Taldea**

Joseba Asiron Saez
Maider Beloki Unzu
Joxe Abaurrea San Juan
Marian Aldaia Gaztelu
Eva Aranguren Arsuaga
Endika Alonso Irisarri
Borja Izaguirre Larrañaga

**Iruñeko PSN/PSOE Sozialistak udal-taldea**

Maite Esporrín Las Heras
Xabier Sagardoy Ortega
Juan Luis García Martín
Silvia Velásquez Manrique
Federico Colmenar Carro

**Geroa Bai udal-taldea**

Patxi Leuza García
Javier Leoz Sanz

# UDAL-ANTOLAMENDUA. LEHEN SEIHILEKOA

## UDALBATZA

### ZINEGOTZIAK

**UPN udal-taldea**

Enrique Maya Miranda
Ana Elizalde Urmeneta
María Caballero Martínez
Fernando Villanueva Mesa
Juan José Echeverría Iriarte
María García-Barberena Unzu
Fermín Alonso Ibarra
Román Luzán Suescun
Gabriel Viedma Moreno

**EH Bildu udal-taldea**

Joseba Asiron Saez
Patricia Perales Hurtado
Aritz Romeo Ruiz
Joxe Abaurrea San Juan
Maider Beloki Unzu

**Geroa Bai udal-taldea**

Itziar Gómez López
Esther Cremaes Mayorga
Javier Leoz Sanz
Iñaki Cabasés Hita
Mikel Armendáriz Barnechea

**Iruñeko PSN/PSOE Sozialistak udal-taldea**

Maite Esporrín Las Heras
Eduardo Vall Viñuela
Patricia Fanlo Mateo

**Aranzadi udal-taldea**

Armando Cuenca Pina
Laura Berro Yoldi
Manuel Millera Carrera

**Talde mistoa**

Edurne Eguino Sasiáin

# UDAL-ANTOLAMENDUA

## 1. ALKATETZA ETA ARDURA-ALORRAK (EKAINAK 15- ABENDUAK 31)

**Alkatea**

Enrique Maya Miranda

**Alkateordeak**

Ana Elizalde Urmeneta
María Echávarr Miñano
María Caballero Martínez

**Ardura-alorrak**

| ZINEGOTZI ORDEZKARIAK | ARDURA-ALORRA |
|---|---|
| Ana Elizalde | Gobernu Estrategikoa, Merkataritza eta Turismoa |
| María Echávarri | Zerbitzu Orokorrak |
| María Caballero | Gizarte Zerbitzuak, Komunitate Ekintza eta Kirola |
| Fernando Sesma | Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteria |
| María García-Barberena | Kultura eta Berdintasuna |
| Juan José Echeverría | Hirigintza, Etxebizitza eta Osasuna |
| Fermín Alonso | Proiektu Estrategikoak, Mugikortasuna eta Jasangarritasuna |
| Javier Labairu | Herritarren Segurtasuna |

| ZINEGOTZI BEREZIAK | ARDURA-ALORRA |
|---|---|
| Carmen Alba | Turismo |
| Fernando Aranguren | Kirola |
| Arturo Lecumberri | Gazteria |
| Cristina Martínez Dawe | Berdintasuna |
| Fernando Villanueva | Osasuna |

**Gobernu Estrategikoa, Merkataritza eta Turismoa**

- **Gobernu Estrategikoa**
  Alorreko zuzendaria: José María Jiménez Bolea
  Idazkari teknikoa: Marian Ardanaz

- **Merkataritza eta Turismoa**
  Alorreko zuzendaria: Silvia Azpilicueta
  Idazkari teknikoa: Marian Ardanaz

**Zerbitzu Orokorrak**

• **Ogasuna**
Alorreko zuzendaria: Nuria Larráyoz
Idazkari teknikoa: Javier Bernabeu

• **Giza Baliabideak**
Alorreko zuzendaria: Javier Morrás
Idazkari teknikoa: Beni Soteras

**Gizarte Zerbitzuak, Komunitate Ekintza eta Kirola**

• **Gizarte Zerbitzuak**
Alorreko zuzendaria: Olivia Elizari
Idazkari teknikoa: Jesús María Pascal

• **Komunitate Ekintza, Lankidetza eta Kirola**
Alorreko zuzendaria: Conchi Mateo
Idazkari teknikoa: Aurora Mendía

**Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteria**

Alorreko zuzendaria: José Manuel Santana
Idazkari teknikoa: Pilar Lanuza

**Kultura eta Berdintasuna**

Dirección de área: Fernando Nagore

**Hirigintza, Etxebizitza eta Osasuna**

• **Proiektuak, Obrak, Mugikortasuna eta Jasangarritasuna**
Alorreko zuzendaria: Alejandro Astibia
Idazkari teknikoa: Arancha Carrero

• **Hiri Kontserbazioa**
Alorreko zuzendaria: Oscar Esquíroz
Idazkari teknikoa: Enrique Zapata

**Herritarren Segurtasuna**

Alorreko zuzendaria: Patxi Fernández
Udaltzainburua: Javier Goya

### Alkatetza Kabinetea, Protokoloa eta Komunikazioa (Alkatetza)

Alkatetza Kabinetea: Juan Echenique
Protokoloa: Marta Urbiola
Komunikazioa: Edurne Elío

### Hirigintzako Gerentzia

Zuzendari- Kudeatzailea: Ana García

### Hiria Zaharberritzeko Bulegoa

Zuzendaria: Alberto Calvo Azagra

### Haur Eskolen Erakunde Autonomoa

Gerentea: Juan Ramón Rábade

### ANIMSA

Gerentea: Joaquin Sagüés Lacasa

### Iruña Biziberritzen sozietatea

Gerentea: Alberto Calvo Azagra

### Mercairuña

Gerentea: José Ángel Momparler

### Comiruña

Ahalordeduna: Silvia Azpilicueta

### Auzo-zinegotzitzak

| ZINEGOTZI ORDEZKARIAK | AUZOA |
|---|---|
| Carmen Alba Orduna | Arrotxapea |
| Javier Labairu Elizalde | Sanduzelai |
| Fermín Alonso Ibarra | Txantrea |
| Ana Elizalde Urmeneta | Erripagaña-Beloso, Mendillorri |
| Fernando Sesma Urzaiz | Alde Zaharra |
| Fernando Villanueva Mesa | Donibane, Ermitagaña – Mendebaldea |
| Juan José Echeverría Iriarte | Milagrosa Arrosadia, Azpilagaña |
| Fernando Aranguren Reta | Iturrama |
| María Echávarri Miñano | Buztintxuri |
| María Caballero Martínez | Lezkairu – Santa María la Real |
| Cristina Martínez Dawe | Etxabakoitz |
| María García-Barberena Unzu | Zabalguneak |

# UDAL-ANTOLAMENDUA

## 3. TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Enrique Maya Miranda
Fermín Alonso Ibarra
María Caballero Martínez
María Echávarri Miñano
Juan José Echeverría Iriarte
María García-Barberena Unzu
Javier Labairu Elizalde
Fernando Sesma Urzaiz
Ana Elizalde Urmeneta

## 4. BATZORDEAK

| IZENA | IZAERA |
|---|---|
| Lehendakaritza | Arrunta |
| Herritarren Aferak | Arrunta |
| Hirigintza | Arrunta |
| Kontuak | Berezia |
| Kontratazioak zaintzekoa | Berezia |
| Iradokizunak eta erreklamazioak | Berezia |

# 5. UDAL-ERAKUNDE AUTONOMOAK

- Hirigintzako Gerentzia
- Haur Eskolak

# 6. ENPRESA PARTAIDETUAK

| MENDEKO SOZIETATEAK (Udal-partaidetzakoak) | |
|---|---|
| Comiruña S.A. | % 100 |
| Pamplona Centro Histórico S.A. | % 100 |
| Asociación Navarra de Informática Municipal S.A. – ANIMSA | % 78 |
| Mercairuña S.A. | % 51 |

| UDAL-FUNDAZIOAK (estatutu juridiko berezi baten menpekoak) |
|---|
| Gayarre Antzokia Fundazioa |
| Erruki Etxea |

# UDAL-ANTOLAMENDUA (URTARRILAK 1- EKAINAK 14)

## 1. ALKATETZA ETA ARDURA-ALORRAK

**Alkatea**

Joseba Asiron Saez

**Alkateordeak**

Patricia Perales Hurtado
Aritz Romeo Ruiz
Joxe Abaurrea San Juan

**Ardura-alorrak**

| ZINEGOTZI ORDEZKARIAK | ARDURA-ALORRA |
|---|---|
| Patricia Perales Hurtado | Tokiko Ekonomia Jasangarria |
| Aritz Romeo Ruiz | Gardentasuna, Berrikuntza eta Hizkuntza Politika |
| Itziar Gómez López | Herritarren Segurtasuna eta Elkarbizitza |
| Joxe Abaurrea San Juan | Hiri Bizigarria eta Etxebizitza |
| Maider Beloki Unzu | Kultura eta Hezkuntza |
| Mikel Armendariz Barnechea | Herritarren Partaidetza eta Gizartea Ahalduntzea |
| Joxe Abaurrea San Juan | Hiri Ekologia eta Mugikortasuna |
| Esther Cremaes Mayorga | Komunitate Garapena |
| Esther Cremaes Mayorga | Gizarte Ekintza |

**Gardentasuna, Berrikuntza eta Hizkuntza Politika**

Zuzendaria: Arturo Ferrer Arriazu
Idazkari teknikoa: Sandra Parra Guillén

**Gizarte Ekintza**

Zuzendaria: Idoia Saralegui San Sebastián
Idazkari teknikoa: Jesús Mª Pascal Mendioroz

**Komunitate Garapena**

Zuzendaria: Ana Goia Arive
Idazkari teknikoa: Nuria Goñi Oiz

**Kultura eta Hezkuntza**

Zuzendaria: Maitena Muruzábal Ollo

Idazkari teknikoa: Víctor Piñero Larrasoaña

**Herritarren Partaidetza eta Gizartea Ahalduntzea**

Zuzendaria: Antso Fernández Oregi
Idazkari teknikoa: María José Garín Asensio

**Hiri Kontserbazioa eta Proiektuak**

Zuzendaria: Cristina Arregui Gonzalo
Idazkari teknikoa: Javier Barace Egaña

**Herritarren Segurtasuna eta Elkarbizitza**

Zuzendaria: Xabier Ibáñez Sagardoi

Idazkari teknikoa: Eva Etxarri Osinaga

**Ogasuna, Merkataritza eta Turismoa**

Zuzendaria: Gerardo Hurtado Jáuregui
Idazkari teknikoa: Maite Catalán Oiz

**Giza Baliabideak**

Giza Baliabideetako Zuzendaria: Íñigo Anaut Peña
Idazkari teknikoa: Arantxa Campo Mayo

**Hirigintza eta Etxebizitza**

Zuzendaria: Vicente Taberna Irazoqui

Idazkari teknikoa: Fermín Bacaicoa Barno

**Hiri Ekologia eta Mugikortasuna**

Zuzendaria: Camino Jaso León
Idazkari teknikoa: Carlos Eguizábal Villanueva

**Alkatetza Kabinetea, Protokoloa eta Komunikazioa (Alkatetza)**

Alkatetza Kabinetea: Olaia Aldaz Fueyo
Protokoloa eta Irudi Instituzionala: Amaia de Esteban Garbayo
Komunikazio Baliabideak: Alberto Gil Pérez Nievas

**Hirigintzako Gerentzia**

Zuzendari Kudeatzailea: Vicente Taberna Irazoqui

**Hiria Zaharberritzeko Bulegoa**

Zuzendaria: Alberto Calvo Azagra

**Haur Eskolen Erakunde Autonomoa**

Gerentea: Alfredo Hoyuelos Planillo

**ANIMSA**

Gerentea: Txema Aguinaga Pérez

**Iruña Biziberritzen sozietatea**

Gerentea: Alberto Calvo Azagra

**Mercairuña**

Gerentea: José Ángel Momparler Sola

**Comiruña**

Ahalordeduna: Gerardo Hurtado Jaúregui

**Auzo-zinegotzitzak**

| ZINEGOTZI ORDEZKARIAK | AUZOA |
|---|---|
| Patricia Perales Hurtado | Arrotxapea |
| Artiz Romeo Ruiz | Sanduzelai, Etxabakoitz |
| Joxe Abaurrea San Juan | Txantrea |
| Maider Beloki Unzu | Erripagaña-Beloso-Bidezar, Mendillorri |
| Itziar Gómez López | Bigarren zabalgunea, Alde Zaharra |
| Esther Cremaes Mayorga | Donibane, Ermitagaña – Mendebaldea |
| Javier Leoz Sanz | Lezkairu – Santa María la Real, Milagrosa Arrosadia, Azpilagaña |
| Iñaki Cabasés Hita | Iturrama |
| Mikel Armendáriz Barnechea | Buztintxuri |

# UDAL-ANTOLAMENDUA

## 3. TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Joseba Asiron Saez (presidentea)
Joxe Martin Abaurrea San Juan (idazkaria)
Aritz Romeo Ruiz
Patricia Perales Hurtado
Maider Beloki Unzu
Itziar Gómez López
Esther Cremaes Mayorga
Mikel Armendáriz Barnechea
Javier Leoz Sanz

## 4. BATZORDEAK

| IZENA | IZAERA |
|---|---|
| Lehendakaritza | Arrunta |
| Herritarren Aferak | Arrunta |
| Hirigintza | Arrunta |
| Kontuak | Berezia |
| Kontratazioak zaintzekoa | Berezia |
| Iradokizunak eta erreklamazioak | Berezia |

# 5. UDAL-ERAKUNDE AUTONOMOAK

- Hirigintzako Gerentzia
- Haur Eskolak

# 6. UDAL-PARTAIDETZAKO ENPRESAK

| MENDEKO SOZIETATEAK (udal-partaidetzakoak) | |
|---|---|
| Comiruña SA | % 100 |
| Iruña Biziberritzen SA | % 100 |
| Asociación Navarra de Informática Municipal SA – ANIMSA | % 78 |
| Mercairuña SA | % 51 |

| UDAL-FUNDAZIOAK (estatutu juridiko berezi baten menpekoak) |
|---|
| Gayarre Antzokia Fundazioa |
| Erruki Etxea |

# 1.2.

# GOBERNU ORGANOAK

## IRUÑEKO BIZTANLERIA OSOA

2019ko abenduaren 31ko datuak.

| ADINA | GIZONAK | % | EMAKU-MEAK | % | GUZTIRA | % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 0tik 4ra | 4227 | 4,3 | 4230 | 3,9 | 8.457 | 4,1 |
| 5etik 9ra | 4837 | 4,9 | 4640 | 4,2 | 9.477 | 4,5 |
| 10etik 14ra | 5123 | 5,2 | 4775 | 4,4 | 9.898 | 4,7 |
| 15etik 19ra | 5471 | 5,5 | 5257 | 4,8 | 10.728 | 5,1 |
| 20tik 24ra | 5705 | 5,8 | 5883 | 5,4 | 11.588 | 5,6 |
| 25etik 29ra | 5757 | 5,8 | 5990 | 5,5 | 11.747 | 5,6 |
| 30etik 34ra | 6010 | 6,1 | 6313 | 5,8 | 12.323 | 5,9 |
| 35etik 39ra | 6927 | 7,0 | 7296 | 6,6 | 14.223 | 6,8 |
| 40tik 44ra | 7849 | 7,9 | 7821 | 7,1 | 15.670 | 7,5 |
| 45etik 49ra | 7938 | 8,0 | 8111 | 7,4 | 16.049 | 7,7 |
| 50etik 54ra | 7436 | 7,5 | 7990 | 7,3 | 15.426 | 7,4 |
| 55etik 59ra | 6931 | 7,0 | 7511 | 6,8 | 14.442 | 6,9 |
| 60tik 64ra | 5813 | 5,9 | 6802 | 6,2 | 12.615 | 6,1 |
| 65etik 69ra | 4981 | 5,0 | 6201 | 5,7 | 11.182 | 5,4 |
| 70etik 74ra | 4896 | 5,0 | 6259 | 5,7 | 11.155 | 5,4 |
| 75etik 79ra | 3751 | 3,8 | 5000 | 4,6 | 8.751 | 4,2 |
| 80tik 84ra | 2537 | 2,6 | 3900 | 3,6 | 6.437 | 3,1 |
| 85etik 89ra | 1772 | 1,8 | 3362 | 3,1 | 5.134 | 2,5 |
| 85etik 89ra | 651 | 0,7 | 1764 | 1,6 | 2.415 | 1,2 |
| 95etik 99ra | 148 | 0,1 | 526 | 0,5 | 674 | 0,3 |
| 99 baino gehiago | 14 | 0 | 86 | 0,1 | 100 | 0 |
| GUZTIRA | 98.774 | 100 | 109.717 | 100 | 208.491 | 100 |

## IRUÑEKO PIRAMIDEA 2019




| | |
|---|---|
| GUZTIRA | 208.491 |
| GIZONAK | 98.774 |
| EMAKUMEAK | 109.717 |

IRUÑEKO ETORKINAK

2019ko abenduaren 31ko datuak

| ADINA | GIZONAK | % | EMAKU-MEAK | % | GUZTIRA | % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 0tik 4ra | 648 | 4,7 | 683 | 4,9 | 1.331 | 4,8 |
| 5etik 9ra | 636 | 4,7 | 644 | 4,6 | 1.280 | 4,6 |
| 10etik 14ra | 570 | 4,2 | 523 | 3,7 | 1.093 | 4,0 |
| 15etik 19ra | 660 | 4,8 | 689 | 4,9 | 1.349 | 4,9 |
| 20tik 24ra | 1.200 | 8,8 | 1.333 | 9,5 | 2.533 | 9,2 |
| 25etik 29ra | 1.419 | 10,4 | 1.535 | 11,0 | 2.954 | 10,7 |
| 30etik 34ra | 1.680 | 12,3 | 1.800 | 12,9 | 3.480 | 12,6 |
| 35etik 39ra | 1.762 | 12,9 | 1.803 | 12,9 | 3.565 | 12,9 |
| 40tik 44ra | 1.565 | 11,5 | 1.278 | 9,1 | 2.843 | 10,3 |
| 45etik 49ra | 1.249 | 9,2 | 1.040 | 7,4 | 2.289 | 8,3 |
| 50etik 54ra | 815 | 6,0 | 846 | 6,1 | 1.661 | 6,0 |
| 55etik 59ra | 589 | 4,3 | 625 | 4,5 | 1.214 | 4,4 |
| 60tik 64ra | 388 | 2,8 | 507 | 3,6 | 895 | 3,2 |
| 65etik 69ra | 238 | 1,7 | 296 | 2,1 | 534 | 1,9 |
| 70etik 74ra | 100 | 0,7 | 179 | 1,3 | 279 | 1,0 |
| 75etik 79ra | 59 | 0,4 | 95 | 0,7 | 154 | 0,6 |
| 80tik 84ra | 43 | 0,3 | 60 | 0,4 | 103 | 0,4 |
| 85etik 89ra | 18 | 0,1 | 30 | 0,2 | 48 | 0,2 |
| 85etik 89ra | 3 | 0 | 6 | 0 | 9 | 0 |
| 95etik 99ra | 4 | 0 | 4 | 0 | 8 | 0 |
| 99 baino gehiago | 2 | 0 | 1 | 0 | 3 | 0 |
| GUZTIRA | 13.648 | 100 | 13.977 | 100 | 27.625 | 100 |

## IMMIGRANTEEN PIRAMIDEA 2019




| | |
|---|---|
| GUZTIRA | 27.625 |
| GIZONAK | 13.648 |
| EMAKUMEAK | 13.977 |

## IRUÑEKO BIZTANLERIA OSOA

2019ko abenduaren 31ko datuak

| | 2019 | % |
|---|---|---|
| Gizonak | 98.774 | 47,4 |
| Emakumeak | 109.717 | 52,6 |
| 0-14 urte bitarteko biztanleak | 27.832 | 13,3 |
| 15-64 urte bitarteko biztanleak | 134.811 | 64,7 |
| 65 urte eta gehiagoko biztanleak | 45.848 | 22,0 |
| Gazteria-tasa* | 34.063 | 16,3 |
| Mendekotasuna dutenen tasak ** | | 54,6 |
| Zahartze-indizea*** | | 164,7 |
| Atzerritarrak | 27.625 | 13,2 |
| BIZTANLEAK, GUZTIRA | 208.491 | |

* 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen ehunekoa, biztanleria osoan
** Biztanleria >65 urte + biztanleria >0-14 urte / 15-64 urte
*** Biztanleria >65 urte / biztanleria <0-14 urte

## IRUÑEKO BIZTANLERIA OSOA, AUZOZ AUZO

(2019ko abenduaren 31ko datuak)

| AUZOA | GIZONAK | EMAKU-MEAK | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| Azpilagaña | 3.623 | 3.928 | 7.551 |
| Buztintxuri - Euntzetxiki | 4.383 | 4.687 | 9.070 |
| Alde Zaharra | 5.544 | 5.911 | 11.455 |
| Zabalgunea | 12.004 | 14.206 | 26.210 |
| Ermitagaña - Mendebaldea | 8.018 | 9.209 | 17.227 |
| Etxabakoitz | 2.672 | 2.753 | 5.425 |
| Iturrama | 10.823 | 12.710 | 23.533 |
| Mendillorri | 5.394 | 5.681 | 11.075 |
| Milagrosa - Arrosadia | 8.647 | 9.510 | 18.157 |
| Arrotxapea | 12.811 | 13.521 | 26.332 |
| Sanduzelai | 6.128 | 6.223 | 12.351 |
| Donibane | 9.130 | 11.130 | 20.260 |
| Txantrea | 9.597 | 10.248 | 19.845 |
| GUZTIRA | 98.774 | 109.717 | 208.491 |

# 1.3.

# GOBERNU ORGANOAK

## OSOKO BILKUR

Iruñeko Udalaren Osoko Bilkura alkateak eta 26 zinegotzi hautetsiek osatzen dute. Alkatea da bilkura-burua. Udalaren osoko bilkurak hil bakoitzeko lehen ostegunean egiten dira, 16:30ean. Abuztuan ez da osoko bilkurarik egiten. Osoko bilkurak jendaurrekoak dira; horrenbestez, nahi duen jende oro joan daiteke bilkuretara. Osoko bilkurak, gainera, Iruñeko Udalaren webgunearen bidez ematen dira (www.pamplona.es), eta aurreko bilkurak kontsultatzeko aukera ere badago.

2019. urtean Udalbatza aldatu egin zen udal-hauteskundeen ondoren.

| BILKURAK | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Ohikoak | 9 | 11 | 11 | 10 | 9 |
| Bereziak | 8 | 4 | 6 | 5 | 14 |
| Konstituziogileak | 1 | - | - | | 1 |
| **GUZTIRA** | **18** | **15** | **17** | **15** | **23** |
| Hartutako erabakiak | 168 | 163 | 157 | 123 | 233 |

### I.- IZAPIDETUTAKO EDO ALDATUTAKO UDAL-ORDENANTZAK

| | |
|---|---|
| 6. ordenantza fiskalaren aldaketa, | 2019ko otsailaren 7ko Osoko Bilkura |
| okupatu gabeko etxebizitzen gaineko zerga arautzen duena | 2019ko otsailaren 7ko Osoko Bilkura |
| Iruñeko Udalaren eta haren sektore publiko instituzionalaren esparruan euskararen erabilpena eta sustapena arautzen dituen ordenantzaren hasierako onespena | 2019ko martxoaren 7ko Osoko Bilkura |
| Iruñeko Udalaren Berdintasuneko Ordenantzaren hasierako onespena | 2019ko martxoaren 7ko Osoko Bilkura |
| Bide publikoan kioskoak instalatzea arautzen duen ordenantzaren aldaketaren hasierako onespena | 2019ko martxoaren 7ko Osoko Bilkura |
| Iruñeko Zentro Komunitarioak arautzen dituen Ordenantzaren hasierako onespena | 2019ko apirilaren 4ko Osoko Bilkura |
| Iruñeko Zentro Komunitarioak arautzen dituen Ordenantzaren hasierako onespena | 2019ko maiatzaren 2ko Osoko Bilkura |
| Iruñeko Udalaren eta haren sektore publiko instituzionalaren esparruan euskararen erabilpena eta sustapena arautzen dituen ordenantzaren behin betiko onespena | 2019ko azaroaren 22ko Osoko Bilkura |
| Iruñeko Udalaren eta haren sektore publiko instituzionalaren esparruan euskararen erabilpena arautzen duen ordenantzaren hasierako onespena | 2019ko abenduaren 12ko Osoko Bilkura |
| 2020ko Ordenantza Fiskalak eta Prezio Publikoak Erregulatzen dituzten Arauetan izandako aldaketen behin betiko onespena | |

## II.- ALKATETZA

| BILKURAK | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Ebazpenak | 889 | 821 | 748 | 796 | 957 |
| Dekretuak eta xedapenak | 58 | 49 | 37 | 74 | 85 |
| Bandoak | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| **GUZTIRA** | **948** | **871** | **786** | **871** | **1.043** |

## III.- TOKIKO GOBERNU BATZARRA

| BILKURAK | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Ohiko bilkurak | 44 | 46 | 42 | 39 | 40 |
| Bilkura bereziak | 1 | - | 1 | - | |
| Presazko bilkura bereziak | 27 | 30 | 29 | 42 | 51 |
| **GUZTIRA** | **72** | **76** | **72** | **81** | **91** |
| Hartutako erabakiak | 584 | 552 | 594 | 690 | 857 |

## EBAZPENAK

2019an zehar eta bi Udalbatza ezberdinekin –maiatzaren 26an udal-hauteskundeak eta autonomia-erkidegokoak izan ziren–, zinegotzi ordezkariek eta Alorretako zuzendariek beren eskumeneko gaiak ebazten dituzte milaka ebazpenen bidez. Adibide ez zehatz gisa: Herritarren Segurtasunari buruzko 5.600, Zerbitzu Orokorrei buruzko 4.100, hirigintzari eta etxebizitzari buruzko 2.115 eta Kulturari eta Berdintasunari buruzko 870.

# 2.
# UDAL ANTOLAMENDUA

# 2.1.1.

# ALKATETZA

## EKITALDI INSTITUZIONALAK ETA PROTOKOLOA

Udalak honako ekitaldi instituzional hauetan parte hartzen du urtean zehar:

- Bost Zaurien funtzioa
- San Ferminen bezperak
- San Ferminen prozesioa
- San Ferminen Zortziurrena
- Batasunaren Pribilegioa
- Done Saturdi

### BISITA GIDATUAK UDALETXERA

Urtean zehar, 172 taldek bisitatu dute udaletxea (ikastetxeetatik datoz gehienbat); hori horrela, herritarrei doan eskainitako zerbitzu horren bitartez, 4.547 pertsonak bisitatu dituzte udaletxeko aretoak.

Udalak kalitate-sistema bat ezarri du, gogobetetzeari buruzko inkesten bidez, bisitaren edukia, erreserba eta hartutako tratua neurtzeko, besteak be.

| URTEA | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| Talde kopurua | 124 | 145 | 147 | 172 |
| Pertsonak, guztira | 3.200 | 3.600 | 3700 | 4.547 |

### HARRERA-EKITALDIAK

2019an, alkatea buru izan den 22 harrera-ekitaldi egin dira, eta udalbatzak ere hartu du parte horietan.

| URTEA | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| Harrera-ekitaldi | 14 | 12 | 26 | 22 |

# KOMUNIKAZIO-ZERBITZUA

Iruñeko Udaleko Komunikazio Zerbitzuak 1.705 prentsa-ohar igorri zituen 2019an komunikabideetara, aurreko urtean baino % 10 gutxiago (1.891 udal-informazio igorri zituen orduan). Urrian 190 prentsa-ohar baino gehiago izan ziren eta martxoan, irailean eta azaroan 150 prentsa-ohar hilabete bakoitzeko. Kultura Alorrak eragin du prentsa-ohar gehien, igorritako informazioen heren bat baino gehiago zehazki.

Urtean, 198 deialdi baino gehiago egin zitzaizkien hedabideei, besteak beste ekitaldi, inaugurazio, erakusketa eta prentsaurrekoetarako.

| URTEA | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Prentsa-oharrak | 1.636 | 1.844 | 1.913 | 1.891 | 1.705 |
| Hedabideen deialdiak | 187 | 281 | 270 | 287 | 189 |

### SEINALE INSTITUZIONALAK

Komunikazio Zerbitzuak hedabideentzako garrantzitsuak diren ekitaldien seinale instituzionala antolatzen du, horien artean, 2019an, Osoko Bilkura Eratzeko saioa eta Alkatetzaren hautaketa (ekainaren 15ean) eta, urtero bezala 2007az geroztik, Txupinazoaren eta Gaixoa ni-ren zuzeneko ikus-entzunezko seinalea, Sanferminak hasi eta amaitzen dituzten ekitaldiak, hurrenez hurren.

### WEBGUNEA

2019ko otsailean Iruñeko Udalak webgune berria estreinatu zuen, aurrekoa, 2007koa, ordezten duena. Webgune berriak eduki, zerbitzu eta herritarrentzako errazagoak diren izapideak biltzen ditu, erabilgarritasuna bultzatze aldera prozedurak errazten dituen egoitza elektroniko berriari lotuta. Estetika eta diseinua ere berritu ditu. Webgunea responsive da, edozein gailutatik arazorik gabe ikus daiteke, eta edukiak berrantolatu zaizkio.

Udalak 180.000 euro inbertitu ditu webgune berrian eta egoitza elektronikoan; Hiberus Tecnologíak –horretarako deitutako prozedura publikoaren enpresa esleipendunak– egindako garapen teknologikora eta ANIMSAk egindako lanera bideratu da kopuru hori. Atari berria Drupal teknologia erabiliz gauzatu da, software libreko eta kode irekikoa den eduki-kudeatzailea, erabiltzaile-komunitate aktibo batek garatu eta mantendua.

Atari berriak Iruñeko Udalaren apustua mantentzen du A bikoitzeko erabilerraztasun-estandarrak betetzearen alde, eta lau hizkuntzatan dago: gaztelania eta euskara oro har, eta turismo-edukiak zein hiriari buruzko informazioa ingelesez eta frantsesez ere. Horretaz gain, sare sozialak ere barne hartzen ditu, erabiltzaileei edukiak partekatzea errazteko.

Webgune berriak emankizunen atala dauka eta prentsaurrekoak, osoko bilkurak eta batzordeak zuzenean ematen ditu; halaber, aurrez grabaturik dagoena ere ikus daiteke. Hala ere, akats informatiko bat dela-eta, ez daukagu 2019an izandako emankizunen kopuruaren daturik.

## IRUDI KORPORATIBOA

2019ko otsailean ere Iruñeko Udalaren logotipo berria aurkeztu zen. Logoak udal-armarria ezkerrean mantentzen du eta “Iruñeko Udala” hitzez laguntzen du, bi testutan, bata gaztelaniaz eta bestea euskaraz, marra gorri batek bereizita.

Hautatutako tipografia Poppins delakoa da, sans-serif mota geometrikoa, eta aurkeztutako aldaerak atzealde zuri, beltz eta koloredunen gainekoak dira.

## SANFERMINAK

Sanferminek erreferente mediatikoa eta informatiboa izaten jarraitzen dute. Mundu osoko 120 komunikabidetako 400 profesional grafiko eta kazetari baino gehiago etorri dira Iruñera 2019an, jaietako entzierroen berri ematera. Freelance argazkilariek, Estatuko zein nazioarteko agentziek, hainbat herrialdetako egunkariek, irratiek, zinema- eta telebista-ekoiztetxeek interesa agertu dute entzierroen inguruan. Iruñeko Udalak akreditatutako profesionalak hamar herrialde baino gehiagotatik etorri dira, horien artean: Estatu Batuak, Erresuma Batua, Frantzia, Mexiko, Alemania, Brasil, Errusia, Japonia, Kuba eta Hego Korea.

### 2019KO SANFERMINETAKO AKREDITAZIOAK: TXUPINAZOA, ENTZIERROA ETA GAIXOA NI

| | 2018 | | 2019 | |
|---|---|---|---|---|
| | Akreditatu kopurua | Hedabide kopurua | Akreditatu kopurua | Hedabide kopurua |
| Txupinazoa | 160 | 45 | 158 | 40 |
| Entzierroa | 400 | 130 | 402 | 121 |
| Gaixoa ni | 90 | 35 | 100 | 37 |

# 2.2.1.

# GOBERNU ESTRATEGIKOA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

## PLANGINTZA ESTRATEGIKOA

**Plangintza Estrategikoko Alorraren funtzio nagusietako bat Hiri Plan Estrategiko bat (2030 Estrategia) diseinatzea, egitea eta kudeatzea da, epe luzerako hiri-eredua, helburuak, jarduera-ildoak eta proiektu eraldatzaileak definitze aldera. Plangintza Estrategikoak, gainera, bertze zeregin batzuk ere baditu: Europako funtsen laguntzen deialdiak identifikatzea eta proiektuak prestatu, aurkeztu eta kudeatzea; zeharkako proiektuak bultzatzea; berrikuntza sustatzea; ikerketa soziologikoa egitea; eta kanpoko lankidetza kudeatzea.**

### 2030 ESTRATEGIA

2019an, Plangintza Estrategikoak 2030erako Estrategia egiteko prozesuarekin jarraitzen du. Bertze ekintza batzuen artean, 10 gai kritiko eta 7 balio horizontal identifikatu dira, hiriaren diagnostiko estrategikoa egin da, egoera posibleak aztertzeko analisi bat egin da, eta karga estrategikoaren koadernoa taxutu da: 2030 Estrategiaren misioa, ikuspegia eta balioak, eta 29 helburu estrategiko. Hauek dira bost dimentsio orokorrak: «Iruña berdea, ekologikoa eta klimarekin konprometitua», «Iruña sozialki inklusiboa», «Iruña, kudeaketa publiko berritzaile eta integralarekin», «Iruña sortzaile eta kulturala, turismo jasangarriarekin» eta «Iruña berritzailea, jakintzaren ekonomiarekin». Prozesuak 2020-2030eko aldian aurrera egingo du, proiektuak identifikatu eta hautatuta.

### EUROPAKO PROIEKTUAK. IKUSPEGI OROKORRA

2019an, Plangintza Estrategikoak laguntza eskaini die udal-alorrei, Europako bertze hiru proiektu onesteko bidean: POTEnT (INTERREG EUROPE), trantsizio energetikoari buruz; CLARA (REC), gorroto-delituen, arrazismoaren eta xenofobiaren kontra; eta CORE (INTERREG POCTEFA), hurbileko merkataritza-sektorearen digitalizazioaren gainean. Halaber, aurreko urteetan hasitako bertze batzuen kudeaketarekin jarraitu da; hau da, STARDUST, CREACITY, JACOB@CCESS, KINTOAN BARNA, SPAGYRIA eta MAKING SPEND MATTER.

Hona hemen Europako proiektuen kudeaketa-adierazleak:

- 2019an proiektuak gauzatzearekin loturiko gastuak: 694.912,19 €. Espero da Europako baterako finantzaketa bidez 585.330,95 € eskuratzea, programa bakoitzerako ezarritako epeen arabera.
- 2019an, Europako dirulaguntzetatik 172.895,17 € jaso dira (eta gehienak aurreko urteetako gastu-aitorpenei dagozkie).
- Aurkeztutako 5 proposamenetatik 3 onetsi dira (% 60): POTEnT, CLARA eta CORE. Horretaz gainera, laurdenak ebaluazio-prozesuan daude.
- 2018an, 6 proiektu zeuden garabidean; 2019an, berriz, 9.
- 2019an onetsitako proiektuen aurrekontua: 343.508,26 €; horietatik % 77 EBk kofinantzatuak dira (265.747,72 €).

## STARDUST

Europako H2020 SCC1 programak kofinantzatuta, hiri adimendunei buruzko hiru proiektu pilotu egin dira hiru hiritan: Iruñeak, Trentok eta Tamperek parte hartuko dute, eta bertze hiri batzuetara transferitu beharko dituzte emaitzak (hiri jarraitzaileak). Iruñea da tokiko partzuergoko burua, proiektu pilotua garatzeko zenbait erakunderekin batera.

2019an, energiaren gaineko neurriak gauzatu ziren nagusiki, hala nola estalki fotovoltaikoa Iratxeko monasterioan eta sare adimenduna, beroa berreskuratzea datuak prozesatzeko zentroan(DPZ) eta fotolinera; halaber, urtearen amaieran bertze neurri batzuk ere hasi ziren, hala nola mugikortasun-neurriak (ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak, azken miliako plataforma eta bizikletentzako txandakako aparkalekuak), ingurumen-hezkuntza (gaming app), teknologia (hiri-plataforma) eta hiri-kontserbazioa (argi adimendunak). Gainera, barneko lanak eta sei hilean behingo bi jarraipen-txosten egin dira.

## CREACITY

Plangintza Estrategikoak Udalari dagozkion kudeaketa-funtzioak garatu ditu, proiektuko buru nagusi den aldetik (bileren kudeaketa; harremanak POCTEFAko idazkaritzarekin; ekintza guztien egitekoak gainbegiratzea; txostenak; gastu-adierazpenak, eta abar). Horretaz gainera, barne-koordinazioa egin du Kultura, Turismo, Proiektu eta Obra, Komunikazio eta Ogasuneko alorrekin.

Proiektua 2019ko martxoan amaitu da, eta, ondoren, itxiera ekonomikoa, jarduera-txostenak eta adierazleak landu dira. Proiektuaren lehen bi urteetako ordainketen diru-sarrera kudeatu da. 2019a amaitzean, proiektuaren azken ordainketa jasotzeko zegoe.

## JACOB@ACCESS

Ultreia zentroak 2019ko martxoan ireki zituen ateak, eta Planeamendu Estrategikoak lankidetza eskaini zuen Iruñean horretarako antolatu ziren hainbat ekitalditan. Proiektua 2021eko martxora arte adostutako hedadurara egokitu da (bazkide baten exekuzioan izandako atzerapenen ondorioz). Lehen bi urteetako ordainketen sarrera kudeatu da, eta 2019a ixtean jasotzeko zegoen hirugarren ordainketa.

## KINTOAN BARNA

Proiektuaren ardatza Donibane Garazi-Iruña ardatzaren dinamizazio sozioekonomikoa da, Kintoko oihanaren bidez eta turismoa dinamizatzeko estrategia partekatuak baliatuz; Eugiko Kontzejuak koordinatzen du. 2019an, turismo-produktua garatzeko komunikazioa landu da. Horretarako, lan-bileretan parte hartu da Turismo alorrarekin lankidetzan.

## SPAGYRIA

Spagyria proiektua, kosmetiko ekologiko eta osasungarrien negozio-lerro bat garatuta, desgaitasunen bat dutenen enplegua hobetzera bideratuta dago. 2019an, Iruñeko Udalaren ahaleginak izan dira Arantzadiko meandroan ziurtatutako lursail ekologiko baten proiektua abian jartzea eta negutegi-lehortegiaren azpiegitura egitea (abenduan amaitu zen). Plangintza Estrategikoak egikaritze-proiektuaren alderdiak berriz diseinatzen lagundu du, eta Hirigintza Gerentziarekin eta CTPrekin lan egin du Elkarkideri lagapen-eredua ezartzeko.

### MAKING SPEND MATTER

Proiektu hau Ingalaterrako Preston hiriko jardunbide egoki batean dago oinarrituta, eta helburua da gastuaren azterketa erabiltzea kontratazio publiko estrategikoa bultzatzeko tresna gisa, tokiko ekonomia, berdintasun soziala, ingurumena eta bizi-kalitatea hobetzeko. 2019an amaitu da 2015etik 2018ra bitarteko udal-gastu publikoaren azterketa. Urtearen amaieran, urteko gastua justifikatu zen, eta ikuskapenaren zain geratu zen 2020. urtearen hasierarako.

### POTEnT

Proiektu honen helburua da 2023rako aurreikusitakoa baino % 10etik gorako karbono-murrizketa lortzea, eta, horretarako, agintari publikoek energia-zerbitzuak hobeto eskaintzea lortu nahi da. 2019ko apirilean hasi zen eta, hainbat bilera egiteaz gainera, tokiko partzuergoa sortzen hasi da (local stakeholders group).

### CLARA

Helburu nagusia da tokiko agintariek, udaltzainek eta komunitateek istilu arrazistak eta xenofoboak prebenitzeko, identifikatzeko eta borrokatzeko dituzten gaitasunak hobetzea. Beste horrenbeste hirietan bizikidetza baketsua mehatxatzen duten diskurtso eta gorroto-delituekin ere. Hori guztia ikas-komunitateen (CLAPS) bidez garatzen da, delitu hauen biktimendako jarraipen- zein babes-eredu batez osatua, Europako toki-esperientzietan ikasitakoa gehitu, eta sorturiko produktu eta emaitzak helarazita. Proiektua irailean hasi zen, eta Plangintza Estrategikoa Poliziari laguntza emanez ari da proiektua lantzen.

### Iruña Hegoaldeko EDUSI

Iruña Hegoaldeko Hiri Garapen Jasangarri eta Integratuko Estrategia (EDUSI) 2016an egin zen, eta EEGF funtsen laguntza-deialdi batera aurkeztu zen. Onetsi ez bazen ere, Udalak EDUSI gauzatzeko bost urteetan (2017-2021) 2,5 milioi euro inbertitzeko konpromisoa hartu zuen. Helburu hauek ditu errandako estrategiak: Azpilagaña, Milagrosa eta Santa María la Real auzoak eraberritzea ikuspegi integratu eta parte-hartzaile baten bidez. 2019an, Plangintza Estrategikoak DUSI estrategiaren koordinazio tekniko eta administratiboan ziharduen lanean, udal-sailekin batera lankidetzan.

## UDALAREN INFORMAZIO GEOGRAFIKOKO SISTEMA

Udalaren Informazio Geografikoko Sistemak Iruñeko Udalaren jabetzako informazio asko modu geoerreferentziatuan eta mapa batean integratuta aurkezteko beharrari erantzuten dio. Informazio Geografikoko Sistema datuak prozesatzeko sistema bat da, informazio geografikoa (elementuen kokapen espaziala) eta alfanumerikoa (elementu horien deskribapena) modu integratuan tratatzen dituena, gardentasuna bultzatuz eta Open Data areagotuz. 2019an, tresna horren erabilera finkatu zen, eta, mantentze-kontratu bidez, aldian-aldian eguneratu zen bisoreen geruzei buruzko informazioa. Udalaren webgunean berariazko gune bat sortu da, eta Fiwareko datu irekien estandarren araberako datuak normalizatzeko proiektu bat garatu, BIarekin eta Hiri Plataformarekin errazago integratzeko. OGC zerbitzuak argitaratu dira, fitxategi baten formako mapak dinamikoki ematen dituztenak, eta bisoreen barruko funtzionalitateak zabaldu dira, API SITNAk eskaintzen duen gehieneko potentzialtasuna lortzeko. Gainera, Planeamendu Estrategikoak hainbat forotan parte hartzen du, hala nola SITNA Batzordean, IRUSKANen partekatzeko eta zabaltzeko jardunaldietan, Nafarroako Gobernuarekin eta Iruñerriko Mankomunitatearekin egindako topaketetan, eta abarretan.

## SOZIOLOGIA – HIRI-BEHATOKIA

Plangintza Estrategikoaren eginkizunetako bat da hiriari buruzko informazio garrantzitsua biltzea, aztertzea eta argitaratzea, hiri-estrategiaren diagnosiak eta jarraipena egin ahal izateko. Ildo horretan, 2019an, biztanleriaren piramideen eta kale-izendegiaren lauhileko eguneratzeak egin dira, eta barne-ordenako txostenak eta diagnostikoak ere gauzatu dira lankidetzan (zainketen egoera Iruñean, adinekoen auzoak eta Arrosadia auzoko erromanien diagnostiko soziala). Era berean, gogobetetasun-inkesta bat egin da 010 zerbitzuaren eta Udaleko Herritarren Arretarako Bulegoaren artean, eta Udaleko gizarte-zerbitzuetako lehen mailako arreta-ereduak ebaluatzeko oinarriak zehaztu dira.

2019an, Hiri Behatokiaren proiektua garatzen jarraitu dugu. Leiho ireki bat da, azterketara bideratua, eta, horretarako, informazio egokia eta adierazleak eskuratzen ditu, eta gogoeta egiten haiei buruz. Era berean, informazioa sortzen duen tresna bat izan nahi du, eragile sozial, publiko eta pribatuei ezagutzaz elikatzeko aukera emango diena, plangintza estrategikoa, egikaritzea, jarraipena eta ebaluazioa errazteko.

# MERKATARITZA

## MERKATARITZA DINAMIZATZEKO ETA SUSTATZEKO KANPAINAK

**2018-2019KO EGUBERRIAK.** Kanpainaren bigarren zatia amaitzea. Animazio- eta dinamizazio-jarduerak hiriaren erdigunean eta auzoetan, guztiak ere jendea hiriko merkataritza-ardatz nagusietara joan dadin.

**STOCKAREN AZOKA 2019.** Iruñeko merkatarien elkarteek antolaturik, zerbitzuak laguntza eskaini du Stockaren XIII. Azoka egiteko, ekitaldiaren berri emanez eta zabalpena gauzatuz.

**«HEMEN EREINDA, NEU ERE HAZTEN NAIZ», BERTAKO MERKATARITZARI LAGUNTZEKO PROGRAMA.** Alorrak tokiko merkataritzan kontsumitzeak duen garrantziari buruzko komunikazio-kanpaina bat egitea erabaki du, mahai teknikoaren iritziak jaso ondoren. Izan ere, mahai teknikoa ados agertu da tokiko merkataritzaren irudi-kanpaina abiarazteari dagokionez. Zenbait publizitate-euskarri baliatu dira, eta udaberri osoan zehar iraun du.

**LIBURUAREN ETA LOREAREN EGUNA.** Urtero, apirilaren 23an egiten den moduan, Liburuaren Mundu Eguna ospatzeko, Iruñeko 15 liburu-dendak, % 10eko deskontuak eskaintzeaz gainera, 4.000 lore banatu dituzte Karlos III.ak eta Orreaga etorbideak bat egiten duten tokian, Liburuaren eta Lorearen XII. Egunean. Berrikuntza gisa, arloak bat egin du Lorategien Udal Zerbitzuak bultzatutako «Iruña loretan» kanpainarekin, eta liburuak saltzeko agertokian mosaiko bat egin da landareekin. Ekintzaren bigarren zatiak landareetako bat eramateko aukera ematen die herritarrei euro sinboliko baten truke, eta bildutako dirua Nafarroako Ospitaleguneari ematen dio Diego de Haro Liburuzainen Elkarteak liburutan.

**MERKATARITZAREKIN, HIRIA, HIRIAGO.** Ekain osoan, jende guztiarendako jarduerak eskaini ziren, hala nola kaleko atrakzioak, haurrendako lantegiak, sustapen bereziak, antzerkia eta musika. Alde Zaharrean, jada ohitura bilakatu den «Gau Zuri Gorria» ekitaldia egin zen; hau da, ia 100 saltokik moda-desfileak, lantegiak, erakusketak, kalejirak, dastatzeak, kontzertuak eta deskontu bereziak eskaini zituzten, eta zabalik egon ziren gaueko hamarrak arte.

Hiriko bederatzi merkatari-elkarte elkarlanean jardun ziren Iruñeko Udalarekin, 5 asteburutan jarraian jarduera guztiak abian jartzeko, eta, hala, haien merkataritza-guneak animazioz eta edukiz bete ziren.

**SAN FERMÍN.** Merkataritza Zerbitzuak mahai teknikoan proposatu du merkatariek bat egin dezatela Iruñeko Udalaren kanpaina orokorrarekin, sanferminetako eraso sexisten aurka borrokatzeko, erakusleihoak erabiliz. Martín Azpilcueta merkataritza-guneak egiten du jarduera hori.

Nafarroako tokiko ekoizleen elkarteekin ere sinatu da hitzarmena (Artisau Elikagaien Ekoizleen Elkartea, Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseilua eta Reyno Gourmet), Orreaga etorbideak eta Karlos III.ak bat egiten duten tokian Nafarroako produktu adierazgarrienen erakusketa eta saltokia paratzeko.

**HIRU BURGUEN ERDI AROKO AZOKA.** Batasunaren Pribilegioa ospatzeko ekitaldien barruan, irailaren 6an, 7an eta 8an 120 postu paratzen dira Alde Zaharreko kale nagusietan. Erdi Aroko Iruñeko bizimodua, oro har, eta merkataritza, bereziki, erakusten duen ekitaldi horretan, antzinako lanbideen erakustaldiak, antzezpenak eta kaleko musika ere izaten dira.

**ENSANCHE LA NUIT.** 2019an jarduera horrek hamargarren aldia izan du, eta aurreko urteetako gaiei keinu egin die. Urriaren 4an jarduera programa bat antolatu zen, jendea merkataritza-gunera hurbil zedin, eta udazken-negu denboraldiko nobedadeak ezagutarazteko. Animazio-jarduerekin batera (musika, gastronomia, artea eta moda), Zabalguneko argazki zaharren erakusketa izan da ikusgai..

**TOKIKO PRODUKTUEN IV. ASTEA.** Urriaren 10, 11, 12 eta 13an egin zen ekitaldiaren laugarren aldia. Hori horrela, tokiko produktuen merkatuan eta prestakuntzan jarri da arreta, lantegi, erakustaldi, elkarrizketa eta hitzaldiak programaturik. Gazteluko plaza ia 50 ekoizleren topagune izan da, eta kontsumitzaileak, bezeroak eta, oro har, bertako produktuei buruz gehiago jakiteko interesa duen publikoa erakarri du. Salmenta eta topagune honen osagarri, Arantzadi eta Magdalenako baratzeetako bisita gidatuak eta Nafarroa osoko txangoak izanen dira, «Udazkeneko esperientziak» izenpean.

**Editoreen II. Azoka.** Gobernu Estrategiko, Merkataritza eta Turismo Alorrak berrargitaratu egin du Nafarroako Editoreen Elkartearekin izenpeturiko hitzarmena, Sarasate pasealekuan azoka jartzeko. Hori horrela, hiriaren erdigunean espazio zabal bat lagako da, zeina argitaletxeen eta, oro har, liburu-sektorearen arteko topagune izanen baita.

**EGUBERRIETAKO KANPAINA 2019-2020**

**EGUBERRIETAKO ARGIAK.** 2019/2020ko argiztapen-kontratua Kordobako Iluminaciones Ximénez SA enpresari esleitu zaio, zeinak proposamen desberdin bat aurkeztu baitu, formari eta koloreei dagokienez. Kontratu horren berritasuna da Udalak sorkuntza libreko espazioak aurkezteko eskaera egin duela, hiriko gune nagusien garrantzia sustatzeko (Udaletxe plaza, Gazteluko plaza, Karlos III.a eta abar).

**EGUBERRIETAKO DEKORAZIOA SALTOKIEN ATARIAN.** Alde Zaharreko eta Zabalguneko hainbat tokitan zuhaixken eta dekorazio-irudien banaketa handituz joan da urtez urte, eta, horrela, hiriko eremu gehiagotara iritsi da. Berrikuntza gisa, 2019-2020ko kanpainan Iruñeko merkatarien elkarteekin akordio lortu dugu, dekorazio-figuren inbentarioa, banaketa eta bilketa egiteaz arduratzen den enpresaren zuzeneko solaskideak izan daitezen. Gobernu Estrategiko, Merkataritza eta Turismo Alorrak erakusleihoetarako kutxatxo apaingarrietarako 70 sorta eskatu ditu, apaingarrien parkea areagotzeko eta erabileraren poderioz hondatutako elementuak amortizatutzat emateko.

**EGUBERRIETAKO AZOKA.** Eguberrietako Azoka tradizionala, egurrezko etxola bereizgarriekin, Gazteluko plazan jarri da aurten ere. Azokan 27 eskulangile egoten dira, eta Eguberrietako jaiegunetan elikagaiak eta bertzelako produktuak erakusten eta saltzen dituzte. Azoka horrekin batera, bidezko merkataritzaren alde lan egiten duten erakundeei eskainitako espazio tradizional bat ere izaten da. Aurten, berritasun gisa, Udalak beste etxola bat, bigarrena, jarri du gobernuz kanpoko erakundeentzat, eta erakusleiho garrantzitsua izan da haientzat, herritarrei beren proiektuak eta produktuak erakusteko.

**ANIMAZIO- ETA ATRAKZIO-GUNEAK.** Argiekin eta zuhaitz erraldoi, iturri eta halako elementuekin hiria dotoretzeaz gain, saltokiak ere apaintzen dira, eta Eguberrietako protagonista bihurtzen dira. Horretaz gainera, Gobernu Estrategiko, Merkataritza eta Turismo Alorrak Eguberrietako opor guztietarako programazio berezi bat egiteko lana hartzen du bere gain, batez ere haurrei eta, ere berean, familiei zuzendurik.

Iruñeko erdigunean hiru puntu finko nabarmentzen dira, hainbat jarduera eskaintzen dituztenak.

- Sarasate pasealekua: Gune horretan bi berrikuntza handi egon dira Eguberrietako kanpaina honetan: elur artifizialeko txirrista bat, 8 metro garai, eta 200 m2 karratuko izotz artifizialeko pista bat. Bi atrakzioek erantzun ona izan dute ikusleen aldetik, bai helduen artean, bai haurren artean.
- Gazteluko plaza. Udalak jarduera eta promozioen karpa handi bat paratu du aurten ere, Alde Zaharreko Merkatarien Elkartearekin elkarlanean. Guneak 300 m2 ditu, eta bi astez hainbat entretenimendu-jarduera egiten dira bertan, batez ere haurrentzat.
- Karlos III.ean, San Fermin eta Tafalla kaleen artean, Iruñeko Udalaren jardueren karpa paratzen da, Zabalguneko Merkatarien Elkartearekin elkarlanean. Orotara, 225 m2 karratuk hartzen dute «Ongi etorri Ipar Polora» izeneko ekitaldi tematikoa, haurrentzako jolas- eta fantasia-gune zabala.

Halaber, auzoek animazio- eta dinamizazio-jarduerak ere izan dituzte 2019-2020ko Eguberrietako kanpainan zehar (txokolate- eta gaztaina-jana, musika, ipuin-kontalariak, photocall espazioa, zaldiko-maldikoak, tren turistikoak eta rokodromoak).

**EGUBERRIKO PASEO GOZOAK.** Jarduera finkatua da, eta historia, kultura eta dastatzeak uztartzen ditu, gozogintzan espezializatutako saltoki tradizionaletan. 2019an Pastas Beatriz eta La Turronería etxeek parte hartu dute, eta Cerería-Confitería Donezar etxeak ere bai lehen aldiz.

# SANTO DOMINGOKO, ZABALGUNEKO ETA ERMITAGAÑAKO UDAL-MERKATUAK

**Iruñeko Udalak eta Santo Domingo, Zabalgune eta Ermitagañako udal-merkatuek hainbat ekintza egiten dituzte urte osoan, eta horietako batzuk jada finkatuta daude ekitaldien egutegian. Produktua ez ezik, udal-merkatuen marka ere sustatu nahi da produktu eta elikagai freskoen, hurbilekoen eta kalitate egiaztatuen erreferente gisa.**

**Urtarrila:** Hiru udal-merkatuetan irabiaki osasungarriak egitea eta dastatzea, nutrizionista baten esku-hartzearekin. Nutrizionista horrek, dastatzeaz gain, elikadura-ohitura onei buruzko aholkuak ematen ditu.

**Otsaila:** San Valentin ospakizuna txokolate eta fruitu-brotxetekin eta azoketako salmentekin, fruta eta barazki saskien zozketa.

**Martxoa:** Merkatuen erruleta 2009an abian jarritako sustapen-ekintza bat da, zeinaren bidez herritarrek postuetako ehunka produkturen zuzeneko zozketan parte hartzen baitute, merkatuan erosteagatik. 2019an, ekintza urtean behin bakarrik egin da, goizez.

**Apirila:** Liburuaren Eguna. «Berrerabili, trukatu, partekatu istorioak» izenburupean, bertze jarduera bat egin da hiru udal-merkatuetan, eta lehendabizikoz erabaki dute Letren Nazioarteko Egunarekin bat egitea (apirilak 23), liburuei eskainitako txoko batekin. Bezero eta bisitariei espazio horretan liburuak uzteko eskatu zaie, eta apirilaren 23an trukea egin zen. Hiru merkatuek ontzat jo dute ekitaldia, eta hurrengo urteetan irakurketaren txokoa mantentzea erabaki da.

**Maiatza:** Iruña loretan. Lorategietako teknikariek bultzatutako udal-programaren barruan, «Iruña loretan» izenarekin, hiru udal-merkatuetan apaingarri bereziak antolatu dituzte, postuetako elikagai koloretsuak (batez ere fruta eta barazkiak) eta lore eta landareak nahasian paratuz. MSD Paisajismo enpresak lorategi bertikalak egin ditu hiru udal-merkatuetan, eta astebetez egon dira ikusgai.

Dastatu udaberria. Ekintza honek denboraldiko produktu izarrak omentzen ditu; kasu honetan, udaberriko barazkiak.

2019an, aurrekontua optimizatzeko, jarduera elkarte gastronomikoen eta Iruñeko lagunarteen esku-hartzearekin aurrera eramatea planteatu zen; izan ere, toki horietan oso presente daude sukaldaritza eta bertako produktuak. Hori horrela, ajoarrieroa, arkumea txilindron erara eta oilaskoa txilindron erara banatzen dira (750 errazio), jarduera mota honetan ohikoa den antolakuntzarekin:

Bezeroek euro bat ordaintzen dute (eguneko erosketaren txartelarekin) edo bi euro (erosi ez duenarentzat), eta pintxo bat eta Nafarroako ardo bat erosten dituzte. Bildutako dirua xede sozial baterako izaten da; oraingoan Nafarroako Gaixotasun Arraroen Taldearentzat izan da.

Elkarte hauek parte hartu dute: Oberena lagunartea (Zabalguneko merkatua), Txoko del Carnicero (Ermitagañako merkatua) eta Napardi elkarte gastronomikoa (Santo Domingoko merkatua).

**Ekaina:** Poltsa berrerabilgarriak banatzeko sustapen-kanpaina. Ekainaren 14an 10.000 poltsa berrerabilgarri banatzen hasten da hiru merkatuetako bezeroen artean. Poltsa tolesgarri eta kremaileradun horietako bat eskuratzeko, eguneko erosketa-tiketa aurkeztu behar da, eta inkesta labur bati erantzun, zeinaren helburua baita bezeroa eta bezero potentziala hobeto ezagutzea.

**Iraila:** Haurrentzako lantegiak eskolara itzultzeko kanpainan. Urtero bezala, garai horretan elikadura osasungarri eta orekatua izateko lantegiak programatzen dira; izan ere, errendimendu intelektual egokia behar izaten da ikasturte hasieran.

Udal-merkatuetako Sormen eta Komunikazioko I. Lehiaketa. Iruñeko ikastetxe guztiei proposatu zaie, baina ez da egin, ez delako behar beste izen-ematerik izan.

**Urria:** Dastatu Udazkena, eta perretxiko eta onddoen erakusketa. Nafarroako Ostalaritza Eskolako ikasleek lehen aldiz parte hartu dute jarduera horretan, eta emaitza oso ona izan da bai eskolarentzat, bai merkatuentzat eta Udalarentzat. Etorkizuneko ostalariekin eta sukaldariekin lankidetzan hasi gara, eskolak horrelako ekintzetan parte hartzen jarraitzeko interesa adierazi baitu. Jarduera perretxiko eta onddoen erakusketa tradizionalarekin osatu da, eta banatutako 750 pintxoekin bildutakoa Menudos Corazones elkartearentzat izan da, sortzetiko kardiopatiak dituzten adingabeei eta haien familiei laguntzeko erakundearentzat.

**Azaroa**: Gosariak merkatuetan. Astebeteko sustapen-ekintza (azaroaren 25etik 28ra), Eguberrietako erosketak bultzatzeko; ekimen horren bidez, postuetako erosketengatik (sektoreen arabera eta, beraz, gastuaren zenbatekoaren arabera), txokolate edo kafe bat eta miniatura bat gosaltzeko txartela ematen da.

**Abendua:** Egutegiaren banaketa. Guztira: 11.800 ale (6.000 Zabalguneko merkatuan, 4.000 Santo Domingoko merkatuan eta 1.800 Ermitagañakoan). Aurten 300 egutegi gehiago inprimatu dira, beren irudiarekin parte hartu zuten pertsona eta erakundeei emateko.

Sukaldaritza osasungarriko lantegiak haurrentzat Eguberrietan.

Eguberrietako dekorazioa merkatu bakoitzean, Udalaren materialekin.

# LAGUNTZA EKINTZAILEEI ETA ENPRESEI

DENDA NAIZ. Proiektuak bizkortzeko ekimen bat, negozio-ideia berritzaileak garatzen laguntzeko, Iruñean negozio bereizgarri berriak abian jar daitezen. 2019an, hautagaitzak jasotzeko epea amaitzean, eta, horren berri emateko ahaleginak egin ziren arren, sei eskaera jaso ziren, eskainitako gehieneko kopurua (20 plaza) baino txikiagoa. Hasieran, programaren edukia jasotako eskaeretara egokitu nahi izan zen, baina, eskatzaileekin hitz egin ondoren, ezetsi egin zen, parte-hartzaileen ordutegien bateraezintasunagatik, proiektu-premia desberdinengatik, eta bertze hainbat arrazoigatik. Horregatik erabaki zen, CEINekin bat etorrita, programa bertan behera uztea.

Programa bertan behera uzteko erabakia hartu ondoren, telefonoz deitu zitzaien eskatzaileei, bertan behera geratu zela jakinarazteko eta CEINen zerbitzuak eskaintzeko haien proiektua garatzeko euskarri gisa. Zehazki, bi pertsona joan ziren maiatzean azeleragailu-zikloetara, eta biek ere egina zuten azeleragailu-ikastaroa. Informazioa eman zitzaien, eta haien intereseko bertze lantegi batzuetan izena eman zitzaien; halaber, gogorarazi zitzaien banakako tutoretzen baliabidea zutela beren proiektuaren jarraipena egiteko.

BERRIKUNTZA MERKATARITZAN. DendaNaiz programaren egoera ikusita, Iruñean dagoen merkataritzari laguntzeko «Berrikuntza merkataritzan» izeneko programa abiaraztea proposatu da. Programa txikizkakoen munduak behar dituen aldaketak sartzera bideraturik dago, eskutik doazen bi kontzepturi dagokienez: bezeroaren esperientzia eta digitalizazioa.

Merkataritzak gaur egun dituen erronka nagusiak bezeroa hobeki ezagutzea eta haren portaera ulertzea dira, esperientzia pertsonalizatua eskaintzeko, eta, horretaz gainera, mundu fisikoa eta digitala erosketa-esperientzia bakar batean uztartzeko. Erronka horiek kontuan hartuta, gehienez 15 saltokirentzako programa bat zehaztu da, zeina maiatzetik azarora bitartean egin baita. 15 parte-hartzaile izan dira.

MERKATARITZARENDAKO JOEREN JARDUNALDIAK. Iruñeko merkatarientzat; helburua da parte-hartzaileei jakinaraztea, adibidez, tokiko merkataritzaren etorkizuneko joera eta aukerak, merkataritza-motibazioa eta sare sozialak, denda fisikoa sustatzeko. Aurten, Iruñeko dendentzako 13 jardunaldi programatu dira. Horietan, azken joerak aurkeztu dira, batez ere negozioen digitalizazioa sustatzera bideraturik. Ekimen honen bidez, Iruñeko merkatariei negozioak modernizatzeko, marketin digitalean sakontzeko eta salmentak hobetzeko tresnak eman nahi zaizkie. Aurtengo saioak bi seihilekotan banatu dira. Lehenengoan, moda salmentaz gainera, bertze hainbat gai ere landu dira, hala nola merkataritzaren eraldaketa aro digitalean, Facebook eta Instagram, bloga eta albiste interesgarriak, bezeroarekiko komunikazioa Mailchimp eta Whatsapp bidez, eta espazioaren errentagarritasuna. Irailetik aurrera, prestakuntza etengabea eskaini da, YouTubeko bideoak, e-commercea, erakusleihoak eta visual merchandisinga edota Amazoneko salmentak, bertzeak bertze.
Jardunaldi horiek Iruñeko Merkataritzako Plan Estrategikoan aurreikusitako neurrien parte dira, ekintzailetzaren eta lehiakortasunaren ardatzean.

2019an honako saio hauek antolatu dira:

Martxoak 4 (urriaren 4ra aldatua): «Moda saltzearen artea. Azken joerak», Cristina Navarlaz. 21 pertsonak parte hartu zuten.

Martxoak 11 eta 12: «Merkataritzaren eraldaketa aro digitalean», Aleix Vals (LiquiD). 20 lagunek parte hartu zuten.

Martxoak 25: «Egin publizitatea Facebook eta Instagramen», Juana Ciganda (Ciganda + Koch). 42 pertsonak parte hartu zuten.

Apirilak 8: «Nire lehen bloga, edo nola sortu albiste interesgarriak», Alberto Laiglesia (Ilune). 19 pertsonak parte hartu zuten

Apirilak 15: «Nola komunikatu bezeroarekin: Mailchimp, WhatsApp?», Alberto Laiglesia (Ilune). 17 pertsonak parte hartu zuten.

Maiatzak 20: «Atera ahalik eta errentagarritasun handiena zure espazioari», Amaya Lozano, Luks&Company. 16 pertsonak parte hartu zuten.

Ekainak 3: «Instagram nire saltokirako», Juana Ciganda (Ciganda + Koch). 23 pertsonak parte hartu zuten.

Irailak 23: «Instagram nire saltokirako», Juana Ciganda (Ciganda + Koch). 23 pertsonak parte hartu zuten.

Irailak 31: «Nola kargatu YouTuben», Ana López (Ilune). 8 pertsonak parte hartu zuten.

Urriak 7: «Niretzako modukoa da e-commercea?», Juana Ciganda (Ciganda + Koch). 17 pertsonak parte hartu zuten.

Urriak 21: «Visual merchandaising», Cristina Navarlaz. 17 pertsonak parte hartu zuten.

Azaroak 4: «Harritu Eguberrietako erakusleihoarekin», Amaya Lozano (Luks&Company). 19 pertsonak parte hartu zuten.

Azaroak 18: «Areagotu zure salmentak Amazonekin», Alex Saiz Verdaguer (Microapps). 17 pertsonak parte hartu zuten.

Guztira 246 lagunek parte hartu zuten.

IRUÑA, EKINTZAILE PROGRAMA: SORMEN-INDUSTRIAK, INDUSTRIA DIGITALAK ETA GIZARTE-BERRIKUNTZA.

2019an bi ardatzetan sakondu nahi izan da: batetik, sormen-industriek, digitalek eta gizarte-berrikuntzakoek eskaintzen dituzten aukeretan sakontzen jarraitzea eta, bertzetik, aukera horiek izaera soziala nola izan dezaketen ikustea, bai ekintzailetza-ereduari dagokionez, bai kudeaketa-mekanismoei dagokienez.

Horretarako, lehenik eta behin, merkatuko aukeretan eta joeretan sakondu da, jendeari irekitako eskola magistral batekin, sektoreko negozio-ideia, hizlari, ekintzaile eta ekintzaile garrantzitsuenak bilduz. Martxoan egin da, eduki honekin: Sormen-industrien aukerak, sektore honetan ekiteko interesa duten pertsonei, lehenik eta behin, egungo diagnostikoaren mapa bat eskaintzeko, eta sormen-industriak eta industria digitalak gure erkidegoan eta hortik kanpo nola dauden jakiteko; bigarrenik, ekintzailetzarako sortzen dituzten aukerak. Gainera, sektore honetan bidea ireki duten enpresa berritzaileen esperientziak entzun daitezke. Ezagutzarako eta gogoetarako jardunaldi bat da, adituen eskutik.

90 lagunek eta 8 hizlarik parte hartu dute.

Bigarrenik, ekintzailetza-programa bat, 20 pertsonari (8 gizon eta 12 emakume) jarrera eta gaitasun ekintzaileak aktiboki garatzen laguntzeko, eta pertsona horiek gaitzeko enpresa-ekimen berriak gidatzeko eta abiarazteko sektore horretan. Saioak irailetik azarora bitartean izaten dira.

# IRUÑEKO MERKATARITZAKO PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2021 (IMPE 2017–2021)

2017an, Merkataritzako Plan Estrategiko bat egitea erabaki zen, hiria Nafarroako merkataritza-buru gisa indartzeko, ekonomia eta enplegua sortzeko, Iruñeari lurraldean eskaintza anitza eta orekatua emateko, eta, azken batean, merkataritza lehiakorra, berritzailea, erakargarria, modernoa, kalitatezkoa, benetakoa eta bezeroengandik gertukoa lortzeko. Dokumentuaren xedea da funtsezko tresna izatea hirirako, sektorearen diagnostikoa egiteko eta erabakiak hartzeko egin daitezkeen ekintza eta politikei dagokienez. 2017an eta 2018an, Iruñeko Merkataritzako Plan Estrategikoa egin zen, Ikertalde Grupo Consultor SA enpresarekin batera, hura izan baitzen horretarako deitutako kontratazio-prozesuaren adjudikazioduna.

Merkataritzaren Plan Estrategikoa egiteak Iruñean merkataritza jardueraren esparrua xehetasunez aztertzea izan zuen helburu, bai eta auzo bakoitzeko eskaintza bertako eskariari nola doitu zehaztea eta plana bera antolaketa-plan gisa ezartzea, batetik, hiriaren erdialdea sendotuz eta sustatuz, eta, bertzetik, auzoetako merkataritza-eremu eta -ardatzak garatuz. Halaber, planak baliagarri izan behar zuen jarduketa-proposamen egokiak diseinatzeko merkataritza, enpresa eta turismoaren eremuetan, eta jarduketak zehazteko, halakoak non Udalak eman nahi duen merkataritza bizi eta dinamikoaren irudiarekin bat etorriko diren.

Iruñeko Merkataritzako Plan Estrategikoa (IMPE) bi lan-fasetan egin zen. Diagnostikoaren lehen fasea: zegoen informazioa optimizatzea, elkarrizketa-txandak egitea, sektorea zuzenean behatzea eta online ekarpenak egitea. Hori guztia mahai gainean jarrita, guztien artean hausnartzeko eta eztabaidatzeko. Bigarren fasea ekintza-planarekin lotuta dago, eta ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak aztertu zituen (AMIA). Hortik eratorri zen lehen zirriborro bat, eta berriro eztabaidatu zen lan-jardunaldietan eta online ekarpenekin, plana behin betiko egin arte.

IMPE hiru alderditatik partekatutako lanean oinarritu zen: alde batetik, Merkataritza Mahaia, planaren hausnarketa publiko-pribatuaren ardatz gisa; bertzetik, sektoreko eragileekin harreman zuzena eta partikularra izatea; eta, azkenik, proiektu honetarako sortu zen webgune bat, lan-esparru arin eta partaidetzari irekia.

2017-2021eko aldiko Iruñeko Merkataritzako Plan Estrategikoaren jarduketa-planak bost ardatz nagusi ezartzen ditu (Hiri-eremua, Bezeroa, Ekintzailetza eta lehiakortasuna, Asoziazionismoa suspertzea eta Gobernantza), 15 jarduketa-ildo eta 50 ekintza.

## MERKATARITZA-BISOREA – IRUSKAN

Iruñeari buruzko informazio geografikoa eskuratzeko IRUSKAN izeneko atarian, bi web-tresna berri jarri dira herritar guztien eskura: hiri-bisorea eta merkataritza-bisorea. Bisorea ekintzaileendako nahiz lehendik dauden jardueretarako tresna bat da, aukera ematen duena hiriko enpresa-ehunduran dauden jarduera ekonomikoei buruzko informazioa kontsultatu eta ikusteko, bai eta eskuratu daitezkeen lokalak aurkitzeko ere.

## IRUÑEKO MERKATARITZAREN MAHAIA

Merkataritzaren Mahaia bitan elkartu zen 2019an, apirilaren 30ean eta azaroaren 27an. Lehenengoan (apirilaren 30ean), honako gai hauek jorratu ziren: hileroko mahai teknikoak egitearen helburuaren azalpena, Merkataritzako Plan Operatiboari buruzko informazioa eta Plan Estrategikoaren edukiaren laburpena.

Era berean, dagoen aurrekontura egokitutako lan-plan bat aurkeztu da, ekintza nagusien laburpen batekin batera, ekintza horiek gauzatuz joateko.

2019ko bigarren Merkataritza Mahaian (azaroaren 27an) Ana Elizalde Merkataritza Alorreko zinegotzi berria aurkeztu zen, eta 2019-2020ko Eguberrietako kanpainarako aurreikusitako ekintzak hartu ziren gai nagusitzat.

# TURISMOA

**2017-2019ko aldirako Turismoko Plan Estrategikoan zehaztuta dago Turismo Zerbitzuaren jarduera. Plan horretan, lan-programak definitu ziren: gobernantza, lurraldearen egituraketa, helmugaren adimena, jasangarritasuna, turismo-produktuak eta marketina eta komunikazioa.**

## GOBERNANTZA

Programa honen helburua hiriko turismo-politika kudeatzeko sistema hobetzea da. Jarduerak:

TURISMO-SEKTOREKO ELKARTEENTZAKO LAGUNTZAK, 35.000 EUROKO GASTU BAIMENDUAREKIN. Laguntzen deialdi honek hiru jarduera-ildo ditu: batetik, dinamizazio turistikoko ekintzak; bigarrenik, sustapena; eta, hirugarrenik, produktu turistikoa sortzea. Berrikuntza gisa, dinamizazio-ekintzak sustatu ditu laguntza-deialdi berri honetan, bokazio eta erakargarritasun turistiko argiarekin. Gainera, turismo-produktuak sortzeko laguntza-lerroa indartu da, hirian paketatutako eskaintzaren presentzia hobetzeko. 7 erakunde aurkeztu dira 3.1 ekintza-lerrora (turismoa dinamizatzeko ekintzak); 6 erakunde 3.2 lerrora (sustapena); eta erakunde bat 3.3 lerrora (turismo-produktua sortzea). Guztira, 36 jarduera izan dira, eta 21.381,27 € banatu dira.

## HELMUGA EGITURATZEA

Programa honen helburua da Iruña helmuga gisa sendotzeko garatu beharreko alderdiak lantzea, hala nola helmugaren irudia hobetzea, fluxuen kudeaketa adimenduna, turismoaren ezagutza lantzea, turismoa teknifikatzea, inbertsio publikoaren eraginkortasuna eta jarduera turistikoaren inpaktu negatiboak identifikatzea eta kudeatzea (masifikazioa, zikinkeria, ordutegiak, alokairu turistikoak, zarata...). Ekintza hauek egin dira:

UDAL-ESKUMENEKO ARAUDI TURISTIKOA

- **Behin-behineko bizilekuaren erabilerari buruzko aldaketak onestea**: 2019ko azaroaren 19an, osoko bilkurak erabaki zuen Udal Planeko behin-behineko bizilekuaren erabileraren eta Barne Eraberritze eta Babeserako Plan Bereziaren aldaketak onartzea (2018/03/01ean eta 2018/02/08an argitaratuak, hurrenez hurren).
- **Iruñerriko turismo-ostatuen eskaintzaren jarraipen-txostena,** maiatzean eta ekainean eginikoa, zeinaren helburua baita Iruña helmugan arautu gabe dauden turismo-ostatuen eskaintza identifikatzea; ostatu horiek P2P plataforma nagusietan eskaintzen dira, San Fermin aurreko egunetan.
- **Prezio publikoak arautzen dituen 9. arau-aldaketa** merkatuko prezioen araberako tarifak ezartzeko eta PIC txartela erabiltzearen ondoriozko deskontuak ezartzeko.

SEINALEZTAPEN TURISTIKOA.
Hiriko interpretazio-seinale turistiko guztiak aldatu dira, Arrotxapeko igogailuan plano turistiko bat instalatu da eta norabide-seinaleen zati bat berritu da. Azkenik, norabide- eta kokapen-seinale batzuk erretiratu dira.

ULTREIA DONEJAKUE BIDEAREN INTERPRETAZIO ZENTROA ETA TURISMO BULEGOA.
Turismo Bulegoak lizitazioan jasotako eskuduntzekin jarraitzen du. Lizitazio horretan funtzio gehiago ematen dira komunikazioaren, merkaturatzearen eta PIC txartelaren sustapenaren arloan, eta horrek asko bultzatzen du zerbitzua, bai eta haren eraginkortasuna hobetu ere. Bestalde, martxoan Donejakue Bidearen Interpretazio Zentroa (Ultreia) ireki zenez, eta San Bartolomeko Gotorlekuko lanak ebazteko zeudenez, San Bartolomeko Gotorlekuko informazio-postua Ultreiara aldatu da.

2019an, aurrez aurreko tiketak (turismo-bulegoa) eta onlineko txartelak webgunearen bidez saltzeko sistema bat jarri da martxan..

IRISGARRITASUNA.
Jacob@ccess proiektuaren bazkide gisa, zeinaren helburua baliabide kultural-turistiko irisgarriak lantzea baita, Iruñeko Udalak, modu parte-hartzailean eta Koine Aequalitas fundazioarekin lankidetzan, Donejakue Bidearen Interpretazio Zentroa (Ultreia) jarri du abian. Zentroak 2019ko martxoaren 21ean ireki zituen ateak. Topaketak sustatu ditu erakunde eta profesional askorekin, jardunbide egokiak identifikatzeko eta proiekturako ekarpenak jasotzeko. Gainera, irisgarritasunaren arloko jardunbide egokien inbentarioan laguntzen du, bai eta bazkideek proiektu honen esparruan garatutako azpiegituretan landu beharreko gaiak eta elementu partekatuak hautatzen ere.

BERTZE HELMUGA batzuekiko sinergiak indartzea.
Donejakue Bideko Udalerrien Elkartea:  Turismo Zerbitzuak 2019ko otsailaren 22an elkarteak sustatutako mahai teknikoetan parte hartu du; horietan, halaber, administrazio autonomoetako teknikariek ere esku hartu dute. 2019ko urriaren 18an, elkarteko zuzendaritza-batzordea berritu zen, eta Enrique Maya Iruñeko alkatea hautatu zuten lehen presidenteorde.

# HELMUGA-ADIMENA

Programa honen helburua da Iruña helmuga adimendun bihurtzea, helmuga turistiko berritzaile gisa ulertuta, etengabeko eguneratze teknologikoko ezarpen egokiarekin, zeina, guztientzat eskuragarri izateaz gainera, iraunkorra izanen baita denboran.

TURISMOAREN BEHATOKIA
Honako puntu hauetan bildutako datuak aurkeztu dira:

1. Turismo Bulegoa.
2. Ultreia, Donejakue Bidearen Interpretazio Zentroa.
3. Jesus eta Maria erromes-aterpetxea.
4. Paderborne erromes-aterpetxea.
5. Autokarabanendako eremua.

TURISMO-BULEGOA
2019ko bisitari kopurua, guztira, aurreko urtekoa baino zertxobait handiagoa izan da. Nabarmentzekoa da nazioarteko bisitarien kopurua bereziki areagotu izana. Esan behar da aurten Turismo Bulegoak 2018an baino informatzaile bat gutxiago izna duela (4 lagun, 5 izan beharrean).

| | 2019 | 2018 | Aldakuntza |
|---|---|---|---|
| Bisitari nazionalak | 80.164 | 79.175 | +1,24% |
| Nazioarteko bisitariak | 49.644 | 47.334 | +4,88% |
| **GUZTIRA** | **129.808** | **126.509** | **+2,60%** |

Hileroko banakapenean, ikusten da bisitarien puntu gorena abuztua dela, baina esan daiteke goi-denboraldia uztailean hasten dela, eta irailera arte iraun; irailean ekainean baino bisitari gehiago izan da.

Era berean, nabarmentzekoa da otsail eta martxo bitartean gora egiten duela bisitarien kopuruak; horren arrazoia da batez ere Donejakue bideko erromesaldi-denboraldia martxoan hasi eta urrian amaitu ohi dela.

Maiatzean, ekainean eta urrian ere bisitari asko erregistratu ohi da; izan ere, bidaia-agentzien talde programatu ugari izaten dira hilabete horietan, bai eta Iruña bisitatzera etortzen diren pertsonak ere, batez ere kongresuen eta lan-arrazoien ondorioz.

| Hilabetea | 2019 | 2018 | Aldakuntza |
|---|---|---|---|
| URTARRILA | 1.703 | 518 | 2.221 |
| OTSAILA | 2.348 | 718 | 3.066 |
| MARTXOA | 4.488 | 1.214 | 5.702 |
| APIRILA | 7.765 | 5.042 | 12.807 |
| MAIATZA | 5.512 | 6.689 | 12.201 |
| EKAINA | 5.335 | 5.898 | 11.233 |
| UZTAILA | 10.689 | 6.819 | 17.508 |
| ABUZTUA | 19.202 | 9.110 | 28.312 |
| IRAILA | 8.255 | 8.172 | 16.427 |
| URRIA | 6.049 | 4.138 | 10.187 |
| AZAROA | 4.340 | 797 | 5.137 |
| ABENDUA | 4.478 | 529 | 5.007 |
| **GUZTIRA** | **80.164** | **49.644** | **129.808** |

ULTREIA, DONEJAKUE BIDEAREN INTERPRETAZIO ZENTROA
Zentroa martxoaren 21ean ireki da. Ezin da konparaziorik egin jende kopuruari dagokionez, duela gutxi ireki baita.

| | |
|---|---|
| Zenbat arreta egin diren | 2.659 |
| Bisitari nazionalak | 3.700 |
| Nazioarteko bisitariak | 2.566 |
| **GUZTIRA** | **6.266** |

Zentroko bisitarien hileko banakapenaren xehetasuna:

| | Zenbat jarduketa egin diren | Nazionalak | Nazioartekoak | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| URTARRILA | | | | |
| OTSAILA | | | | |
| MARTXOA | 146 | 256 | 21 | 277 |
| APIRILA | 380 | 618 | 206 | 824 |
| MAIATZA | 368 | 405 | 395 | 800 |
| EKAINA | 245 | 341 | 262 | 603 |
| UZTAILA | 218 | 289 | 283 | 572 |
| ABUZTUA | **456** | **609** | **526** | **1.135** |
| IRAILA | 308 | 248 | 410 | 658 |
| URRIA | 251 | 291 | 325 | 616 |
| AZAROA | 147 | 300 | 62 | 362 |
| ABENDUA | 140 | 343 | 76 | 420 |
| **GUZTIRA** | **2.659** | **3.700** | **2.566** | **6.266** |

JESUS ETA MARIA ERROMES-ATERPETXEA

Jesus eta Maria aterpetxe turistikoak 20.564 turista jaso zituen 2019an, horietatik % 99 erromesak. Horrek esan nahi du jaitsiera txiki bat izan dela aterpetxean ostatu hartu duten pertsona guztiekiko, 2018an 20.607 izan baitziren.

Aterpetxea urte osoan egoten da irekita; urtarrilaren 1etik 7ra, uztailaren 5etik 14ra eta abenduaren 24tik 31ra soilik ixten da.

PEREGRINOAK 2019. (20564)




Hilabetez hilabete, maiatzean eta irailean izan da jende gehien.




Aterpearen erabiltzaile guztien % 78 atzerritarrak dira (16.030), eta % 22 espainiarrak (4.534).

| ERROMESAK | 2019 |
|---|---|
| URTARRILA | 243 |
| ESPAINIARRAK | 32 |
| ATZERRITARRAK | 211 |
| OTSAILA | 412 |
| ESPAINIARRAK | 147 |
| ATZERRITARRAK | 265 |
| MARTXOA | 1.000 |
| ESPAINIARRAK | 238 |
| ATZERRITARRAK | 762 |
| APIRILA | 2.676 |
| ESPAINIARRAK | 550 |
| ATZERRITARRAK | 2.126 |
| MAIATZA | 2.987 |
| ESPAINIARRAK | 383 |
| ATZERRITARRAK | 2.604 |
| EKAINA | 2.571 |
| ESPAINIARRAK | 589 |
| ATZERRITARRAK | 1.982 |
| UZTAILA | 1.719 |
| ESPAINIARRAK | 495 |
| ATZERRITARRAK | 1.224 |
| ABUZTUA | 3.124 |
| ESPAINIARRAK | 949 |
| ATZERRITARRAK | 2.175 |
| IRAILA | 3.055 |
| ESPAINIARRAK | 464 |
| ATZERRITARRAK | 2.591 |
| URRIA | 1.835 |
| ESPAINIARRAK | 403 |
| ATZERRITARRAK | 1.432 |
| AZAROA | 700 |
| ESPAINIARRAK | 208 |
| ATZERRITARRAK | 492 |
| ABENDUA | 242 |
| ESPAINIARRAK | 76 |
| ATZERRITARRAK | 166 |
| **GUZTIRA 2019** | **20.564** |

PADERBORNE ERROMES-ATERPETXEA
Paderborne erromes-aterpetxeak 4.531 erromes jaso ditu 2019an (4.702 2018an). Herenak Alemaniatik etorriak.

| TAG | MRZ | APR | MAI | JUN | JUL | AUG | SEP | OKT | SUMME |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Australia | 4 | 12 | 10 | 10 | 4 | 3 | 13 | 6 | 62 |
| Brasil | 5 | 11 | 20 | 8 | 5 | 13 | 9 | 5 | 76 |
| Alemania | 100 | 232 | 262 | 128 | 132 | 186 | 244 | 149 | 1.433 |
| Ingalaterra | 9 | 17 | 22 | 10 | 12 | 12 | 29 | 10 | 121 |
| Frantzia | 10 | 31 | 53 | 67 | 68 | 55 | 60 | 46 | 390 |
| Italia | 17 | 60 | 68 | 55 | 65 | 98 | 69 | 31 | 463 |
| Herbehereak | 7 | 27 | 19 | 4 | 12 | 7 | 20 | 6 | 102 |
| Austria | 7 | 8 | 26 | 5 | 4 | 7 | 9 | 6 | 72 |
| Suedia | 1 | 10 | 14 | 11 | 7 | 5 | 11 | 4 | 63 |
| Suitza | 1 | 17 | 5 | 15 | 6 | 7 | 18 | 7 | 76 |
| Espainia | 25 | 46 | 20 | 54 | 74 | 87 | 54 | 42 | 402 |
| Hego Korea | 18 | 24 | 31 | 8 | 63 | 5 | 24 | 18 | 191 |
| AEB | 9 | 36 | 43 | 62 | 28 | 27 | 46 | 18 | 269 |
| Bertze batzuk | 54 | 93 | 123 | 130 | 98 | 105 | 135 | 73 | 811 |
| Guztira | 267 | 624 | 716 | 567 | 578 | 617 | 741 | 421 | 4.531 |

AUTOKARABANENDAKO EREMUA

Autokarabanen arloa % 22 inguru handitu da 2018. urtearekin alderatuta, bai eragiketei dagokienez, bai diru-bilketei dagokienez.

| AUTOKARABANEN APARKALEKUA. IRUÑA 2018. 2017ko uztail hasiera | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | DIRU-BILKETA | | | ERAGIKETAK | | | PLAZAK: 33 |
| | TELEPARK | KUTXAZAINAK + KRED. TXAR. | GUZTIRA | TELEPARK | KUTXAZAINAK + KRED. TXAR. | GUZTIRA | OCUPACIÓN |
| 2018ko urtarrila | 8,00 | 1438,00 | 1.446,00 | 2 | 145 | 147 | 14,37% |
| 2018ko otsaila | 40,00 | 1544,00 | 1.584,00 | 12 | 156 | 168 | 16,42% |
| 2018ko martxoa | 54,00 | 3556,00 | 3.610,00 | 11 | 332 | 343 | 33,53% |
| 2018ko apirila | 48,00 | 4830,00 | 4.878,00 | 7 | 475 | 482 | 47,12% |
| 2018ko maiatza | 74,00 | 5868,00 | 5.942,00 | 16 | 554 | 570 | 55,72% |
| 2018ko ekaina | 30,00 | 4808,00 | 4.838,00 | 2 | 457 | 459 | 44,87% |
| 2018ko uztaila | 48,00 | 10028,00 | 10.076,00 | 5 | 684 | 689 | 67,35% |
| 2018ko abuztua | 4,00 | 10.204,00 | 10.208,00 | 1 | 1029 | 1030 | 100,00% |
| 2018ko iraila | 12,00 | 7.294,00 | 7.306,00 | 6 | 709 | 715 | 69,89% |
| 2018ko urria | 20,00 | 6.302,00 | 6.322,00 | 1 | 602 | 603 | 58,94% |
| 2018ko azaroa | 16,00 | 3.774,00 | 3.790,00 | 1 | 360 | 361 | 35,29% |
| 2018ko abendua | 52,00 | 4.834,00 | 4.886,00 | 15 | 467 | 482 | 47,12% |
| GUZTIRA, 2018 | 406,00 | 64.480,00 | 64.886,00 | 79,00 | 5.970,00 | 6.049,00 | |

| AUTOKARABANEN APARKALEKUA 2019. IRUÑA. 2017ko uztail hasiera | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | DIRU-BILKETA | | | ERAGIKETAK | | | PLAZAK: 33 |
| | TELEPARK | KUTXAZAINAK + KRED. TXAR. | GUZTIRA | TELEPARK | KUTXAZAINAK + KRED. TXAR. | GUZTIRA | OCUPACIÓN |
| 2019ko urtarrila | 4,00 | 2.846,00 | 2.850,00 | 1 | 276 | 277 | 27,08% |
| 2019ko otsaila | 24,00 | 3.152,00 | 3.176,00 | 2 | 302 | 304 | 32,90% |
| 2019ko martxoa | 108,00 | 4.962,00 | 5.070,00 | 16 | 491 | 507 | 49,56% |
| 2019ko apirila | 48,00 | 7.248,00 | 7.296,00 | 8 | 716 | 724 | 73,13% |
| 2019ko maiatza | 64,00 | 6.258,00 | 6.322,00 | 11 | 574 | 585 | 56,11% |
| 2019ko ekaina | 130,00 | 5.832,00 | 5.962,00 | 15 | 574 | 589 | 57,58% |
| 2019ko uztaila | 190,00 | 11.314,00 | 11.504,00 | 21 | 775 | 796 | 77,81% |
| 2019ko abuztua | 194,00 | 10.438,00 | 10.632,00 | 22 | 1087 | 1109 | 100,00% |
| 2019ko iraila | 196,00 | 9.056,00 | 9.252,00 | 23 | 857 | 880 | 86,02% |
| 2019ko urria | 108,00 | 7.526,00 | 7.634,00 | 13 | 724 | 737 | 72,04% |
| 2019ko azaroa | 156,00 | 4.196,00 | 4.352,00 | 36 | 368 | 404 | 39,49% |
| 2019ko abendua | 130,00 | 4.840,00 | 4.970,00 | 16 | 446 | 462 | 45,16% |
| GUZTIRA, 2019 | 1.352,00 | 77.668,00 | 79.020,00 | 184,00 | 7.190,00 | 7.374,00 | |

# EUROPAKO PROIEKTUAK

2019an, hiru proiektu zeuden indarrean: Jacob@ccess eta Kintoan Barna.

- **Jacob@ccess (Donejakue bidea)**
  Iruñeko Udalak Jacob@ccess proiektuaren bazkide gisa parte hartzen du. Proiektu hori Espainia-Frantzia-Andorra Mugaz Gaindiko Lankidetza Programak (POCTEFA 2014-2020) finantzatzen du, EEGF funtsen bidez. Jacob@ccess proiektuaren parte diren herri guztietan (Iruña, Jaka eta Ostabat-Izura) DoneJakue bideari buruzko interpretazio-zentro bat garatzea da helburua, pertsona guztientzat eta, bereziki, desgaitasunen bat dutenentzat irisgarria izanen dena. Gainera, Martillúén (Huesca) aterpetxe egokitu bat jarriko dute martxan.
  Proiektu horren esparruan, Udalak jardunbide egokien eta baliabide erabilgarrien inbentarioan laguntzen du, eta, gainerako bazkideekin batera, azpiegituretan landu beharreko gai eta elementu partekatuen hautaketan parte hartzen du.

- **Kintoan Barna (natura eta kultura)**
  (natura eta kultura): proiektu honen helburua Kintoko inguruaren erakargarritasuna areagotzea da, dinamizazio eta errebalorizazio ekonomikoko ekintzak garatuz bertako biztanleen, eragile sozialen eta bisitarien mesedetan. Iruñeko Udalak turismo-produktuaren komunikazio-jardueretan eta garapenean parte hartzen du (ibilbidearen amaiera – hasiera). 2019an, proiektua hasteko hainbat bilera egin dira.

# PRODUKTU TURISTIKOAK

Honako produktu turistiko hauen gainean lan egin da.

PAMPLONA- IRUÑA CARD, ETA ENPRESA PARTAIDEEN SARRERAK MERKATURATZEKO BABESA.
Proiektu horren jarraipena egin da, eta 28 enpresa atxiki zaizkio. Sarrerak saltzeko sistemaren helburua da tokiko produktu turistikoa errazago merkaturatzea eta turistak produktu horiek eskura izatea. Ekimen hau Pamplona-Iruña Card (PIC) produktuaren garapenaren barruan kokatzen da.

## IRUÑA BERDEA DA

2019an, Lorategi eta Kultura Alorrarekin lankidetzan, «Iruña loretan» dinamizazio-jarduera egin da, zeinaren helburua hainbat jarduera egitea baita hiriko parke eta lorategiei balioa emateko. Proiektu erabakigarria da, jasangarritasunaren helburu estrategikoa garatzeko. Hainbat arlotan lan egiten du, hala nola gizartean, kulturan, turismoan, ekologian eta elkartasunean. Jaialdi hau, martxoan hasi, eta maiatzean amaitzen da. Bere jardueren artean lorategi iragankorrak, bisita gidatuak, lorategietako jarduera kulturalak eta abar daude.

Gainera, honako jarduera hauek egiten dira:

- Parkeen esploratzailea: bisita gidatua Iruñeko parkeetara, familientzat. 4 jardunaldi.
- Bisita gidatuak parkeetara helduentzat: 4 jardunaldi.
- Kultura-jarduerak: piano flotatzailearen kontzertua Yamaguchi parkean eta Hutsun taldearen kontzertua Media Luna parkean.

## DONEJAKUE BIDEA GUZTIONTZAT

Jacob@ccess proiektuaren esparruan, Donejakue Bidearen Interpretazio Zentroa (Ultreia) ipini da abian. Jarduerak eta jardunaldi tekniko bat egin dira zentroa irekitzeko. Donejakue bidea dinamizatzeko programa bat jarri da abian. Programa horren barruan, honako hauek sartzen dira:

- Talde eta turistentzako bisita gidatuak urte osoan zehar: Iruñeko Donejakue bidea 45 aldiz bisitatu da (Ultreia zentroan amaiturik). 490 pertsonak parte hartu dute (456 gaztelaniaz eta 34 ingelesez). Talde gehienak desgaitasunen bat zuten pertsonaz osatuak ziren, eta erretiratuen hainbat klubek ere esku hartu dute.
- Uztailaren 25a, Donejakue eguna: Musikata bat eta Donejakue bidearen bisita gidatu berezia egiten da Iruñean.
- «Bertze Donejakue bidea» hitzaldia Kondestablearen Jauregian.
- Ginkana: «Iruña bidean lehena». Familiei zuzendua da, eta hiru jardunaldi egin dira.

TOKIKO GASTRONOMIA DINAMIZATZEKO JARDUERAK TOKIKO PRODUKTUAREN ASTEAN.
2 bisita gidatu egiten dira Aranzadiko baratzeetara, inguruan ibilaldi bat egiten da tren turistikoan. Tren turistikoa Iruñean barna ibiltzen da asteburuan.

HARRESIAK

Harresia dinamizatzeko ekintzak, honako jarduera hauekin:

- «Harresia kantatu, kontatu eta dastatu» bisita gidatu berri bat sortu zen, harresiaren historia ikuspegi historiko, arkitektoniko eta sozial batetik kontatzea helburu duena, betiere espazioa Hondarribiko eta Baionako hiriekin erlazionatuz: 4 jardunaldi.
- Taconerako sekretuak ihes-jokoa. Logika eta talde-lana emozioarekin eta dibertimenduarekin uztartzen dituen jokoa da, erronka edo misio bati irtenbidea emateko. Udan 6 jardunaldi eskaintzen dira.
- «Jaunak eta armadurak» bisita gidatua familientzat udako hilabeteetan. 6 jardunaldi.
- Karrikadantza Zaldi Zuriaren zokoan, uda-partean. 3 jardunaldi.

MICE MAHAIA
MICE turismo-mahaiaren lan-bileretan parte hartzea. Iruñean 2018an egin ziren bileren turismoari buruzko azterlan bat egin da. Alderantzizko jardunaldi batean parte hartu da Alemaniako merkatuarekin, eta zuzeneko bertze jardunaldi batean Frantziako merkatuarekin. IBTM azokan parte hartu da. CONEXO aldizkarian eginiko argitalpena. Udalaren webguneko MICE ataleko edukiak hobetzeko azterlana.

OSASUN KLUSTERRA
Osasun Klusterraren lan-bileretan parte hartzea eta hiria produktu horren esparruan sustatzeko ekintzak finantzatzea.

PILOTA PRODUKTUA
3 bisita gidatu egin dira «Iruña, pilotaren munduko hiriburua» egitasmoaren barnean.

# ARDATZA. MARKETINA ETA PUBLIZITATEA

IRUÑEKO TURISMO-WEBGUNE OFIZIALA: Udalaren webgunean dagoen turismo-webgunea hobetzeko lanekin jarraitu dugu.

SARE SOZIALAK: hiru sare sozialekin lan egiten da (Twitter, Facebook eta Instagram). Urtearen hasieran, lehen hiru hilabeteetan, adierazleek goranzko joera izan dute. Jarraitzaile kopuruaren igoera hilean 50 ingurukoa da, baina egonkortu egin da azken aldietan. Martxoan, Instagram sendotu egin da gehien hazten ari den sare sozial gisa. Edukiei dagokienez, Iruñeko baliabide turistikoei buruzko informazioa eta argazkiak argitaratzen dira, baita hirian egiten diren hainbat ekitaldiri buruzkoak ere. .

Hamabostean behin newsletterra ateratzen da, jardueren agendaren programazioarekin.

KOMUNIKAZIO-KANPAINAK:
• Ultreiaren irekiera: toki-irratiak eta hiriko autobusak.
• Aste Santuan:
  - Salta Conmigo blogarien kanpaina: influencer-ekin eginiko kanpaina (hiru egunez Iruñera eginiko ihesaldi bat finantzatzea otsailean).
  - CondeNast Traveler, publizitate-erreportajea: 1. orria 2019ko otsaileko zenbakian.
  - Ongi Etorri Gipuzkoa, publizitate-erreportajea: 1. orria, frantsesez (2019ko martxoa), Sudouest egunkariarekin.
  - On Barcelona, publizitate-erreportajea: orrialde erdia katalanez (martxoak 29), El Periódico de Catalunya egunkariarekin.
  - Radio Popular Bilbao, iragarkia: 24 espot (apirilak 8 -13), Itzulia txirrindulari-ekimenarekin batera.

• Udan:
  - Udako blogariak: - Algo que recordar familia-bidaiei buruzko blogeko Lucy, Rubén eta Kokeren bisita.
  - Kanpoko publizitatea:
    - Autobus-geltokia: kartel inprimatua olanan.
    - Autobusetako eta aireportuko mupietan.
    - Edikuluak: 3 denboraldi.
  - Facebook Ads (ekaina eta uztaila): Facebooken eta Instagramen 50 segundoko bideo bat sustatzea, Artworks eta time lapse miniklip tematikoen irudiak nahasturik. Zabalkundea sanferminen aurreko hiru asteetan (ekainaren 17tik uztailaren 7ra), jaien aurreko estaldura mediatikoa aprobetxatzeko. Bigarren bolada, uztailaren 15etik 29ra bitartean bi astez emititzeko, hiriko bisitak eta udako jarduerak sustatzeko.

LIBURUXKAK: 2019an hiruhileko agenda turistikoa landu da.

FOROAK ETA AZOKAK: 2019ko urtarrila, Nazioarteko Turismo Azokan (FITUR) parte hartzea.

# AHOLKULARITZA JURIDIKOA

**Iruñeko Udaleko Aholkularitza Juridikoa Alkatetzari, Tokiko Gobernu Batzarrari eta zuzendaritza-organoei aholkularitza juridikoa emateaz arduratzen den administrazio-organoa da. Egінkizun hauek ditu esleiturik: aholkularitza juridikoa ematea, bai eta Iruñeko Udala eta haren erakunde autonomoak epaiketetan defendatu eta ordezkatzea ere.**

**2019. urtean, honako langile hauek ditu: 2 administrari –Osoko Bilkuraren Idazkaritzan ere lan egin zuten–, 7 pertsona Zuzenbidean lizentziadunak eta 10 legelari, bai eta Tokiko Gobernu Batzarrari eta Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaritzari laguntzeko organoko titularra ere (organo hori beharrezkoa da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 130.1.B.d) artikuluaren arabera). Hirigintza Gerentziaren aholkularitza juridikoan, gainera, 3 legelari eta Zuzenbideko lizentziadun bat ditu, baita zuzendaria ere.**

## Aholkularitza juridikoak zeregin nagusi hauek izan ditu 2019an:

- Iruñeko Udalak eta haren organismo autonomoek esleitutako kontratuei buruzko nahitaezko legezkotasun-txostenak egitea; kontratuen ezaugarriak idaztea; parte hartzea, idazkari-lanak eginez, prozedura negoziatuetako kasuan kasuko kontratazio-mahaietan eta negoziazio-batzordeetan.

- Iruñeko Udalaren besterentzeak, administrazio-emakidak, erabilera-lizentziak eta ondasunen errentamenduak arautu zituzten baldintza-plegu eta kontratuak prestatzea eta txosten juridikoak egitea, eta, gainera, kontratazio-mahaietan parte hartzea idazkaritza-eginkizunetan.

- Dirulaguntzetarako deialdien oinarriak idazteko lanetan parte hartzea, dirulaguntzetarako deialdien gaineko legezkotasun-txostenak prestatzea eta balorazio-batzorde batzuetan parte hartzea dirulaguntzak emateko proposamenak egiteko.

- Lankidetza-hitzarmenen prestaketan parte hartzea, eta Iruñeko Udalak onetsi zituen hitzarmenen gaineko legezkotasun-txostenak egitea.

- Herritarrendako lege-aholkularitzaz arduratzea Emakumeendako Udal Arreta Zerbit.

- Hirigintza-lizentzien espedienteetan txosten juridikoak egitea, hirigintza-legezkotasuna babestea eta arlo horretako zehapen-espedienteak egitea.

- Iruñeko Udaleko Hiria Birgaitzeko Bulegoak kudeatu zituen birgaitzeko laguntzen espedienteetan aholkularitza juridikoa ematea.

- Herritarrei aholku ematea eraikinak zaharberritzearekin lotutako alderdi juridikoen gainean, jabeen erkidegoen akordioek eraikinak zaharberritzeari dagokionez izan behar duten edukiaren gainean, bai eta akordio horiek baliozkoak izateko izan behar dituzten betebehar juridikoen gainean ere. Bestalde, Hiria Birgaitzeko Bulegoan bertan egindako jabeen erkidegoen batzarretan ere parte hartzen du.

- Txosten juridikoak egitea, plangintza- zein birpartzelazio-dokumentuak eta urbanizazio-proiektuak onesteko, bai eta Iruñeko Udalak onetsitako hirigintza-plangintzako eta -kudeaketako hitzarmenetan ere.

- Txosten juridikoak egitea zirkulazioko, ingurumeneko, hiri-ekologiako eta osasuneko zehapen-espedienteetan.

- Txosten juridikoak egitea langileekin zerikusia duten gaietan, eta langileak hautatzeko prozeduretan parte hartzea.

- Txosten juridikoak egitea ondarezko erantzukizuneko espedienteetan eta udal-ondasunei egindako kalteak erreklamatzeko espedienteetan.

- Teknikariekin elkarlanean ordenantzak idaztea, eta horiei buruzko legezkotasun-txostenak egitea.

- Aholkularitza juridikoa ematea erroldatze, udal-erregistro, ezkontza zibil eta izatezko bikoteen gaineko espedienteekin lotuta.

- Udal Alorretako idazkaritza teknikoen eta Osoko Bilkuren Idazkaritzaren ordezkapen-lana egitea, haiek oporretan, baimen-egoeretan eta aldi baterako lanerako ezintasun-egoeretan daudenean.

- Aholkularitza juridikoa eta idazkaritza-eginkizunak egitea Haur Eskolen erakunde autonomoarentzat, Gayarre Antzokia udal-fundazioan eta Emakumearen Kontseiluan.

- Laguntza ematea, idazkari- eta mahaikide-eginkizunak betez, honako merkataritza-sozietate hauetako akziodunen batzarretan eta administrazio-kontseiluetan: Iruña Biziberritzen SA (PCH), ASIMEC SA, Comiruña SA, Mercairuña SA eta Asociación Navarra de Informática Municipal SA (ANIMSA).

- Zinegotzigoek, alorretako zuzendaritzek, idazkaritza teknikoek eta Iruñeko Udaleko langileek hitzez egindako hainbat kontsultari erantzun zitzaien.

- Iruñeko Udala defendatzea jurisdikzio-ordena guztietako epaitegi eta auzitegietan.

## ERREKURTSOAK ADMINISTRAZIO-FASEAN

Gorako jotzeko errekurtsoak. 218 errekurtso berri izapidetu dira, eta guztira 165 ebatzi.

Ebatzitako errekurtsoen emaitzei dagokienez: 14 ez dira onartu (% 8,48), 14 artxibatu egin dira (% 8,48), 1ek atzera egin du (% 1,53) eta 95 ezetsi egin dira (% 57,57). Baietsitako 61 horietatik 39 (% 23,63) osorik baietsi dira, eta 22 (% 23,02), partzialki.

Ebazteko: 52.

## LEGELARI-DEFENTSA

2019an, zerbitzu juridikoak Iruñeko Udala eta haren erakunde autonomoak defendatzeaz arduratu dira administrazioarekiko auzien ordenako, ordena zibileko, merkataritza-ordenako, zigor-ordenako eta lan-ordenako epaitegi eta auzitegietan jarraitutako 242 prozeduratan (auto nagusiak eta intzidentalak zenbatu dira).

Prozedura motaren arabera, auto nagusi eta intzidentaletako defentsa egin zen administrazioarekiko 242 auzitan, ordena zibil eta merkataritza-ordenako 41etan, zigor-ordenako 27tan eta lan eta gizarte-segurantzaren arloko 54tan. Gainera, legelari-laguntza ere eman du udal-langileek zigor-prozeduretan ikertu gisa emandako deklarazioetan.

Defendatutako administrazioarekiko auzien prozeduretatik, prozedura zibiletatik eta zigor-prozeduretatik 184k zenbateko zehaztugabea zuten. Bertze 139 prozedurek zenbateko zehaztua zuten; orotara, 14.344.526,97 euro.

2019an, administrazioarekiko auzien arloan, arlo zibilean eta zigor-arloan 134 prozedura amaitu dira (administrazioarekiko auzietako 101 prozedura, 18 prozedura zibil eta 15 zigor-prozedura), eta horietatik 92 prozedura nagusiak izan dira. Amaitutako prozeduretatik, 84 (% 62,68) udal-interesen aldekoak izan dira, eta gainerakoak, 50 (% 37,31), aurkakoak.

Kostuei dagokienez, Iruñeko Udalak eta haren erakunde autonomoek 66.761,22 euro jaso dituzte, eta 73.059,14 euro ordaindu.

# 2.3.1.

# ZERBITZU OROKORRAK

## GIZA BALIABIDEAK

### PLANTILLAREN BILAKAERA

Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileak kalkulatzeko, 2018tik aurrera honako hau hartu da kontuan:

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| IRUÑEKO UDALA | | | | | |
| Funtzionarioak | 901 | 890 | 877 | 887 | 863 |
| Kontratu administratiboa duten langileak | 372 | 369 | 411 | 361 | 378 |
| Langile kontratudunak | | | | 180 | 182 |
| GUZTIRA | 1273 | 1259 | 1288 | 1428 | 1423 |
| HAUR-ESKOLAK ERAKUNDE AUTONOMOA | | | | | |
| Funtzionarioak | 60 | 54 | 49 | 43 | 36 |
| Kontratu administratiboa duten langileak | | | | 79 | 81 |
| Langile kontratudunak | | | | 71 | 70 |
| GUZTIRA | 182 | 182 | ¿? | 193 | 187 |
| HIRIGINTZAKO GERENTZIA | | | | | |
| Funtzionarioak | 14 | 15 | 14 | 14 | 18 |
| Kontratu administratiboa duten langileak | 8 | 9 | 9 | 11 | 8 |
| GUZTIRA | 22 | 24 | 23 | 25 | 26 |

- **Funtzionarioak:** urteko abenduaren 31n, nominan aktibo zeuden funtzionario guztiak.
- **Kontratu administratiboa duten langileak:** Lanpostu huts bat betetzen duten langileak edo lanpostu hutsa duen funtzionario edo administrazio-kontratudun bat nominan benetan ez egotea ordezten dutenak.
- **Langile kontratudunak:** Kontratu mugagabea edo kontratu mugagabe ez-finkoak dituzten langileak.

2019an egindako hautaketa-prozesuei dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Elikagaien industriako goi-mailako teknikaria. 2017an hasia.
- Ingurumeneko goi-mailako tituluduna. 2017an hasia.
- Hiriartea – Kultura Garaikideko Zentroko koordinatzailea. 2018an hasia.
- Zuzenbidean lizentziaduna. 2018an hasia.
- 1. mailako ofiziala, elektrikaria. 2018an hasia.
- Langileriako administrari-ofiziala. 2018an hasia.
- Laneko harremanen arduraduna. 2018an hasia.
- Ganbera-musikako irakaslea. 2018an hasia.
- Piano-irakaslea. 2018an hasia.
- Partaidetzako teknikaria, lanpostu finkoa. 2018an hasia.
- Kabo-mailara igotzeko lehiaketa. 2018an hasia.
- Inspektoreorde izateko lehiaketa. 2018an hasia.
- Hiri-kontserbazioko arduradunen lekualdaketak. 2018an hasia.
- Hiri-kontserbazioko ikuskatzaile laguntzaileen lekualdaketak. 2018an hasia.
- Udaltzaingoko lekualdatzeak, kaboa eta inspektoreordea. 2018an hasia.
- Kontu-hartzaile ordezkarien lekualdaketak.
- Legelarien lekualdaketak.
- Ekonomialarien lekualdaketak.
- Ingeniari tekniko industriala, NLren bidez.
- Pedagogoa, NLren bidez.
- Perkusio-irakaslea.
- Tronpa-irakaslea.
- Tronpeta-irakaslea.
- Hiri Kontserbazioko mantentze-lanetako arduradun-sustapena.

2019an hasi, eta 2020an amaituko diren beste deialdi batzuk:

- Biolin-irakaslea.
- Babes zibileko laguntzailea.
- Gizarte-langileen lekualdaketak.
- Gizarte-langilea. Lanpostu finkoa.
- Gizarteratzeko goi-mailako teknikaria. Lanpostu finkoa.
- Euskara-teknikaria. Lanpostu finkoa.
- Euskara-itzultzailea. Lanpostu finkoa.
- Udaltzaingoa. Lanpostu finkoa.
- Legelari-kategoriara igotzeko lehiaketa.
- Hiri-kontserbazioko ikuskatzaile laguntzaileen sustapenak.
- Osoko Bilkurako idazkaria.

# LAN-ESKAINTZA PUBLIKOA

Udalak eta haren erakunde autonomoek 2019. urterako lan-eskaintza publikoa onartu dute, Estatuko aurrekontu-araudiarekin bat etorriz, horren barruan honako lanpostu hauek sartuta:

Iruñeko Udala. Lanpostuak betetzea.

- 23 udaltzain.
- Lehen mailako agenteak, 5 plaza.
- Inspektoreordeak, 6 plaza.
- Inspektorea, plaza 1.
- Gizarteratzeko goi-mailako teknikariak, 6 plaza.
- Soziologoak, 2 plaza.
- Community Manager, plaza 1.
- Informatika-sistemako arduraduna, plaza 1.
- Tributu-ikuskatzailea, plaza 1.
- Mugikortasun-teknikaria, plaza 1.
- Obra Publikoetako ingeniari teknikoa, plaza 1.

Iruñeko Udala. Egonkortzea.

- Osoko bilkurako idazkaria, plaza 1.
- Legelaria, 5 plaza.
- Udal-artxibozaina, Filosofia eta Letretan lizentziaduna, plaza 1.
- Arkitektoa, plaza 1.
- Zuzenbideko lizentziaduna, 3 plaza.
- Psikologoa, plaza 1.
- Euskara-itzultzailea, plaza 1.
- Udaleko kontu-hartzailea, plaza 1.
- Kulturako teknikaria, goi-mailako tituluduna, 2 plaza.
- Teknologia berrietako teknikaria, web-arduraduna, plaza 1.
- Erdi-mailako tituluduna, bateraezintasunarekin, 5 plaza.
- Enp. eta jarduera turistikoak, plaza 1.
- Herri-lanetako ingeniari teknikoa, plaza 1.
- Arkitekto teknikoa, 4 plaza.
- Kimika-ingeniari teknikoa, plaza 1.
- Erdi-mailako tituluduna, osagarriarekin. Gizarte Lana, 5 plaza.
- Katastroko erdi-mailako tituluduna, plaza 1.
- Musika Eskola Bereziko musika-hizkuntzako irakaslea, 3 plaza.
- Musika Eskola Bereziko piano-irakaslea, plaza 1.
- Musika Eskola Bereziko biolin-irakaslea, plaza 1.
- Musika Eskola Bereziko kontrabaxu-irakaslea (lanaldi partziala), plaza 1.

- Musika Eskola Bereziko klarinete-irakaslea, 2 plaza.
- Musika Eskola Bereziko koru-irakaslea, plaza 1.
- Musika Eskola Bereziko bateria-irakaslea, plaza 1.
- Musika Eskola Bereziko baxu-irakaslea, plaza 1.
- Musika Eskola Bereziko gitarra elektrikoko irakaslea, plaza 1.
- Aparejadorea, Birgaitze Bulegoko arduraduna, plaza 1.
- Hiri Altzarietako zerbitzuburua, plaza 1.
- Bide Publikoko obretako zerbitzuburua, plaza 1.
- Ziudadelako zerbitzuburua, plaza 1.
- Kultur hedapeneko zerbitzuburua, plaza 1.
- Ikastetxeetako zerbitzuburua, plaza 1.
- Kiroletako zerbitzuburua, plaza 1.
- Bide-garbiketako zerbitzuburua, plaza 1.
- Desinfekzio-parkeko zerbitzuburua, plaza 1.
- Gizarteratzeko goi-mailako teknikariak, 10 plaza.
- Udal-bulegoetako ordenantzen arduraduna, plaza 1.
- Animaliak Hartzeko Zentroko arduraduna, plaza 1.
- Akta eta Jakinarazpenetako zerbitzuburua, plaza 1.
- Azpiegitura-zerbitzuburua, plaza 1.
- Desinfekzio eta mantentze-lanetako ofiziala, 5 plaza.
- Mantentze-lanetako arduraduna, osagarriarekin, plaza 1.
- Zoo txikiko laguntzailea, plaza 1.
- Ehorzle laguntzailea, 5 plaza.
- Lakiolari laguntzailea, plaza 1.
- Mugikortasuneko ikuskatzaile laguntzailea, 2 plaza.

Haur Eskolak.

- Gizarte-langilea, plaza 1.
- Psikologoa, plaza 1.
- Kontu-hartzaile ordezkaria, plaza 1.
- Zuzendaria, plaza 1.
- Lanaldi osoko hezitzaileak, 24 plaza.
- Lanaldi partzialeko hezitzaileak, 26 plaza.

Hirigintzako Gerentzia.

- Arkitektoa, 2 plaza.
- Arkitekto teknikoa, plaza 1.
- APT Alor Juridikoa, plaza 1.

# PRESTAKUNTZA

2019. urtean, Iruñeko Udalak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren Plan Taldekatuan jarraitu du, eta, beraz, Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileek plan horretako prestakuntza-ekintzetan parte har dezakete.

Plan horren bidez, Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileek 86 prestakuntza-ekintzatan parte hartu dute, 68 espezialitaterekin.

Udaleko eta erakunde autonomoetako 377 langilek jaso dute prestakuntza; horietatik 298k ikastaro bat egin dute eta 79k, berriz, ikastaro bat baino gehiago. Horrek guztiak 501 asistentzia batzen ditu prestakuntzetara; hau da, orotara 5.593 prestakuntza-ordu. Datu horiezaz gainera, azpimarratu behar da ziurtagiririk lortu ez duten 157 izen-emate egon direla; hau da, izena eman arren, parte-hartzailea ez da saioetara joan edo ez da eskatutako asistentziaren % 80ra iritsi.

Bestalde, prestakuntza-ekintza horietako batzuk Udaleko Prebentzio Sailaren ekimenez eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan egin dira. Hori horrela, 2019. urtean 18 ikastaro antolatu dira, eta horietan 213 udal-langilek parte hartu dute.

Prestakuntza-ekintzak honako hauek dira:

- «Kudeaketa emozionalerako tresnak: Mindfulness», bi ekintza, bata udaltzaingorako bereziki antolatua, eta bestea, gainerako udal-langileentzat.
- «Lantaldeak motibatzea: Mindfulness», Udaleko langileen artean erdi-mailako aginpideko karguak betetzen dituztenentzat, ekintza bat.
- «Bizkarreko mina prebenitzea», hiru ekintza, bat Etxeko Arretako Udal Taldeko langile eta senideentza.
- eta bi Udaleko gainerako langileentzat.
- «Suteei erreparatzea. Su-itzalgailuak erabiltzea», ekintza 1, Funtzionamenduko laguntzaileetzat eta autobabeseko planen arduradunentzat
- «Patologia mentalak dituzten erabiltzaileekin baliatzeko trebetasun sozialak», bi ekintza, auzo-unitateetako langileentzat bereziki.
- «Biktimen arreta psikologikoa», ekintza 1, udaltzainentzat.
- «Defusing-teknikak», 3 prestakuntza-saio, Udaltzaingoko agintari eta agenteentzat (Udaltzaingoak antolaturik).
- «Atzerako hondeamakina txikia erabiltzea», prestakuntza-jarduera 1, hilerriko langileentzat.
- «Hilkutxak goratzeko gailua erabiltzea», hilerriko langileentzat (2 pertsona).

# LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

2005eko urtarrilaren 1az geroztik, Prebentzio Alorra arduratzen da langile kontratatu berri guztiei honako hauen berri emateaz: hartu beharreko prebentzio-neurriak, Udalak prebentzioari buruz onetsitako prozedurak, zeini bere lokaletako Larrialdi Plana, lan-istripuen kasuan jarduteko informazioa eta Prebentzio Zerbitzuaren gaineko informazio orokorra. 2019an, 328 pertsonari jakinarazi zitzaien Udalarekin lehen aldiz sinatu zutela kontratua.

**Arrisku-mapak.**

Legegintzaldi bakoitzaren hasieran, Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak arlo bakoitzeko arriskuen ebaluazioak berrikusten ditu, eta etengabe ebaluatzen ditu hasierako egoerarekin alderatuta aldaketak izan ditzaketen lanpostuak edo zerbitzuak. Gainera, 8 udal-zerbitzuren Arriskuen Ebaluazioa berrikusi da, bai eta 7 zerbitzutako lantaldeak ebaluatu ere.

**Istripuen ikerketa.**

2019an, Iruñeko Udalean baja medikoa behar izan duten 98 lan-istripu gertatu dira, eta 69 lan-istripu, laguntza medikoa behar izan zuten arren, baja medikorik behar izan ez zutenak. Baja medikoa eragin zuten 98 istripuetatik 47 lan-jardueran gertatu ziren, 22 Udaltzaingoko langileen lan-istripuak izan ziren herritarrekin izandako erasoen edo borroken ondorioz, edo giharretako arazoak eta/edo polizia-lanetan izandako erorikoen ondorioz, 11 in mission istripuak izan ziren, eta 18, in itinere.

2019an igoera txiki bat erregistratu da aurreko urtearekin alderatuta. Larritasun-indizea bere horretan geratu da, eta bajen batez besteko iraupenak behera egin du nabarmen, 2018an gertatutako 4 istripu kritikoko prozesuak bere horretan mantendu badira ere.

## OSASUN-AZTERKETAK

2019an, guztira, 836 zitazio bidali zitzaizkien udaleko langileei azterketa medikoa egiteko, eta 584 langile bertaratu ziren; hau da, deitutako langileen % 69,90.

**Eraikuntzen azterlanak eta autobabeserako planak.**

Urtean larrialdietako 5 ebakuazio-simulazio egin dira 5 udal-eraikinetan. Era berean, autobabes-planak eguneratu dira eremuen berregituraketengatik aldaketak izan dituzten eraikinetan. Gaur egun, 34 udal-eraikinek dituzte autobabeserako planak.

# ANTOLAKETA ETA GIZA BALIABIDEAK

Udal-zerbitzu edo -langile batzuek eta bertzeek sortu diren zalantzak edo gatazka-egoerak argitzeko egindako eskaera guztiei erantzuten die alor honek, eta azken helburua da lan-baldintza hobeak lortzea. Enplegu publikorako deialdien arloan herritarrek egindako eskakizunei ere erantzuten zaie, haien eskaera nabarmen handitu baita.

Era berean, informazio- eta prozedura-euskarria ematen zaie Udaleko erakunde autonomoek egindako kontsultei.

Udal-zerbitzuak aztertzeko eta berrantolatzeko 2017an hasitako antolaketa-azterketen dinamikari dagokionez, Zoonosi eta Elikagaien Ikuskapen Zerbitzuaren antolaketa-azterlanarekin jarraitzen du Giza Baliabideen Alorrak. 2018ko abenduan hasi zen, eta, etenaldi baten ondoren, azaroan berriro ekin zion.

2019an, Iruñeko Udalak Lan Eskaintza Publikoa (LEP) landu du, eta, halaber, Udalaren plantilla organikoa prestatzen ere jardun du. Era berean, alorraren barne-prozesuen hobekuntzan sakondu du, besteak beste, arinago erantzuteko.

Era berean, barne-prozesuak egiten dira langileen mugimendua errazteko eta luzaroko bitartekotasun-egoerak konpontzeko. Hori horrela, 2019an amaitu ziren hiri-kontserbazioko mantentze-lanetako arduradunaren eta ikuskatzaile laguntzailearen lanpostuak lekualdatzeko deialdiak, eta hiri-kontserbazioko mantentze-lanetako arduradunaren lanposturako sustapen-deialdia hasi zen. Horretaz gainera, hiri-kontserbazioko ikuskatzaile laguntzaileen lanpostua sustatzeko deialdia hasi zen. Prozesu hori ez da 2019an amaitu, eta haien sailkapen profesionala eta/edo ekonomikoa erregularizatzea ahalbidetuko du. Udaltzaingoan, kaboaren eta ikuskatzaileordearen lekualdatze-deialdiak ere egin dira, bai eta kaboak eta ikuskatzaileordeak karguz igotzeko lehiaketak ere.

Era berean, esku-hartzaile ordezkariaren, legelarien eta ekonomialarien lanpostuak lekuz aldatzeko deialdia egin da, ondoren plaza finkoaren deialdiak egiteko, eta, halaber, legelari kategoriara igotzeko barne-deialdia ere argitaratu da.

# ERREGISTROAK

Udal erregistroek jasotzen dituzte herritarrek eskura ematen dituzten idazki eta agiriak zein posta bidez heltzen direnak, eta haien sarrera balioesten dute (interesdunari eskabideen kopia baliozkotua ematen zaio, edo, behar denean, horren baliokide den jaso izanaren agiria). Horretaz gainera, agiri pribatuen kopiak autentifikatu, eta agiri publikoak konpultsatzen dituzte, baldin eta kopia horiek eraginkor izan behar badute Iruñeko Udalean edo haren erakunde autonomoetan tramitatzen diren prozeduretan edo beste administrazio publiko batzuetara bidaltzekoetan.

Iruñeko Udalak zazpi erregistro kudeatu ditu: sei aurrez aurreko eta telematiko bat. Aurrez aurrekoak hauek dira: Kondestablearen Jauregiko Erregistro Orokorra (Kale nagusia, 2) eta honako helbide hauetan dauden osagarriak: Iratxeko monasterioaren k., 2; Armadaren etorbidea, 2; Zapateria, 40; Descalzos, 72; eta Eslava, 1. Herritarrendako erregistro digital bat ere bada www.pamplona.es webgunean, urteko egun guztietan zabalik.

| ERREGISTROAK | 2019 | 2018 | 2017 |
|---|---|---|---|
| Aurrez aurr | 48.003 | 38.839 | 40.935 |
| Postaz | 7.208 | 7.994 | 8.849 |
| Elektronikoa | 14.390 | 9.096 | 6.413 |
| **GUZTIRA** | **69.601** | **55.929** | **56.197** |

# 2.3.2.

# ZERBITZU OROKORRAK

## OGASUNA

### 2019KO AURREKONTUA

Iruñeko Udalak 2018ko abenduaren 31n onetsi zuen 2019ko ekitaldirako aurrekontu luzatua.
Hona hemen Udalaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontuak:

| ERAKUNDEA | GASTUAK / DIRU-SARRERAK (EUROS) |
|---|---|
| Iruñeko Udalaren aurrekontua | 187.986.681 |
| Hirigintzako Gerentziaren erakunde autonomoaren aurrekontua | 6.338.350 |
| Udaleko haur-eskolen erakunde autonomoaren aurrekontua | 8.740.912 |

GASTUAK

| KAPITULUA ETA IZENA | ZENBATEKOA (EUROS) | | |
|---|---|---|---|
| | UDALA | HIRIGINTZAKO GERENTZIA | HAUR-ESKOLAK |
| A) ERAGIKETA ARRUNTAK | | | |
| 1- Langileen gastuak | 85.413.320 | 1.338.000 | 7.455.562 |
| 2- Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak | 71.069.995 | 418.600 | 1.265.850 |
| 3- Finantza-gastuak | 850.000 | 25.000 | |
| 4- Transferentzia arruntak | 22.144.396 | 9.000 | |
| B) 5.- KONTINGENTZIA-FUNTSA | 0 | | |
| C) KAPITAL-ERAGIKETAK | | | |
| 6- Inbertsio errealak | 934.060 | 2.847.750 | 19.500 |
| 7- Kapital-transferentziak | 183.710 | 0 | |
| 8- Aktibo finantzarioak | 277.200 | | |
| 9- Pasibo finantzarioak | 7.114.000 | 1.700.000 | |
| GASTUEN AURREKONTUA, GUZTIRA | **187.986.681** | **6.338.350** | **8.740.912** |

DIRU-SARRERAK

| KAPITULUA ETA IZENA | ZENBATEKOA (EUROS) | | |
|---|---|---|---|
| | UDALA | HIRIGINTZAKO GERENTZIA | HAUR-ESKOLAK |
| A) ERAGIKETA ARRUNTAK | | | |
| 1- Zuzeneko zergak | 53.836.000 | | |
| 2- Zeharkako zergak | 6.073.573 | | |
| 3- Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak | 27.005.000 | 153.600 | 1.719.000 |
| 4- Transferentzia arruntak | 97.005.000 | 3.336.000 | 7.002.412 |
| 5- Ondare-sarrerak | 2.929.500 | 1.000 | |
| B) KAPITAL-ERAGIKETAK | | | |
| 6- Inbertsio errealak besterentzea | 0 | | |
| 7- Kapital-transferentziak | | 2.338.350 | 19.500 |
| 8- Aktibo finantzarioak | 377.200 | | |
| 9- Pasibo finantzarioak | 0 | | |
| DIRU-SARREREN AURREKONTUA, GUZTIRA | 187.986.681 | 6.338.350 | 8.740.912 |

LUZAPENAREN INBERTSIOAK

| PARTIDA | KONTZEPTUA | PARTIDA |
|---|---|---|
| INFORMATIKA ETA EKIPAMENDU BERRIA | | 10.000 |
| ONDAREA ETA EROSKETAK ETXEBIZITZA BIRJAR. INB. | | 15.000 |
| TRANSFERENTZIAK HIRIGINTZA GERENTZIARI | | 90.750 |
| BIRGAITZEKO DIRULAGUNTZAK | | 43.460 |
| BIDE PUBLIKOA AZPIEGITURA BIRJAR. INB. | | 433.000 |
| BIDE PUBLIKOA - AZTERLANAK ETA PROIEKTUAK | | 55.660 |
| ERAIKINAK ORO HAR ERAIK. BIRJAR. INB. | | 150.000 |
| MUGIKORTASUNA AZPIEG. BIRJAR. AZPIEG. | | 10.000 |
| HAUR ESKOLAK, KAPITAL-TRANSF. | | 19.500 |
| CIVIVOX INSTAL. BIRJAR. INB. | | 10.000 |
| SEMAFORO INSTALAZIOAK, TRAFIKOA ETA SEINALEAK | | 200.000 |
| TRANSFERENTZIAK GARABIDEAN DIREN HERRIALDEETARA | | 30.000 |
| MAKINERIA ETA TRESNAK ESKOLA-LANTEGIA | | 15.000 |
| GIZARTE-ENPLEGU BABESTUA. MAKINERIA ETA TRESNAK | | 15.000 |
| PRESTAKUNTZA ETA SUSTAPENA MAKINERIA ETA TRESNAK | | 5.000 |
| KIROL-INSTALZIOAK, INSTAL. BIRJAR. INB. | | 10.000 |
| HERRITARREN PARTAIDETZA, ONDARE INB. BESTE INB. | | 5.400 |

Urtean barna, zenbait aurrekontu-aldaketa onetsi ziren, Udalaren aurtengo aurrekontuko partidak igotzea eragin zutenak. Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurak 22,26 milioi euroren aldaketak onartu ditu; hori horrela, 2019ko behin betiko aurrekontua 210,25 milioi eurokoa izan da.

## BEHIN BETIKO AURREKONTUAREN BILAKAERA

| 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| 198,8 | 205,6 | 220,7 | 213,5 | 210,2 |

## 2018KO KONTU OROKORRA ETA AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

2019an, 2018ko aurrekontu-likidazioa eta ekitaldi horretako kontu orokorra onetsi dira. Iruñeko Udalaren tokiko sektore publikoak (udalak berak, Hirigintzako Gerentziak, Haur Eskolek, Iruña Biziberritzen SAk, ASIMECek, ANIMSAk eta Gaiarre Antzokia fundazioak osatuta), kontabilitate nazionalaren balioetan, 14,82 milioi euroko aurrekontu-superabit edo finantzaketa-gaitasunarekin itxi zuen 2018. urtea. 2018. urtearen amaieran diruzaintzako gastu orokorretarako geldikin kontsolidatua 15,3 milioi eurokoa zen; hala, bada, 0,2 milioi euro baino gutxiago igo zen 2017koarekin alderatuta (15,1 milioi).

Udalak, 2018an, hornitzaileei 31 eguneko epean ordaindu zien batez beste, ia hiru eguneko jaitsiera 2017koarekin alderatuta (34,1 egun).

(*) Hiruhileko honetatik aurrera, aldatu egi da kalkulu-prozedura, 1040/2017 Errege Lege Dekretua, 635/2014 Errege Lege Dekretua aldatzen duena.

| HIRUHILEKOA | HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEA |
|---|---|
| Lehenengoa | 8,28 |
| Bigarrena (*) | 29,27 |
| Hirugarrena | 29,16 |
| Laugarrena | 26,86 |

## GASTUAK, BIZTANLEKO

| KONTZEPTUA | AG | AURREIKUSPENA BEHIN BETIKOA | OBLIGAZIO AITORTUAK | ZENBATEKOA BIZTANLEKO |
|---|---|---|---|---|
| Zor publikoa | 0 | 10.019.000,00 | 9.448.588,42 | 47,46 |
| Oinarrizko zerbitzu publikoak | 1 | 81.782.623,42 | 71.899.375,23 | 361,18 |
| Gizarte-babeseko eta -sustapeneko jarduerak | 2 | 50.759.024,99 | 49.667.693,13 | 249,50 |
| Ondasun prod. lehenetsiak | 3 | 46.281.618,00 | 43.255.967,11 | 217,29 |
| Jarduera ekonomikoak | 4 | 4.805.330,00 | 4.555.837,58 | 22,89 |
| Jarduera orokorrak | 9 | 27.177.215,00 | 25.159.536,63 | 126,39 |
| **GASTUAK, GUZTIRA** | | **220.824.811,41** | **203.986.998,10** | **1.024,72** |

## DIRU-SARRERAK, BIZTANLEKO

| KONTZEPTUA | AG | AURREIKUSPENA BEHIN BETIKOA | ESKUBIDE AITORTUAK | ZENBATEKOA BIZTANLEKO |
|---|---|---|---|---|
| Zuzeneko zergak | 1 | 53.836.000,00 | 55.474.255,83 | 278,67 |
| Zeharkako zergak | 2 | 6.073.573,00 | 9.607.382,22 | 48,26 |
| Tasak eta bestelako diru-sarrerak | 3 | 28.933.600,00 | 32.794.779,17 | 164,74 |
| Transferentzia arruntak | 4 | 101.089.408,00 | 102.069.729,66 | 512,74 |
| Ondare-sarrerak | 5 | 2.930.500,00 | 2.760.054,34 | 13,87 |
| Inbertsio errealak besterentzea | 6 | 4.297.000,00 | 5.416.301,06 | 27,21 |
| Kapital-transferentziak | 7 | 4.902.563,64 | 5.020.562,75 | 25,22 |
| Aktibo finantzarioak | 8 | 9.946.166,77 | 179.647,32 | 0,90 |
| Pasibo finantzarioak | 9 | 8.816.000,00 | 0,00 | - |
| **DIRU-SARRERAK, GUZTIRA** | | **220.824.811,41** | **213.322.712,35** | **1.071,62** |

# ORDENANTZA FISKALAK ETA PREZIO PUBLIKOAK

Iruñeko Udalbatzak 2019ko abenduaren 12ko Osoko Bilkuran behin betiko onetsi zituen 2020ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu ziren Ordenantza Fiskalen eta Prezio Publikoak erregulatzen dituzten Arauen artikuluen eta tarifa-eranskinen aldaketak.

Honako hauek dira Ordenantza Fiskaletan eta Prezio Publikoak erregulatzen dituzten Arauetan aldatu diren artikuluak eta tarifa-eranskinak, 2020ko urtarrilaren 1ean indarra hartuko dutenak:

| | |
|---|---|
| 1. ordenantza.- | Hiri-unitateen karga-tasa aldatu da. |
| 4. ordenantza.- | 5. eta 9.b. artikuluak aldatu dira. |
| 7. ordenantza.- | Ordenantza berria: Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga. |
| | Aurreko 7. ordenantza, Kontribuzio bereziei buruzkoa, 24. ordenantza izatera igaro da. |
| 18. ordenantza.- | I. epigrafea aldatu da tarifa-eranskinean. |
| 21. ordenantza.- | 10. artikuluaren 7. zenbakia aldatu da. |
| 1. araua. - | 4. artikuluaren 2.c atala kendu da eta 8. artikulua aldatu da. |
| | Tarifa-eranskinean, II.4 epigrafea kendu da, IV. epigrafearen azken paragrafoa aldatu da eta V. epigrafearen II. atalean murriztapenak handitu dira. |
| 2. araua.- | 2. artikulua, 3. artikuluaren 2. atala eta 6. zein 7. artikuluak aldatu dira, eta 12. artikulu berria txertatu da. |
| | Tarifa-eranskinean, I.1.7. eta I.2. epigrafeak aldatu dira, II: epigrafearen adin-tarteak zuzendu dira eta II.2.3. epigrafea aldatu da. |
| 3. araua.- | 2. epigrafea aldatu da tarifa-eranskinean. |
| 7. araua.- | 3. artikulua eta 5. artikuluaren 3. atala aldatu dira. |
| 9. araua.- | III. epigrafea aldatu da eta III.3. zein III.4. azpiepigrafeak gehitu dira tarifa-eranskinean. VI.1. eta VI.3. epigrafeak ere aldatu dira. |
| 11. araua.- | I. epigrafea aldatu da tarifa-eranskinean. |

Ordenantza Fiskalen eta Prezio Publikoak erregulatzen dituzten arau guztien testu osoa eta eguneratua Udalaren webgunean kontsultatu daiteke: www.pamplona.es

# INBENTARIOAREN BALIOA, GUZTIRA

## GUZTIEN BALIOA

| | |
|---|---|
| 2015. urtea | 809.318.719,81€ |
| 2016. urtea | 814.241.335,51€ |
| 2017. urtea | 820.921.246,90€ |
| 2018. urtea | 808.202.331,85€ |
| Korporazio-aldaketa: (2019/06/14) | 812.427.328,98€ |
| 2019. urtea | 829.719.852,45€ |

## UDAL-ERAIKIN ETA -LOKAL GUZTIEN BALIOA

| | 2015/06/12 | 2015/12/31 | 2016/12/31 | 2017/12/31 | 2018/12/31 | 2019/06/14 | 2019/12/31 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Bulego-eraikina | 13.441.411,47 | 13.441.411,47 | 13.475.863,56 | 13.517.667,26 | 13.621.922,76 | 13.621.922,76 | 13.627.773,36 |
| Merkataritza-eraikina | 6.772.371,57 | 6.772.371,57 | 6.772.371,57 | 6.772.371,57 | 6.772.371,57 | 6.772.371,57 | 6.772.371,57 |
| Kultura- eta/edo gizarte-instalazioa | 52.986.252,78 | 53.087.764,89 | 53.151.693,54 | 53.781.940,17 | 56.423.940,89 | 56.423.940,89 | 57.366.006,60 |
| Irakaskuntza-eraikinak | 90.293.248,61 | 90.663.074,92 | 91.342.158,64 | 91.635.341,20 | 92.524.181,60 | 92.666.886,68 | 97.978.949,73 |
| Kirol-instalazioak | 42.503.220,72 | 42.511.497,02 | 42.631.056,95 | 42.648.963,93 | 42.970545,44 | 43.065.345,27 | 43.443.707,77 |
| Osasun-eraikinak | 11.105.765,41 | 11.124.822,30 | 11.369.458,65 | 11.480.195,07 | 11.542.723,00 | 11.542.723,00 | 11.655.393,40 |
| Bertze zerbitzu batzuk | 19.740.149,17 | 19.775.723,17 | 19.889.291,83 | 20.627.240,92 | 20.687.862,24 | 20.699.115,24 | 21.269.714,85 |
| Zerbitzuen galeria | 14.602.340,36 | 14.602.340,36 | 14.602.340,36 | 14.602.340,36 | 14.602.340,36 | 14.602.340,36 | 14.602.340,36 |
| Etxebizitza | 31.076.342,10 | 31.610.600,93 | 32.052.096,73 | 32.592.007,09 | 33.736.782,29 | 33.742.281,90 | 34.459.708,91 |
| Lokala | 19.093.057,07 | 19.077.911,56 | 19.873.946,15 | 19.758.978,19 | 21.326.426,65 | 21.326.426,65 | 21.778.909,42 |
| Trastelekuak | 383.507,35 | 383.507,35 | 383.507,35 | 383.507,35 | 383.507,35 | 383.507,35 | 383.507,35 |
| Garajeak | 2.207.868,77 | 2.207.868,77 | 2.207.868,77 | 2.207.868,77 | 2.207.868,77 | 2.207.868,77 | 2.207.868,77 |
| Kioskoak | 21.629,37 | 21.629,37 | 21.629,37 | 21.629,37 | 21.629,37 | 21.629,37 | 21.629,37 |
| Bertze eraikin batzuk | 6.221.499,51 | 6.251.711,48 | 6.356.499,51 | 6.367.994,51 | 6.375.836.54 | 6.375.836.54 | 6.375.836.54 |
| ERAIKUNTZAK, GUZTIRA | **310.448.664,26** | **311.532.235,16** | **314.129.782,98** | **316.398.045,76** | **323.197.938,83** | **323.452.196,35** | **331.943.718,00** |

# 2.4.1.

# HERRITARREN SEGURTASUNA

## EREMU PUBLIKOAREN KUDEAKETA

### JARDUERAK BIDE PUBLIKOAN

| BAIMENDUTAKO JARDUERAK | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Kirol-jarduerak | 64 | 52 | 61 | 68 | 68 | 66 | 71 |
| Eskeko mahaiak eta mahai informatiboak | 51 | 54 | 67 | 59 | 68 | 81 | 91 |
| Kultura-jarduerak | 12 | 5 | 15 | 12 | 27 | 17 | 27 |
| Erakusketak eta publizitate-kanpainak | 40 | 33 | 43 | 39 | 47 | 51 | 8 |
| Informazio- eta publizitate-autobusak | 27 | 48 | 33 | 17 | 11 | 7 | 11 |
| Merkataritza-jarduerak | 20 | 33 | 38 | 31 | 25 | 17 | 69 |
| Festa-ekitaldiak | 235 | 274 | 254 | 271 | 201 | 186 | 179 |
| Desfileak | 50 | 59 | 90 | 68 | 83 | 88 | 112 |
| Filmaketak | 15 | 17 | 19 | 24 | 24 | 19 | 32 |
| Auzoetako festak | 11 | 11 | 12 | 11 | 12 | 12 | 27 |
| Askotariko baimenak | 9 | 54 | 30 | 28 | 53 | 86 | 152 |
| Terrazak | 117 | 147 | 174 | 168 | 110 | 104 | 139 |
| Jarduerak sanferminetan | 91 | 44 | 48 | 44 | 89 | 83 | 110 |
| GUZTIRA | 742 | 831 | 907 | 840 | 818 | 817 | 1.028 |

#### TERRAZAK ETA ELEMENTUAK BIDE PUBLIKOAN

2019ko amaieran, 714 lizentzia emanda zeuden bide publikoan terrazak jartzeko, eta 86 lizentzia bertze era batzuetako okupazioetarako (loreontzi-euskarriak, erakustokiak, etab.).

#### MANIFESTAZIOAK ETA ELKARRETARATZEAK

Bilera Eskubidea arautzen duen eta apirilaren 21eko 9/1999 Lege Organikoak aldatu zuen uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoa betez, Herritarren Segurtasuneko eta Elkarbizitzako Alorrak txostena eman du Gobernu Ordezkaritzak Iruñean baimendutako elkarretaratze eta manifestazio guztiei buruz, eta, gero, zirkulazioa kontrolatu du haietan, normaltasunez egin ahal izateko. Guztira, 900 ekitaldi egin ziren; 785 elkarretaratze eta 115 manifestazio.

#### GANADU-FERIAK

Sanferminetako ganadu-feria tradizionala, uztailaren 7an egiten da, San Fermin egunean, Iruñeko Agustindarren industrialdeko 14.300 m²-ko lursail batean; Espainiako iparraldeko garrantzitsuenetako bat da. Zaldi-aziendaren feria da: zaldiak, zaldikumeak, astoak eta mandoak. Autonomia-erkidegoetako abeltzainak, tratulariak eta zaldi-zaleak etorri ohi dira. 133 eskorta eta hipodromo bat jarri dira, abereak erakusteko, eta 56 abeltzain etorri da, guztira 510 abelburukin.

Urteko bigarren ganadu-feria sanmigeletakoa da, irailaren 29an egiten dena, hori ere Agustindarren industrialdean. Orduan, 91 eskorta arrunt, 12 bikoitz eta hipodromo bat, abereak erakusteko, jarri zituen Udalak.

## OBJEKTU GALDUAK

Herritarrek entregatzen dituzten objektu guztiak erregistratu egiten dira datu-base bakar batean. Gehienak, polizia-zerbitzuek, posta-bulegoek, eskualdeko hiri-garraioaren enpresa esleipendunak eta merkataritzako beste entitate batzuek –hipermerkatuek, kasu– entregatzen dituzte. Objektuak udal-egoitzetan gelditzen dira gordailuan, eta bertako langileak jabeak aurkitzen saiatzen dira. 2019an, guztira, 9.865 objektu erregistratu ziren; 2018an, berriz, 9.478. Jabeei 5.301 itzuli zitzaizkien (4.346, 2018an).

## BERTZE ZENBAIT JARDUKETA

LANDABENGO AZOKA
Guztira 139 salmenta-postu esleitu zitzaizkien beste horrenbeste titularri. Haietatik 57, produktu jangarrien eremukoak, eta 82 salmenta-postuk jangarriak ez diren produktuak saltzen dituzte. Ostalaritza-jarduerak ez daude baimenduak. Urteko igande guztietan dago zabalik, uztail eta abuztukoetan izan ezik, 09:00etatik 14:30era.

ERREGEEN DESFILEA
Segurtasun-neurriak hartu ziren desfilearen ibilbidean istripuak eragozteko, Foruen plazatik Gazteluko plazaraino. Adibidez, babes-hesia jarri zen, 1.400 hesi iraulezin baino gehiago, eta orgetan lurrerainoko oihalak jartzea exijitu zen, eta desfileko pajeek alboak zaintzea.

# HERRITARREN SEGURTASUNA

## POLIZIA JUDIZIALAREN JARDUKETAK

### IRUÑEAN EGINDAKO DELITUAK

(Iruñeko Udaltzaingoak, Foru Poliziak eta Polizia Kidego Nazionalak emaniko datu bateratuak).

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| DELITUAK, GUZTIRA | 11.826 | 11.669 | 12.372 | 13.330 |
| Delinkuentzia-tasa (mila biztanleko) | 62,24 | 61,41 | 65,11 | 69,65 |

### ZAINTZAPEAN IZANDAKO ATXILOTUAK

| DELITU MOTA | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| Pertsonen aurkako delituak | 1.114 | 1.115 | 1.209 | 1.138 |
| Tratu txarrak eta sexu-askatasunaren aurkako delituak | 516 | 571 | 595 | 558 |
| Indarkeria edo larderia bidezko lapurreta-delituak | 289 | 285 | 187 | 203 |
| Indarrez eginiko lapurreta-delituak | 1.081 | 920 | 1.028 | 936 |
| Ondarearen aurkako delituak | 7.585 | 7.876 | 8.472 | 9.381 |
| Gainerako delituak (estupefazienteen trafikoa barne) | 1.240 | 902 | 881 | 1.114 |
| DELITUAK, GUZTIRA | 11.826 | 11.669 | 12.372 | 13.330 |

| DELITU MOTA | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| Tratu txarrak familian | | 148 | 160 | 168 |
| Edari alkoholdunen eraginpean gidatzea | | 136 | 23 | |

| NAZIONALITATEA | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| Espainia | 342 | 287 | 236 | 239 |
| Hego Amerika | 188 | 203 | 177 | 144 |
| Europako Erkidegoa | 90 | 116 | 65 | 69 |
| Erdialdeko Amerika | 65 | 35 | 51 | 60 |
| Afrika | 58 | 65 | 86 | 75 |
| Bertze batzuk | | 18 | 27 | 23 |

## SUBSTANTZIA ESTUPEFAZIENTEEN ATZITZEAK

| DELITU MOTA | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Anfetamina | 10 | 2 | 3 | 7 | 54 |
| Kokaina | 52 | 60 | 40 | 71 | 140 |
| Kokaina eta anfetamina | 2 | 0 | 0 | 0 | 1 |
| Pilulak | 1 | 1 | 2 | 0 | 21 |
| Estasia (MDMA) | 5 | 1 | 10 | 9 | 13 |
| Haxixa | 47 | 55 | 57 | 112 | 237 |
| Heroina | 6 | 5 | 1 | 21 | 8 |
| Ketamina | 2 | 1 | 1 | 0 | 10 |
| LSDa | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 |
| Marihuana | 233 | 309 | 234 | 260 | 350 |
| Baliogabeak | 1 | 0 | 1 | 0 | 5 |
| Bertze batzuk | 16 | 13 | 3 | 3 | 12 |
| Speeda | 28 | 35 | 43 | 55 | 37 |
| GUZTIRA | | 477 | 395 | 538 | 889 |

## OBJEKTU-KONFISKATZEAK

| NAZIONALITATEA | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| Arma zuriak | 61 | 62 | 88 | 39 |
| Tresnak | 45 | 67 | 84 | 15 |
| Drogei lotutako tresnak | 9 | 8 | 5 | 5 |
| Su-armak | | 3 | 2 | 3 |
| Bestze objektu batzuk | | 203 | 130 | 70 |
| GUZTIRA | 285 | 343 | 309 | 132 |

# UDAL-ORDENANTZAK URRATZEA

## SALAKETEN BILAKAERA

| 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| 1206 | 1.390 | 1477 | 1515 | 1820 |

## UDAL-ORDENANTZEN ARAU-HAUSTE NAGUSIAK, HERRITARREN SEGURTASUNARI BURUZKO LEGEA, ETAB.

| DELITU MOTA | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|---|
| Txiza egitea eremu publikoan | 597 | 450 | 514 | 461 |
| Estupefazienteak edukitzea | 233 | 205 | 148 | 479 |
| Kaleko salmenta | 74 | 95<br>(40, elikagaiak) | 67 | 61 |
| Agintarien aginduak ez betetzea | 61 | 78 | 97 | 97 |
| Zaborra, paperak, beirakiak... botatzea | 56 | 52 | 52 | 13 |
| Auzokideen atsedena eragozten duten zaratak egitea | 50 | 35 | 46 | 38 |
| Zerbitzu publikoen jarduna trabatzea | 66 | 6 |  | 2 |
| Pintaketak egitea bide publikoan |  | 31 | 26 | 30 |
| Bide publikoan desordenak eragitea |  | 128 | 112 | 112 |
| Ordena nahastea |  | 18 | 17 | 4 |
| Agintaritzako agenteak ez errespetatzea |  | 153 | 156 | 248 |
| Agenteen aginduak ez betetzea |  | 78 | 97 | 97 |
| Agenteen ikuskatzeko funtzioari uko egitea |  |  | 14 | 5 |
| Ondasunak hondatzea espazio publikoetan |  |  | 21 | 9 |
| Identifikatzeari uko egitea |  |  | 30 | 33 |

# ZIRKULAZIO-SALAKETAK

## TRAFIKOKO SALAKETAK

| TIPOLOGIA | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| Aparkatzeak | 38.078 | 39.380 | 39.899 | 41.975 |
| Abiadura | 3.228 | 8.292 | 4.407 | 6.874 |
| Seinaleak | 1.604 | 1472 | 3.955 | 11.089 |
| Alkohola | 772 | 839 | 884 | 942 |
| Mugikorra | 456 | 745 | 715 | 557 |
| Ausarkeriaz gidatzea | 25 | 30 | 38 | 35 |
| Arduragabekeriaz gidatzea | 114 | 119 | 106 | 130 |
| Bestelakoak | 639 | 936 | 1066 | 1.405 |
| GUZTIRA | 44.916 | 51.813 | 51.070 | 63.007 |

## DGTRA IGORRITAKO SALAKETAK, HAREN ESKUMENEKOAK IZATEAGATIK

| TIPOLOGIA | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| Asegururik ez izatea | 615 | 754 | 909 | 861 |
| Zirkulazio-baimenik ez izatea | 15 | 23 | 25 | 18 |
| Gidabaimenik ez izatea | 16 | 31 | 71 | 12 |
| IAT | 599 | 910 | 1244 | 973 |
| Pneumatikoek marrazkirik ez izatea | 58 | 74 | 39 | 32 |
| Homologazio-baldintza teknikoak ez betetzea | 49 | 49 | 41 | 26 |
| Gidabaimena iraungita gidatzea | 76 | 114 | 132 | 92 |
| Beste batzuk | 119 | 142 | 221 | 207 |
| GUZTIRA | 1.547 | 2.097 | 2.682 | 2.221 |

# OSTALARITZAKO ARAU-HAUSTEAK

| ESTABLEZIMENDUAK | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Lizentziarik gabeko jarduerak | | 3 | - | 1 | 4 |
| Erreklamazio-orririk ez edukitzea | | 1 | 10 | - | |
| Musika 11:00ak baino lehen jartzea/jotzea (etxabeak) | 17 | | 1 | 1 | 1 |
| Edukiera gainditzea | 16 | 20 | 17 | 10 | 19 |
| Baimen-baldintzak ez betetzea (etxabeak) | | | 8 | 1 | 2 |
| Etxabeen ordutegia ez betetzea | | | 55 | 17 | |
| Ixteko ordutegia ez betetzea (tabernak) | 64 | 37 | 54 | 51 | 52 |
| Jarduera ateak zabalik daudela egitea | | | 23 | 7 | 1 |
| Bozgorailuak kanpoaldean baimenik gabe jartzea | | 4 | - | 1 | 4 |
| Adingabeei alkohola saltzea debekatzen duen kartelik ez edukitzea | | | 17 | 2 | 4 |
| Zuzeneko emanaldiak baimenik gabe eskaintzea | | 5 | 3 | 2 | 7 |
| Adingabeei edariak kontsumitzen uztea | | | 1 | 13 | 17 |
| Edariak lokaletik kanpora ateratzea | 50 | | 57 | 14 | |
| Soinu-muga gainditzea | | | | 1 | |
| Jarduera bat lizentziarik gabe egitea | | | | 4 | |
| Terrazak | | | | | |
| Terraza baimenik gabe ezartzea | | 7 | | 7 | 7 |
| Terraza ezartzeko baldintzak ez betetzea | | 7 | | 9 | 11 |
| Baimendutako elementuak baino gehiago jartzea | 7 | 2 | 2 | 2 | 1 |
| Terraza-jarduera ordutegitik kanpo egitea | 13 | 19 | 14 | 1 | 5 |
| Baimendu gabeko elementuak paratzea | 3 | 1 | 11 | 5 | 4 |
| Terraza ez garbitzea | | 17 | 1 | - | |
| Edariak terrazagunetik kanpora ateratzen uztea | 18 | 2 | | - | |

# ENTZIERROAREN ORDENANTZA URRATZEAK ERAGINDAKO SALAKETAK

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Bigantxari buztanetik heltzea | | | 1 | 1 | 0 |
| Zaborra botatzea entzierroaren ibilbidera, behin garbi dagoela | 1 | | | | 0 |
| Entzierroa (zezenei deitzea, objektuak eramatea...) | 1 | 3 | | 3 | 3 |
| Bideoa grabatzea entzierroaren ibilbidearen barnean | | 1 | | | 15 |
| Bideoa ibilbidean grabatzea entzierroak iraun bitartean | | 4 | 1 | 1 | 0 |
| Entzierroan abelburuei deitzea | 1 | 4 | 3 | 1 | 1 |
| Entzierroaren ibilbidearen barneko toki debekatuetan egotea | 1 | 4 | 1 | | 0 |
| Bigantxen gainera igotzea | | | | | 0 |
| Entzierroan abelburuak ukitzea | | 1 | 2 | | 7 |
| Gauzak jaurtitzea hondarrera eta/edo ikusleei | | 11 | 9 | 1 | 0 |
| GUZTIRA | 4 | 28 | 17 | 7 | 26 |

# HERRITARREN SEGURTASUNA

## BIDE-SEGURTASUNA

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 2.257 | 2.554 | 2.722 | 2753 | 2847 |
| Istripuak | 142 | 145 | 164 | 154 | 150 |

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Hildakoak | 2 | 3 | 5 | 5 | 1 |
| Zauritu larriak | 31 | 45 | 43 | 40 | 46 |

## BERTZE DATU BATZUK

| ETILOMETRIAK | 2018 | 2019 |
|---|---|---|
| Proba kop. | 23.090 | 27.271 |
| Positibo administratiboak | 490 | 504 |
| Positibo judizialak | 80 | 101 |
| Positiboak (%) | % 2,47 | % 2,22 |

| ETILOMETRIAK | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| Abiadura | 3 | 1 | 2 | 1 |
| Etilometria judizialak | 179 | 205 | 232 | 227 |
| Gai estupefazienteen eraginpean gidatzea | 1 | 1 | 2 | 2 |
| Ausarkeriaz gidatzea | 5 | 4 | 4 | 1 |
| Alkoholemia-proba egiteari uko egitea | 8 | 11 | 11 | 4 |
| Baimena: ez edukitzea, epaileak kendu izana, iraungia | 67 | 76 | 77 | 92 |
| Zuhurtziagabekeriak eragindako lesioak | 15 | 15 | 14 | 17 |
| Zuhurtziagabekeriak eragindako homizidioa | 4 | 5 | 5 | 1 |
| Guztira | 282 | 318 | 347 | 345 |

| DROGA-PROBAK | 2018 | 2019 |
|---|---|---|
| Proba kop. | 165 | 147 |
| Positibo administratiboak | 51 | 55 |
| Positibo judizialak | 0 | 0 |
| Positiboak (%) | % 30,91 | % 37,41 |

| ARAU-HAUSTEAK | 2018 | | | | 2019 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | TELEFONOA | GERRI-KOA-HAU-RRAK LOTZE-KO SISTEMA (HLS) | OINEZKOEN PASABIDEAK | BIZIKLETAK | TELEFONOA | GERRI-KOA-HAU-RRAK LOTZE-KO SISTEMA (HLS) | OINEZKOEN PASABIDEAK | BIZIKLETAK |
| Kontrol kop. | 133 | 133 | 66 | 187 | 133 | 133 | 66 | 181 |
| Ordu kopurua | 160 | 160 | 74 | 187 | 155 | 155 | 72 | 181 |
| Salaketak | 297 | 72 | 136 | 104 | 185 | 30 | 160 | 207 |
| Kontrolaturiko ibilgailuak | 40465 | 40465 | 21122 | 1800 | 31174 | 31174 | 19747 | 2458 |
| salatuak (%) | % 0,73 | % 0,18 | % 0,64 | % 5,78 | % 0,59 | % 0,10 | % 0,81 | % 8,42 |

| ESKOLA-GARRAIOA | 2018 | 2019 |
|---|---|---|
| Kontrolaturiko ibilgailuen kop. | 58 | 52 |
| Salaketa kopurua | 13 | 19 |
| salatuak (%) | % 22,41 | % 36,54 |

| BIDE-DIZIPLINAREN ADIERAZLEA | 2018 | | | | 2019 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ARAU-HAUS-TEAK | DOKUMENT. | ETILOMETRIA DROGAK | GUZTIRA | ARAU-HAUS-TEAK | DOKUMENT. | ETILOMETRIA DROGAK | GUZTIRA |
| Kontrolaturiko ibilgailuen kop. | 63.387 | 5.305 | 23.255 | 91.947 | 53.379 | 5.514 | 27.418 | 86.311 |
| Salaketa kopurua | 609 | 387 | 621 | 1.617 | 582 | 335 | 660 | 1.577 |
| salatuak (%) | % 0,96 | % 7,30 | % 2,67 | % 1,76 | % 1,09 | % 6,08 | % 2,41 | % 1,83 |

# ZIRKULAZIOA ETA MUGIKORTASUNA

## SEMAFORO-INSTALAZIOA ETA CCTV KAMERAK

2019an, 500 semaforo konpondu dira istripuen eta instalazioetako matxuren ondorioz (semaforoak, CCTV kamerak, zutoin pneumatikoak, zinemometroak eta neurgailuak). Urtarrilean eta maiatzean izan zen intzidentzia gehien (72 eta 86, hurrenez hurren).

Jarduketa nagusiak, besteak beste:

- Komunikazio-sistema zuntz optikora aldatzea Buztintxuri – Sanduzelai pasabideko hiru kameratan, eta komunikazio-sistema aldatzea Sanduzelaiko eta Fleming Doktorearen kaleko erreguladoreetan.
- Hiru semafororen instalazioa Katalunia Kalean (bi, Mutiloabeiti kalearen gurutzean, eta, bat, Down-en Sindromearen Elkartearen ondoan).
- Semaforo-instalazioa pultsadorea sakatuz eragiten diren oinezkoendako lau pasabidetan, Sadar kalean (Sadar estadioaren eta Nafarroa Arena pabiloiaren aurrean).
- Kamera instalatzea, Nafarroa Behereko etorbidean (Apaizgaitegia), segurtasun-uhalaren erabilera kontrolatzeko etc.
- Katalunia kalearen eta Mutiloabeiti kalearen arteko erreguladorearekin komunikatzeko zuntz-linea.
- Sanduzelai etorbideko erreguladoreen komunikazio-sistema zuntz optikora aldatzea, eta Landaben-Orkoiengo erreguladorea zentralizatzea.

## SARBIDE MURRIZTUKO EREMUKO IZAPIDEAK (ALDE ZAHARRA ATSEGINAGO EGITEA)

Hiriko Alde Zaharreko sarbideak matrikulak irakurriz kontrolatzeko ezarritako sistema (zutoin pneumatikoen ordez) nabarmentzen da. Erabat eraginkorra izan dadin, kamerak ezarri dira auzoko sarrera eta irteera guztietan. Kontrolgune hauek daude:  Nagusia-Basotxoa (sarrera-irteera), Kale Berria (sarrera), San Anton-Navas de Tolosa (irteera), Sarasate pasealekua-Navas de Tolosa (irteera), Sarasate pasealekua-San Ignazio (sarrera), Espoz y Mina (sarrera), Estafeta (sarrera), Labrit-Mesedeetakoa-Artzapezpikutza (sarrera), San Agustin (irteera), Karmen (sarrera-irteera), Santo Domingo (sarrera) eta Hezkuntzako aparkalekua (irteera).

Udalak TOK TOK izeneko aplikazioa ezarri zuen sarbide horiek erregistratzeko.

| SARBIDE MURRIZTUKO EREMUKO IZAPIDEAK | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|
| Izapide informatikoak | 38.604 | 105.591 | 139.561 |
| Sarbide iraunkorrerako baimena | 13.172 | 5.080 | 4.610 |
| Unean uneko eta aldi baterako sarbiderako baimena | 10.425 | 82.754 | 80.129+28.036 |
| Tratatutako erregistro-eskaerak | 351 | 146 | 135 |
| Izapidetutako zinegotzi-ebazpenak | 165 | 49 | 189 |

## APARKATZE ARAUTUKO TXARTELAK ETA TAO TOKIAK

TAOk arautútako aparkatze-tokien kopurua: 20.071. Horietatik, 9.317 urdinak dira; 306, gorri-berdeak; 335, berdeak; 28, gorriak, eta 10.085, laranjak.

2019an, 28.475 bizilagun-txartel eta 721 jarduera-txartel egin ziren.

| SEKTOREA | BIZILAGUN-TXARTELAK | JARDUERA-TXARTELAK |
|---|---|---|
| 1 ( Alde Zaharra) | 2434 | 1 |
| 2 (Zabalgunea) | 5117 | 53 |
| 3 (Arrosadia-Azpilagaña) | 4048 | 51 |
| 4 (Iturrama) | 6.785 | 261 |
| 5 (Mendebaldea-Erripagaña-Etxabakoitz Iparraldea) | 5.212 | 176 |
| 6 Donibane | 4.879 | 179 |
| GUZTIRA | **28.475** | **721** |

## SEINALE HORIZONTAL ETA BERTIKALAK GALTZADAN

Jarduketa nagusiak, besteak beste:

- 600 seinale bertikal baino gehiago paratu eta eguneratu dira, batez ere S-13 (oinezkoentzako pasabideak) eta S-17 (ezinduentzako aparkalekuak) seinaleak.
- 10 ispilu ganbil jarri dira, zirkulaziora modu seguruan biltzeko.
- Oinezkoentzako 70 pasabide baino gehiago berritu dira.
- 30 kuxin berlindar paratu dira, trafikoaren abiadura murrizteko, betiere Eskualdeko Hiri Garraioaren barruan jauzirik eragin gabe.
- Bidegorriaren muga-bereizgarrien (Mompe modelokoak) 600 unitate baino gehiago paratu dira, ibilgailuek bidegorria har ez dezaten eta txirrindulariari segurtasun handiagoa emateko, malda leuna baitu isurialdean.
- 300 mugarri zilindriko baino gehiago birkokatu dira bidegorrian, batez ere Pio XII.ean.
- Oinezkoentzako pasabideetan 200 egokitzapen baino gehiago egin dira Iturrama eta Arrotxapea auzoetan, gidariak oinezkoa ikustea galarazten duten elementuak (eta alderantziz) erretiratzea aurreikusten duen araudiari jarraikiz.

# 2.5.1.

# HEZKUNTZA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA GAZTERIA

## HEZKUNTZA

### UDAL-IKASTETXEAK

| | 2019/20ko ikasturteko |
|---|---|
| Udalaren haur-eskolak | 929 |
| Joaquín Maya musika-eskola | 1.333 |
| Catalina de Oscáriz Udaleko Arte eta Lanbide Eskola | 301 |

HAUR-ESKOLETAKO MATRIKULA (2019/2020-KO IKASTURTEA)

0-3 urte bitarteko 11 udal-eskoletan, 929 haur daude guztira matrikulatuta.

| | |
|---|---|
| Printzearen Harresi haur-eskola | 100 haur |
| Donibane haur-eskola | 103 haur |
| Hello Egunsenti haur-eskola | 58 haur |
| Izartegi haur-eskola | 65 haur |
| Haur-eskolak (Iruñeko Udala): Mendebaldea haur-eskola | 81 haur |
| Haurtzaro haur-eskola | 82 haur |
| Mendillorri haur-eskola | 99 haur |
| Goiz Eder haur-eskola (lanaldi osoa) | 74 haur |
| Goiz Eder haur-eskola (lanaldi murriztua) | 20 haur |
| Hello Azpilagaña haur-eskola (lanaldi osoa) | 82 haur |
| Hello Azpilagaña haur-eskola (lanaldi murriztua) | 38 haur |
| José María Huarte haur-eskola (lanaldi murriztua) | 45 haur |
| Hello Buztintxuri haur-eskola | 82 haur |

# UDALAREN LAN-ILDOAK

## IKASLEEK ESKOLA-INGURUNEA EZAGUTZEKO PROGRAMAK

IRUÑA EZAGUTU. Ikasleek gure hiria ezagutzeko programa, Iruñearen historia eta hiri-bilakaera aztertuz. Ikastetxe publikoetako eta itunduetako Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleentzat.

Parte-hartzea: **44** ikastetxetako **1.975** ikaslek parte hartu dute, **79** taldetan banaturik.

Bisita gidatu irekiak: programaren osagarri, bertze talde batzuei irekita dauden bisita gidatuak egiten dira. 2019an, **4.740** lagunek parte hartu dute **158** taldetan banatuta. Taldeek Alde Zaharreko hiru ibilbide historikoren artean aukeratzen dute: harresietan barnako ibilaldiak; Donejakue bidea Iruñean; entzierroaren ibilbidea, ibilbide historiko eta urbanistiko bat.

OUIPLAY SLk kudeatzen du programa, IÑIGO ARISTA KOLEKTIBO KULTURALAREKIN batera.

## ARTE-JARDUERAK SUSTATZEKO ETA IRAKURMENA HOBETZEKO PROGRAMAK

ANTZERKI-LANTEGIAK. Haurrek dituzten adierazpen- eta antzezpen-baliabideak aberasteko programa. Hartara, teknikak ere irakasten zaizkie, bertzeekiko komunikazioa eta harremana errazteko, eta, era berean, bertze curriculum-arlo batzuekin zerikusia duten ikaskuntza-prozesuak finkatzeko. Programa hau Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasleentzat da, dramatizazioa eta jolas dramatikoa landu ditzaten; halaber, Lehen Hezkuntzako 5. mailakoentzat ere bada, txotxongiloen bidezko dramatizazioa landu dezaten.

Parte-hartzea: 2018/19ko ikasturteko bigarren eta hirugarren hiruhilekoan (2019ko urtarriletik ekainera) **103** taldek parte hartu zuten; 2019/20ko lehen hiruhilekoan (2019ko irailetik abendura, biak barne), berriz, **28** ikastetxetako **99** taldek.

Gaur egun, NAFARROAKO ANTZERKI ESKOLAK ematen du programa.

IRAKUR DEZAGUN. Irakurtzea bultzatzeko animazio-programa, hiriko ikastetxe publiko eta itunpekoek topaketak egitea idazleekin eta ahozko narrazioei buruzko programak txertatzea, baita aholkuak ematea ere ikastetxeetako irakasleei.

Parte-hartzea: 2019an, **278** jarduera egin ziren. Guztira, **9.255** parte-hartzaile izan ziren, Haur eta Lehen Hezkuntzako **41** ikastetxetakoak, Bigarren Hezkuntzako **26** ikastetxetakoak, Hezkuntza Bereziko **2** ikastetxetakoak eta Helduen Hezkuntzako **2** ikastetxetakoak. **Programan** hiru jarduera mota egiten dira: irakasleendako mintegiak, oso egokiak liburuei buruzko aipamen eguneratuak emateko (**72** orientazio-bilera egin ziren); ahozko narrazio-saioak, hau da, munduko hainbat herrialdetako herri-ipuinak kontatzen dira (**123** narrazio), eta topaketak egiten dira haur-literaturako idazleekin, eta, horren barruan, egile horien kontakizunak irakurtzen dira ikastetxera bisitan joan aurretik (**80** topaketa).

FOMENTO DE INICIATIVAS RECREATIVAS Y ARTÍSTICAS enpresak kudeatzen du programa.

**LECXIT. Hezkuntza-arrakastarako irakurketa-programa. Lehen Hezkuntzako ikasleen irakurmena hobetzeko programa bat da. Boluntarioek astean ordubetez irakurtzen dute programan izena eman duten ikastetxeek hautatutako ikasleekin. Hartara, Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. mailetako ikasleek elkarrizketa- eta irakurketa-aldiak partekatzen dituzte boluntarioekin (pertsona helduak), eta horrek ikasitakoa errotzen eta irakurmena hobetzen laguntzen die.**

Parte-hartzea: 2019-2020ko ikasturtean hirugarrenez egin da programa. Hamahiru ikastetxetik 10era igaro da 35 boluntarioren eskutik (aurreko ikasturtean baino 16 gutxiago), iaztik hainbat boluntariok baja eman baitute, eta aurten, azkenean, ez da izan berririk.

**«EN MUDANZA-IBILTARI».** El programa lleva el arte contemporáneo a los centros educativos de Programa honek arte garaikidea Iruñeko ikastetxeetara eramaten du, hau da, ikasleen bizi- eta ikas-lekura, beraientzat pentsatutako arte- eta hezkuntza-proposamen baten bidez.

Hori horrela,

- Ikasleei arte garaikidera modu sentsorial eta intelektual batetik zuzenean hurbiltzeko aukera eskaintzen zaie.
- Ikasleen adierazpen-, dialektika- eta sormen-gaitasunak estimulatzen dira.
- Diziplina anitzeko ikuspegi batetik (arte plastikoak, hizkuntza, zientziak, etab.) landu daitezkeen edukiak proposatzen dizkie irakasleei.

Ekimen honen bidez diziplina anitzeko erakusketa txiki eta kolektiboak egiten dira, Iruñeko Udalaren Arte Garaikideko bildumaren jatorrizko lanak erabiliz; erakusketa horiek ikastetxez ikastetxe doaz ikasturtean zehar; zehazki, bi aste egiten dute ikastetxe bakoitzean.

2019-2020ko ikasturtean, «Altxa, ez da ezer gertatzen!» erakusketa ibiltaria izan da. Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko 9 ikastetxetako ikasleek ikusi dute.

Programa horrek 5.580 euroko gastua du, 9 ikastetxe horietako ikasle eta irakasleekin egindako lantegiak direla eta.

Erakusketa eskatu zuten bertze askok ezin izan dute programa horretaz gozatu, ikastetxeak itxi egin dituztelako COVID-19ak eragindako osasun-alarmaren ondorioz.

**RADIO PATIO IRRATIA.** Programa honen bitartez, irratiak eskaintzen dituen adierazpen- eta dibulgazio-aukerak aprobetxatu nahi dira ikuspuntu didaktiko batetik. Jardueraren erdigunea ikastetxeko patioan paratutako etxola bat da, irrati-estudio bilakatua. Ikastetxearen eskura dago, komunitateari eta auzoari irekitako irrati gisa erabiltzeko.

2019-2020ko ikasturtean, programa San Frantzisko ikastetxe publikoan izan da, Alde Zaharrean, COVID-19ak utzi duen bitartean. Programa egiten duen monitoreak laguntza ematen die ikastetxeko irakasleei, ikasleen hizkuntza-trebetasunak lantzeko eta auzoan irrati komunitarioko jarduerak egiteko.

Programa honen bidez ikastetxeei lagundu nahi zaie alderdi hauek lantzen:

- Ahozko hizkuntza, komunikazioa, gidoi-idazketa, etab.
- Komunitateko eragileen artean loturak ezartzea, soinuaren munduarekin zerikusia duten proposamenetatik abiatuta, auzoaren eta eskolaren arteko bi norabidetako elkar-elikatze eraginkorra eraginez.
- Gaitasun artistikoa eta ezberdinarekiko begirunea, auzoaren soinuak eta ahotsak arakatuz.

Irratiaren kudeaketa errazteko, 2019an egindako gastua 16.456 eurokoa izan da, ikasleei eta irakasleei irratia nola erabili erakusten dien eta jarduera dinamizatzen duen pertsonaren laguntza teknikoa ordaintzeko

## LEHIAKETAK

**29. LITERATUR LEHIAKETA,** Lehen Hezkuntzako eta DBHko lehen eta bigarren zikloko ikasleentzat. Ipuina, Lehen Hezkuntzako 1. mailatik DBHko bigarren mailara bitarteko ikasleentzat, lau kategoriatan banaturik, ikasmailen arabera; eta, Komikia, Lehen Hezkuntzako 5. mailatik DBHko bigarren mailara bitarteko ikasleendako, bi kategoriatan banaturik adinen arabera. Guztira, 696 lan aurkeztu ziren 2019an.

**IKASKUNTZA ETA ZERBITZUKO PROIEKTU DIDAKTIKOEN SARIETARAKO DEIALDIA:** Iruñeko ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan ikaskuntza eta zerbitzuko hezkuntza-proiektuak egin eta ezartzeko, eta hiri osoan ikastetxeen konpromiso solidario eta zibikoa ikusarazteko, Iruñeko unibertsitatez kanpoko irakaskuntza publiko eta itunpeko ikastetxeentzako ikaskuntza-zerbitzuko proiektuetarako lehiaketaren hirugarren deialdia egin zuen Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteria Alorrak.

Hezkuntza-etapa guztietan curriculum-eskakizun berak ez daudenez, eta proiektuak curriculuma ikastea eta elkartasunezko zerbitzua lotu behar dituela kontuan harturik, parte hartzeko kategoria hauek ezarri dira euskaraz edo gaztelaniaz egin eta ezarritako proiektuetarako, ikastetxearen hizkuntza-ereduaren arabera:

1. KATEGORIA: Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako proiektuak
2. KATEGORIA: DBH eta Batxilergoko ikastetxeetako proiektuak
3. KATEGORIA: Lanbide Heziketako ikastetxeetako proiektuak

Lehiaketako hiru kategorietako bakoitzean sari hauek ematen dira:

Lehen saria: 1.500 €

Bigarren saria: 1.000 €

Lehiaketara 10 proiektu aurkeztu ziren. 2019-20ko ikasturteko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetarako aurreikusita zegoen (2020ko urtarrila-maiatza), eta bertan behera geratu zen COVID-19 pandemiak eragindako alarma-egoeraren ondorioz.

## DIRULAGUNTZETARAKO DEIALDIAK

ESKOLA-LIBURUTEGIAK ETA IKASMATERIAL SUNTSIKORRAREN GASTUAK.
Hiriko Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetarako laguntzen urteko deialdia, liburutegien funtsa handitzeko eta ikastetxeek egoera ekonomiko txarrean dauden ikasleei familiek eman ezin dieten materiala eman ahal izateko. Ikastetxe publikoetan guztira **9.290** ikasle egon ziren matrikulatuta 2018/19ko ikasturtean, eta Iribarren Helduen Oinarrizko Hezkuntzarako Ikastetxeko 930 lagun; banaturiko dirulaguntzen zenbatekoa 1**10.330** eurokoa izan zen guztira: **38.175** euro, eskola-liburutegietarako, eta **72.155** euro, ikasmaterialerako.

Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduetako ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA ETA JARDUERA OSAGARRIETARAKO DIRULAGUNTZAK, eskola-eskaintzaren kalitatea hobetzen laguntze aldera. 2019an, eskolaz kanpoko jarduerengatik, **175.760** euro eman ziren dirulaguntzetan, eta Iruñeko 44 ikastetxeren artean banatu ziren, zeinek guztira, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako **18.996** ikasle dituzten.

GURASOEN ELKARTEETARAKO DIRULAGUNTZAK, gurasoek Haur eta Lehen Hezkuntzan antolatutako programa eta jarduerak gara daitezen errazteko. 2018/19ko ikasturteko deialdira **37** entitate aurkeztu ziren (**32** elkarte eta **5** federazio), eta **80.000** euro eman zitzaizkien guztira.

# HERRITARREN PARTAIDETZA

## HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERREGELAMENDUA

Iruñeko Osoko Bilkurak, 2019ko martxoaren 7an, Iruñeko Udalaren Herritarren Partaidetzarako Erregelamendua hasiera batez onesteko erabakia hartu du, eta hura 2019ko 62. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, apirilaren 1ekoan.

Behin hasierako onespenaren iragarkia argitara emanda eta legeak ezarritako jendaurreko epea iraganda, Osoko Bilkurak 2019ko azaroaren 14an hartutako erabakiaren bitartez ebazpena eman da, aurkeztutako alegazio bakarra ezetsita, eta errandako erregelamenduaren testua onetsi da; horiek horrela, xedatzen da testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila, behar diren ondorioak izan ditzan.

Araudia Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurak onetsi zuen, 2019ko azaroaren 14an, eta NAOn argitaratu zen, 2019ko abenduaren 24an, 251. zenbakiko buletinean. Handik 15 egunera sartu zen indarrean.

## AUZO-EZTABAIDAGUNEAK

2019an, bost auzo-eztabaidagune egin dira: Etxabakoitz, Txantrea, Donibane-Ermitagaña, Buztintxuri eta Erripagaña, urtarriletik otsailera bitartean. Guztira, 136 pertsona bertaratu dira; 59 emakumezko eta 77 gizonezko.

Lurraldean egiten diren administrazio eta erakundeen eta herritarren arteko solasaldi gisa planteatzen dira auzoetako foroak. 2019an, metodologian eboluzionatzen jarraitu da, eta foroa hainbat ataletan planteatu da. «Udalak informatzen du» atalean, auzo-zinegotziak eta udal-teknikariek azaltzen dituzte administrazioak hirigintzan, mugikortasunean eta gizarte-zerbitzuetan auzoan egindako ekimenak eta proiektuak, bertzeak bertze.  Bigarren zatian, «Auzoak informatzen du» izenekoan, auzoko elkarteei eta ekimenei ahotsa ematen zaie, auzoan egindako lana azal dezaten. Hirugarren atalean, zinegotzigoak proposatutako gaiak taldean lantzeko aukera ematen da. Azkenik, «Udalak entzuten du» atalean, herritarrek hitza hartzen dute, auzoak zer behar duen azaltzeko eta eskatzeko.

Foro guztiak streaming bidez eman dira, eta emisioak eta laburpen-bideoak Partaidetza Alorraren «Participa Pamplona» YouTubeko kanalean jarri dira; guztira, 1.633 bistaratze izan zituen 2019ko martxoaren 5ean.

# KULTURA-ANIZTASUNA

Arrazismoaren kontrako poesia-errezitaldia. Martxoaren 21ean, Arrazismoaren Kontrako eta Poesiaren Egunarekin bat. Asvena eta Alpargatika elkarteek poesia bat irakurri zuten.

Maiatzaren 21eko topa antolatzea. Kultur aniztasuneko 21 elkarte edo taldek parte hartu zuten, eta 64 pertsona baino gehiago bildu ziren, baita udalbatza ere.

Kulturen Kalejira antolatzea. 2019ko uztailaren 14an egin zen, eta 67 elkarte eta 2.000 parte-hartzaile inguru bildu zituen. Bertan, apropos prestaturiko 1.000 errazio mazedonia baino gehiago banatu ziren.

# PARTAIDETZARAKO TREBAKUNTZA-ESKOLA

Partaidetzarako Trebakuntza Eskola informazio, topaketa eta gogoetarako esparruak sortzeko beharraren ondorioz eratu zen, herritarrak parte hartzeko ahalduntzea helburu. Herritar guztientzat da, eta, bereziki, Iruñeko Udaleko Herritar Erakundeen Udal Erregistroan izena emanda dauden sozietate zibileko erakundeentzat. Ikastaroen hiru hileko programazioak hiru ardatzen inguruan antolatzen dira:

1. **Ahalduntze pertsonala.** Ikaskuntzako guneak, gaitasun pertsonalak eta sozialak garatzeko, betiere parte-hartzeari begira.
2. **Taldeen eta erakundeen ahalduntzea.** Ikaskuntzako guneak, talde-jarduna bideratzeko, elkarteen kudeaketarako, gure erakundeen barneko eta kanpoko komunikaziorako, taldeak dinamizatzeko, eta abarretarako.

2019an, hiruhilekoko hiru programazio egin dira: urtarrila–martxoa (13 ikastaro), apirila–ekaina (14 ikastaro) eta urria–abendua (11 ikastaro), eta 1.062 pertsona inguruk parte hartu zuten.

# DIRULAGUNTZAK

### DEIALDIA, HERRITARREN PARTAIDETZAREN ESPARRUKO HERRITARREN ELKARTE ETA ENTITATEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO

2019an, 117 elkartek aurkeztutako 128 proposamenek 500.000 euro jaso zituzten herritarren partaidetzaren arloko laguntzen deialdiaren bidez. Deialdian, dirulaguntzak bost epigrafetan bereizten dira, eta zenbatekoak ere aldatzen dira horietako bakoitzean:

- **A epigrafea:** 90.000 euro. 19 proiektu lagundu dira diruz. Auzo-elkarteek, kultur elkarteek, jai-batzordeek eta kultur koordinakundeek aurkeztutako proiektuak hirietako auzoetako festak, herri-jaiak zein izaera komunitarioko gizarte- eta kultura-ekitaldiak antolatzeko.
- **B epigrafea:** 260.000 euro. 54 proiektu lagundu dira diruz. Aisialdiaren eta denbora librearen esparruan herritarren bizi-kalitatea eta ongizatea sustatzearen alde lan egiten duten entitate edo elkarteek aurkeztutako proiektuak dira, jarduera iraunkor eta/edo puntualen bidez. Gizarte-partaidetza, herritar aktiboak eta boluntario-lana, gizarte-ehunaren koordinazioa eta sare-lana, lurraldeko bizilagun, talde eta elkarteen arteko informazioa eta komunikazioa, eta hedapena eta sentsibilizazioa sustatuko dituzten proiektuak, zeinak ekintza berritzaileak martxan jarriz, proiektuei egokitutako teknologia garatuz eta gizarte-aldaketa ehun sozialetik aldatzeko praktika onak erabiliz eginen baitira.
- **C epigrafea:** 44.000 euro. 19 proiektu lagundu dira diruz. Herri-kultura sustatzeko, sortzeko eta hedatzeko proiektu eta jarduerak, Nafarroaren eta eskualdeko bertze komunitateen kultur aniztasunaren ordezkari diren entitateek aurkeztuak, hori dena topaketa kulturala eta elkarbizitza lortzeko, aisialdiaren alorrean (gizarte eta kultur, gizarte eta hezkuntza eta gizarte eta komunitatean), lurraldeko gizarte-ehunaren parte-hartzetik abiatuta eta herritar guztiei irekia. Partaidetza-, harrera-, sentsibilizazio-, sustapen-, sormen- eta hedapen-jarduerak, kultura- eta jatorri-aniztasuna sustatzekoak, elkarrizketa, elkarbizitza eta ezberdintasunaren errespeturako estrategia gisa, jatorri ezberdinetako pertsonen eta kolektiboen parte hartzea eta ahalduntzea bultzatuz udalerriaren bizitzan.
- **D epigrafea:** 90.000 euro. 30 proiektu lagundu dira diruz. Herritarren parte-hartzea eta adinekoen ahalduntze soziala sustatzen dituzten jarduketak. Aisialdiaren alorrean (gizarte eta kulturakoa, gizarte eta hezkuntzakoa eta gizarte eta komunitatekoa), adinekoen bizi-kalitatea eta ongizatea sustatzearen alde lan egiten duten entitate edo elkarteek aurkeztutako proiektuak. Adinekoen parte-hartzea eta zahartze aktiboa sustatzea xede duten elkarteen kasuan, aintzat hartuko dira helduekin eta adinekoekin egitekoak diren jarduera zehatza.
- **E epigrafea:** 16.000 euro. 5 proiektu aurkeztu dira. Prestakuntza-ekintzak, partaidetza eta gizartearen ahalduntzea sustatzeko.

# ZENTROA

**ARRETARI ETA ZERBITZUEI BURUZKO DATUAK**

**«Zentro. Elkarlaneko gunea» partaidetzako zentroak, Kondestablearen jauregiko bigarren solairuan kokatuta, elkarteei eta herritarrei oro har informazioa, baliabideak eta prestakuntza eman nahi dizkie, hirian banakako eta taldeko partaidetza garatzearren. Espazioak honako hau eskaintzen du:**

- **Partaidetzako informazio- eta baliabide-zerbitzuak:** Zerbitzu honen xedea da Udalak eskaintzen dituen baliabide, deialdi, prozesu eta abarrei buruzko informazioa eskaintzea halakorik eskatzen duen herritar zein elkarte orori. Partaidetzarako Informazio eta Baliabide Zerbitzuak (PIBZ) elkarteei haien jardunean lagunduko dien banakako laguntza eskaintzen die, haien eguneroko errealitatearekin zerikusia duten gai guztietan. Partaidetzarako Informazio eta Baliabide Zerbitzuaren (PIBZ) ordutegia honako hau izan da: astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 21:00etara. Uztailean eta abuztuan, berriz, hau izan da ordutegia: astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era. Egindako lanak:
  - 8.493 laguni eskaini zaio arreta
  - 338 baliabide-mailegu (3 proiektagailu eta 8 ordenagailu eramangarri)
  - Baliabideak erabiltzeko alta eman duten elkarteak: 204
  - 4. eta 5. aretoen lagapena: 527 lagapen
- **Liburutegia eta dokumentazio-zentroa:**
  Liburutegiko funtsa: 2.300 dokumentu
  Maileguak: 1.162 (Nafarroako Liburutegi Publikoen Sareko liburutegia)
- **Aholkularitza teknikoa eta legala:**
  Partaidetzako aholkularitza juridikoak 9 ikastaro eman ditu, eta 719 kontsultari erantzun zaie, aurrez aurre, telefonoz eta posta elektronikoz.

# KOMUNIKAZIOA

**Alorrak erabaki.pamplona.es parte hartzeko online plataforma ere kudeatzen du, gaztelaniaz eta euskaraz.**

**Informazio hori Alorraren sare sozialen bitartez jakinarazten da.**

**Horretarako, sare sozialetako honako profil hauek sortu dira:**

- **Twitter:** @Participa_pna; @Edusi_pna
- **Facebook:** @Participa_pna
- **Youtube:** Participa Pamplona
- **Flickr:** Participa Pamplona

Webgunea: erabaki.pamplona.es

- **Erabaki.pamplona.es webguneetako bisitak:** 24.057 bisita
- **Twitterreko jarraitzaileak gaztelaniaz:** 1.635 jarraitzaile
- **Twitterreko jarraitzaileak euskaraz:** 135 jarraitzaile
- **Facebookeko jarraitzaileak gaztelaniaz:** 523 jarraitzaile
- **Facebookeko jarraitzaileak euskaraz:** 31 jarraitzaile
- **Youtubeko harpidedunak:** 193 harpidedun
- **Youtubeko erreprodukzioak:** 6.325 erreprodukzio 2019an / /284 bideo, 14 2019an
- **Flickerreko bisitak:** 27.004 bisita / 31 album

Webgunea 2017ko ekainean ireki zen erabiltzaileendako, eta atalak gehitzen doaz zen pixkanaka-pixkanaka. Webgunean gehien bisitatutako atalak Partaidetzarako Trebakuntza Eskolarekin loturikoak dira.

IRUÑEKO UDALEKO ELKARTEEN WEBGUNEA

Asociaciones.pamplona.es plataformak aukera ematen dio Iruñeko Elkarteen Erregistroan izena emanda daukan edozein elkarteri bere webgunea edukitzeko, doan. Plataforma Udalaren zerbitzarietan dago kokatuta, baina elkarteak berak kudeatzen du. Horrela, espazio zentral bat dago, non hiriko elkarte eta kolektiboei buruzko informazio zehatza aurkitu dezakegun.

2019an, 70 elkarte inguruk zuten hor ostataturik beren webgunea.

Parte hartzeko plataforma digitala: ERABAKI PAMPLONA

**https://erabaki.pamplona.es/**

Erabaki.pamplona Iruñeko Udalaren plataforma digitala da, parte hartzeko plataforma bat, hiri demokratikoagoa eraikitzeari begira sortua. 2017ko maiatzean hasi zen funtzionatzen. Hiri ireki, garden eta kolaboratibo bat sortzeko erreferentziazko gunea da, non hiriko bizilagunak baitira protagonista. Erabaki.pamplona parte hartzeko plataforma bat da. Kode irekikoa da, eta, hortaz, edozeinek ikus dezake plataforma nola sortu den, eta plataforma berrerabil edo hobetu dezake.

Plataformaren printzipioak.

- Gardentasuna, trazagarritasuna eta osotasuna: eduki guztia da eskuragarria, trazagarria eta manipulaezina.
- Kalitate demokratikoaren bermea: diskriminaziorik eza eta abiatzeko aukera-berdintasuna erabiltzaileentzat eta proposamenentzat.
- Multigeruza: presentziala eta digitala
- Pribatutasuna: Datu pertsonalak ez zaizkie ematen hirugarrenei, erabiltzaileek datuak eta jakinarazpenak kontrolatzen dituzte.

**Nork hartzen ahal du parte?** Erabaki.pamplona plataforma herritar guztientzat dago zabalik. Hackerren, herritarren, elkarteen eta era guztietako erakundeen komunitate ireki eta kolaboratiboa sortzeko tresna bat da.

Sarbide irekia. Edozein pertsona sar daiteke plataforman, askatasunez eta modu anonimoan, baldin eta aldez aurretik plataforman erregistratu bada eta 16 urte baino gehiago baditu.

2019ko abenduaren 31n:

- Parte hartzeko 11 prozesu ireki dira plataforman.
- 3 prozesu, partaidetza-organoen barruan.
- 13 prozesu, lurraldeko partaidetza-organoen barruan (auzo-eztabaidaguneak).
- 1.790 erabiltzaile zeuden alta emanda.
- 669 proposamen zeuden aurkeztuta.
- Proposamenei 1.634 babes agertu zitzaien.

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA DINAMIZATZEKO ZERBITZUA

**Dinamizazio Komunitarioko Zerbitzuaren helburua da herritarren parte-hartzea sustatzea, Udalaren partaidetza-zerbitzu, -organo, -prozesu, -mekanismo eta -kanalen bidez, betiere Iruñeko Udaleko partaidetzako teknikarien jarraibideen arabera.**

- Herritarrek hiriko zerbitzu, organo, prozesu, mekanismo eta kanaletan parte hartzeko prozesuak eta jarduerak diseinatzea, programatzea, garatzea eta ebaluatzea.
- Parte-hartzearen arloan udalerriaren lurralde- edo sektore-esparruko ezaugarriak eta beharrak identifikatzea eta aztertzea.
- Udalerriko eragile nagusiekin (herritarrak, gizarte-ehuna, ekonomia-ehuna, teknikariak eta administrazioak) harremana ezartzea eta mantentzea, haien arteko elkarrekiko harremana dinamizatuz.
- Esku hartzea gizarte-ehuna sortu eta garatzeko, eta babesa eta laguntza ematea.
- Udaleko herritarren partaidetzarako zerbitzu, organo, prozesu, mekanismo eta kanalen komunikazio- eta hedapen-estrategiak gauzatzea, teknikarien jarraibideen arabera.
- Parte hartzeko saioen dinamikak prestatzeko lanak egitea, materialak prestatuz, saioa erregistratuz eta kontatuz, horiek bueltatzeko eta ebaluatzeko.

HPDZk laguntza teknikoa eman du diagnostiko, txosten, organo eta prozesu komunitarioak gauzatzeko eta abian jartzeko, bertzeak bertze. Gainera, hainbat motatako zerbitzu publikoek ere eskatu diote laguntza, hala nola auzoetako unitateek, Liburutegi Publikoen Sareak, Civivox sareak, Polizia Komunitarioak eta gizarte ekimenetarako zentro komunitarioek.

Gainera, zerbitzuak hiriko auzo eta/edo gune guztietan jarraitzen du, bertzeak bertze, «Iruñategi» izeneko plana amaitzeko.

2019an orotara 1.232 esku-hartze egin ziren, Udaleko alor batzuekin eta bertzeekin lankidetzan.

# LOKALEN LAGAPENAK

2019ko ekaineko udal-antolaketaren dekretutik aurrera, Gizarte Zerbitzuen, Gizarte Ekintzaren eta Kirolaren Alorrera igaro zen zentro komunitarioen kudeaketa, eta Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteria Alorrera, berriz, Elkarteen Zentroa eta Galdaragile, Descalzos eta Geltokiko erabilera anitzeko gelen kudeaketa.

# IRUÑATEGI – GIZARTE-EHUNAREN AZTERKETA

Iruñategi proiektua «gizarte-ehunaren azterketa» KoLaboratoriotik eratorritako lantaldean oinarrituta garatu da, Iruñeko elkarte-mugimenduaren eta gizarte-ekimenaren egungo bilakaera eta egoera aztertzeko eta balioesteko, etorkizunean hura indartzeko tresna gisa.

Iruñategi proiektuak hiriko 13 auzoetako elkarte-baliabideen, erakunde-baliabideen, gizarte-ekonomiako baliabideen eta herritarren ekimenen argazki erreal bat erakusten du. Horrela, auzo bakoitzaren eta hiri osoaren sare komunitarioaren ikuspegia ematen du, haren garapena indartzeko.

14 mapa horiek, auzo bakoitzeko bat, eta Iruñeko laburpen-mapa bat, 2017ko otsailaz geroztik hainbat fasetan egindako lanari dagozkio, Herritarren Parte Hartzea Dinamizatzeko Zerbitzuaren laguntzari eta hiriko gizarte-sarearen lankidetzari esker.

Hau izan da baliabideen sailkapena:

- Lurraldea: egungo 13 auzoen zatiketaren araberakoa..
- Baliabide mota: elkarteena, erakundeena, ekonomia sozial eta solidarioa eta ekimena.
- Herritarrak: haurrak eta nerabeak, gazteak, helduak, adinekoak eta belaunaldi artekoa.
- Jarduera: 19 azpikategoria: herritarren segurtasuna; hirigintza eta etxebizitza; dibertsitate funtzionala; kultura-aniztasuna; turismoa, osasuna eta ongizatea; ogasuna, ekonomia eta enplegua; hezkuntza; alderdi politikoak eta sindikatuak; gizarte-ekintza; erlijioa eta espiritualtasuna; kirola, lanekoa eta profesionala; kultura; ingurumena; administrazio publikoa; aktibismoa; aukera-berdintasuna emakume-gizonen artean, feminismoa eta LGTBI.

Baliabideei buruzko datuak iturri hauetatik eskuratu dira: Elkarteen Erregistro Nazionala, Nafarroako Elkarteen Erregistroa, Iruñeko Udaleko Elkarteen Errolda eta online bilaketa. Horretaz gainera, landa-lan zehatza egin dugu auzo bakoitzean, tokiko eragileekin elkarlanean, informazioa osatzeko.

2018ko udaberrian, lortutako datuak alderatzeko lan bat egin zen lurralde- eta sektore-eremuetako eragile espezifikoekin, horiek zuzendu eta hobetzeko.

Proiektua garatzeko, marka adierazgarri bat sortu zen, IRUÑATEGI, gaur egungo eta etorkizuneko gizarte-ehunaren analisiaren inguruan egiten diren ekintza guztiak identifikatuko dituena.

Mapek aurrealdean erakusten dute auzoaren proiekzioa, baliabide guztien kokapen geografikoarekin, ikonoaren arabera zenbakituta eta identifikatuta. Atzealdean, berriz, baliabideak izen osoarekin, deskribapen laburrekin eta posta-helbidearekin daude ordenatuta. Egoitza baldin badute edo gune jakin batean biltzen badira, posta elektronikoa eta web-helbidea. Mapetako informazioa biltzen dute panelek, laburbilduta. Euskaraz eta gaztelaniaz dago mapa eta paneletako informazio guztia.

Kasu gehienetan, udal-eraikinetan egongo dira ikusgai. Leku horietan bertan eskatu ahal izanen dira mapen paperezko kopiak, eta publikoari harrera edo arreta egiteaz arduratzen diren pertsonek banatuko dituzte.

Mapa horiek honako esteka hauetan kontsultatu eta deskargatu ahal izanen dira: asociaciones.pamplona.es/irunategi eta asociaciones.pamplona.es/eu/. Webgune berean kontsultatu ahal izanen da IGS mapa, baliabide geolokalizatuekin, zeinak IRUSKANen integratuta baitaude, Iruñeko Udalaren baliabideen atarian.

2019ko irailean 2.031 baliabide zeuden erregistratuta, horietatik 1.472 elkarteak ziren; eta gainerakoetatik 40 gizarte-ekonomiarekin lotutakoak ziren, eta 519, berriz, baliabide instituzionalak ziren.

## UDAL-EGUTEGIA

Lankidetzan jardun zen Kultura Alorrarekin, 2020ko udal-egutegia egin eta banatzeko. 16.500 ale banatu dira: 12.375 gaztelaniaz eta 4.125 euskaraz.

# UNEAN UNEKO BABESAK BERTZE ALOR BATZUEI

Bai herritarrek parte hartzeko teknikariek, bai Zentroko taldeek, 2019an laguntza ematen diete udal-arlo askori, hainbat alderditan. Zenbait adibide:

- Emakumeen Etxea
- Joko- eta apustu-etxeak: Apustu-etxeak eta joko-lokalak arautzeko eta ludopatia prebenitzeko neurrien gaineko ordenantza idazteko ekintzak.
- Erorien monumentuaren eta inguruaren gaineko lehiaketa
- Labriteko korridorea
- Arantzadiko ekoparkea
- Sarasate pasealekuari buruzko lehiaketa
- Zabalguneetako HJPBa
- Iruña 2030 Hiri Plan Estrategikoa
- Plazara! zentro komunitarioa
- Eta beste

Hartara, herritarren parte-hartzea zeharkakoa da hainbat eremutan, hiri-esparrutik hasi, eta erkidego- eta sektore-esparrura bitarte.

# HERRITARREN ERAKUNDEEN UDAL-ERROLDA

Errolda hori gaur egun Herritarren Partaidetzarako Erregelamenduan araututa dago, 101-105. artikuluetan. Agiri horretan, inskribatutako erakundeak aintzat hartzen dira, eta udalerriari eta udalari aukera ematen zaie erakundeen datu garrantzitsuenak, kopurua, ordezkagarritasuna, interes-maila eta abar ezagutzeko.

Hoan hemen errolda horretan erregistratuta egoteko baldintzetako batzuk: irabazi-asmorik gabeko erakundeak izatea, legez eratuta egotea, egoitza soziala Iruñean izatea edo bertan egitea jarduerak, herritarren onurarako diren programak eta jarduerak egitea, eta abar. 2019. urtearen amaieran 802 elkarte zeuden erroldan izena emanda.

# HERRITARRENDAKO ARRETA ZERBITZUA

## HERRITARRENDAKO ARRETA BULEGOA

Iruñeko Udalaren Herritarrendako Arreta Bulegoak 43.859 laguni egin zien harrera 2019an, hau da, aurreko urtean baino % 1 gehiagori. Aldiz, erregistroarekin zerikusia duten arreten kopuruak behera egin du, ziurrenik, bai erregistro elektronikoa erabiltzeagatik, bai Udaleko bertze erregistro osagarri batzuk erabiltzeagatik.

| Jarduketak, xehetasuna | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Errolda | 61.308 | 53.270 | 46.205 | 43.425 | 43.859 |
| Erregistroa | 6.412 | 4.218 | 3.848 | 3.608 | 2.457 |
| Bertze batzuk | 2.000 | 512 | - | - | - |

## 010 HERRITARRENDAKO ARRETA-TELEFONOA

010 Herritarrendako Arreta Telefonoaren bidez, 2019an 705.792 kontaktu egin dira guztira (2018an kudeatutako kontaktuen aldean, % 13,97 gutxiago). Erantzundako deiak 3.000 dira, eta jasotako posta elektronikoaren kudeaketak edo web-izapideek gora egin badute ere, behera egin du udal-arloek eta -zerbitzuek eskatuta herritarrei bidaltzen zaizkien kontaktuen kopuruak (batez ere, posta elektronikoa eta SMSak).

## PAMPLONA.ES WEBGUNEA*

**Urtarrilaren 1etik otsailaren 14ra**

Udalaren webguneak –https://www.pamplona.es/eu– 321.000 bisita baino gehiago izan ditu 2019ko otsailaren 15era bitartean, egunean 7.134 bisita batez bertze. Bisiten batez bertzeko iraupena 4 minutu eta 45 segundokoa da, eta gehien bisitatzen diren orriak udaleko prentsa-oharrekin lotutakoak dira, informazioarekin, udal-agendarekin eta turismo-baliabideekin lotutakoez gain. Gehien ikusten diren orrien artean, gardentasunarekin, herritarren arretarekin, herritarren parte-hartzearekin eta Joaquín Maya musika-eskolarekin loturikoak ere nabarmentzekoak dira.

Orotara, denbora-tarte horretan 1.250.843 orri ikusi ziren, egunean 27.796 batez bertze.

Webtrends web-neurketako erremintak emaniko datuak dira.

**Otsailaren 15etik abenduaren 31ra**

Otsailaren 15etik (orduan aurkeztu zen www.pamplona.es atariaren bertsio berritua) iazko urte-amaierara arte, udal-webguneak 1.731.423 erabiltzaileren bisita izan zuen; horiek 3.104.264 orri bisitatu zituzten guztira 2.092.880 saiotan. Webguneari dagokionez, erabiltzaile bakoitzak batez bertze orri bat edo bi kontsultatu zituen konexio bakoitzean, eta bisitaldi bakoitzaren iraupena 48 segundokoa izan zen. Gehien bisitatutako orriak, azalaz gain, albiste eta agenda-ekitaldiak, turismoa eta Joaquin Maya musika-eskolari buruzko informazioa dutenak izan ziren.

Datuen iturria: Google Analytics

*www.pamplona.es atariak izaniko bisitak banakaturik ageri dira; izan ere, otsailaren 15ean udal-webgunearen bertsio berritua aurkeztu zen, eta datuak neurketa-sistema desberdinek emanak dira.

**010 ZERBITZURA EGINIKO DEIAK, WEBGUNEKO KONTSULTAK EDO HERRITARRENDAKO ARRETA BULEGOKO BISITAK URTEAN**

| Herritarrendako Arreta Zerbitzua (HAZ) | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Aurrez aurreko harrera – Kondestablearen Jauregia | 70.647 | 58.000 | 50.053 | | |
| Telefono bidezko arreta – 010 | 160.971 | 198.535 | 265.944 | 284.571 | 264.392 |
| Arreta telematikoa – www.pamplona.es/eu | 3.085.699 | 3.240.745 | 3.090.543 | 2.660.055 | 321.000 (02/15era arte) 2.092.880 (02/15etik aurrera) |

# EZKONTZA ZIBILAK

2019an, 210 ezkontza zibil egin dira Iruñeko udaletxean; horietatik 30 bi hizkuntzatan izan dira, eta 46, sexu bereko pertsonen artean. Ezkontza zibilak ostiraletan (18:30etik 20:00etara) eta larunbatetan (12:00etatik 13:30era) izaten dira, baina maiatzetik urrira bitartean zerbitzuak txanda bikoitza du larunbatetan; 18:30etik 20:00etara ere ezkontzeko aukera dago.

| URTEA | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Ezkontza kopurua | 255 | 223 | 220 | 200 | 210 |

# GAZTERIA

## IRUÑEKO GAZTEDIAREN ETXEA

| ZERBITZUAK, GUZTIRA | 2018 | 2019 | Aldakuntza | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Erabiltzaileak | Ehunekoa |
| | 96.833 | 102.764 | +5.931 | +6% |

### ZENBAT ERABILTZAILE GUZTIRA




### JARDUERAK

| JARDUERA MOTA | KOPURUA | | |
|---|---|---|---|
| | 2018 | 2019 | ALDAKUNTZA |
| Aisialdiko eta denbora libreko ikastaroak | 101 | 116 | + % 15 |
| Doako informatika-lantegiak | 44 | 35 | – % 20 |
| Programazio Zerbitzuaren ekitaldiak | 27 | 34 | + % 26 |
| Erakusketak | 12 | 9 | – % 25 |
| Aisia-larunbatak | 10 | 10 | % 0 |
| Gazte-elkarteen ekintzak: «Antolatu zure ekitaldia» | 53 | 49 | – % 8 |
| Kafehartzen | - | 66 | - |
| Bertze jarduera batzuk | 32 | 31 | – % 3 |
| **Jarduerak, guztira** | **279** | **350** | **+ % 25** |

## JARDUERA-MOTA




## INFORMAZIO-ZERBITZUAK

| | ERABILTZAILEAK | | |
|---|---|---|---|
| | 2018 | 2019 | ALDAKUNTZA |
| Gazteendako Informazio Bulegoa | 8.781 | 8.673 | – % 1 |
| Aholkularitza Juridikoa | 490 | 475 | – % 3 |
| Gazte Elkartegintzari buruzko aholkularitza | 259 | 227 | – % 12 |
| Gazte-ekintzailetza, aholkularitza | - | 35 | - |
| Aholkularitza Psikologikoa | 196 | 140 | – % 28 |
| Ikasketa-aholkularitza | 168 | 190 | + % 13 |
| Bidaiategia | 83 | 88 | + % 6 |
| Boluntarioendako Argibide Bulegoa | 691 | 737 | + % 7 |
| Bisita gidatuak | - | 275 | - |
| GUZTIRA | 10.668 | 10.840 | + % 2 |

## ARETOEN LAGAPENAK

| | ERABILTZAILEAK | | |
|---|---|---|---|
| | 2018 | 2019 | ALDAKUNTZA |
| Lagapen iraunkorretarako eskaerak | 46.123 | 50.789 | + % 10 |
| Lagapen puntualetarako eskaerak | 13.220 | 12.983 | – % 2 |
| Ikasketa-gela | 1.224 | 3.143 | + % 157 |
| GUZTIRA | 60.567 | 66.915 | + % 10 |

## PRESTAKUNTZA-PROGRAMAZIOA

| | ERABILTZAILEAK | | |
|---|---|---|---|
| | 2018 | 2019 | ALDAKUNTZA |
| Ikastaroetako parte-hartzaileak | 1.752 | 1.635 | -7 % |
| Informatika-lantegi irekiak | 621 | 324 | -48 % |
| GUZTIRA | 2.373 | 1.959 | -17 % |

## GIZARTE- ETA KULTURA-EKITALDIAK

| | ERABILTZAILEAK | | |
|---|---|---|---|
| | 2018 | 2019 | ALDAKUNTZA |
| Kultura-jarduerak | 1.714 | 2.381 | +39 % |
| Erakusketak | 1.246 | 1.585 | +27 % |
| Aisia-larunbatak | 1.347 | 1.273 | -5 % |
| Gazte-taldeen jarduerak: «Antolatu zure ekitaldia» | 3.331 | 3.152 | -5 % |
| Kafehartzen | - | 836 | - |
| Bertze jarduera batzuk | 963 | 540 | -44 % |
| GUZTIRA | 8.601 | 9.767 | +14 % |

## ZIBERGELA

| | ERABILTZAILEAK | | |
|---|---|---|---|
| | 2018 | 2019 | ALDAKUNTZA |
| Zibergela | 8.696 | 12.480 | + % 43 |
| WIFI erabiltzaileak | 5.136 | - | - |
| Iruña Gaztemaker Space | 792 | 803 | + % 1 |
| GUZTIRA | 14.624 | 13.283 | – % 9 |

## GAZTEDIAREN ETXEKO ZERBITZUEN ERABILTZAILEAK



# GAZTEENDAKO DIRULAGUNTZAK ETA LAGUNTZAK

## EKINTZAILE GAZTEENDAKO DIRULAGUNTZAK

Dirulaguntza honetarako deialdiak 50.000 euroko zuzkidura izan du. 36 eskaera aurkeztu dira, hau da, % 44 gehiago aurreko urtearekin alderatuta; horietatik 34k jaso dituzte laguntzak, 48.020,66 € guztira. Ekintzaileen profilari dagokionez, 31-35 urte bitartekoak dira gazte ekintzaileen % 50; 25-30 urte bitartekoak % 44, eta 18-24 urte bitartekoak % 6. Sexuari dagokionez, % 68,42 emakumeak dira, gehienak autonomoak. 53 lanpostu sortu dira.

## DIRULAGUNTZAK, GAZTEENTZAKO JARDUERAK EGITEKO

Deialdi honek 51.000 euroko zuzkidura du; horietatik 36.000 A modalitatean sartutako proiektuetarako dira, eta gainerako 15.000 euroak B modalitateko jardueretarako. Aurtengo deialdia berrikusi da, eta aldaketak egin dira dirulaguntzaren eskaera eta proiektuen eta jardueren justifikazioa arintzeko, eta, horretaz gainera, diruz lagundutako ekintzak egitea erraztu da, funtsak aurreraturik. Urte honetatik aurrera, nahitaez, dirulaguntzen eskaerak telematikoa izan behar du, eta horrek ere aldaketak ekarri ditu deialdiaren diseinuan eta eranskinetan.

Orotara 16 eskaera aurkeztu dira, 14 eskaera A modalitatean (proiektuak) eta bertze bi B modalitatean (jarduerak). B modalitateko biak ezetsi ziren, deialdian ezarritako helburua ez betetzeagatik, bai eta A modalitateko bat ere, ezarritako gutxieneko puntuaziora (60 puntu) ez iristeagatik. Azkenik, 13 proiektu lagundu dira diruz, eta horien artean banatu dira dirulaguntza honetako funts guztiak.

Hauek dira dirulaguntza jaso duten erakundeak: Jóvenes para Cristo elkartea, Antitele Denbora Libreko Kluba, Asociación SEI – Servicio Socioeducativo Cultural, Albatros kluba, Grupo Scout V Tropa gazte-elkartea, Grupo Scout Mikael gazte-elkartea, Garaiz gazte-elkartea, Nafarroako Scout Katolikoen Elkarteen Federazioa, EPS Nuestra Señora de la Paz, Grupo Scout Dendari Izar Eskaut Taldea gazte-elkartea, Scouts de Navarra Movimiento Scout Católico, Grupo Scout Baracea Skaut Taldea eta I Becchi gazte-elkartea.

## GAZTEEN EKIMENEI LAGUNTZEA

Gazteria Unitateak dirulaguntza indibidualizatuen bertze deialdi bat abiaraztea aurreikusi du, gaur egun dauden deialdietatik kanpo geratzen diren gazte-ekimeneko jarduerak babesteko tresna bat sortzeko. Dirulaguntza horren prozesua sortzeko lanean ari dira, eta orain arte zuzenean diruz laguntzen ari ziren gazte-jarduera batzuk prozesu horretara bideratuko dira, dirulaguntzen etorkizuneko deialdia osatzeko estrategia gisa. 2019an bi laguntza-ekimen izapidetu dira laguntza-modalitate horretan: lankidetzako grafiti bat Carbonillan eta musika elektronikoko programazio bat Mendillorriko lakuan.

## PIRINIOETAKO ZEHARKALDIA

SCDR Anaitasuna elkarteak urtero antolatzen du jarduera hau; Gazteria Unitateak, bere aldetik, 16-30 urteko gazteei dirulaguntza ematen die: ekimen horretan izena emateko kostuaren % 40. Azkenik, neska gazte bakarrari eman zaio dirulaguntza hau.

# PROGRAMAK

## LITERATURA-LEHIAKETA

Udalak gazteendako antolatzen duen literatura-lehiaketara 133 lan aurkeztu dira, 2018an baino % 8 gehiago. Horietatik 60, poesian (41 gaztelaniaz eta 19 euskaraz): 36 lan 14 eta 16 urte bitarteko kategorian eta bertze 24 lan 17 eta 18 urte bitarteko kategorian; narratibari dagokionez, 73 lan (66 gaztelaniaz eta 7 euskaraz), horietatik 50 lan, 14 eta 16 urte bitarteko kategorian, eta 23 lan, berriz, 17 eta 18 urte bitartekoan.

Aurtengo deialdiko nobedadea webgune bat (www.letrajoven.com; www.letragaztea.com) martxan jarri izana da. Bertan, saritutako lanak argitaratzen dira, eta 2018an saritutako lanen paperezko edizioa ordeztu du.

## GAZTEENDAKO BERRIEMAILEAK

Gaztediaren Etxeko Gazteendako Informazio Bulegoaren mendeko Berriemaileen Programa 1996/1997ko ikasturtetik aurrera egin da etenik gabe. Gaztediaren Etxeak eta Gazteria Unitateak elkarrekin jarri dute abian, ikasturte hasieran beti egiten duten bezala, ikastetxeetan eta ikastetxe nagusietan gazte-informazioa sustatzeko programa hau; halaber, gazteendako, gazte-elkarteendako eta bertze gaztegune batzuendako profesionaltasun-ziurtagiriak eskaintzen dituzten erakundeei ere parte hartzeko aukera eman zaie.

2018/2019ko ikasturtean izandako parte-hartzeari dagokionez, aurreko aldian bezala, 44 ikastetxek parte hartu dute, eta guztira 88 berriemaile hautatu dira.

## ENTSEGU-BONOAK

Musika-talde berriei laguntzeko programari eutsi zaio, eta entsegu-gela berri bat sartu da bertan. Aurten ere handitu egin da entsegu-bonuen zenbatekoa, 60 €-raino, eta taldeek entsegu-aretoak hilean alokatzeko edo, nahiago badute, ordukako alokairuari eusteko aukera dute.

Programaren barruan, Iruñeko Udalak 353 entsegu-bonu eman ditu aurten, 293 areto batean eta 60 bertzean. Guztira 48 taldek eskatu dute zerbitzua, 2018an baino % 71 gehiagok.

## MUSIKA MARTXAN

Programa honen barruan sartzen da musika-talde hasiberrien poltsa, zeina martxoan eta apirilean eguneratzen den; gaur egun 15 talde daude izena emanda. Talde horietako bi sanferminetako Gazte Gunean jotzeko aukeratzen dira, eta beste bat Baionara joateko, hiri horretan egiten den Musikaren Bestara. Urrian Musika Martxan Fest egin da, zerrendan izena eman duten musika-taldeek eta jotzen hasi diren bertze batzuek ere oholtza gainean aukera bat izan dezaten. Jardunaldi horietan sartu dira, halaber, Baiona Live Festivalen finalaurrekoetara iritsi ziren Iruñeko bi taldeak eta Zestoako talde irabazlea.

## ALKOHOLAREN ETA BERTZE DROGA BATZUEN KONTSUMOAREKIN LOTURIKO ARRISKUAK MURRIZTEKO ESKU-HARTZE PROGRAMA

Kontratu berria esleitzeko fasean, enpresa bakarra aurkeztu da: Hegoak. Enpresa hori aritu da aurreko urteetan programa gauzatzen. Hori horrela, jaiguneetan alkoholaren eta bertze droga batzuen kontsumoarekin lotutako arriskuak murrizteko sentsibilizazio-kanpainarekin jarraitu nahi da, batez ere sanferminetan eta auzoetako jaietan. Kanpaina gazteei zuzendua da, mezu zehatzez osatua eta hainbat hedabidetara egokitua, komunikazio-ildo bat sortzeko eta diseinatzeko.

San Fermin.- Sanferminetan esku hartzeko, informazio-gune finko bat gaitu da Errekoleten plazan. Bertan, informazio- eta hezkuntza-arloko esku-hartze bat egiten da, bereziki gazteei zuzenduta. Egunak eta ordutegia: uztailaren 6an, 15:00etatik 19:00etara, eta uztailaren 7tik 13ra, 23:00etatik 03:00etara.

Gune finkoko datu orokorrak:

| | |
|---|---|
| **Banatutako materialak, guztira** | 873 |
| Gunera hurbildu diren eta bertan parte hartu duten pertsonen zenbatespena | 817 |
| Gizonak | 514 |
| Emakumeak | 303 |
| Galderak zituzten pertsonak, gutxi gorabehera | 406 |
| Adin-tarteak | 15 - 52 |

Halaber, informaziorako 2 gune ibiltari instalatu dira, eta informazio- eta hezkuntza-lana egin da aurreko urteko behaketaren bitartez gazteen kontzentrazio eta joan-etorri handiena zutela detektatutako eremuetan. Egunak eta ordutegiak: uztailaren 6an, 16:00etatik 18:00etara, eta uztailaren 7tik 13ra, 23:00etatik 03:00etara; bertze gunean, berriz, hauek: uztailaren 6tik 13ra, 19:00etatik 23:00etara. Orotara 1.505 pertsona inguratu ziren (820 emakume eta 685 gizon).

***Auzoak.-*** Kontratua ez zegoen esleiturik auzoetako jaiei hasiera ematean, martxoan, baina programa gauzatzea erabaki da eta, horretarako, Hegoak elkartea hartu da kontuan. Jai Batzorde eskatzailearekin batera, auzo bakoitzerako berariazko programazio-proposamen bat egin da, inguruko beharretara egokituta eta esku hartzen duen elkartearen eta gizartearen errealitatea kontuan hartuta. Sanduzelai, Txantrea, Arrotxapea, San Juan, Azpilagaña, Iturrama, Mendillorri, Arrosadia eta Alde Zaharra auzoetan ezarri dute programa.

Bertze auzo batzuetan, hala nola Buztintxurin eta Ermitagañan, kontsumoetan arriskuak prebenitzeko informazio-lantegiak egin dira familientzat eta bitartekari-informatzaileentzat. Gainera, Txantreako jaien aurreko egunetan, auzoko 8 etxabetan sentsibilizazio bat egin da jaietako espazioetan egiten diren prebentzio-jarduerei buruz.

ESKU-HARTZEAK ETXABEETAN

Iaz etxabeen gida argitaratu ondoren, Gazteria Unitateak Iruñean aisialdiko lokalei buruz indarrean dagoen araudiari buruzko hurbilketa eta sentsibilizazioa egitea aurreikusi zuen. Horretarako, lan bat hasi zen iazko urtearen amaieran, eta Hegoak elkarteak esku hartzeko proposamena egin zuen. Hegoak elkarteak aurkeztu duen proiektuaren helburua da araudia gazteak dauden lokaletara hurbiltzea eta, modu osagarrian, gazteriarekin eta aisialdiko eta denbora libreko bizipenekin zerikusia duten gaiei buruzko gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartze prozesuetan parte hartzea eskaintzea. Iruñeko auzo guztietan esku hartu nahi da, baina, aurrekontua dela eta, lokal gehien duten auzoetatik hasten da: Arrosadia, Azpilagaña eta Mendillorri. Orotara, 29 etxabetara jo da: 15 Arrosadian, 9 Azpilagañan eta 5 Mendillorrin, eta harrera ona izan da.

SEXU-HEZKUNTZA ETA HORREKIN LOTUTAKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

2018az geroztik, Gazteria Unitateak lan-ildo bat du sexualitatearen gaia gazteekin eta gazteentzat lantzeko. Egindako ekintzen artean, nabarmentzekoa da sexu-heziketarako kanpaina, Hiesaren Aurkako Batzordearekin eta Nafarroako Gazteriaren Kontseiluarekin batera, bai San Fermin jaietan, bai auzoetako jaietan. Kanpainaren barruan sentsibilizazio-ekintzak egiten dira, bai eta prebentzio- eta hezkuntza-materiala banatu ere.

«TXANKLETAK» UDAKO PROGRAMA

Kirol-jarduerak programatu dira, hala nola urpekaritza, saltinga (saltoka), eskalada eta piraguismoa, baita adimena lantzeko jarduerak –Ziudadelako Zonbien Inbasioa, adibidez, Kultura alorrarekin batera antolatua Harresien Jaialdiaren barruan; nobedade gisa, Gaztediaren Etxeko antzerki-talde batek dinamizatu du–, eta kultur arlokoak ere bai –zinemarako sarrerak, bertzeak bertze–.

Guztira 125 toki eskaini dira kirol-jarduera bakoitzerako, 135 Zonbien Inbasiorako eta 1.000 zinemarako.

- Eskalada, rapela eta abentura-parke handia: 64 (gizonak % 39,06 eta emakumeak % 60,94)
- Urpekaritza-bataioa: 105 (gizonak % 60,95 eta emakumeak % 39,05)
- Saltinga: 84 (gizonak % 58,33 eta emakumeak % 41,67)
- Piraguismoa: 125 (gizonak % 47,20 eta emakumeak % 52,80)
- Zonbien inbasioa: 134 (gizonak % 45,52 eta emakumeak % 54,48)

Txankletak jaialdiaren barruan, gainera, «Egunero plan bat Gazteriaren Etxean» programatzen da, eta abuztuan guztira 21 jarduera antolatu dira haren barruan. Etxearen jarduera horiezaz gainera, aurten Iruñeko zenbait zentro komunitariotan (Mendillorri, Buztintxuri, Ermitagaña eta Arrotxapean) eginiko bertze lau jarduera ere bildu behar dira.

Egun bakoitzeko programazioan 411 gaztek parte hartu dute; hau da, aurreko urtearekin alderatuta, % 2 gehiagok: 108 mutilek (% 26,28) eta 303 neskak (% 73,72).

SANFERMINETAKO GAZTE-EREMUA

Kultura Alorrarekin koordinatuta, nerabezaro-aurreko gazteendako eta nerabeendako (12-17 urte) programazioa diseinatu da, xede harturik populazioaren segmentu horren behar eta ezaugarrietara egokitutako jarduera alternatibo espezifikoak eskaintzea. 2018an bezalaxe, ekitaldi honetan programazioa hilaren 7tik 14ra izan da eta, horrenbestez, sanfermin osoak hartu ditu (hilaren 6a izan ezik, egun hori berezia baita). Aurreko urteetako leku berean egin zen, Foruen plazan.

Programazioak Iruñeko gazteek eginiko 500 inkesta baino gehiago hartzen ditu kontuan. Musika, dantza, lantegiak, bakarrizketak, kontzertuak eta DJak biltzen ditu. Gazte askok parte hartzen dute horiek dinamizatzen. Halaber, Gazteen Gurutze Gorriko bi animatzaile daude espazioa dinamizatzeko, eta community manager bat edukiak dinamizatzeko eta sare sozialen jarraipena egiteko.

EGUBERRIETAKO ZINEMA

Hirugarren urtez jarraian, «Eguberrietako Zinema» kanpaina egin da, zeinaren helburua baita gazteei modu onean aisialdiko aukera bat eskaintzea hirian eskolako oporraldian. Iruñeko 14 eta 30 urte bitarteko gazteentzat 1.200 txartel erosi dira, zinemako sarrerekin trukatzeko.

# BERTZE LAN-ILDO BATZUK

## CREACITY-BAIONA

Aurrera segitzen du Creacityko lantaldearekiko harremanak, Baionarekin zehazki, eta lan egiten jarraitzen da musikaren munduaren inguruan aukerak eta sareak sortzeko eta Baionako eta Iruñeko musika taldeen arteko trukeak egiteko. Aurten hiriko zenbait taldek parte hartudute Bayonne Live Festival lehiaketan, eta entsegu-areto baten arduraduna izan da lehiaketako epaimahaiko kide. Ekainaren 21ean, Taldeen Burtsan izena emanda dagoen musika talde bat Baionan musikaren eguna ospatzeko antolatutako kontzertuetan aritu da.

Lan-ildo horretaz gainera, balioesten ari dira Baionako auzo bateko MVC baten (Maison de la Vie Citoyenne, hiri-bizitzako etxea) eta Iruñeko zentro komunitarioetako baten arteko trukea eta ezagutza ere. Baionan Musikaren Besta egiten zela eta, Iruñeko eta Baionako Udaleko Gazteria teknikariek MVCa bisitatu zuten.

## IRUÑEKO 2030EKO PLAN ESTRATEGIKOA

Urtarrilean eta otsailean Bulego Estrategikoarekin batera lan egin da, gazte jendez osaturiko zenbait lantalde eginez, Hiri Plan Estrategikoaren inguruko dinamikak antolatzeko. Zehazki, 3 talde antolatu dira: bat Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleekin, bertze bat Nafarroako Unibertsitatekoekin eta hirugarrena Gazteen Etxeko Informazio Zerbitzuetako pertsonekin. Guztira 80 gazte inguruk parte hartu dute, eta egungo Iruñeaz eta izan nahiko luketen Iruñeaz galdetu zitzaien.

## HAURTZARO-PLANA

Hilabete hauetan bilerak egin dira Udaleko Haurren Planaz arduratzen den teknikariarekin, plana aurkezteko eta bi arloen arteko aliantzak eta lankidetza-aukerak bilatzeko. Planaren puntu garrantzitsuenetako bat «planaren kideen» sare bat sortzea da, informazio-korrespontsaliak simulatzeko eta sare hori sortu nahi den haurren partaidetza-organorako aprobetxatzeko. Ikastetxeek ere parte hartzen dute planaren aurkezpenean.

## HIRI HEZITZAILEAK, «BALIOEN HIRIA»

Aurten ere Balioen Hiria sare tematikoan parte hartu da. Jardunaldiak Bilbon egin dira, apirilaren 4an eta 5ean. Hauek izan dira lanerako gai nagusiak: sarearen balioen agiria onartzea, agenda komun bat diseinatzea, eta agiriaren balioen inguruko jardunbide egokiak ezagutzea, hainbat hiritan egiten baitira. Gazteria Unitateak jardunbide egoki gisa aurkeztu du «gazteendako berriemaileak» programa, jasangarritasunaren, elkartasunaren, parte-hartzearen eta erantzukidetasunaren balioetan oinarriturik. Era berean, 2020ko martxoaren 11, 12 eta 13an Sevillan egindako estatu-topaketa aurkeztu da. Jardunaldietan parte hartu ondoren, hainbat esperientzia partekatu dira Udaleko bertze arlo batzuetako teknikariekin, eredu izan daitezkeelakoan. Sarearen hurrengo bilera azaroaren 21ean eta 22an izan zen, Bilbon.

## LATITUDES IRAKURKETA-KLUBA

Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteria Alorraren eta Gizarte Zerbitzuen Alorraren arteko akordio baten babesean, Gazteriako teknikari batek irakurketa-klub bat koordinatu eta monitorizatu du San Frantziskoko liburutegian, herritartasun globala interesgune gisa hartuta. Irakurketa-kluba 2019-2020ko ikasturtean ere eginen da, eta horren oinarri den akordioak aukera ematen du Gazteria Unitatearen eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Udal Programaren artean baterako bertze ekintza batzuk egiteko.

2018-2019ko denboraldian klub honek 20 laguneko taldea zuen. Hurrengo denboraldirako, 2019-2020rako, bigarren talde bat jarri da martxan, ekimenak izan duen eskaerari erantzuteko. Beraz, orain talde honetako bi talde daude, eta guztira 40 lagunek eman dute izena. 2019an orotara 12 saio egin dira.

2018-2019ko denboraldiari amaiera emateko, topaketa bat egin zen Paloma Camacho poetarekin, eta ezohiko bilkura bat, Emakumeen Arretarako Udal Zerbitzuarekin batera.

## BREATHLESS PROPOSAMENA

Sanduzelaiko Breathless Center dantza-eskolarekin harremanetan jarri ziren, gazte-gunean masterclass bat dinamizatzeko. Azkenik, ez zen akordiorik lortu, baina berriro jarri ziren harremanetan Gazteria Unitatearekin, eta hainbat dantza-estiloren inguruko ekitaldi/lehiaketa bat antolatzeko proposamena aurkeztu zuten, hiriko bertze arte-diziplina batzuk bildurik, hala nola grafitiak, skatea, BMX, eta beste. Hori horrela, Bilboko Break on Stage ez ezik Zaragozan, Donostian edo inguruko hirietan egiten diren bertze ekitaldi batzuk ere hartzen ditu erreferentziatzat. Baloratzeko dago.

## RUBIKEN KUBOAREN LEHIAKETA NAZIONALA

Gaztediaren esparruko lan-ildoetako bat gazte-jarduerak eta -proiektuak babestea da, eta, horri dagokionez, martxoan Labriten egindako Rubiken Kuboaren Lehiaketa Nazionala babestu da. Bertan 71 lehiakidek parte hartu zuten araututa dauden 18 modalitateetatik 13tan.  Programak izandako harrera ona kontuan hartuta, txapelketa antolatzen duten gazteekin elkarlanean jarraitzea aurreikusi da, Gazteen Etxean hartuz eta ekitaldia antolatzeko prozesuan lagunduz.

## GAZTERIAREN KONTSEILUA

Hilabete hauetan hainbat bilera egin dira Gazteriaren Kontseiluko teknikariekin. Lehenengoak gazteria-talde tekniko berria eta CJN-NGK garatzen ari zen lan-ildo batzuk aurkezteko balio izan zuen. Ondoren, Kontseiluak, Foru Parlamenturako hauteskundeak zirela eta, «Gazteria eta politikariak, hitz eginen dugu?» proiektua aurkeztu zuen. Proiektu horrek Gazteria Unitatearen laguntza izan zuen proiektua zabaltzeko, jarraipena egiteko eta Iruñean gazteekin eta ordezkaritza politikoarekin elkartzeko egunean egoteko.

Halaber, kontseiluarekin ere harremanetan da, sexu-osasuneko kanpainarako.

## NAFARROAKO KIROL ETA GAZTERIAREN INSTITUTUA

Gazteriaren Etxeko kudeaketa-taldeak eta udal-teknikarien taldeak Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren prestakuntza-jardueretan, koordinazio-bileretan eta lan teknikoko mahai espezifikoetan parte hartzen dute. Gaur egun, gazteriaren arloko koordinazioa sistematizatzeko prozesuan dago Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua, eta prozesu horretan aktiboki lan egiten du Gazteria Unitateak.

Halaber, Gazteria Unitateak Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren 2019ko Gazteentzako Programak gauzatzeko toki-erakundeendako dirulaguntzan parte hartu du.

## ZURRUMURRUEN AURKAKO GAZTE TOPAKETA

Goi-bilera horiek 2016. urteaz geroztik egiten dira, eta helburua da gogoeta egitea, eztabaidatzea eta estereotiporik gabeko eta aurreiritzirik gabeko gizartea bultzatzeko estrategiak bilatzea.

Aurten, Gazteria Unitatea Ekintza Komunitarioko Arloarekin lankidetzan aritu da: partaideak Madrilen irailean egin zen IV. Zurrumurruen aurkako Gazteen Goi-bilerara joatea finantzatu. Zurrumurruen aurkako estrategia lantzen ari diren elkarteetako 14 gaztek parte hartu dute. Elkarte horietako asko Zaskakoak dira, Nafarroako Zurrumurruen Aurkako Sarekoak. Sare hori 30 bat gizarte erakundek eta udalek osatzen dute.

# 2.6.1.

# KULTURA ETA BERDINTASUNA

## KULTURA

### CIVIVOX SAREA

ERABILTZAILEAK

**Beste espazio batzuetako erabiltzaileak adierazi dira, ez udako programa guztikoak*

| | 2019 | 2018 | 2017 | 2016 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| Kondestablearen jauregia | 206.521 | 214.786 | 225.866 | 152.936 | 144.669 |
| Zabalgunea | 42.343 | 45.213 | 39.645 | 41.844 | 37.209 |
| Iturrama | 186.958 | 198.020 | 218.988 | 221.051 | 215.153 |
| Juslarrotxa | 120.017 | 116.537 | 107.597 | 86.875 | 88.261 |
| Mendillorri | 43.281 | 48.826 | 62.538 | 66.006 | 60.614 |
| Arrosadia | 33.525 | 40.760 | 35.604 | 35.045 | 31.221 |
| Sanduzelai | 62.102 | 100.293 | 61.002 | 65.976 | 58.309 |
| Atari zabalean | 56.842 | 28.317 | 31.262 | 28.603 | 46.745 |
| GUZTIRA | **751.589** | **792.752** | **782.502** | **699.762** | **682.181** |

CIVIVOX SAREAN 2019KO URTARRILETIK ABENDURA BITARTEAN PROGRAMATUTAKO UDAL-JARDUERAK

| Civivox zentroa | Ikastaroak + bisitak | Solasaldiak/ hitzaldiak | Jaiak/ Ikuskizunak | Lehiaketak | Erakus. | Zinema | Beste batzuk | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Kondestablea-ren jauregia | 127 | 25 | 43 | 3 | 40 | 59 | 21 | **318** |
| Zabalgunea | 83 | 5 | 5 | | 8 | | 6 | **107** |
| Iturrama | | 14 | 43 | | 10 | 22 | 12 | **101** |
| Juslarrotxa | 61 | 17 | 25 | | 12 | 1 | 8 | **124** |
| Mendillorri | 58 | 11 | 30 | | 8 | 8 | 22 | **137** |
| Arrosadia | 38 | 9 | 6 | | 5 | | 9 | **67** |
| Sanduzelai | 68 | 8 | 26 | 1 | 8 | 6 | 13 | **130** |
| Atari zabalean/ bestelakoak | 24 | | 51 | | | 20 | 7 | **102** |
| GUZTIRA | **459** | **89** | **229** | **4** | **91** | **116** | **98** | **1.086** |

| Civivox zentroa | Ikasta-roak + izena eman-dakoen bisitak | Ikasta-roak + bisita par-te-hart-zaileak | Solas. /hitz. | Jaiak/ ikusk. | Lehiake-tak | Erakus. | Zine-ma | Beste batzuk | PAI | Bainu./ Ikasg. | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Kondes-tablearen jauregia | 2.179 | 10.527 | 639 | 4.038 | 257 | 106.218 | 5.032 | 468 | 8.660 | | **135.839** |
| Zabalgunea | 1.106 | 5.073 | 118 | 210 | | 8.097 | | 81 | 1.371 | 6.746 | **21.696** |
| Iturrama | 2.416 | 35.179 | 1.037 | 6.061 | | 7.536 | 4.450 | 193 | 1.725 | 40.012 | **96.193** |
| Juslarrotxa | 1.075 | 18.136 | 665 | 1.874 | | 6.482 | 22 | 62 | 1.961 | | **29.202** |
| Mendillorri | 888 | 11.442 | 353 | 2.412 | | 3.745 | 967 | 245 | 2.688 | | **21.852** |
| Arrosadia | 657 | 9.304 | 343 | 496 | | 3.280 | 462 | 132 | 889 | 2.968 | **17.874** |
| Sanduzelai | 1.209 | 12.731 | 504 | 2.939 | 99 | 6.957 | 883 | 311 | 1.560 | | **25.984** |
| Beste batzuk | 441 | 486 | | 31.602 | | | 5.963 | 535 | | | **38.586** |
| Guztira | **9.971** | **102.452** | **3.659** | **49.632** | **356** | **142.315** | **17.779** | **2.027** | **18.854** | **49.726** | **387.226** |

## CIVIVOX SAREAN 2019KO URTARRILETIK ABENDURA BITARTEAN PROGRAMATUTAKO UDAL-JARDUERETAN ZENBATEK PARTE HARTU DUTEN

| Civivox | Entitateak | Erabilerak | Orduak | Erabiltzaileak |
|---|---|---|---|---|
| Kondestablearen jauregia | 289 | 2.806 | 7.308 | 70.682 |
| Zabalgunea | 133 | 1.014 | 2.483,32 | 20.647 |
| Iturrama | 209 | 2.848 | 6.579 | 90.765 |
| Juslarrotxa | 200 | 3.789 | 10.121,77 | 90.815 |
| Mendillorri | 114 | 1.087 | 2.540 | 21.429 |
| Arrosadia | 71 | 998 | 1.818,25 | 15.651 |
| Sanduzelai | 135 | 1.849 | 5.133,75 | 36.118 |
| San Joan Bosco | 19 | 1.387 | 1.732,5 | 18.256 |
| Guztira | **917**** | **15.778** | **37.717** | **364.363** |

## LAGAPENEN BILAKAERA

| | 2019 | 2018 | 2017 | 2016 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| Lagapen iraunkorrak | 210.658 | 205.438 | 215.293 | 200.962 | 196.827 |
| Lagapen puntualak | 153.705 | 169.443 | 85.899 | 85.433 | 69.348 |
| Udal-lagapenak | *-- | *-- | 52.148 | 40.928 | 35.134 |
| **PARTE-HARTZAILEAK, GUZTIRA** | **364.363** | **374.881** | **353.340** | **327.323** | **301.309** |
| **Entitate eskatzaileak** | **917** | **729** | **836** | **811** | **626** |

**2018an eta 2019an, ez dira bereizi udal-lagapenak eta lagapen puntualak.*

ERABILERA-ORDUEN BILAKAERA

| | 2019 | 2018 | 2017 | 2016 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| Kondestablearen jauregia | 7.308 | 6.267 | 7.433 | 6.398 | 5.565 |
| Zabalgunea | 2.483,32 | 1.786 | 1.424 | 888 | 817 |
| Iturrama | 8.311,50 | 7.089 | 8.894 | 6.823 | 6.634 |
| Juslarrotxa | 10.121,77 | 8.845 | 10.246 | 6.132 | 6.268 |
| Mendillorri | 2.540 | 2.034 | 3.954 | 3.193 | 2.656 |
| Arrosadia | 1.818,25 | 1.756 | 1.603 | 1.122 | 1.153 |
| Sanduzelai | 5.133,75 | 5.340 | 5.539 | 4.107 | 3.787 |
| **GUZTIRA** | **37.717,00** | **33.117** | **39.092,50** | **28.661,30** | **26.879,25** |
| **Erabilerak** | **15.778** | **15.150** | **17.626** | **13.118** | **12.859** |

Civivoxen irekiera-orduak:

| | 2019 |
|---|---|
| Kondestablearen jauregia | 4.276,50 |
| Zabalgunea | 2.764,50 |
| Iturrama | 3.871,00 |
| Juslarrotxa | 3.574,75 |
| Mendillorri | 3.684,75 |
| Arrosadia | 2.764,50 |
| Sanduzelai | 3.662,75 |
| San Joan Bosco | 1.210,00 |
| **GUZTIRA** | **25.808,75** |

Jendaurreko arreta-orduak (Civivox):

| | 2019 |
|---|---|
| Kondestablearen jauregia | 3.178,00 |
| Zabalgunea | 2.515,00 |
| Iturrama | 2.780,00 |
| Juslarrotxa | 2.590,00 |
| Mendillorri | 2.690,00 |
| Arrosadia | 2.515,00 |
| Sanduzelai | 2.670,00 |
| Sanduzelai | 1.210,00 |
| **GUZTIRA** | **20.148,00** |

# ERAKUSKETAK

| | | |
|---|---|---|
| Ziudadelako aretoa<br>Arma Aretoa<br>Mistoen Eraikina<br>Bolborategia<br>Labea | <br>2<br>13<br>7<br>7 | 29 |
| Ziudadela-Bertze esku-hartze batzuk | | 3 |
| Kondestablearen jauregia<br>Ekoizpen propioa<br>Lagatzeak | <br>9<br>39 | 48 |
| Bertze gune batzuk | | 2 |
| **ERAKUSKETAK, GUZTIRA** | **82** | |

## ZIUDADELA ERAKUSKETAK

| Erakusketa | Aretoa | Datak | Bisitak |
|---|---|---|---|
| Bada edo ez da – Iruñeko Udalaren bilduma | Arma Aretoa 1-2 | Urriak 30 – otsailak 24 | 6.558 |
| Ramón Esono – Afrika behar-beharrezkoa | Mistoen E. - 1 | Azaroak 8 – urtarrilak 20 | 3.924 |
| Emilio Matute | Bolborategia | Azaroak 16 – urtarrilak 13 | 2.392 |
| Miguel Ángel Eugui | Mistoen E. - B | Azaroak 23 – urtarrilak 20 | 4.778 |
| Zita Ayala | Labea | Urtarrilak 11 – martxoak 3 | 2.296 |
| Elena Moreno | Bolborategia | Urtarrilak 18 – martxoak 10 | 2.626 |
| Marijose Recalde | Mistoen E. - B | Urtarrilak 25 – martxoak 17 | 3.891 |
| Montse Borda | Labea | Martxoak 8 – apirilak 28 | 2.313 |
| Celia Eslava | Bolborategia | Martxoak 15 – maiatzak 5 | 2.792 |
| Argazkilaritza garaikidea Telefónica bilduma | Mistoen E. - B | Martxoak 28 – maiatzak 12 | 3.909 |
| Argazkilaritza garaikidea Telefónica bilduma | Mistoen E. - 1 | Martxoak 28 – maiatzak 12 | 2.897 |
| Abstraktu ¡ | Arma Aretoa 1-2 | Apirilak 16 – ekainak 30 | 6.596 |
| Arte Garaikidearen Bilduma. Iruñeko Udala | | Urriak 26 – urriak 13 | |
| Monika Aranda | Labea | Maiatzak 10 – ekainak 30 | 3.337 |
| Amaia Molinet | Bolborategia | Maiatzak 10 – ekainak 30 | 1.576 |
| Jordi Bernardó | Mistoen E. - B | Maiatzak 23 – ekainak 30 | 2.199 |
| Elba Martínez eta Pilar Consuegra | Mistoen E. - 1 | Maiatzak 24 – ekainak | 1.630 |
| Iosu Rekalde | Labea | Uztailak 24 – irailak 8. | 2.238 |
| Maite Canto | Bolborategia | Uztailak 31 – irailak | 2.859 |

| Erakusketa | Aretoa | Datak | Bisitak |
|---|---|---|---|
| Iruditeriak - Ilustrazioa Nafarroan | Mistoen E. - 1 | Maiatzak 24 – ekainak | 5.938 |
| Iruditeriak - Ilustrazioa Nafarroan | Labea | Uztailak 24 – irailak 8. | 4.279 |
| Ángel Presencio | Bolborategia | Irailak 20 – azaroak 10 | 2.350 |
| XIII. Mpamunditarrak: Ispilua | Mistoen E. - B | Irailak 26 – urriak 27 | 1.147 |
| XIII. Mapamunditarrak Javier Arbizu | Mistoen E. - 1 | Irailak 26 – urriak 27 | 1.370 |
| Santos Bregaña | Bolborategia | Irailak 27 – azaroak 17 | 2.885 |
| Jorge Martínez Huarte | Mistoen E. - 1 | Urriak 31 – abenduak 15. | 2.780 |
| Afrika behar-beharrezkoa | Labea | Azaroak 8 – urtarrilak 12. | 4.207 |
| Amaia Gracia | Mistoen E. - B | Azaroak 15 – urtarrilak 5. | 1.419 |
| Paul Alexandre | Labea | Azaroak 28 – urtarrilak 19. | 3.139 |
| Hiru, Hari, Hori | Mistoen E. - 1 | Abenduak 20 – otsailak 16. | 3.964 |
| **2019KO BISITARIAK, GUZTIRA** | | | **92.289** |

## ZIUDADELA - BESTE ESKU-HARTZE BATZUK

| Erakusketa | Aretoa | Datak |
|---|---|---|
| TöKö – Instalazio interaktiboa | Gune zentrala | Urtarrilak 1– 7 |
| Inside Out – Iturrama BHI | Kanpoaldea | Apirila |
| Mikel Belascoáin | Kanpoaldea | Abenduak 20 – ekainak 21 |

## KONDESTABLEAREN JAUREGIA

| Erakusketa | Aretoa | Datak |
|---|---|---|
| Pedro Salaberri | 1. eta 2. aretoak | Azaroak 23 – urtarrilak 13 |
| As. Alfredo Sada. Hiri-geometria | 1. aretoa | Urtarrilak 16 – otsailak 24 |
| Alfredo Díaz de Cerio | 1. eta 2. aretoak | Otsailak 28 – apirilak 7 |
| Nafarroa Oinez 2019 | 1. eta 2. aretoak | Apirilak 12 – maiatzak 12 |
| Eduardo Córdoba | 1. eta 2. aretoak | Maiatzak 16 – ekainak 21 |
| Luis Azanza – SF unibertsoa | 1. aretoa | Ekainak 28 - abuztuak 25 |
| Komikiaren X. erakusketa – Telefónica fundazioa | 1. eta 2. aretoak | Irailak 13 - urriak 27 |
| Isidro López Murias | 1. eta 2. aretoak | Urriak 31 – abenduak 8 |
| Xabier Morrás | 1. eta 2. aretoak | Abenduak 13 – urtarrilak 19 |
| Luis Valtueña argazki-lehiaketa | 1. patioa | Abenduak 10 – urtarrilak 13 |
| Iruña fokatuz | Ezkaratza - B patioa | Abenduak 20 – urtarrilak 20 |
| Mendi bete diru. Nafarroako Mendizale Federazioa | 2. patioa | Urtarrilak 4– 27 |
| Proiektuak Epaimahia Hirigintza | 2. aretoa | Urtarrilak 17– 20 |
| Pinocchio. Italiako kontsul-etxea | Areto gotikoa | Urtarrilak 21 – otsailak 24 |

| Erakusketa | Aretoa | Datak |
|---|---|---|
| 8 argazkilari txiki handi, Erriberri | Ezkaratza | Urtarrilak 23 – otsailak 24 |
| AECC, Minbiziaren kontrako Mundu Eguna | B patioa | Otsailak 4 – 10 |
| Liburu partekatuak. A.Partaidetza | 1. patioa | Otsailak 4 – martxoak 3 |
| Moda argazkiak. 948 pasarela | B patioa | Otsailak 12 – otsailak 25 |
| Erorien Monumentua, proiektu hautatuak | 2. patioa | Otsailak 15 – martxoak 7 |
| Udal Artxiboko Erdi Aroko dokumentuak | Areto gotikoa | Martxoak 1 – 31 |
| Iruñea Antitaurina | B patioa | Martxoak 9 – 21 |
| Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala, XV. Argazki Lehiaketa | 1-2 patioak | Martxoak 8 – apirilak 28 |
| 27. Infografia Lehiaketa: Zinegrafikoak | B patioa | Martxoak 27 - Apirilak 21 |
| Mediterraneoko erreskateak MSF | Areto gotikoa | Apirilak 3 – 22 |
| Jaunaren Nekaldia, XX. Argazki Sariketa | Ezkaratza | Apirilak 4 – 22 |
| 100 urte La Pamplonesarekin | B patioa – Areto Gotikoa | Apirilak 30 – Irailak 1 |
| Arrotxapea | 268 | 292 | 293 | 285 | 212 | 241 | 274 | 309 | 77 | 52 | 64 | 66 | 36 |
| Sanduzelai | 119 | 111 | 115 | 124 | 90 | 84 | 107 | 107 | 55 | 34 | 33 | 31 | 11 |
| Donibane | 268 | 237 | 256 | 319 | 254 | 224 | 280 | 329 | 119 | 67 | 91 | 69 | 81 |
| **Iruña** | **1.990** | **2.121** | **2291** | **2255** | **1.734** | **1.835** | **2190** | **2503** | **825** | **568** | **666** | **526** | **518** |

Etxez etxeko laguntza-zerbitzuak (EELZ) zuzeneko arta etxean bertan eskaintzen die zerbitzuaren hartzaileei, gehienez bi orduz egunero. 2019an, zerbitzu horretako prestazioren bat erabiltzen duten pertsonen 1.063 espedienterekin lan egin da. Guztira zuzeneko arreta pertsonaleko 146.497,87 ordu eskaini zaizkie 935 etxetan erabiltzaileei. Gainera, 100.853 bazkari eta 29.298 afari ere eman zaizkie 494 pertsonari, beren beharretara egokitutako menuekin. Azkenik, 812 garbitegi-zerbitzu egin dira 18 etxetan.
Adinekoentzako udal-apartamentuei dagokienez, auzoko unitateek udal-apartamentuen 36 espediente eskatu eta balioetsi dituzte 2019an. Hala, banakako 140 apartamentu eta 4 apartamentu bikoitz daude okupatuta 2019an. Bertan 151 pertsona daude: 129 bakarrik bizi dira eta 22, berriz, bikotekidearekin. 151 egoiliarretatik 93 emakumeak dira, eta 58, gizonak. Adinari dagokionez, egoiliarren batez bertzeko adina 77 urtekoa da. Udal-apartamentuetan, batez bertzeko egonaldia 6,80 urtekoa da.
2019an, Udalak birgaitutako 15 apartamentu ditu, eta horietan hobekuntzak egin dira moldagarritasunari dagokionez.

3. HAURREI ETA FAMILIEI LAGUNTZEKO PROGRAMA.

Haurren eskubideak bermatzea du xedetzat programa honek, eta haien garapen pertsonala ahalbidetzen duen ingurunea bermatzea; horretarako, prebentzio, sustapen, babes, laguntza pertsonal, familiar eta sozialeko neurriak erabiltzen ditu, eta, babesgabetasun-egoerak daudenean, baita familiako esku-hartzea ere, baina adingabeen instituzionalizazioa saihesten da betiere.

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Artatutako familiak | 844 | 792 | 992 | 975 | 1.253 |
| Artatutako adingabeak | 1.365 | 1.558 | 1.493 | 1.787 | 1.924 |

Programan 613 adingabe (311 mutil eta 302 neska) artatu ziren lehendabizikoz 2019an. Aurten, 463 adingaberekin amaitu da esku-hartzea (247 mutil eta 216 neska). Familien arreta areagotu egin da: 278 lagun gehiago artatu dira 2018. urtearekin alderatuta.

- Familietan Esku Hartzeko Zerbitzua (FEHZ).

Haurren Programaan berariazko baliabide hau dago; lehiaketa publiko bidez kudeatzen da, eta, babesgabetasun-faktoreak daudenean, adingabearen etxean bertan esku hartzean datza. 2019an, 84 kasutan esku hartu da.

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Familia kopurua | 140 | 148 | 89 | 84 | 95 |

4. GIZARTERATZE-PROGRAMA

Helburua da bazterturik gelditzeko arriskuan edo bazterturik dauden pertsonen gizarteratze-bidea sustatzea; hartara, banakako gizarteratze-ibilbideak diseinatzen dira, eta pertsona horiek gizarte- eta hezkuntza-laguntza jasotzen dute. Kasu horretan, gizarte-laneko eta gizarteratze-teknikariek esku hartzen dute, eta, zenbait kasutan, psikologoek ere bai.

| GIZARTERATZE-PROGRAMA | FAMILIA-UNITATEAK | | | | ERABILTZAILEAK | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
| Alde Zaharra | 64 | 70 | 79 | 105 | 76 | 83 | 93 | **124** |
| Etxabakoitz | 68 | 77 | 89 | 118 | 87 | 96 | 115 | **146** |
| Zabalgunea | 67 | 73 | 75 | 92 | 78 | 83 | 84 | **114** |
| Ermitagaña | 55 | 62 | 65 | 79 | 66 | 74 | 77 | **103** |
| Iturrama | 18 | 23 | 23 | 50 | 22 | 25 | 26 | **59** |
| Mendillorri | 43 | 44 | 49 | 64 | 55 | 56 | 66 | **76** |
| Arrosadia | 64 | 129 | 193 | 339 | 80 | 173 | 274 | **485** |
| Arrotxapea | 104 | 114 | 114 | 225 | 127 | 132 | 135 | **275** |
| Sanduzelai | 76 | 96 | 101 | 118 | 110 | 136 | 137 | **172** |
| Donibane | 31 | 34 | 38 | 70 | 38 | 38 | 44 | **71** |
| Txantrea | 105 | 149 | 179 | 251 | 137 | 179 | 210 | **300** |
| **GUZTIRA** | **1.990** | **2.121** | **2291** | **2255** | **1.734** | **1.835** | **2.190** | **2.503** |

| GIZARTERATZE-PROGRAMA | GIZARTE- ETA HEZKUNTZA-LAGUNTZA DUTEN PERTSONAK | | | | ESKU-HARTZE PSIKOLOGIKOA DUTEN PERTSONAK | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
| Buztintxuri | 61 | 68 | 68 | 82 | 2 | 9 | 6 | **7** |
| Alde Zaharra | 52 | 37 | 48 | 61 | 5 | 17 | 7 | **5** |
| Etxabakoitz | 50 | 58 | 71 | 91 | 2 | 4 | 3 | **6** |
| Zabalgunea | 27 | 29 | 42 | 55 | 0 | 3 | 3 | **2** |
| Ermitagaña | 47 | 44 | 43 | 60 | 4 | 7 | 6 | **3** |
| Iturrama | 17 | 28 | 23 | 43 | 1 | 4 | 1 | **1** |
| Mendillorri | 41 | 35 | 38 | 48 | 2 | 3 | 4 | **2** |
| Arrosadia | 65 | 50 | 69 | 94 | 4 | 7 | 12 | **7** |
| Arrotxapea | 82 | 90 | 93 | 145 | 4 | 6 | 6 | **3** |
| Sanduzelai | 45 | 61 | 69 | 82 | 3 | 5 | 7 | **4** |
| Donibane | 25 | 34 | 35 | 46 | 1 | 4 | 9 | **5** |
| Txantrea | 55 | 77 | 73 | 67 | 2 | 10 | 8 | **8** |
| **GUZTIRA** | **567** | **673** | **672** | **874** | **30** | **79** | **72** | **53** |

Era berean, prestakuntza-ekintzen kontratu teknikoaren barruan (Alaiz Elkartea ABEE – Gaztelan fundazioa), prestakuntza ematen da programa honetako erabiltzaileentzat.

**NAFARROAKO GOBERNUAREN TITULARTASUNEKO PRESTAZIOAK ESKURATZEA:** kotizaziopekoa ez den baliaezintasun-pentsioa; Gizarteratze-errenta/Errenta bermatua eta gizarteratzeko ezohiko laguntzak, familia-esparruan mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko eta desgaitasuna dutenentzat.

- **Kotizaziopekoa ez den erretiro-pentsioa.** 2019an, 65 urtetik gorako 954 pertsonak jaso zituzten pentsio horiek Iruñean, horietatik 131 aurten ari dira izapidetzen.
- **Kotizaziopekoa ez den baliaezintasun-pentsioa.** 2019an, 687 lagunek daukate aitortuta prestazio hori. 2019an, pentsio horren 50 eskaera izapidetu dira.
- **Errenta bermatua.** 2019an, Errenta Bermatuaren 7.904 eskaera izan dira hirian.
- **Ezohiko dirulaguntzak.** 2019an, 416 ezohiko laguntza eman ziren: guztira, 584.204 euro.
- **Desgaituendako dirulaguntzak.** 2019an 84 hartzaile zeuden Iruñean, eta auzo-unitateek 14 izapide egin dituzte desgaituendako dirulaguntzak eskatzeko.
- **Mendekotasuna duten pertsonak familia-esparruan zaintzeko dirulaguntza.** 2019an dirulaguntza horien 2.503 onuradun zeuden; urtean zehar, 526 izapidetu ziren.

| Oinarrizko gizarte-zerbitzua | Hartzaileak, guztira | Izapideturiko eskaerak, guztira |
|---|---:|---:|
| Buztintxuri | 25 | 5 |
| Alde Zaharra | 117 | 26 |
| Txantrea | 286 | 58 |
| Zabalgunea | 323 | 71 |
| Ermitagaña / Mendebaldea | 252 | 34 |
| Etxabakoitz | 68 | 10 |
| Iturrama | 298 | 82 |
| Mendillorri | 107 | 21 |
| Arrosadia- Azpilagaña | 270 | 53 |
| Arrotxapea | 287 | 66 |
| Sanduzelai | 156 | 31 |
| Donibane | 314 | 69 |
| **GUZTIZKO OROKORRA** | **2.503** | **526** |

- **Mendekotasuna duten pertsonendako zaintzaile profesionala kontratatzeko prestazio ekonomikoak.** 2019an 518 eskabide izapidetu ziren, eta 364 onuradunek jaso zituzten.

# ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK

## GIZARTERATZE ETA LANERATZEKO IBILBIDEETAKO ENPLEGU-PROGRAMAK

### 1. GIZARTE-ENPLEGU BABESTUA

Programak 184 pertsonako taldea du 2019an, kontratatutako peoien eta programan laguntzeko teknikarien artean: obra-lekuetako arduradunak eta ofizialak eta talde teknikoa. Talde horrek bederatzi lantaldetan lan egiten du: obrak, soldadura, pintura, garbiketa eta atezaintza, ibaiak eta mintegia mantentzeko lanak, joskintza eta jantzigintza, tapizgintza, udal-jantokia eta koadernaketa eta serigrafia. Programak udal-arloetarako eta bertze administrazio publiko batzuetarako lan egiten du, eta, zehazkiago, irabazi-asmorik gabeko erakunde/elkarteetarako.

Programa udal-dinamikan finkaturik dago, bai gizarte-bazterketa egoeran dauden hiriko pertsonak kontratatzeari dagokionez, bai eskatutako zeregin eta lanei dagokienez. 2019. urtean zehar, programa honen bidez, udaleko gizarte-zerbitzuetatik datozen 153 pertsonak (86 lanaldi oso) lan-kontratua lortu dute. % 50 baino gehiago emakumeak dira (% 57) eta % 95ek Errenta Bermatua jasotzen zuten programan sartzeko unean.

#### Egindako zenbait lan

2019an, etxebizitzak birgaitzeko obrak eta lanak udal-titulartasuneko hainbat solairutan egin ziren, etxebizitza sozial gisa erabiltzeko.
2019an, pinturako lantaldeak, bertzeak bertze, eremu horretako hainbat lokaletan (UB Donibane, Haurtzarorako eta Nerabezarorako Arreta Taldeak, gizarte ekimenetarako zentro komunitarioak) eta adinekoentzako zenbait udal-apartamentu tutelatutan lan egin du.
Koadernaketa eta serigrafiko lantaldea Udal Artxiboan aritu da(aktak eta prentsa), laneko arropa eta bertze elementu batzuk inprimatu eta serigrafiatzen, eta, horretaz gainera, txartelak, liburuxkak, triptikoak eta kartelak maketatzen, inprimatzen eta tolesten, baita urteko agendak ere.
2019an, tapizgintzako lanetan, aulkiak eta besaulkiak tapizatu, besaulkietarako zorroak egin, kuxinak egin eta ibilgailuen eserlekuak tapizatu dira.
2019an, On Egin udal-jantokiko taldeak 23.974 gosari, 25.799 bazkari eta 23.870 afari banatu ditu.

### 2. LANGABEAK INTERES OROKORREKO ETA SOZIALEKO OBRETARAKO KONTRATATZEKO DEIALDIA.

Laneratze-ibilbideetako enplegu-programetako ekintzen barruan, Udalak langabetuak kontratatzeko deialdian parte hartu du, interes orokorreko eta sozialeko obrak egiteko, Nafar Lansare – Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bultzatuta. Langabezian dauden pertsonak lehentasunezko kolektibo gisa definitutako taldeetatik kontratatzen dira 4/6 hilabetez. 2019an, bi proiektu aurkeztu dira deialdira:

- **Buruko patologia larria dutenak kontratatzeko programa.** Programa hori Elkarkide erakundearekin lankidetzan egin da, eta 4 hilabetez 10 pertsona kontratatu dira, % 33tik gorako minusbaliotasun-aitorpena dutenak osasun mentaleko patologiagatik, nekazaritza-jarduerak egiteko eta hiri-altzarien mantentze-lanak egiteko eta pintatzeko. Proiektu horren barruan emakume bat ere kontratatu da parte-hartzaileei hezkuntza-laguntza emateko.
- **Langabeak kontratatzeko programa, Donibane AU eraberritzeko eta handitzeko.** Horren bidez, 7 pertsona kontratatu dira (arkitekto tekniko bat obra zuzentzeko, obra-arduradun bat, igeltserotzako 3 ofizial eta 2 peoi).

3. BERTZE KONTRATAZIO-EKIMEN BATZUK.

- **Hauteskunde-prozesuetarako azpiegitura prestatzeko, antolatzeko eta garbitzeko pertsonak kontratatzea.** Urtean izandako bi hauteskunde-prozesuak direla eta, 10 kontratazio egin dira, Gizarteratze eta Laneratze Taldeko eta Udaleko Gizarte Zerbitzuen sistemaren erabiltzaileen artean prestazioak eskuratzeko kotizazio-beharrak dituztenekins:
    - Maiatzaren 26ko hauteskundeak: 55 urtetik gorako 6 pertsona kontratatu dira (3,5 hilabeteko iraupena).
    - Azaroaren 10eko hauteskundeak: 55 urtetik gorako 4 pertsona kontratatu dira (2 hilabeteko iraupena).

## EMAKUMEENDAKO UDALEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA

**2019an, Emakumearen Arretarako Udal Zerbitzuak 620 espediente zituen aktibo; horietatik 264k (260 emakume eta 4 gizon) aurten lehen aldiz jo dute zerbitzura, eta 356k aurreko urteetako espedientea zeukaten. Horietan 1.978 banakako arreta eskaini dira, honela banatuta: 1.103 arreta sozialak dira, 608 arreta psikologikoak eta 267 arreta juridikoak.**

### ZERBITZURA ZER ARRAZOIGATIK JOTZEN DUTEN

| Tipologia | Emaku-meak | Gizonak | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| Genero-indarkeria | 140 | 0 | 140 |
| Aholkularitza biktimen familiari eta inguruneari | 5 | 1 | 6 |
| Amek pairatutako indarkeriak ukitutako seme-alabak | 6 | 0 | 6 |
| Maitasun-harremanetako desorekak | 11 | 0 | 11 |
| Hauste-prozesuetako zailtasunak | 36 | 1 | 37 |
| Zailtasunak guraso-ahala eta zaintza gauzatzeko orduan | 50 | 0 | 50 |
| Prostituzioa uztea | 12 | 0 | 12 |
| Gizarte-zailtasuneko egoera | 35 | 0 | 35 |
| Salerosketaren biktima izateko susmoa | 3 | 0 | 3 |
| Guztira | 34 | 1 | 35 |
| Daturik Gabe | 2 | 0 | 2 |
| **Guztira** | **324** | **4** | **328** |
| **Guztira** | **260** | **4** | **264** |

- **Eman Aukera Zeure Buruari programa (EAZB).** Emakumearen Arretarako Udal Zerbitzuak (EAUZ) berariazko baliabide hori du, lehiaketa publiko bidez kudeatua, eta gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartze bat egiten du EAUZen artatutako arazoren bat duten emakumeekin eta haien seme-alabekin, arazo hori gizarte-zailtasun bereziko egoera baten ondorioz larrituta dagoenean. Udal-apartamentu batean aldi baterako ostatua eskaintzeko aukera ematen du programak. 2019an, Eman Aukera Zeure Buruari programak 41 familia-unitaterekin parte hartu zuen (41 emakume eta 52 adingabe).

## HAUR ETA NERABEENDAKO LAGUNTZA-TALDEAK

Talde profesional honen helburua da ikertzea, balioestea eta esku hartzea babesgabetasun-arriskua duten adingabeak dituzten familietan, betiere babesgabetasun horrek ez badu eskatzen familiatik bereiztea. 2019an, 159 kasutan esku hartu zen: % 27,04k babesgabetasun larria zuten, % 61,63k moderatua, eta gainerakoak, % 11,32, balioespen-fasean daude. Babesgabetasunaren tipologiari dagokionez, aurreko urteetan bezala, ohikoena gurasoen ezintasuna eta arduragabekeria dira, eta, ondoren, tratu txar psikologikoa.

## ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

2019an, 809 pertsonak parte hartu dute Iruñeko Udaleko lanerako prestakuntza-programan. Ekintzen ardatz nagusia hau da: Iruñean zailtasun erantsiren bat duten pertsonen lanerako sarbidea sustatzea, pertsona horiek gizarteratu eta lanera daitezen lortzeko, lan-merkatuan baloratzen diren gaitasun profesionalak, pertsonalak eta sozialak garatuz, eta lanbide-kualifikazioa erdiets dezaten.

| Programa | Parte-hartzaile kop. |
|---|---:|
| Biltegirako eta harria lantzeko jarduera osagarrietako lantegi-eskola | 15 |
| Birgaitze energetikorako lantegi-eskola: igeltserotza-lanak | 15 |
| Altzariak muntatzeko eta zura eraldatzeko lantegi-eskola | 15 |
| Zerbitzu anitzeko mantentze-laneko lantegi-eskola | 15 |
| Igeltsu-plaka ijeztuko eta pinturako oinarrizko ikastaroa | 15 |
| LANTEGI-ESKOLA, Baratzezaintza eta lorezaintza, 2019ko urritik 2021eko ekainera | 20 |
| LANTEGI-ESKOLA, Soldadura, 2019ko azarotik 2021eko urrira | 20 |
| Lorezaintzako ikastaro autofinantzatua – 2018ko abendutik 2019ko apirilera | 18 |
| Gizarteratze eta Laneratze Taldea (GLT) – Gizarte eta Lan Arloko Bitartekaritza Zerbitzua (GLBZ) | 405 |
| Interes Orokorreko eta Gizarte Intereseko lanak | 20 |
| Langabeendako ikastaroak (autofinantzatuak eta SNE-NLk diruz lagunduak) | 89 |
| Emakumeen espetxeko prestakuntza-ekintzak | 76 |
| Gazteen espetxeko prestakuntza-ekintzak | 86 |
| **GUZTIRA** | **809** |

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Lantegi-eskolak eta PEPIak | 117 | 75 | 65 | 145 | 100 |
| Guk finantzatutako prestakuntza-programak | | 57 | 87 | 18 | 62 |
| Gizarteratze eta Laneratze Taldea (GLT) – Gizarte eta Lan Arloko Bitartekaritza Zerbitzua (GLBZ) | 836 | 968 | 683 | 535 | 405 |
| SNE-NLk finantzaturiko prestakuntza-ikastaroak eta espetxeetako lantegiak | 116 | 90 | 144 | 86 | 222 |
| Interes Orokorreko eta Gizarte Intereseko lanak | 19 | 17 | 19 | 19 | 20 |
| **Onuradunak, guztira** | **1.088** | **1.207** | **998** | **803** | **809** |

## LANTEGI-ESKOLAK, ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAKO PROGRAMA INTEGRATUAK ETA GUK FINANTZATUTAKO ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMAK

Lantegi-eskolak programa mistoak dira, prestakuntzakoak eta enplegukoak. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak finantzatzen ditu, eta Iruñeko Udalak eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak sustatzen dituzte, finantzaketan laguntzeaz gain. Ikasleek, prestakuntza-kontratu baten bidez, prestakuntza teoriko-praktikoa jasotzen dute, eta zeharkako arlo batzuetan trebatzen dira, hala nola funtsezko gaitasunetan, gizarte-prestakuntzan eta prestakuntza pertsonalean, enplegua modu aktiboan bilatzean eta abarretan.

| IZENA | ESPEZIALITATEAK | PROFILA | LEKU KOPURUA |
|---|---|---|---|
| Landaben Prestakuntza Zentroa | Biltegirako eta harria lantzeko jarduera osagarrietako lantegi-eskola | 16 eta 30 urte bitarteko gazteak | 15 |
| | Birgaitze energetikorako lantegi-eskola: igeltserotza-lanak | 16 eta 30 urte bitarteko gazteak | 15 |
| | Altzariak muntatzeko eta zura eraldatzeko lantegi-eskola | 16 eta 30 urte bitarteko gazteak | 15 |
| | Zerbitzu anitzeko mantentze-laneko lantegi-eskola | 16 eta 30 urte bitarteko gazteak | 15 |
| | Igeltsu-plaka ijeztuko eta pinturako oinarrizko ikastaroa | Gizarte Zerbitzuetatik bideratutako pertsonak | 15 |
| Arantzadi Prestakuntza Zentroa | LANTEGI-ESKOLA, Baratzezaintza eta lorezaintza, 2019ko urritik 2021eko ekainera | 16 eta 30 urte bitarteko gazteak | 20 |
| | LANTEGI-ESKOLA, Soldadura, 2019ko azarotik 2021eko urrira | 16 eta 30 urte bitarteko gazteak | 20 |
| | Lorezaintzako ikastaro autofinantzatua – 2018ko abendutik 2019ko apirilera | Gizarte Zerbitzuetatik bideratutako pertsonak | 18 |
| Errotazar Prestakuntza Zentroa | Mendekotasuneko prestakuntza-programa | Gizarte Zerbitzuetatik bideratutako pertsonak | 15 |

## 2. GIZARTERATZE- ETA LANERATZE-TALDEA (GLT)

2019. urtean Gizarteratze eta Laneratze Taldeak 405 espediente aktiborekin lan egin zuen, eta horietatik % 30,62 alta berriei dagozkie. Horietatik, % 59,26 emakumeak dira (iaz baino % 7,66 gehiago), eta % 40,74, gizonak. Nazionalitateen arabera, artatutakoen % 66,42 migratzaileak dira, eta % 33,58, berriz, nazionalak.

Urtean zehar lau prestakuntza-ekintza egiten dira artatutakoen gaitasun pertsonalak eta enplegagarritasuna hobetzeko: Mentoring etacoachinga, AMEDNArekin lankidetzan (11 emakume parte-hartzaile); «alzheimerra eta bertze dementzia batzuk dituztenei etxean arreta ematea», AFANekin lankidetzan (13 pertsonak amaitu dute prestakuntza); «Pintura industriala, altuerako lanak eta sareak jartzea», Eraikuntzaren Lan Fundazioak emana, Shaken SL Servicios enpresarekin lankidetzan (13 gizonek amaitu dute) eta «Harategi edo arrandegiko dendaria» Eroskirekin lankidetzan (11 pertsonak parte hartu dute).

Talde horretan sartzen da, gainera, Gizarte eta Lan Arloko Bitartekaritza Zerbitzua (GLBZ), zeinak hautaketa-prozesuak egiten baititu urtean zehar, Gizarteratze eta Laneratze Taldeko (GLT) erabiltzaileak kontratatzeko. 2019an, zerbitzuak 200 lan-eskaintza jaso zituen zuzenean, 302 lanpostutarako. Eskaintza horien ondorioz 120 laneratze izan dira, eta eskainitako lanpostuen % 40 bete dira batez bertze.

## 3. LANGABEENDAKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROAK

Enplegurako Prestakuntza Zerbitzuak lanerako prestakuntza-jarduerak egiten ditu, langabeak lehenetsita. 2019. urtean, guztira 89 pertsonak parte hartu dute 1. eta 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko lau ikastarotan; guztira, 1.376 prestakuntza-ordu. Udalak berak finantzatu zituen osorik bi ikastaro.

| IKASTAROA | Ordu kopurua | Hasiera- eta/ edo amaiera-data | PZ Maila | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|---|---|
| Mendetasuna duten pertsonen arreta soziosanitarioa erakunde sozialetan | 496 | 2019/01/14 – 2019/05/17 | 2 | 13 | 1 |
| Oinarrizko sukaldaritza-lanak | 270 | 2019/02/12 – 2019/05/10 | 1 | 10 | 5 |
| Sukaldaritza-produktuak | 170 | 2019/07/22 – 2019/09/09 | 2 | 13 | 2 |
| Eremu instituzionaleko esku-hartzeak antolatzen laguntzea | 100 | 2019/09/2 – 2019/10/04 | 2 | 13 | 2 |
| Higiene- eta elikadura-arreta ematea instituzioetan | 70 | 2019/10/14 – 2019/11/28 | 2 | 14 | 1 |
| Oinarrizko sukaldaritza-lanak | 270 | 2019/11/28 – 2019/11/28 | 1 | 13 | 2 |
| | | | | **76** | **13** |
| **ORDUAK, GUZTIRA** | **1.376** | | **PARTE-HARTZAILEAK, GUZTIRA** | **89** | |

## 4. LANTEGIAK ESPETXEAN

2019. urtean, Iruñeko Udalak prestakuntza-ekintzak antolatu, koordinatu eta finantzatu ditu Iruñeko espetxean; kasu honetan, 500 prestakuntza-ordu baino gehiago, gazteak eta emakumeak batuta.

### 1) EMAKUMEEN MODULUA (M1)

Emakumeentzako lantegietan 76 parte-hartzaile izan ziren, 256 prestakuntza-ordu guztira.

| ESPEZIALITATEA | Egunak | Ordu kopurua | Hasiera-data Bukaera-data | Parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|
| I. Moda eta jantzigintzako lantegia | 34 | 68 | 02/13 – 06/27 | 19 |
| II. Moda eta jantzigintzako lantegia | 37 | 74 | 08/07 – 12/19 | 21 |
| I. Eskulan-lantegia | 29 | 58 | 02/08 – 05/31 | 17 |
| II. Eskulan-lantegia | 28 | 56 | 09/03 – 12/20 | 19 |
| GUZTIRA | | 256 | | 76 |

### 2) GAZTEEN MODULUA (M3)

2019an gazteentzat antolatutako lantegietan 86 pertsonak parte hartu dute (lau musika-lantegietan 4. moduluko musikariek ere parte hartu dute, adin guztietakoek). Lantegi hori 1. moduluari ere eskaini zitzaion, baina ez zuten interesik agertu. Guztira 247 ordu eman dira.

| ESPEZIALITATEA | Egu-nak | Ordu kopurua | Hasiera-data Bukaera-data | Parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|
| I. Eskulan-lantegia | 29 | 58 | 02/08 - 05/31 | 19 |
| II. Eskulan-lantegia | 27 | 54 | 09/03 - 12/20 | 21 |
| I. Musika Lantegia, «Musikariak» taldea | 25 | 37,5 | 03/29 - 07/10 | 17 |
| I. Musika Lantegia, «Hastapenak» taldea | 25 | 37,5 | 03/29 - 07/10 | 19 |
| II. Musika Lantegia, «Musikariak» taldea | 20 | 30 | 09/30 - 12/23 | 76 |
| II. Musika Lantegia, «Hastape-nak» taldea | 20 | 30 | 09/30 - 12/23 | 18 |
| GUZTIRA | | 247 | | 86 |

BAZTERKETA LARRIA PAIRATZEN DUTEN PERTSONAK ARTATZEKO PROGRAMAK

1. ETXERIK GABEKOAK ARTATZEKO ZENTROA

2019an, zentroan 2.159 arreta eskaini ziren, eta orotara 1.935 lagun artatu ziren (ibiltariak, erroldatuak eta hotz-boladagatik); horietatik 263 emakumeak ziren (% 13,59), eta 1.672 gizonak (% 87).

| Pobrezia eta Gizarte Kohesioa Programa | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Ibiltariak | 1615 | 1.359 | 1.478 | 1.508 | 1.689 |
| Erroldatutakoak | 64 | 65 | 72 | 51 | 48 |
| Arreta, kalean | 141 | 137 | 176 | 182 | 200 |
| Hotz-bolada | 206 | 275 | 250 | 293 | 422 |
| GUZTIRA | **2.026** | **1.834** | **1.976** | **2.034** | **2.159** |
| | | | | | |
| **Autobus-txartelak** | **1005** | **977** | **872** | **720** | **848** |

2. «ON EGIN» UDAL-JANTOKIA

Iruñeko Udaleko jantokiak (Karmen kalea 25) 324 pertsonari eman die arreta 2019an: 248 heldu (% 76,54) eta 76 adingabe (% 23,46). Adingabeetatik 44 mutilak ziren, eta 32, neskak. Aurten, erabiltzaileen adin-tartea 5 hilabetetik 67 urtera bitartekoa izan da. Bertze irizpide batzuk kontuan hartuz gero, erabiltzaile gehienak gizonezkoak izan dira (205, guztien % 63,27) eta hirian erroldatuta daude (270, % 83,33). Aurten, gora egin du baliabide honen onuradun diren erroldatuen kopuruak. Helduen artean, aurten % 10,80k soilik jasotzen zuten Errenta Bermatua.

Jatorrizko herrialdearen arabera, 2019. urtean behera egin du nazionalitateen kopuruak. Zerbitzua erabili duten 324 pertsonen artean 25 nazionalitate zeuden; horietatik, espainiarrak ziren artatutakoen % 35,80 (82 gizon eta 34 emakume). Gainerako nazionalitateen artean, 47 marokoar, 7 errumaniar, 10 venezuelar eta beste 10 senegaldar zeuden.

Diru-sarrerak izateari edo ez izateari dagokionez eta haien jatorria kontuan izanik, nabarmendu behar da 2019. urte osoan datuak nahiko deigarriak direla.

(Artatutako helduak 35 baino ez ), eta, guztira, 28 gizon eta 7 emakume artatu dira.

2019an 78.430 zerbitzu eskaini dira, egunean 220,31 batez bertze: 28.232 bazkari, 26.691 afari eta 23.507 gosari. Azaroan banatu zen zerbitzu gutxien, eta abuztuan gehien.

PRESTAZIOEN BERTZE UDAL-DEIALDI BATZUK ETA SINATUTAKO HITZARMENAK

- Gizarte Ekintza. Iruñeko Udalak gizarte-ekintzako jarduerak garatzen dituzten 51 proiektu lagundu ditu: 30 proiektu (desgaitasuna eta mendekotasuna) eta 21 (gizarteratzea). Deialdiak, guztira, 290.000 euroko aurrekontua du.

- Komunitate arloko prebentzio- eta sustapen-proiektuak, haurren eta gazteen aisialdiaren eta denbora librearen esparruan. Udalak 4 proiektu diruz laguntzen ditu, 45.000 eurorekin guztira.

HITZARMENAK ETA KONTRATUAK

- **Nafarroako Elikagai Bankua fundazioa.** Haren jarduna finantzatu zen, zehazki laguntza emanez elikagaiak doan bildu, gorde eta banatzeko egoera sozio-ekonomiko larrian edo gizarte-bazterketa zein pobreziako egoeran dauden Iruñeko herritarren artean. 40.000 euroz hornitua dago.
- **CERMIN – Nafarroako Elbarrituen Ordezkarien Batzordea.** 15.000 euroko dirulaguntza jaso zuten desgaitasunaren gaineko informazio, aholkularitza, prestakuntza, sentsibilizazio eta koordinazioko programak eta desgaituen eta haien familien elkarte-mugimenduaren jarduerak eta zerbitzuak jakinarazteko proiektuak.
- **Gobernuz Kanpoko Erakundeen Koordinakundea.** 36.000 euroko dirulaguntza jaso zuten Garapenerako Lankidetzako informazio- eta koordinazio-programak, Nafarroan lan egiten duten erakundeek beraiek gauzatua.
- **Secretariado Gitano fundazioa.** 30.000 euroko dirulaguntza jaso zuen ijito familiekin egin beharreko esku-hartze proiektu batek, familia-nukleo batzuek duten gizarte- eta familia-arazo larria modu globalean geldiarazteko, eta bizikidetza eta gizarteratzeko zailtasunak eta haien adingabeen defizit sozialeko egoerak arintzen saiatzeko

BANAKAKO ETA LEHIAKETA BIDEZKO UDAL-DIRULAGUNTZAK

| Prestazioak | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Gizarte-larrialdiko egoeran dauden familiak | 393.836 | 652.179 | 586.221 | 684.953 | 699.888,40 |
| Eskola-jantokiak | 402.137 | 567.977 | 778.138 | 529.242,88 | 649.434,83 |
| Familia ugarien eskola-jantokiak | | | | | |
| Alokairuak Etxebizitzaren aldeko programa | 361.223 | 366.554 | 379.348 | 344.214 | 314.935,49 |
| Tratamenduak errehabilitazio-etxeetan | 26.161 | 58.608 | 55.149 | 50.795,36 | |
| Adingabeen arreta (0-12) | 8.660 | 4.017 | 9.264 | 7.829,31 | 20.831,27 |
| Gizarte-ekintzako erakundeetarako dirulaguntzak, haur eta gazteendako aisia eta denbora librea barne, 2015era bitarte | 290.000 | 290.000 | 290.000 | 290.000 | 290.000 |
| Haur eta nerabeen prebentzioa eta sustapena, aisialdi eta denbora libreko jardueren bitartez | | 45.000 | 45.000 | 45.000 | 45.000 |
| Taxi-bonua | 115.823 | 141.621 | 144.872 | 123.190,34 | 184.368,76 |
| GUZTIRA | **1.597.840** | **2.125.956** | **2.287.992** | **2.075.224,98** | **2.204.458,75** |

# KOMUNITATE EKINTZA

## PREBENTZIO-EKINTZA KOMUNITARIOKO ZERBITZUAK (PEKZ)

Iruñeko Udalak, hamar auzotan ezarritako Prebentzio Ekintza Komunitarioko Zerbitzuen (PEKZ) bidez, adingabeek beren garapen pertsonala ahalbidetuko duen ingurunea izan dezaten laguntzen du, beren komunitatearen eremuko jarduketen bidez. Auzoetan ezarritako erakundeekin kontratuak eginez, babesgabetasunari aurrea hartzeko jarduerak sortu nahi dira, proiektu, sare eta jarduera komunitarioen sustapena bultzatuta. Gizarte-, hezkuntza- edo osasun-arloko elkarteez gainera, programa horietan bertze zerbitzu publiko batzuk eta udaleko Gizarte Zerbitzuen Auzoko Unitateek ere parte hartzen dute.

2019an, Prebentzio Ekintza Komunitarioko Zerbitzuek 402 partaidetza-talde aktibatu dituzte, eta 391 sare sozial eta komunitariotan esku hartu dute. Guztira, 2.781 parte-hartzaile iraunkor ditu, eta 10.715 parte-hartzaile urtean. Aurten, proposatutako programak eta jarduerak egiteko, 716 hezitzaile komunitario boluntario eta 32 profesional izan dituzte (24 lanaldi oso).

Prebentzio Ekintza Komunitarioko Zerbitzuak Haurrak eta Nerabeak Babesteko Foru Sistemaren parte dira. Sistema horrek Gizarte Zerbitzuen Haurrei eta Familiei Laguntzeko Programaren lana osatzen du. 2019an, koordinaziorako eta lana definitzeko bilerak egin dira auzoko zerbitzu bakoitzarekin, eta datuen babesari buruzko prestakuntza eman zaie. Arlo horretan, hainbat jarduera-ildo bultzatzen dira, hala nola zurrumurruen kontrako ekimena, muralismoaren eta grafitiaren bidez espazio publikoetan esku hartzea eta Gazteria eta Kirolarekin koordinatutako jarduerak (kirol-instalazioen erabilera). Lankidetza-jardueren barruan, Prebentzio Ekintza Komunitarioko Zerbitzuei edalontzi berrerabilgarriak banatzen zaizkie, edo Gizarte Zerbitzuetako gurasotasun positiboko programa ezartzen da.

Horretaz gainera, Haurrei eta Familiei Laguntzeko Programaren arduradunarekin lan egin da, gizarte-zerbitzuen eta Prebentzio Ekintza Komunitarioko Zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzeko. Halaber, haurrak babesteko lan-esparru partekatu bat ezartzeko lanean aritu dira, zeina 2020an jarriko baita indarrean.

## PROIEKTU KOMUNITARIOAK SUSTATZEA

Eremu publikoetan esku hartzea muralismoaren bidez, Alde Zaharrean, Ermitagañan, Arrotxapean eta Sanduzelain; partaidetza-prozesu bat egin da Buztintxurin zenbait kiroletako pistak jartzeko eta Ermitagaña-Mendebaldea auzoaren diagnostiko komunitarioa egiteko. Horretaz gainera, Alde Zaharrean Komunikaz proiektua bultzatu da (auzoko kolektiboen eta sareen webgunea), eta Hezitzaileen Eskolaren «Nire patioa, nire auzoa» proiektuan (Ezpeleta Jauregiko jolastokia haurrentzako jolaserako berreskuratzea) eta Urrezko Milia (Arrosadia) proiektuan parte hartu da, tokiko merkataritza dinamizatzeko Kulturako Alorrarekin batera.

# BIZIKIDETZA

Iruñeko Udalak zurrumurruen aurkako estrategia garatu du, Nafarroako Zurrumurruen Aurkako Sarean (Zaska) parte hartuz, eta babesa eskaini dio gazte-talde bati zenbait prestakuntza-lantegi emateko 2019an (ikastetxeetan, erretiratuen klub batean eta Mendillorri, Etxabakoitz eta Txantreako zenbait elkartetan, bertzeak bertze).

Gainera, hirian bakarrik dauden adingabe atzerritarrak komunitatean sartzeko lan egin da, Kirol Alorrarekin eta Zabalgunean eragin berezia duten lurraldeko erakundeekin lankidetzan. Halaber, kulturarteko esku-hartze komunitarioko proiektu batean ere parte hartu da Arrosadian, Medicus Mundirekin batera.

# DIRULAGUNTZAK

Irabazi-asmorik gabeko entitateei lehia-araubidean dirulaguntzak emateko deialdia, haur eta gazteen esparruan aisian eta denbora librean prebentzioko eta sustapeneko komunitate-proiektuak egiteko 2019. urtean. Lau elkarteren artean banatu dira 45.000 euroren dirulaguntzak.

# ZENTRO KOMUNITARIOAK

Iruñeko Udalak auzotarrentzat zabalik dauden lokalak ipintzen ditu auzoen eskura. Elkarte-bizitza eta herritarren parte-hartze aktiboa bultzatzera bideraturik daude.

Egindako jarduerak irekiak dira, irabazi-asmorik gabeak, eta belaunaldien eta kulturen artekoak, eta genero-ikuspegia ere sustatzen dute; ikuspegi inklusiboa dute auzotar guztiekin, eta eremuko kolektiboen arteko harremanak, aisia eta kirola sustatzea dute xede.

2019an, ordenantza berria prestatzen eta barne-araubideko erregelamenduak egiteko hitzarmenak eguneratzen lan egin da. Halaber, zentro komunitarioak bisitatu dira, auzo bakoitzeko kudeaketa-ereduak aztertzeko. Halaber, erabilera-eskaerak, espazioaren kokapena eta programatutako jardueren egutegia jaso dira.

# ORDENANTZA BERRIA

2019ko apirilaren 4an, Udalbatzak Komunitate Zentroak arautzen dituen ordenantzaren eguneratzea onetsi zuen: Zentro komunitarioen erabilera eta funtzionamendua arautzeko Ordenantza, maiatzaren 14ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua (92. zenbakia). Ordenantza horrek 1998ko abendutik indarrean zegoena ordezkatzen du.

Prestaketa-prozesua irekita egon zen talde eta talde erabiltzaileentzat.

## LANKIDETZA-HITZARMENAK

Zentro komunitarioen erabilera eta funtzionamendua arautzeko, lankidetza-hitzarmen bat sinatu da Iruñeko Udalaren eta zentro horiek modu egonkorrean erabiltzen dituzten erakunde erabiltzaileen artean. 2019an, erakundeen zerrenda eguneratu da. Halaber, barne-araubideko erregelamenduak landu dira.

Hitzarmen eguneratuen eta zentro komunitarioen zerrenda:

- **Azpilagañako zentro komunitarioa: lokal bat alokairuan.**
- **Buztintxuriko zentro komunitarioa: lokal bat alokairuan (Buztingune), eta udal-lokal bat.**
- **Alde Zaharreko zentro komunitarioa: udal-lokal bat (Plazara!).**
- **Ermitagañako zentro komunitarioa: lau udal-lokal.**
- **Etxabakoizko zentro komunitarioa: lau udal-lokal.**
- **Mendillorriko zentro komunitarioa: bi udal-lokal (Antzara).**
- **Arrosadiko zentro komunitarioa: udal-lokal bat (Ilargienea).**
- **Arrotxapeko zentro komunitarioa: bi udal-lokal (Carbonilla).**
- **Sanduzelaiko zentro komunitarioa: bost udal-lokal (Karrikagune, Gridillas txaleta).**
- **Lezkairuko zentro komunitarioa: lokal bat alokairuan.**
- **Txantreako zentro komunitarioa: udal-lokal bat (Salesianas).**

Era berean, dibulgazio-materialak egiten dira zentro horien berri emateko eta haien egitekoak eta zerbitzuak azaltzeko.

Eta, oro bat, dibulgazio-lanak egiteko.

## HAUR ETA NERABEENDAKO UDAL-PLANA

Haurren Udal Plana aktibatu zenetik, hainbat estrategia bultzatu dira, agerian uzten dutenak Udal osoan bultzada transbertsala behar dela. 2019an, Haurren Sareetan lan egin da. Sare horiek auzoetan eratzen ari diren profesionalen sareak dira, eta haien zeharkakotasunean eragiten dute, premiei aurre egiteko. Bide horretan, aurten Mentore Batzordea sortu da, izaera politiko-teknikokoa, erabaki funtzional eta operatiboko gune bat osatzeko.

Adingabeei hitza emateko, planaren barruan haurren partaidetza egituratzen da Parte Hartu proiektuaren bidez. Ekimen horrek entzute-espazioak sendotzen eta balioesten ditu, batzorde politiko-teknikoarekin lotura ezartzeko.

# ADINEKOEN 2019KO MEMORIA, LABURPENA

2019ko otsailean elkartu zen Adinekoen Udal Kontseilua. Kontseiluaren araudiari buruz hausnartzea erabaki da, parte hartzeko ordenantza berrira egokitzeko, bai eta Udalaren Ekintza Plana egitea ere. Era berean, adinekoei dagokiena berregituratu da Udalaren webgunean.

Legegintzaldia aldatu ondoren, Kontseilua berritu behar izan da. Azaroaren 15ean erakundeen ordezkariak hautatzeko bilera egin zen.

**Donibaneko Adinekoen Ituna**. Udalak, erakunde gisa, lan-foro horretan segitzen, eta auzo-diagnostiko bat egin, dokumentuak itzuli, eta eskutitz pertsonalizatuak bidali zaizkie, Itunak argitaratu dituen jardueren diptikoa barne, Donibane auzoko 65 urtetik gorakoei.

**Adinekoak adeitsu tratatzen dituzten hiriak.** Ildo horretan egindako lanari heldu zaio berriro.

**Iruñeko auzoen diagnostikoa.** Eremu hurbilago batean adinekoekin lan egiten hasteko eta bultzatzeko, Iruñeko auzoetako diagnostiko kuantitatiboak hasi dira egiten. Impactos enpresak Donibane auzoan eginiko azterlana erabiltzen da oinarrizko dokumentu gisa.

**Sareko lana Iruñeko auzoetan.** Autonomia-programako pertsonekin (auzo-unitateak) bilerak egiten hasi dira, eremu bakoitzaren beharrizanen eta egiten duten lan komunitarioaren inguruan hausnartzeko, eta, hori kontuan harturik, egiten duten lana indartu ahal izateko.

**Adinekoen elkarteak.** Bilera-erronda bat hasi da adinekoen elkarteekin, haien helburuen eta jardueren berri bertatik bertara jakiteko eta interesatzen zaizkien gaien berri emateko, bai eta zalantzak argitzeko ere. Sortu diren jardueren artean hauek daude: mezu elektronikoak bidaltzea ikastaroen, jardueren, dirulaguntzen eta halakoen berri emateko, eta elkarteetan irakurketa-guneak kudeatzen laguntzea.

**Webgunea:** https://www.pamplona.es/eu/adinekoak webgunea egituratu da, eta berariazko edukiak sartzeko eta eguneratzeko lanak hasi dira, adinekoekin lan egiten duten erakunde eta pertsonendako erreminta erabilgarri gisa zabaltzeko.

**Bertze ekintza batzuk**

- Baionako bestetako harrera.
- Kafe-hitzaldia eta bisita gidatuak «Emakumeen Hiria» modalitatean, «Hiria birpentsatzen ikuspegi femenino pluraletik» izenburuarekin.
- Bertze erakunde eta antolakunde batzuekin eta udal-alor batzuekin koordinazioa eta lankidetza: Nafarroako Gobernuaren Zahartze Estrategia, NASUVINSA, CAN Fundazioa, Aptitude + Kirola, Adinekoei buruzko Nazioarteko III. Foroa.

# KIROLA

SARRERA

Kirol Unitatea Komunitate Garapeneko Arloaren barruan dago, eta kudeaketa-lan guztiak egiteko, teknikari koordinatzaile bat, kirol-instalazioen zerbitzuko buru bat, administrari laguntzaile bat eta udal-kiroldegiei atxikitako 25 funtzionamendu-laguntzaile ditu.

Arantzadiko Kirolgunearen, Sanduzelaiko Kirol-hiriaren (Aquavox) eta Mendillorriko kiroldegi eta trinketaren funtzionamendua sektoreko merkataritza-enpresa batekin egindako laguntza teknikorako kontratu baten bidez eramaten da aurrera. Labrit pilotalekuaren funtzionamendua Nafarroako Pilota Federazioaren esku dago, zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratu baten bidez. Mantentze Gimnastikarako eta Aerobicerako programak, 50 urtetik gorakoendako yoga eta Areto Futboleko Haurren Liga merkataritza-sozietate espezializatuekin egindako kontratuen bidez kudeatzen dira. Arantzadiko kirolguneko eta Sanduzelaiko kirol-hiriko (Aquavox) taberna-jatetxeak zerbitzuak emateko bi kontraturen bidez kudeatzen dira.

Aurrekontuetan, kirol-unitateak bi azpiprograma ditu, guztira 5.239.367 eurorenak: 1.505.000 euro programa eta dirulaguntzetarako, eta 3.734.367 euro Udalaren kirol-instalazioetarako.

## PROGRAMAK

Udalak kirolaren esparruan dituen jarduera-ildoetako bi dira, batetik, kirola sustatzea, eta, bertzetik, biztanleria-sektore guztietan jarduera fisikoa bultzatzen duten proiektuak abian jartzea.

- HELDUENDAKO MANTENTZE-GIMNASTIKA ETA AEROBIKA. 2018/2019ko denboraldian 862 pertsonak parte hartu zuten, eta hiriko hainbat kiroldegi eta ikastetxetan egin zen.
- YOGA 50 URTETIK GORAKOENTZAT. 2018/2019ko denboraldian 961 pertsonak eman zuten izena eskola horietan.
- ARETO-FUTBOLEKO HAURREN LIGA. 2018-2019ko denboraldian 124 taldek eman zuten izena, eta guztira 1.400 parte-hartzaile izan ziren.

## LAGUNTZAK ETA DIRULAGUNTZAK

Iruñeko Udalak kirolari lotutako lau laguntza-deialdi egin ditu 2019an, eta guztira 1.421.000 euro banatu. Liga nazionaletako lehenengo hiru kategorietan parte hartzen duten taldeendako, kirol amateurretarako, kirol-eskolendako eta kirol-alorreko ekitaldiak, ikuskizunak eta jarduerak antolatzeko deialdiak dira.

LIGA NAZIONALETAN PARTE HARTZEKO LAGUNTZAK

Udalak 436.000 euro eman dizkie 2019an lehenengo hiru kategoria absolutuetako liga nazional ofizial arruntetan parte hartzen duten 48 kirol-talderi. 21 kirol-modalitatetan ari diren taldeak izan dira onuradunak.

EKITALDIAK ETA AISIALDI-KIROLA

Ariketa fisikoan eta kirolean dihardutén bertze 44 entitatek udal-laguntza jaso dute, kirol-emanaldiak, kirol-ikuskizunak eta bertzelako kirol-jarduerak antolatzeko denboraldian: 56 guztira. Orotara, 652.000 euro banatu dira hainbat kirol-modalitateren artean.

AFIZIONATUEN KIROLA ETA ESKOLA-KIROLA

Azkenik, kirol amateurrerako laguntzen deialdiaren bidez, 2019an 374.750 euro banatu dira 39 kirol-erakunderen artean. Eskaerak baloratzeko, hiru atal hartzen dira kontuan: kategoria absolutua, kirol-sustapena eta instalazioen alokairua.

## KIROL-INSTALAZIOAK

UDAL-KIROLDEGIAK

Udalak bederatzi udal-kiroldegi ditu, eta denboraldian zehar % 81eko okupazioa izan dute batez bertze. Udal-kiroldegiek astean irekita ematen dituzten 761 orduetatik 670 erreserbatuta egoten dira klub, ikastetxe edo kirol-programentzat, erabil ditzaten. Udal-instalazioak hauek dira: Arantzadiko kirol anitzeko pista estalia, Arrosadia, Azpilagaña, Ermitagaña, Ezkaba, Jose Maria Iribarren, Arrotxapea, Mendillorri eta Sanduzelai.

Klub, ikastetxe edo kirol-programen erreserbei dagokienez, okupazio handiena duten kiroldegiak Ermitagañakoa (erreserbatuak dituen 83 orduen % 95), Azpilagañakoa (erreserbatuak dituen orduen % 90) eta Mendillorrikoa (79 ordu ditu okupatuak, erabilgarri dituen 88 orduen % 90) dira, hain zuzen . Sanduzelaiko kiroldegiak orduen % 85 okupatuak ditu; Ezkabakoak, % 65; Arrotxapekoak, % 75; Arrosadikoak, % 85; eta Jose Maria Iribarren kiroldegiak % 65. Arantzadiko kiroldegi estaliko okupazioa ez da % 45era iristen; zehazki, % 41 da. Zortzi kiroldegiak astelehenetik ostiralera egoten dira irekita, 08:30etik 22:30era, eta larunbatetan, 08:30etik 21:30era. Hala ere, Arantzadiko kiroldegia da ordutegi desberdina duen pista bakarra, egokiagoa kirolguneko instalazioetarako. Astelehenetik larunbatera egoten da zabalik, 09:00etatik 21:00etara. Igandean Arrosadia, Ezkaba, Arrotxapea, Sanduzelai (08:30etik 14:00etara) eta Mendillorri (10:30etik 14:00etara) baino ez dira egoten irekita.

Erreserben esleipendunak honako hauek dira: 19 ikastetxe, Gorputz Hezkuntzako irakasgaiaren curriculuma lantzeko eta eskolaz kanpoko kirol-jarduerak egiteko; Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua, Nafarroako Kirol Jokoak egiteko; 18 kirol-talde, beren entrenamendu eta partida ofizialetarako; eta 6 elkarte, kirol-jarduerak egiteko. Normala denez, erabileraren ehuneko handiena duten kiroldegiek hartzen dituzte, goizez, ikastetxeetako gorputz-hezkuntzako eskolak.

ARANTZADIKO ETA SANDUZELAIKO KIROLGUNEAK

Arantzadiko kirolguneak eta Sanduzelaiko kirol-hiriak 83.994 sarrera eman ditu 2019an. Urteko abonamenduei dagokienez, hamabi hilabeterako, udako denboraldia barne, herritarrek 1.759 erosi dituzte. Bestalde, udako abonamenduak –hiru hilabete inguruko iraupena dute– 3.538 izan dira. Neguko 4 abonamendu ere saldu dira; urtarrilaren 1etik ekainaren 15era eta irailaren 16tik abenduaren 31ra bitarteko iraupena dute neguko abonamenduek. Azkenik, hiru hileko 1.192 abonamendu eta hilabeteko 1.473 abonamendu eman ziren.

| | Arantzadi | Sanduzelai |
|---|---|---|
| Abonamenduak | 48.012 ( + 11%) | 35.982 (+30%) |
| Abonamenduak | Aranzadi | Sanduzelai |
| Urtekoak | 740 | 1.019 |
| Negukoak | 1 | 3 |
| Udakoak | 2.483 | 1.055 |
| 180 egunekoak | 622 | 570 |
| 90 egunekoak | 232 | 292 |
| 30 egunekoak | 769 | 785 |

LABRIT PILOTALEKUA

2019an, Nafarroako Euskal Pilota Federazioak kudeatu eta ustiatu du udal-jabetzako Labrit pilotalekua, kontratu baten bidez; kontratu horren barruan ondasunak, makinak eta instalazioak garbitu, mantendu, kontserbatu eta zaintzeko lanak sartzen dira. Kontratuak 160.783,47 euroko kostua izan zuen.

Eskuzko eta erremintako modalitateak sustatzeko kirol-eskolak, pilota-selekzioen entrenamenduak eta afizionatuen lehiaketa ofizialak programatu ditu federazioak. Nafarroako, Espainiako eta Herriarteko Txapelketako finalak ere jokatu dira bertan. San Fermin Txikito Nazioarteko Torneoa eta Nafarroa-Reunion uhartea Nazioarteko Torneoa jokatu dira, baita pilota profesionaleko bertze zenbait jaialdi ere. Aldian behin, jarduera sozial edo kulturalak ospatzeko ere erabiltzen da pilotalekua.

BERTZE GUNE BATZUK

- **CAPARROSOKO ERROTA.** Nafarroako Piraguismo Federazioak, Iruñea Piraguismo Klubarekin batera, Caparrosoko Errota izeneko udal-lokala kudeatu eta ustiatu du piraguismorako gune eta jatetxe-taberna gisa.  Udalak 57.499,20 euro ordaintzen ditu zerbitzu horrengatik, eta askotariko jarduerak egiten dira, hala aisialdikoak nola entrenamendukoak eta kirol-errendimendukoak. Instalaziora joan direnei dagokienez, 100 eta 120 pertsona bitartean ohikotasunez joaten dira, eta bertze 2.436 jarduera edo alokairuren baten bidez.
- **BELAR ARTIFIZIALEKO UDAL FUTBOL-ZELAIAK.** Halaber, Sanduzelai, Lezkairu eta Arrotxapea auzoetako belar sintetikoko futbol-zelaiak ere kudeatu dira. Oinarri-kiroleko futbol-taldeen entrenamenduak eta partidak egiteko erabili ziren batez ere; ordutegi hauetan okupatu ziren: astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 21:30era bitartean; larunbatetan, 09:30etik 14:30era eta 14:00etatik 21:30era bitartean, eta igande eta jaiegunetan, 09:30etik 14:00etara. Denboraldi honetan, 150 taldek eta 2.500 jokalari inguru modu erregularrean erabiltzen ari dira hiru futbol-zelaiak, astelehenetik ostiralera (partidak eta lehiaketak kontuan hartu gabe).

# KIROL-EKITALDIAK

Salbuespen gisa, zenbait motatako laguntzak eman zaizkie hirian egindako ekitaldiei; honako kopuru hauetan balioetsita daude laguntza horiek:

| KIROL-EKITALDIETARAKO LAGUNTZAK 2019AN | |
|---|---|
| Harresietako Lasterketa | 4.026 euro |
| Itzulia | 4.000 euro |
| Zubiri-Iruña maratoi erdia | 2.000 euro |
| San Fermin maratoia | 4.000 euro |
| Tenerife-Baskonia (saskibaloia) | 1.500 euro |
| Euskal Jai Erremonte Fundazioa | 5.000 euro |

EUROPAKO PATINAJE-TXAPELKETA

Abuztuaren 25etik irailaren 1era, Europako Patinaje Txapelketaren egoitza izan da Iruñea. Nazioarteko ekitaldi handia da hori. Udalak ekitaldian parte hartu du Antoniutti parkeko patinaje-pista birmoldatuz: inbertsioa, guztira, 182.999,98 eurokoa izan da. Apirilean, inbertsioa ordaintzeko laguntza eskatu zitzaion Kirol Kontseilu Gorenari (KKG), nazioarteko lehiaketak egitearekin lotutako irisgarritasun-obretarako eta kirol-azpiegituretako obretarako laguntzen deialdiaren barruan. Emandako laguntza 75.000 eurokoa izan zen.

# KIROL ARI

SANFERMINAK. Sanferminen barruan, aisialdiko programazio espezifiko bat egin da 8 eta 14 urte bitarteko neska-mutilentzat, Komunitate Garapeneko arloak eta Kultura Arloak bultzatuta eta Nafarroako kirol-federazioen laguntzarekin. Helburua da kirol-jarduera sustatzea festa-giroan, diskriminaziorik gabe, eta parte-hartzaileek, jokoaren bidez, eskaintzen ziren kirol-modalitateekin kontaktua izatea. Jarduera Medialuna parkeko hobietan egin da, uztailaren 6tik 14ra, 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara, uztailaren 6an izan ezik, egun hartan arratsaldez bakarrik ireki baitzen.

Arku-tiroa, xake erraldoia eta aldi bereko partidak, taekwondoa, golfa, 3x3 saskibaloia eta trebezia-jokoak, eskrima, badmintona, hipika poney-ibilaldiekin, herri-kirolak –lokotx-biltzeak, zaku-lasterketak, txingak eta bertze–, 3x3 futbola, doitasun-jokoak, eta ibilaldiak Argan zehar, Caparrosoko Errotako piraguismorako gunetik.

2019ko parte-hartzeari dagokionez, 9.000 parte-hartzaile inguru zenbatu dira; aurreko aurtean, berriz, 13.000 izan ziren. Hala ere, garbi utzi behar da irizpide-aldaketa bat gertatu zela parte-hartzaileen zenbaketan, eta horrek eragina izan duela azken zifretan.

# IGERILEKU PRIBATUETAKO ABONAMENDUEN ZOZKETA

Iruñeko Udalak urtero udako abonamenduak ematen ditu zozketan, Txantrea KKEko, Oberena Elkarteko eta Arrotxapea KKEko igerilekuak erabiltzeko. Guztira, 618 abonamendu banatu dira: Urteko 375 abonamendu eta udarako 243 abonamendu (ekainaren 15etik irailaren 15era), izena ematen dutenen artean. Zehazki, urteko 175 abonamendu eta uda-parterako bertze 75 eman dira zozketan Oberena erakunderako; urteko 75 eta uda-parterako 100 abonamendu Txantrea KKErako eta, azkenik, urteko 125 abonamendu eta udarako bertze 68 Arrotxapea KKErako. Instalazio bakoitzerako ezarritako abonamenduen % 10 erreserbatuta egoten dira % 33tik gorako desgaitasuna dutenentzat.

# GARAPENAREN ALDEKO NAZIOARTEKO LANKIDETZAKO UDAL-PROGRAMA

Urtero, kontu-sail bat bideratzen da programa horretara, eta 2019an, 1.501.231,73 eurokoa izan da, hau da, Iruñeko Udalaren aurrekontu guztiaren % 0,76. Horrek esan nahi du lortu egin dela Nazio Batuen Erakundeak garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzara bideratzea gomendatzen duen gutxieneko ehunekoa. Horrenbestez, hiriko biztanle bakoitzak garapenerako lankidetzara 7,29 €-ko ekarpena egitearen pare da.

Programa horren barruan, diru-laguntzetarako bost deialdi izan ziren 2018an, Iruñean kokatuta dauden eta jarduerak bertan egiten dituzten garapenerako gobernuz kanpoko erakundeei (GGKE) laguntza emateko. Bi deialdi Iruñean garapenerako sentsibilizazio- eta hezkuntza--proiektuak egiteko dira; bertze bi, bertze herrialde batzuetan garapenaren aldeko nazioarteko lankidetza-proiektuak (GNL) egiteko, eta bosgarrena, berriz, giza larrialdietarako jarduketetara bideraturik dago. Lankidetza-hitzarmen bat ere garatu da Nafarroako GGKEen Koordinakundearekin, arlo horretako Informazio eta Koordinazio Bulegoa sortzeko, eta gure erkidegoko bertze toki-erakunde batzuekin batera parte hartzen dugu Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioak (NUKF) kudeatzen duen Lankidetzarako Tokiko Funtsean.

| LAN-ILDOA | Kop. | Betetze-maila 2020 |
|---|---|---|
| SENTSIBILIZAZIOA | 20 | 168.209,00 |
| - Dirulaguntzetarako deialdia: Unean uneko jarduketak | 5 | 6.000,00 |
| - Dirulaguntzetarako deialdia: Urteko proiektuak | 12 | 66.209,00 |
| - Dirulaguntzetarako deialdia: Garapenaren eta Herritartasun Globalaren aldeko Hezkuntza proiektuak (2020-22) | 2 | 60.000,00 |
| - Lankidetza-hitzarmena: Informazioa eta Koordinazioa | 1 | 36.000,00 |
| TOKIKO GARAPENA | 46 | 1.102,343,00 |
| - Dirulaguntzetarako deialdia: Urteko proiektuak | 34 | 848.068,00 |
| - Munduko Medikuak, 2019ko deialdia | 1 | 30.275,00 |
| - Dirulaguntzetarako deialdia, Hegoaldeko toki-entitateentzat | 3 | 180.000,00 |
| - Garapenaren aldeko Lankidetzarako Tokiko Funtsa (NUKF) | 8 | 44.000,00 |
| GIZA LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA | 8 | 134.978,00 |
| - Dirulaguntzetarako deialdia: Giza Larrialdiak (GLL) | 8 | 134.978,00 |
| PROGRAMAREN BEREZKO JARDUKETAK | 1 | 850,02 |
| - Irakurketa-klubaren materialak | 1 | 850,02 |
| GLUPren JARDUKETEN GUZTIZKO PARTZIALA | 75 | 1.406.340,00 |
| GLUPren JARDUNAREN GUZTIZKO PARTZIALA | | 140.282,02 |
| **GUZTIRA GAUZATUA** | | **1.547.432,02 €** |

2019ko programako inbertsioetako kopuru guztiaren barruan.

FINANTZATURIKO PROIEKTUEN /JARDUKETEN BANAKETA, GEOGRAFIA-ESPARRUEN ARABERA

| Geografia-esparrua | Kop. | % | Geografia-esparrua | Kop. | % |
|---|---|---|---|---|---|
| **Hego Amerika** | **13** | **%17,8** | **Afrika** | **27** | **%37,0** |
| Bolivia | 6 | | Burkina Faso | 1 | |
| Brasil | 1 | | Burundi | 1 | |
| Kolombia | 3 | | Txad | 1 | |
| Ekuador | 1 | | Guinea Bissau | 1 | |
| Peru | 2 | | Mali | 1 | |
| **Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibe** | **10** | **%13,7** | Mozambike | 1 | |
| | | | Niger | 3 | |
| El Salvador | 5 | | Nigeria | 2 | |
| Guatemala | 1 | | Errefuxiatu sahararrak | 3 | |
| Mexiko | 1 | | Kongoko ED | 4 | |
| Nikaragua | 3 | | Ruanda | 3 | |
| | | | Senegal | 4 | |
| **Ekialde Hurbila** | **3** | **%4,1** | Togo | 1 | |
| Lurralde okupatuak | 2 | | Uganda | 1 | |
| Hego Sudan | 2 | | | | |
| **Asia** | **2** | **%2,7** | | | |
| India | 1 | | | | |
| Nepal | 1 | | | | |
| **Europa** | **18** | **%24,7** | | | |
| Iruña | 18 | | | | |
| **TOTAL 73** | | | | | |



# GARAPENAREN ALDEKO NAZIOARTEKO LANKIDETZAREN PLAN ZUZENTZAILEA 2018-2021

2018an onetsitako Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaren lehendabiziko Plan Zuzentzailearen barruan, eutsi egin zaio herritartasun globalerako Latitudes Irakurketa Kluba ekimenari. Udaleko Gazteria Unitatearekin elkarlanean egindako ekimena da. Helburua Hegoaldeko herrialdeetako egoeraren inguruan sentsibilizazio-tresna bihurtzea da, era horretako arazoak modu batera edo bertzera jorratzen dituzten liburuak irakurriz. Saioak Iruñeko San Frantzisko liburutegian egiten dira, hilean bat, ikasturtearen barruan.

2019ko lehen seihilekoan, hogei lagunek eman dute izena ekimenean, eta guztira bost saio egin dira. Azkenekoan, ikastaroa amaitzeko, Paloma Camacho Arístegui nazioarteko boluntario eta idazleak parte hartu du (haren liburuari buruz zen, hain justu, eztabaida-saioa). Horretaz gainera, ikastaroaren ondoren aparteko saio bat egiten da, hasierako planteamendutik kanpo, zeina Emakumearen Arretarako Udal Zerbitzuarekin koordinatuta antolatzen baita.

Urrian hasi dira klubaren denboraldi berriko saioak. Berrikuntza nagusia beste irakurketa-talde bat sortzea da, bigarrena, jarduerak izandako partaidetza-eskaerari erantzuteko. Urritik abendura sei saio egin dira, talde bakoitzeko hiru, guztira berrogei pertsona. Taldearen dinamizatzailea Gazteriako teknikari bat da. 2018an abiatu zen kluba, eta Nafarroako irakurketa-kluben sareko kide da.

# 2.8.1.

# HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA OSASUNEKO ALORRA

Hirigintza, Etxebizitza eta Osasuneko Alorraren helburua da hiria sortzea lurraldean: horretarako, hiri-antolamendua planifikatu eta kudeatzen du, etxebizitza duin bat eduki ahal izatea errazten du, naturaguneak hobetzen ditu, historia-ondarea zaintzen du eta ahalegina egiten du hiri- eta gizarte-ingurua osasungarria izan dadin, osasun-, higiene- eta ikuskaritza-baliabideen bitartez.

Halaber, laguntza eskaintzen du herritar orok etxebizitza duin eta egokia eduki dezan.

## LIZENTZIAK

### OBRA-LIZENTZIAK

OBRA-LIZENTZIAK
Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, ikusten da pixka bat jaitsi dela (% 1) arlo honetan izapidetutako obra-espediente guztien kopurua. Hala ere, gora egin du izapidetutako obra-lizentzien kopuruak (% 8,24), eta behera egin du erantzukizunpeko adierazpen bidez izapidetutako lizentzia laburtuen kopuruak (–% 9,24). Izapidetutako etxebizitza kopuruari dagokionez, 2019an 1.021 etxebizitza eraikitzeko lizentzia eman dira; horietatik 602 Arrosadia-Lezkairun daude; 273, Bigarren Zabalgunean; 18, Arrosadian, eta 28, Sanduzelain. Etxebizitza guztiak libreak dira.

| MOTAK | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Obrak | 349 | 387 | 406 | 437 | 473 |
| Laburtuak | 764 | 765 | 781 | 709 | 649 |
| Komunikatuak | 651 | 805 | 762 | 914 | 918 |
| Obrak EEZB | 134 | 197 | 237 | 244 | 256 |
| Laburtuak EEZB | 128 | 30 | 73 | 56 | 58 |
| Komunikatuak EEZB | 52 | 76 | 210 | 210 | 186 |
| GUZTIRA | 2.084 | 2.260 | 2.469 | 2.570 | 2.540 |

IREKITZEKO LIZENTZIAK
2019an guztira 829 irekiera-lizentzia eman ziren, 2018an baino % 10 gutxiago. Haietatik gehienak erantzukizunpeko adierazpen gisa izapidetu dira (sistema sinplifikatua jarduera kaltegabeak eta sailkatuak irekitzeko), eraikinen lehenbiziko erabilerak eta erabilera-aldaketak izan ezik.

# ETXEBIZITZAREN ALORREAN EGINDAKO ESKU-HARTZEAK

ETXEBIZITZA-BULEGOA
Etxebizitza Bulegoa 2016ko apirilean hasi zen martxan, Aterpe Larrialdietarako Ordenantza aplikatzeko asmoz. Ordenantza horrek, bertzeak bertze, hipoteka-exekuzioen ondorioz etxebizitzak aldi baterako eskuratzea konpontzen du. Zerbitzu horrek udal-etxebizitzak eraberritzeko beharrezko neurriak hartzen ditu, eskuragarri dauden etxebizitzen inbentarioan sar daitezen. 2019ra arte, guztira 110 etxebizitza bildu dira bulegoan. Bulegoko erabiltzaileen profila 3 edo 4 kideko familia-unitatea da, adingabeak dituen ardurapean, eta diru-sarrera prekarioak.

HIPOTEKA-BITARTEKARITZAKO BULEGOA
Hipoteka Bitartekaritzako Bulegoak etxegabetze-arriskuan dauden pertsonei lagundu nahi die, banketxean bitartekaritza-lanak eginez eta informazioa erabiliz. 2019an 34 espediente izapidetu ditu, horietatik 19 amaiturik daude abenduaren 31n, eta 15, berriz, irekita. Amaitutako espedienteetatik, hiruk bitartekaritzarekin eta akordioarekin egin zuten, 12k aholkularitza juridikoarekin eta lauk bitartekaritzarekin, baina akordiorik gabe. Auzoz auzo azterturik, Arrotxapea, Txantrea, Arrosadia, Sanduzelai eta Buztintxurin daude kasu gehienak. Kasu gutxien, berriz, Mendillorrin, II. Zabalgunean eta Donibanen.

HIRIA BIRGAITZEKO BULEGOA (EEZB)
Iruñeko Udaleko Etxebizitzak Zaharberritzeko Bulegoak bere gain hartzen du hiriko erdigune historikorako Udal Plan Orokorraren hirigintza-garapenaren kudeaketa, eta 1986tik Nafarroako Gobernuak foru-lurraldean ezartzen dituen Eraikinak eta Etxebizitzak Birgaitzeko Bulegoetako bat da. Plan Berezi horietako kontsultekin, aholkularitzarekin eta aldaketekin zerikusia duen edozein lan egiteaz arduratzen da Hiria Birgaitzeko Bulegoa.

Lehentasunezko birgaitze-eremuetako hirigintza-araudiari dagokionez, 2019. urtean 7 hirigintza-kontsulta izapidetu dira Alde Zaharrean indarrean dagoen araudia aplikatzeari buruz. Gainera, obretarako 504 hirigintza-lizentzia eta obra-amaierako 297 espediente izapidetu dira (obra-amaierako berrikuspenak eta lehen erabilera).

Horren erakusgarri da 2019ko ekitaldian jabekideen erkidegoetako 6 bilera pribatu egin direla Hiria Birgaitzeko Bulegoaren instalazioetan, eta ia kasu guztietan bulego horretako teknikarien eta/edo juridikoen aholkularitza izan dela. Hiria Birgaitzeko Bulegoko teknikariek ere, 2019an, 230 ikuskapen-bisita tekniko egin dituzte bulego horretan izapidetzen diren hainbat motatako espedienteekin lotutako eraikinetan.

Birgaitzeko jarduera apur bat igo izanari esker, jarduera profesionala areagotzea lortu da, oro har, teknikari pribatuak edo bertze administrazio batzuk, jada amaituta dauden eta Hiria Birgaitzeko Bulegoaren artxiboaren parte diren mota guztietako kontsultak eta espedienteak egiteko beharra eskatzen dutenak. Alde horretatik, Hiria Birgaitzeko Bulegoaren artxiboko122 espediente eskatu dira 2019an, hainbat motatako azterlanak, txostenak, analisiak eta kontsultak egiteko.

Eraikinak kontserbatzeari, obrak gauzatzeko aginduei eta Eraikinak Ebaluatzeko Txostenak (EEI) aurkezteari dagokienez, Udalaren Hiria Birgaitzeko Bulegoak bere gain hartzen ditu aipatutako txostenen aurkezpena jasotzeko, erregistratzeko eta kontrolatzeko lanak. 2019an, obrak egikaritzeko zazpi agindu izapidetu zituen, hiriko alde zaharrean eraikuntza pribatua kontserbatzeko betebeharra bermatzeko, eta eraikinak ebaluatzeko 223 txosten jaso eta erregistratu zituen.

Irisgarritasun Plan Bereziei dagokienez, Hiria Birgaitzeko Bulegoak bere gain hartzen du partikularrek eskatuta izapidetzea, eta etorkizunean desjabetzeak gaituko dituzte, eraikinetan oztopo arkitektonikoak kendu ahal izateko. 2019an, eraikinetako irisgarritasuneko 3 plan bereziren hasierako onarpena egin zen, eta hasierako onespena eman zitzaion desjabetze-espediente batek eragindako titularren eta ondasunen zerrendari.

Nafarroako Gobernuak eraikinak birgaitzeko ematen dituen laguntzen kudeaketa. 2019an, berdin jarraitu du izapidetzeko aurkezturiko espedienteen kopuru orokorrak, 2018ko zenbakiekin alderatuta. Eta berdin jarraitu du, era berean, jabekideen erkidegoek eta banakako etxebizitzen jabeek sustatutako espediente-kopuruaren arteko erlazioak ere.

Honako hauek dira Nafarroako Gobernuak 2019ko ekitaldian hitzemandako laguntzak, Iruñean onetsitako jarduerei dagozkienak (behin-behineko kalifikazioa):

3.420 etxebizitzak jaso dituzte Nafarroako Gobernuaren laguntzak.

% 42ko igoera 2018ko datuekin alderatuta.

Sustatzaileen inbertsio pribatua: 27.713.452 €.

2018ko datuekin alderatuta, % 18ko igoera.

8.958.223 € dirulaguntzatan, Nafarroako Gobernuak emanik.

% 12ko igoera 2018ko datuekin alderatuta.

Aipatzekoa da, halaber, Alde Zaharreko birgaitze-jarduketei laguntzeko neurri gisa, Hiria Birgaitzeko Bulegoak jakinarazten duela inguruko etxebizitzetan bizigarritasun-baldintzak betetzen diren. Jabeek 2019an egindako aurrez aurreko kontsultei erantzuteaz gainera, Nafarroako Gobernuak eskatuta, 146 txosten egin ditu, bizigarritasun-zedulen eskaerekin loturik.

Bizitegi-multzoetan energia-efizientziako irizpideak dituzten birgaitze-jarduketak sustatzeko laguntzetan, 2019. urtean Hiria Birgaitzeko Bulegoko zerbitzu teknikoek partaidetza-prozesuan esku hartu zuten, eta aldeko txostena eman zuten 3.367 etxebizitzari eragiten dieten bizitegi-multzoetako esku-hartze orokorreko 10 proiektutarako. Nafarroako Gobernuak onartu ditu 10 esku-hartze orokorreko plan horiek, Foru Agindu bidez.

Lehentasunez birgaitu beharreko hiriko eremuak (Alde Zaharra eta Zabalguneak) edo hiriko gainerako 50 urtetik gorako eraikinak birgaitzeko udal-laguntzei dagokienez, 2019an, aurrez aurre emandako etengabeko informazioaz gainera, birgaitze babestuari buruzko 55 txosten egin dira lehentasunez birgaitu beharreko eremuetako eraikin eta etxebizitzetarako (Alde Zaharra eta Zabalguneak).

Aldi horretan, bistan geratu zen behera egin zutela Alde Zaharreko eta Zabalguneetako birgaitze-proiektuek; hori horrela, 17 eraikin (140 etxebizitza) birgaitzeko proiektuak kalifikatu ziren hasiera batean, eta, zehazki, 3.493.086 €-ko inbertsio partikularra egin zen. Udalak 1.034.301 euroko dirulaguntza ematen du jarduera horietarako.

Udalak babestutako birgaitze-jarduketen ondorioz, halaber, aldamioak laga dira lehentasunez birgaitu beharreko eremuetako eta auzo kalteberetako fatxadetan eta estalkietan esku hartzeko. 2019an, 21 eraikinek jaso dute laguntza, 67.614,25 € guztira.

2019an, Alde Zaharreko eta Zabalguneetako 6 birgaitze-jarduketaren laguntzak ordaindu ziren, 275.148,47 € guztira.

## HIRIA BERRONERATZEKO JARDUKETAK – EREMU KALTEBERAK

2012. urteaz geroztik, hiri-kalteberatasunari buruzko azterlanak idatzi zirenetik, hiria berroneratzeko jarduerak garatzen eta ezartzen ari dira eremu kalteberetan, eta esku-hartze orokorreko proiektuak idazteko lanak esparru-hitzarmenen onespenarekin lotzen dira. Hala, hitzarmen horiei esker, eragindako eremuetan informazio- eta kudeaketa-laguntzak eta -neurriak ezartzen ahalko dira.

2019an, hitzarmenak izapidetzen eta laguntzak ordaintzen jarraitu zen Lezkairuko Zalduko eraikinetan (2015ean onetsitako esparru-hitzarmena), eta amaitu dira aurreikusitako jarduketak; 2017an onetsitako Ave Maria zeharbideko (Arrotxapea) eraikinekin esparru-hitzarmenari lotutako jarduketek jarraitu zuten; Sanduzelaiko eremu kalteberarekin lotutako birgaitze-jarduketak izapidetzen hasi ziren (2018an onetsitako esparru-hitzarmena) eta bertze bi esparru-hitzarmen onetsi ziren (Sanduzelaiko bi eraikin-multzo eta Oscoz Taldearen artean, baterako jarduketa koordinatua ahalbidetzeko, baita auzo kalteberetan ezarritakoen antzeko laguntza-lerroak ere).

Ekintza horie esker, 2019an zortzi erkidegotan ordaindu zien eremu kalteberetako laguntzak; guztira, 355.420,24 €. Gainera, aipatutako eremuetan eraikinak birgaitzeko 7 proiektu kalifikatu ziren hasieran.

# HIRIGINTZAKO GERENTZIA

# JARDUERA NAGUSIAK

**LEHENGO HILTEGIKO PARKEA**

Proiektua: Iruñeko Udal Planeko ARS-3ko S.O-1 unitatea urbanizatzeko proiektua. Likidazio-aurrekontua: 885.999,79 euro (BEZa kanpo).

2019ko irailean jaso ziren garai bateko La Protectora SAren hiltegiaren eremua urbanizatzeko obrak. 13.300 m2-ko parke handi bat, jarduera ekonomikoko gune bat eta zuzkidura-lursail bat hartu du espazioak.

Iruñetik hurbilen dagoen zatian sortua da, trataturiko mendi-hegal batean; lehengoratu egin da inguruaren orografia, eta zuhaitzek eta espezie autoktonoen zuhaixka-masek zipriztindutako belardi bat eratu da, tantakako ureztatze-sistema eta guzti. Parkearen goiko aldean begiratoki bat dago eserlekuekin, eta hegoaldean, berriz, espazio txiki bat egoteko, piknikak egiteko eta haurrentzako jolasak, altzari egokiekin. Proiektuak jasotzen du errepidetik gertuen dagoen eremua aparkalekuekin, espaloi berri batekin eta bidegorriarekin urbanizatzea, Iruña-Orkoien ibilbidean mugikortasuna eta oinezkoen lotura errazteko. Urbanizazio berriak jarduera ekonomikoetarako lurzati bat sortuko du errepidetik eta Orkoiengo mugatik hurbilen dagoen zatian, bai eta zuzkidura-lurzati bat ere parkearen ondoan.

**IRUÑEKO 4. INDUSTRIALDEKO 2700 ETA 2652 LURZATIAK ERAISTEKO PROIEKTUAREN OBRAK (GARAI BATEKO ARGALEN INSTALAZIOAK)**

Proiektua: Iruñeko 4. industrialdeko 2.700 eta 2.652 lurzatiak eraisteko proiektua (garai bateko Argal enpresaren instalazioak). Likidazio-aurrekontua: 191.148,55 euro (BEZa kanpo).

2019ko maiatzean hasi ziren Arostegi etorbideko 24. zenbakiko eraikinak botatzeko lanak (4. industrialdeko 2.652 eta 2.700 katastro-partzelak), 2015etik Etxabakoitzeko udalez gaindiko plan sektorialak urbanizatzeko proiektuaren barruan. Bi lurzatiek muga dute trenbidearekin iparraldean eta Aróstegui etorbidearekin hegoaldean. 2.700 lurzatia Inmobiliaria Urquía SArena da eta 5.468 m2 da luze-zabal. 2.652 lurzatia Tallunce SLrena da, Argal itxi ostean gunea catering baterako erabili zuen merkataritza-enpresarena, zeinak, baita ere, jarduerari utzi baitzion. Lurzatia 2.152 m2 da luze-zabal.

Lanak urrian amaitu dira, eraikinak, sotoak eta zimenduak eraitsi ondoren (Iberdrolako Eraldaketa Zentroa kontuan hartu gabe). Bi lurzatiak zabalgune gisa geratu dira, sotoetako hutsuneak bete egin baitira eraispenaren hondarrak birrintzean lortutako materialarekin. Hondakinetan, honako material hauek berreskuratu dira: 585,68 tona kortxo, 120 tona metal (ferralla), 95,44 tona egur, 57,86 tona zabor eta 2,66 tona amianto.

# PROIEKTUAK IDAZTEA

## U.I. V-Txantreako GSA-2 Sistema Orokor Atxikiko urbanizazio-proiektua idaztea, zeina Txantrea hegoaldeko parkeko ARS-1 eta ARS-3 banaketa-eremuetan baitago

Udalak 144.000 euro bideratu ditu Hego Txantrea parkea urbanizatzeko proiektua idazteko. Arga ibaiaren eta Donejakue bidearen artean dago eremua, Burlatarekin mugan eta Txantreako hegoaldeko ertzean, eta 101.628 m2-ko azalera dauka. Maiatzean onartu zen proiektua, bai eta lehen faseari dagokion separata ere. 2020an hasiko dira obrak.

Parke berriaren bidez, hiriko erdigune historikoaren eta errekaren arteko —Burlatarekiko mugan— trantsizioak erraztea, konektatzea eta artikulatzea proposatzen da proiektuan; eta Txantreako iparraldeko muga Magdalenako zubiarekin lotzea. Parkea, Arga ibaiaren eta eremuaren punturik garaienaren artean, Burlatarekiko mugatik gertu, elkarri lotutako espazio eta belardi batzuez dago eraturik, eta hiriaren profil monumentalaren ikuspegia dauka. Eremu guztiak izaera eta material desberdineko bideen bidez komunikatzen dira. Horietako bitan, parkearen eremuarekiko zeharkakoak, ibilgailuak igaro daitezke, Magdalena auzoko etxebizitzak husteko bide gisa, uholdeak gertatuz gero. Iparraldean daude mugatuta belardiak.

## Magdalenako proiektua eguneratzea

2019ko maiatzaren 15ean, «Magdalenako ARS-1eko S-1 unitatea urbanizatzeko proiektua eguneratzeko, 1. faseko (S-1) separata idazteko eta, hala badagokio, 1. fase honetako (S-1 eta Parkea) obrak zuzentzeko» zerbitzu-kontratua esleitu zitzaion Sergio Murillok eta Cima Ingenieros etxeak osatutako taldeari. Proiektuaren eguneratzea eta proiektuaren lehen fasearen separata idazteko aurrekontua 134.800 eurokoa da (BEZik gabe). Proiektuaren berrikuspena 2019ko abenduan onartu da.

Proiektuak V/S-1 izeneko lurzoru urbanizagarriaren sektorea urbanizatzea proposatzen du, V/GSA-2 izeneko atxikitako Sistema Orokorra sartu gabe, biak ere Iruñeko Udal Planeko ARS-1 Erreparazio Eremuko (Magdalena) kideak, Txantrea auzoaren hegoaldeko ertzean. Proiektuak eguneratu egin du 2012an onartu zen dokumentua, aplikatu beharreko araudi berrietara egokitu du, prezioak eguneratu ditu, eta Begibistan taldeak landutako irizpideak eta partaidetza-prozesu batean jasotako auzotarren ekarpenak gehitu ditu parke-proiektuan. Hauek dira auzotarrek emaniko eta jasotako proposamenak: plangintzan jasotako biribilgunearen ordez semaforoz araututako bidegurutze bat jartzea (Irubideko eremua); kale berria auzoaren eta etxebizitza-eremu berriaren zerbitzurako dela ulertzea, Alde Zaharraren eta Burlataren arteko lotura azkar bat egitea eragotziz; trafikoa baretzeko elementuak sartzea, oinezkoen eta bizikleten zirkulazioari lehentasuna emanez; eta bidegorriak parkearen periferiatik diseinatzea, barruko bideak oinezkoentzat utzita.

Proiektuak eremuko kale mugakideekiko loturak jasotzen ditu, batez ere Torralba kalearen birmoldaketa eta kaleak lotzen dituen egungo plazatxoa biribilgune bihurtzea: Mendigorria, Torralba del Rio eta Ezkaba; Burlatarekin mugakide den eremu baten urbanizazioa ere definitzen du, Irabia ikastetxetik gertu, Ezkaba kaleko bide osoa eta oinezkoentzako eta txirrindularientzako zati bat osatu ahal izateko, Magdalena kaleraino jarraitutasuna emanez.

### Sadar ibaiaren hobekuntza hidraulikoa

2019ko urtarrilean, «Sadar ibaiaren hobekuntza hidraulikorako proiektua» idazteko ordainsariak ordaindu ziren. 37.449,75 euroko aurrekontua zen proiektua idazteko; proiektua Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren errekerimendu batetik sortu zen: Sadar ibaiaren ibilguan, Nafarroa etorbidearen parean, sortzen den estutze-puntua konpontzea, eta, horrela, haren ahalmen hidraulikoa handitzea, urgoraldietan kalteak saihesteko lursail mugakideetan.

### Trinitarios parkeko pasealekua eta igogailua

2019ko ekainean, «Trinitarios parkeko urbanizazioa (D fasea)» proiektua onartu zen. Idazketa-proiektua 61.382,79 euroan esleitu zen. Dokumentuak hegala areagotzea aurreikusten du, bai eta oinezkoentzako ibilbide guztiak modu harmonikoan sartzea ere. Era berean, igogailu bat jarriko da Trinitarioseko komunikazioak hiriko gainerakoekin artikulatzeko, 20 metroko altuera gaindituz eta, gainera, ikus-erreferentzia garrantzitsu bilakatuz.

López Sanz doktorearen kalearekin lotuko du parkea. Behealdean Plazaola pasealekuaren pareko oinezkoendako pasealeku berriko plazan egonen da. Igogailua L formako corten altzairuzko egitura metaliko baten bidez ebatziko da, eta kabina hartzen duen beirazko gorputz bertikal baten bidez. Bigarren fase batean, goiko aldea urbanizatzea aurreikusten du proiektuak: López Sanz Doktorearen kalea berrantolatzea eta Larraina kaletik jarraitzea, bai eta Larraina kalearen eta Iratxeko Monasterioaren kalearen arteko bidegurutzean oinezkoendako pasabideak berriro banatzea ere.

### Arantzadiko meandroaren bigarren faseko proiektua

2019ko martxoaren 27an, Gerentzia Kontseiluak onartu zuen Arantzadiko parkearen bigarren faseko proiektua idazteko eta berrikuspena zuzentzeko prozedura A22I ARQUITECTURA E INGENIERÍA taldeari esleitzea, guztira 98.736 €-tan, BEZa barne.

Proiektuak parkerako sarbideak aurreikusten du nagusiki, bai eta ekialde-mendebalde konexio-bidea eta erdiko plaza ere. Sarbideei dagokienez, Arantzadiko sarbideetan eta itzuleran kale osoaren konfigurazioa amaitu zen, lehen fasean partzialki gauzatua, eta egikaritze-proiektuan zehazturiko material berberak baliatu dira. Aireko azpiegiturak eguneratu eta lurperatu dira egungo kalea altxatzen den eremu guztietan. Sestra jarraituko kale bat diseinatu da, noranzko bakarreko ibilgailuen zirkulazioa eta oinezkoen zirkulazioa batera hartuko dituen espazio bat sortzeko, betiere oinezkoei lehentasuna emanez.

Arantzadi, Arrotxapea eta Txantrea lotzen dituen ekialde-mendebalde ardatza proiektatu da, parkearen ardatz eta erabileren lotura-gune nagusi bat sortuz (plaza). Bertze bi plaza sortu dira, horietako bat dagoen garaiaren inguruan, eta bertzea, berriz, balio handiko kaki ale bati garrantzia emanez. Hartutako materialek eta soluzioek parkearen 1. fasean egindako diseinuari eutsi diote.

### Arga ibaiaren eta haren ibaiadarren ibai-plangintzaren eredua

2019ko irailaren 18an, TENADA, PROYECTOS Y OBRAS DE INGENIERÍA DEL SUELO Y MEDIOAMBIENTAL SL enpresari esleitu zitzaion «Arga ibaiaren eta haren ibaiadar Elortz eta Sadar ibaien ibai-plangintzako ereduak» idazteko kontratazioa, 37.500 euroko zenbatekoaren truke (BEZik gabe)..

Lana 2019an hasi da, ibai-inguruneak hiriaren egituran integratzeko lehentasunezko helburuarekin, bertako balio naturalak eta hiri-balioak mantenduz eta indartuz, dauden inpaktuak zuzenduz eta funtzionamendu hidraulikoa hobetuz. Kontratuak ibilbide-orri gisa funtzionatuko du, epe labur, ertain eta luzeko proposamenak garatzeko, betiere hamar urteko horizontea kontuan izanik.

## PLANGINTZA

Gaur egungo hiria berritzeko plangintza-lanei dagokienez, 2019. urtean onetsi zen XIX. Esku-hartze Unitateko (Arrosadia eta Santa Maria la Real auzoak) eta I. Zabalguneko Hiri Jarduketarako Plan Bereziaren (HJPB) bigarren fasean (HJPBren antolamenduaren diagnostikoa, aurreproiektua eta balizko alternatibak). Era berean, II. Zabalguneko Plan Hiri Jarduketarako Plan Bereziaren bigarren fasea idazten ere lan egin da..

## ERORIEN MONUMENTUA ERALDATZEKO IDEIEN LEHIAKETA

2018ko urrian, Erorien Monumentua eraldatzeko ideien lehiaketa antolatu zen, monumentuari eta haren hiri-inguruneari buruzko jarduketa-proposamenak lortzeko. Aurretik, 2018ko martxoan, «Erorien monumentuaren eraikineko guneari eta inguruneari buruzko hausnarketa-jardunaldiak» antolatu ziren, ondorengo lehiaketa planteatzeko oinarri gisa balio izan zutenak. 2019an ebatzi da lehiaketa.

# OSASUNA

## ELIKAGAI-IKUSKARITZA

2019ko urtarrilaren 1ean, Iruñeko industrien eta establezimenduen erroldaren arabera, honako hauek zeuden: ostalaritzako 1005 establezimendu, 139 jangela kolektibo, 85 industria/lantegi/biltegizain, 1198 elikagai-establezimendu eta elikagai-produktuekin lotutako bertzelako 84 establezimendu edo jarduera iraunkor, bai eta jarduera ez-iraunkor batzuk ere. Horiei dagokienez, 2.050 ikuskatze egin dira 2019an, sanferminetan egindakoak barne.

2019an, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak jakinarazita, alerta sanitarioko 26 egoeratan esku hartu du, elikadura-establezimenduetan edo farmazietan banatutako elikagaiei eragiten zietenak.

Sanferminetan, ikuskaritza-zerbitzuek zaintza berezia antolatzen dute; hau da, kontrol sanitarioa egiteko bisitak egiten dira establezimendu ez-iraunkorretara eta, era berean, jaia egiten den lekuak ikuskatzen dira. Guztira, 93 establezimendu ikuskatu dira. Iruñeko Udaleko Udal Laborategiko langileak Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua (NOPLOI) laborategira eraman zirenez, ez zen hartu elikagai-laginik. Urtean zehar, ostalaritzako eta elikadurako 146 jarduera ez-iraunkorren gaineko aholkularitza edo kontrola egin da, eta 46 postu ikuskatu dira, hainbat jai edo ospakizun direla eta (auzoetako jaiak, azokak, ospakizunak eta antzekoak).

2019an 603 espediente ireki dira ofizioz, elikagaien ikuskatzearekin lotuta. Horietatik, zehapen-espedientea hastea proposatu da 204 kasutan, eta gabeziak zuzentzeko errekerimendua egiteko 306 txosten izapidetu dira. Irekitako bertze 93 espediente zerbitzuak kudeatutako hainbat gairi zegozkien (salaketak, alertak eta antzekoak).

| Instalazioa | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Errekerimenduak | 512 | 432 | 543 | 540 | 428 | 486 | 306 |
| Zehatzaileak | 105 | 79 | 74 | 106 | 113 | 87 | 204 |

Elikagaien Ikuskaritzak elikadurarekin lotutako 37 salaketa bideratu ditu, 19 partikularrenak eta 18 poliziaren esku-hartzeenak edo bertze erakunde publiko batzuenak.

Zerbitzuak, 2019an, guztira 167 elikagai-lagin hartu ditu, gehienak urtearen hasieran Udal Laborategiarekin batera ezarritako laginketa-programaren barruan eta 2019ko lehen seihilekoari dagokionez. Laborategiaren lekualdaketa dela eta, uztailetik irailera arte ez da hartu elikagai-laginik. 2019ko azken hiruhilekoan, urte hasieran egindako programazioari ekingo zaio berriro. 167 laginetatik hiruk adostasun-ezak izan dituzte, eta bik zehapen-espedientea sortu dute.

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI), Iruñeko Udalarekin lankidetzan, eta Elikagaien Teknologiaren Zentro Nazionalarekin (CNTA) koordinatuta, 2019an Higiene Jardunbide Egokien Gida bat prestatu zuen elikagaiak prestatzeko eta zerbitzatzeko, elikagaien segurtasuneko helburuak eta indarrean dagoen osasun-araudia betetzen laguntzeko.

*Elikagai Ikuskaritzak 2015etik 2019ra bitartean hartutako elikagai-laginak*

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Udal Laborategiarekin batera eginiko programa | 538 | 516 | 538 | 457 | 140 |
| Gainerakoak | 59 | 30 | 50 | 27 | 27 |
| **GUZTIRA** | **597** | **546** | **588** | **484** | **167** |

**ZOONOSIA**
2019an, 243 txakur eta katu zenbatu dira Animalien Harrerarako Zentroan (AHZ).

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Zakurrak | 172 | 171 | 190 | 177 | 181 |
| Katuak | 36 | 35 | 37 | 82 | 62 |
| **Biak** | **208** | **206** | **227** | **259** | **243** |

243 animalia horietatik, 114 jabeei itzuli zaizkie, eta 115 adoptatu egin dira. Udalaren webgunean adopzioak egiteko orri espezifiko bat dago; hantxe eskura daiteke prozesuaren gaineko informazio guztia, bai eta animalien argazkiak ikusteko aukera ere.

*AHZn 2015etik 2019ra adoptatutako animaliak*

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Zakurrak | 68 | 51 | 64 | 78 | 57 |
| Katuak | 27 | 25 | 24 | 47 | 58 |
| **Biak** | **95** | **76** | **88** | **125** | **115** |

*Zehapen-espedienteak, animaliekin zerikusia duten arazoengatik (2015-2019)*

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Zehapen-arrazoiak | - | - | - | - | - |
| Zakurrak aske eramateagatik | 114 | 69 | 128 | 109 | 109 |
| Gorozkiak ez jasotzeagatik | 12 | 11 | 21 | 13 | 10 |
| Zakurrak egoera egokian ez edukitzeagatik | 4* | 5 | 6 | 3 | 6 |
| Txertatze eta identifikazioarekin lotutako arau-hausteengatik | 5* | 3 | 8 | 9 | 8 |
| APP araudia | 49* | 38* | 64 | 50 | 47 |
| Zakurrekin lotutako bertzelako zehapenak | 12* | 16* | 7 | 28 | 19 |
| Bertzelako animaliekin lotutako bertze zehapen batzuk | 6 | 4 | 1 | - | - |
| **Zergati guztiak** | **202** | **152** | **235** | **212** | **199** |

2019. urtean, 45 kasutan esku hartu da, animaliek pertsonei hozka egin izanagatik. Kasu horietan, 30 animaliari behaketa sanitarioa egin zaie, eta kasu bakar batean ere ez da detektatu gaixotasun kutsagarririk.

## INGURUMEN-OSASUNA

Udal-erregistroan salaketak edo eskaerak aurkeztu dituzten herritarraren eskariei erantzuteaz arduratzen da, eta Udalaren esku-hartzea eskatzen du Osasun Ikuskaritzari dagokion gai espezifiko batean. Gainera, ofizioz garatzen ditu merkataritza-jardueren osasun-zaintzako programak eta/edo etengabeko osasun-hobekuntza sustatzeko zerbitzuak.

**ESKATU AHALA**
Herritarren salaketek beheranzko joera ageri dute, eta nolabaiteko egonkortasun erlatiboa izan dute 2014/2017 aldian. 2019an, 2018an bezalaxe, eskaera kopurua txikiagoa da aurreko urteen aldean.

| URTEA | KOPURUA, GUZTIRA | SALAKETA KOPURUA | ESKAERA KOPURUA | SORRARAZITAKO IKUSKATZE KOP. | KOPURUA SORTURIKO LAGINAK |
|---|---|---|---|---|---|
| 2015 | 50 | 28 | 22 | 26 | 0 |
| 2016 | 54 | 36 | 18 | 36 | 2 |
| 2017 | 51 | 30 | 21 | 37 | 3 |
| 2018 | 36 | 26 | 10 | 57 | 4 |
| 2019 | 43 | 32 | 11 | 70 | 0 |

**OFIZIOZKO ZAINTZA**
2019an garatutako osasun-zaintzako urteko programek zerikusia dute kontsumorako uraren, ibaiko uraren, igerilekuen, haurtzaindegien eta haur-eskolen zerbitzuaren, estetika eta garbitasun pertsonaleko lokalen eta merkataritza-lokalen kalitate sanitarioarekin. 2019ko uztailean, Udal Laborategiak bat egin zuen Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren laborategiarekin, eta hainbat aldaketa sortu zituen, egindako analisien kopurua eta profilak Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren laborategiko estandarretara egokitzeko.

| URTEA | IKUSKATZEAK, GUZTIRA | LAGINAK, GUZTIRA |
|---|---|---|
| 2015 | 1914 | 1790 |
| 2016 | 1904 | 1756 |
| 2017 | 1759 | 1761 |
| 2018 | 1941 | 1695 |
| 2019 | 1835 | 1500 |

Herritarrek formalizatutako salaketen % 87 udal-erregistroan aurkeztu eta 20 egun igaro baino lehen artatzen dira. Salaketa gutzi-guztiei 28 egunen aurretik ematen zaie erantzuna. Jasotako eskaerei 10 eguneko epean erantzuten zaie batez beste.

# INGURUMEN INGENIARITZA

Zerbitzuaren jarduerak, funtsean, salaketei erantzutean eta zaratari eta usainei buruzko ingurumen-legeria betetzen dela egiaztatzeko eragozpenak sor ditzaketen jarduerak ofizioz ikuskatzean oinarritzen dira. Salaketak izan daitezke herritarrak instantzia orokorrean idatziz aurkezten dituen eta Ingurumen Ingeniaritzako Zerbitzuari zuzenduta dauden kexak, edo Udaltzaingoak herritarrek egindako deiengatik ipinitako salaketak.

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Salaketa kopurua | 171 | 174 | 199 | 133 | 145 |
| Ikuskatze kopurua | 191 | 97 | 175 | 100 | 63 |

**KUTSADURA AKUSTIKOAK ERAGINDAKO SALAKETAK**

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Tabernak | 48 | 46 | 50 | 29 | 33 |
| Auzotarrak | 56 | 66 | 71 | 59 | 63 |
| Bertze batzuk | 44 | 42 | 44 | 30 | 38 |
| GUZTIRA | 148 | 154 | 165 | 118 | 134 |

2019an, 32 zehapen jarri dira zaratagatik.

**KUTSADURA ATMOSFERIKOAK ERAGINDAKO SALAKETAK**

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Keak eta usainak | 23 | 20 | 19 | 15 | 11 |

Ikus daitekeenez, kutsadura atmosferikoagatiko salaketen kopurua txikia izan da azken urteetan, nabarmen ugaritu baitira ofiziozko ikuskapenak.

**OFIZIOZKO IKUSKATZEAK**

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Ostalaritzako ikuskapenak | 1033 | 777 | 833 | 813 | 845 |
| Bertze mota batzuetako ikuskapenak (merkataritza, industria) | 195 | 132 | 150 | 151 | 117 |
| GUZTIRA | 1228 | 909 | 983 | 964 | 962 |

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Ostalaritzako zaratengatik ipiniriko salaketen kopurua | 48 | 46 | 50 | 29 | 33 |
| Ofiziozko ikuskapenen kopurua ostalaritzan | 1033 | 777 | 833 | 813 | 845 |

# UDAL-LABORATEGIA

Iruñeko Udal Laborategiaren eginkizun nagusia elikagaiei eta ingurumenari buruzko laginen analisi kimikoak eta mikrobiologikoak egitea da; lagin horiek Elikagaien eta Ingurumen Osasunaren Ikuskaritzak hartutakoak dira, hiriko kontrol sanitarioaren barnean. Bertze eginkizun garrantzitsu bat Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuarekin eta haren laborategiarekin lankidetzan aritzea da. 2019an, harreman horrek bertze urrats bat egin zuen, maiatzaren 7an Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak eta Iruñeko Udalak administrazioarteko hitzarmena sinatu baitzuten, Iruñeko Udalak Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren laborategiko instalazioak aldi baterako erabili ahal izateko. Hitzarmen horren arabera, 2019ko uztailaren 15etik aurrera, Osasun Publikoko Laborategira eramanen dira udal-laborategiko langileak, beren teknikak eta ekipoak.

| Elikagai mota | Lagin kopurua | Saiakuntza kimikoak | Saiakuntza mikrobiolo-gikoak | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Esnekiak | 5 | 9 | 8 | 17 |
| Haragikiak | 30 | 143 | 42 | 185 |
| Arrainkiak | 2 | 2 | 0 | 2 |
| Olioak eta gantzak | 2 | 3 | 0 | 3 |
| Gozotegiak eta izozkitegiak | 4 | 8 | 8 | 16 |
| Laugarren gamako barazkiak | 8 | 5 | 16 | 21 |
| Plater prestatuak eta aurrez prestatuak | 49 | 0 | 97 | 97 |
| Azaleren analisia | 49 | 0 | 49 | 49 |
| Guztira | 149 | 170 | 220 | 390 |

## INGURUMEN-KONTROLA

Zerbitzuak giza kontsumorako ura, igerilekuak eta udalerria zeharkatzen duten ibaietako ura kontrolatzen ditu. 2019an, ur-hornidurako 771 lagin aztertu zituzten, honako hauetatik harturik: lorategietako, parkeetako eta ikastetxeetako iturri publikoak, patioak eta ikastetxeetako jantokiak urez hornitzeko guneak, haurtzaindegiak eta udal-eraikinetako lantokiak. Halaber, estalitako igerilekuetatik 101 lagin hartu zituzten, eta Arga, Elortz eta Sadar ibaietako uretatik, berriz, 12 lagin.

*INGURUMEN-OSASUNAREN LAGINAK AZTERTZEKO JARDUERA 2019KO LEHEN SEIHILEKOAN*

| Elikagai mota | Laginak | Saiakuntza kimikoak | Saiakuntza mikrobiolo-gikoak | Guztira Saiakuntzak |
|---|---|---|---|---|
| Sareko ura | 777 | 7.466 | 2.330 | 9.796 |
| Igerileku eta hidromasajeetako ura | 101 | 1.212 | 707 | 1.919 |
| Ibaietako ura | 12 | 112 | 36 | 148 |
| Guztira | 890 | 8.790 | 3.073 | 11.863 |

*ANALISI-JARDUEREN LABURPENA 2019*

| Jatorria | Lagin kopurua | Saiakuntza kimikoak | Saiakuntza mikrobiolo-gikoak | Saiakuntzak, guztira |
|---|---|---|---|---|
| Ingurumen Ikuskaritza | 890 | 8.790 | 3.073 | 11.863 |
| Elikagai Ikuskaritza | 149 | 170 | 220 | 390 |
| Hirugarrenak | 180 | 455 | 0 | 455 |
| Kontrol analitikoa | 164 | 268 | 203 | 471 |
| GUZTIRA | 1.383 | 9.683 | 3.496 | 13.179 |

# EPIDEMIOLOGIA

Epidemiologia Zerbitzua Udalaren osasun-zerbitzu bat da, eta herritarren osasuna babestea eta sustatzea du helburu. Aire zabalean ariketa fisikoa sustatzeko, ibilbide naturaletan barna ibilaldi nordikoen hastapenetako eta 40 urtetik gorakoentzako ariketa fisikoa sustatzeko programak ditu. 2019ko udaberrian, ibilaldi nordikoko 19 saio antolatu ziren, intentsitate desberdinekoak, eta 562 pertsonak parte hartu zuten (353 emakume eta 22 gizon). Udazkeneko saioan, 296 pertsona izan ziren (277 emakume eta 19 gizon), 18 saiotan. 40 urtetik gorakoei zuzendutako ariketa fisikoa sustatzeko programari dagokionez, lau udal-kiroldegitan eta Alde Zaharreko eta Donibaneko osasun-zentroetako instalazioetan egiten da. Martxoan, apirilean eta maiatzean, guztira, 187 pertsonak eman dute izena (horietatik 170 emakumeak), eta 50 eta 65 urte bitartekoak dira nagusi.

Horretaz gainera, martxoaren 12tik ekainaren 28ra bitartean, informazio-sistema aktibatzen da Herritarrendako Arreta Zerbitzuarekin lankidetzan, hirian dauden landare-espezie nagusien polinizazio-maila zein den jakiteko, polenarekiko sentikorrak diren pertsonek eragozpenak izaten ahal dituzten aldetik. 2019ko udaberrian, 15 astez, 20.024 SMS mezu eta 1.916 email bidali zitzaizkien 1.495 pertsonari, eta horietatik 95 izen-emate berriak izan ziren.

*Polen-mailari buruzko informazioa jasotzen duen lagun kopurua*

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Izena emandakoen kopurua | 1.035 | 1.182 | 1.323 | 1.404 | 1.495 |

Epidemiologia Zerbitzuak Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan dihardu gehiegizko tenperaturak osasunean duen eraginaren aurkako prebentzio-planean, eta hori arrisku-mailari eta «bero-boladaren» kasuan prebentzio-neurriei buruzko informazioan zehazten da. 2019ko udan lehen aldiz ipini behar izan duten plana martxan Iruñean. Era berean, Desinfekzio Parkearekin eta Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan, 2016az geroztik, udalerrian eltxo tigrearen presentzia detektatzeko lanean ari dira, 2019ko maiatzaren 20tik abenduaren 2ra bitartean arrautza-tranpen instalazio- eta bilketa-sistema baten bidez. Aurten, lau astez luzatu da zaintza-kanpaina, ezaugarri klimatologikoak aldekoak izan baitira eltxoarentzat.

*Arrautza-tranpen taula/erregistroa Iruñerrian. 2016-19*

| UR-TEA | TRANPA KOPURUA | ASTE KOPURUA | TRANPA KOPURUA | | | | ALDATURIKO LEKUKO KOPURUA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ZAINDUAK | POSITIBOAK | NEGATIBOAK | DESAGERTUAK | |
| 2016 | 8 | 11 | 88 | 0 | 88 | 2 | 1 |
| 2017 | 10 | 16 | 160 | 0 | 160 | 2 | 4 |
| 2018 | 10 | 12 | 120 | 0 | 120 | 0 | 3 |
| 2019 | 10 | 15 | 150 | 0 | 144 | 3 | 3 |

# HIGIENE- ETA DESINFEKZIOKO-ZERBITZUA

*DESINFEKZIO-PARKEA*

*Desinfekzio-parkeak arratoi-hiltze, desinfekzio, intsektu-kentze eta usain-kentze lanak egiten ditu lokaletan eta bide publikoan, ofizioz zein partikularrek eskatuta.*

*Desinfekzioak*

*Intsektuak hiltzea*

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Desinfekzioak (partikularrak) | 15 | 18 | 11 | 14 | 9 |
| Santo Domingo azoka eta Zabalgunea | 104 | 102 | 104 | 104 | 100 |
| Bide publikoa | 2.082 | 1.949 | 2.663 | 2.432 | 1.991 |
| Hauteslekuak | Bide publikoan bilduriko datuak | | | | 69 |
| Udal-egoitzak | Bide publikoan bilduriko datuak | | | | 56 |
| **Zerbitzuak, guztira** | 2.201 | 2.069 | 2.778 | 2.550 | 2.225 |

Intsektu-kentzeen kopuru osoa 2018an izanikoen antzekoa da. Aurten, Haur Hezkuntzako ikastetxeak,

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Intsektuak hiltzea ( partikularrak) | 129 | 150 | 152 | 192 | 188 |
| Ikastetxeak eta haur-eskolak | 35 | 41 | 43 | 40 | 41 |
| Udal-egoitzak | 307 | 270 | 314 | 514 | 93 |
| Udaberriko kanpaina | Udal-egoitzetan bilduriko datuak | | | | 83 |
| Bide publikoa | Udal-egoitzetan bilduriko datuak | | | | 318 |
| Bainu-etxeak eta komun publikoak | 167 | 169 | 55 | 15 | 14 |
| **Zerbitzuak, guztira** | **641** | **630** | **564** | **761** | **737** |

Lehen Ziklokoak eta haurtzaindegiak fumigatzeko kanpaina egingo da, baita Udalaren haur-eskolak ere.

*Arratoi-garbiketak*

2019an, estolderietako arratoiak kontrolatzeko urteko bi kanpainei eutsi zaie, zeinak ugalketa-garaiarekin batera egiten baitira (udaberrian eta udazkenean).

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| Estolderia: erregistroak | 1.146 | 1.394 | 3.008 | 3.014 |
| Estolderia: ikuskatzeak | 896 | 3.942 | 3.282 | 3.763 |
| Arratoiak hiltzea bide publiko eta udal-eraikinetan | 395 | 612 | 543 | 717 |
| Arratoiak hiltzea (partikularrak) | 417 | 78 | 74 | 146 |
| Berrikuspenak (partikularrak) | 302 | 21 | 0 | 0 |
| Zerbitzuak, guztira | 3.156 | 6.047 | 6.907 | 7.822 |

2019an, berrikusi egin dira etxe edo lokal partikularrak artatzen dituzten zerbitzuak, eta ikusten genuen batzuetan ez genuela dosi nahikoa jarri eta erresistentziak sor zitezkeela. Horregatik, 146 zerbitzu partikular izan arren (2017an eta 2018an halako bi), ia bi aldiz joan behar izan dugu eskaera bakoitzeko.

**BERTZE ZENBAIT JARDUKETA**

Labezomorroaren kontrola

Urtero, eta udaberrian espeziearen arrautzak eklosionatzearekin batera, Desinfekzio Parkeak ofizioz intsektuak garbitzen ditu Bigarren Zabalguneko eta bertze auzo batzuetako puntu jakin batzuetan, bai eta Txantrea auzo osoan ere.

Eltxo tigrea

Desinfekzio Parkeak espezie hori zaintzeko eta kontrolatzeko programan laguntzen jarraitzen du Iruñean 2019an, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) ezarritako jarraibideen arabera.

Liztortzar asiarra

Vespa Velutina liztortzar asiarra kontrolatzeko zerbitzuen kopuruak gora egin du pixkanaka, espeziearen izaera inbaditzaile eta hedakorrari erantzuteko. Hala ere, zerbitzuak 36 habia detektatu eta prozesatu ditu 2019an, bertze urte batzuetan baino gutxiago. Horren arrazoia izan liteke ziurrenik udaberrian tranpa-sare bat instalatzen delako, eta sare horrek ale asko (erreginak) harrapatzen dituelako: 398 liztor 213 ikuskapenetan; udako bero-boladek ugalketa eteten lagundu zuten.

## HABIEN BILAKAERA URTEAN




## KOMUN PUBLIKOAK

Ekainaren 17tik 23ra bitartean eta abenduaren 9tik 15era bitartean, kontrolak egin dira komun tradizionaletan, zerbitzu horiek zenbat pertsonak erabiltzen dituzten jakiteko:

| | Uztaila | | Azaroa | | Zenbatespena |
|---|---|---|---|---|---|
| | astea | eguna | astea | eguna | Erabilera-eskuliburua |
| WC- Sarasate | 5986 | 855 | 3815 | 545 | 255.681 |
| Gazteluko plaza | 9256 | 1322 | 4455 | 636 | 357.808 |
| Gurutzeko plaza | *4156 | 594 | 4156 | 594 | 216.706 |
| Foruen plaza | 3367 | 481 | 4995 | 714 | 217.893 |
| Basotxoa | 4353 | 622 | 3207 | 458 | 197.182 |
| Antoniutti | 3417 | 488 | 2444 | 349 | 152.874 |
| Ziudadela | 2509 | 358 | 1249 | 178 | 98.066 |
| Media Luna parkea | 1138 | 163 | 1254 | 179 | 62.355 |
| Munduaren parkea | 1702 | 243 | 1237 | 177 | 76.657 |
| Landaben* | **0 | 0 | 576 | 576 | 25.344 |
| GUZTIRA | | | | | 1.660.566 |

GARBIKETA AUTOMATIKOKO KOMUNAK. Erabilera kopurua

| | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gazteluko plaza | 37.159 | 40.333 | 39.488 | 42.777 | 40.299 | 31.945 | 32.108 |
| Sanduzelai* | 13.758 | 13.813 | 14.756 | S.D | S.D | S.D | 11.639 |
| Magdalenako zubia* | 13.896 | 13.842 | 14.120 | S.D | S.D | S.D | 7.457 |
| Runako parkea* | 13.432 | 11.077 | 14.462 | 15.122 | 12.975 | 18.896 | 17.566 |
| Maiteminduen parkea* | 12.593 | 13.432 | 10.386 | 7.977 | 9.099 | 10.123 | 9.686 |
| Mendillorri ikastetxea | 8.869 | 7.914 | 8.119 | 10.093 | 7.366 | 7.608 | 9.093 |
| Mendillorriko aintzira | 4.218 | 4.111 | 4.538 | 4.563 | 5.617 | 4.524 | 5.590 |
| Karrikiri* | 4.775 | 5.307 | 5.070 | 4.279 | S.D | 3.507 | 3.653 |
| Felisa Munarriz plaza | 9.947 | 10.649 | 6.994 | 7.401 | 5.833 | 5.987 | 6.639 |
| Sarasate pasealekua | 33.282 | 33.586 | 31.447 | 27.686 | 34.846 | 35.057 | 40.364 |
| La Olivako Monasterioa | 22.371 | 23.160 | 23.782 | 23.568 | S.D | S.D | 17.378 |
| Ibarbidea | 17.892 | 10.319 | 10.377 | 9.681 | 9.041 | S.D | 7.273 |
| Gartzia Naiarakoaren pasealekua | 21.896 | 22.398 | 22.195 | 12.603 | S.D | 21.285 | 21.336 |
| Serafín Olave | 18.940 | 23.201 | 23.147 | 22.959 | 23.795 | 23.489 | 21.557 |
| Ilargi Enea parkea* | 6.004 | 4.372 | 6.900 | 5.818 | 7.698 | 5.188 | 7.669 |
| Karlos III.a | 15.489 | 20.034 | 24.377 | 31.512 | 36.427 | 34.187 | 40.167 |
| Elío epailearen plaza | 6.844 | 6.024 | 3.428 | 4.463 | 5.609 | 6.419 | 7.249 |
| Martzilla monasterioa | 5.247 | 5.972 | 4.436 | 4.690 | 4.327 | 7.307 | 5.583 |
| Viñaburu-Ospitaleak | 3.736 | 3.815 | 2.977 | 2.867 | 2.874 | 2.844 | 2.441 |
| Turrillas plaza | 4.396 | 6.368 | 6.408 | 6.050 | 6.914 | 7.176 | 7.997 |
| Gares plaza | 4.951 | 5.583 | 6.271 | 5.604 | 5.846 | 5.709 | 7.194 |
| Erriberri | 4.646 | 6.538 | 7.200 | 7.271 | 7.408 | 6.485 | 7.642 |
| San Frantzisko | | 25.916 | 36.901 | 36.187 | 41.667 | 30.269 | 31.210 |
| Alfredo Landa | | 8.942 | 12.955 | 12.779 | 8.587 | S.D | 17.753 |
| Sandua pasealekua | | | 4.938 | 10.046 | 9.954 | 12.429 | 9.543 |
| Taxoare | | | | | 3.871 | 1.552 | 8.942 |
| **Guztira** | **284.341** | **326.706** | **345.672** | **315.996** | **290.053** | **281.986** | **364.731** |

## BAINU-ETXEA ETA ANTONIUTTIKO DUTXAK

Hiriak bainu-etxe bat du Eslava kaleko 9. zenbakian; ur beroz hornitutako instalazioak ditu, eta zortzi dutxa-kabina, sei bainugela (desgaitasunen bat duten pertsonek erabiltzeko egokitutako bi), hiru garbigailu eta hiru lehorgailu. Horretaz gainera, haiek modu egokian erabiltzeko tresna guztiak.

*Dutxen erabileren joera*

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Gizarte-zerbitzuetako dutxa kop. | 678 | 768 | 956 | 900 | 815 |
| Dutxak, guztira | 6.963 | 7.153 | 6.667 | 7.347 | 6.511 |
| Bainu kopurua | 1 | 24 | 19 | 6 | 16 |
| **Dutxak eta bainuak, guztira** | **6.964** | **7.177** | **6.686** | **7.353** | **6.527** |

*Garbiketa eta lehorketa kopurua*

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
Aurrekontu: 31.609,01 € (BEZa barne). Labriteko Ardatz Jasangarriaren proiektuaren xedea ibilbide luze bat birmoldatzea da, Magdalena kaletik Lizarra keleraino, Yanguas y Miranda kalearekin bat egiten duen tokian, Vergel eta Joan Labritekoaren kalean barna Zabalguneko eta Alde Zaharreko sestrara igo eta gero.

Proiektuak gizartearen parte handi baten babesa dauka, eta haren eskarietako bat da Labriteko aldapan ibilgailu motordunen zirkulaziotik bereizitako bizikletatarako azpiegitura bat txertatzea, Txantrea auzotik Iruñeko mesetara bizikletaz doazenen ibilbidea bermatzeko, baldintza hauekin bat: oinezkoen mugikortasuna hobetzea eta garraio publikoaren pasabidea bermatzea. 2018ko bukaeran lizitatu zen lehen azterlan teknikoa, eta 2019ko otsailean aurkeztu da. Azterlanak honako hauek biltzen ditu: edukierak eta zirkulazio-fluxuak, alternatiben gaineko azterlan teknikoa Magdalena kaletik Amaia kaleraino, eta zirkulazioaren mikrosimulazioak. Azterketa Mugikortasuneko Talde Teknikoaren eta txirrindulari-taldeen eta elkarteen aurrean aurkeztu da.

Urrian ardatz osorako behin betiko aurreproiektua kontratatu zen, Magdalena kalearen hasieratik Lizarra kaleraino. Behin betiko soluzio teknikoak bidegorri bat jasotzen du; bi noranzkoa eta Alde Zaharrera igotzeko noranzkoan eskuinean bereizita dago. Ibilbide jarraitua dauka ardatz osoan barna, eta Amaia kalean bat egiten du bertze bidegorri baten abiapuntuarekin. Aurreproiektuaren definizioari esker, 2020an obrak kontratatu aurreko egikaritze-proiektu bat enkargatzen ahalko da.

Proiektatu den bidegorriak bat egiten du Argaren paraleloan doan Alemanes pasealekukoarekin eta Hego-Txantrea urbanizazio berrian eginen den bizikleta-pistarekin, zeina Burlatarainoiritsiko baita. Bidegorria Lizarra kaleak Yanguas y Miranda kalearekin bat egiten duen elkargunean amaitzen da. Bertan bidegorri berri bat proiektatu du Udalak: iparretik, Navas de Tolosa kalekoarekin bat eginen du eta Pio XII.aren noranzko bakarreko bidegorrietan barna jarraituko du, eta, hegoaldetik, Gaztelugibeleko, Erletokietako eta Julián Gayarre kaleko bidegorriekin.

## BIZIKLETETARAKO APARKALEKU PUBLIKOEN SAREAS

Aurrekontua: 91.289 € (BEZa barne). Bizikleta eguneroko joan-etorrietarako baliabide gisa sustatzeko, bizikleta-sare bat behar da, bai eta aparkaleku egokiak ere, bizikleta elektrikoak erabiltzen ere laguntzeko. 2019an, Udalak martxan jarri du bizikletentzako aparkaleku publikoen sare berria, babestuak, seguruak eta txandakakoak, eta sarbide-kontroleko modulu estaliz osatuta, bideoz zainduta eta ibilgailu mota horiek aparkatzeko prestatuta egonen dira.

Lehenengo hiru moduluak 50na plazakoak izanen dira, eta zezen-plazan (Emilio Arrieta kalearen ondoan), Nafarroako Ospitalegunearen eremuko Protomedicato plazan (lurpeko aparkalekuaren gainean) eta Txantreako Arriurdiñeta plazan (liburutegi publikoaren ondoan) instalatu dira. Aparkaleku horiek sarearen berezko irudi batekin identifikaturik daude.

Aparkalekuek aluminiozko egitura eta polikarbonato gardenezko paramentuak dituzte, bai eta argiztapen artifiziala eta bateria osagarri bat ere. Barruan, gainera, elektrizitatea kargatzeko 2 puntu adimendun eta gurpilak puzteko ponpa bat daude. Erabiltzaileek berariazko webgune bat eta app bat dute eskuragarri, hala zerbitzuan izena emateko nola aparkalekuetara sartzeko.

Sarea sustatzeko ate irekien jardunaldiak egin dira, eta liburuxka bat eta bideo bat ere prestatu dira, ondoren Udalaren sare sozialen bidez zabaltzeko. Sarea 2020. urtean zabalduko da, bertze hiru aparkalekurekin.

## BIZIKLETETARAKO AUZO-APARKALEKUAK

**Aurrekontua: 11.775,86 € (BEZa barne).** 2017az geroztik, Iruñeko Udalak bost lokal egokitu ditu bizitegi-erabilerako bizikleta-aparkalekuak izateko. Aparkalekuon bidez, bizikletak etxean gorde beharrak sortzen dituen arazoak konpontzen dira; izan ere, horietako batzuetan leku gutxi dago edo ez dago igogailurik. Descalzos 23 eta 27, Urzainki 14 eta Juan María Guelbenzu 8 zeharbidea, hiruren artean 452 plaza izanik; horiei San Anton 7koak gaineratu behar zaizkie (57 plaza). Apirilean, aparkaleku-plaza guztiak esleitu dituzte auzoko bizilagunen artean, eta 100 lagunetik gorako itxaron-zerrenda bat sortu da.

Aparkalekuak bideo bidez zaintzen dira, eta eguneko 24 orduetan erabil daitezke. Barnealdean, bizikletak aparkatzeko moduluak instalatu dituzte, bi garaieratan, eta gune bat daukate gurpilak puztu eta oinarrizko konponketak egiteko. Plazak erabiltzeko baimenak prekarioan esleitzen dira, eta auzoan erroldaturikoen artean bakarrik (helduak zein haurrak), gehienez ere 10 urteko iraupenarekin. Prezio publikoa 60€/urte eta 30 €/urte bitartekoa da, errenta-maila eta erabilera-modalitatea (haurra edo heldua) zein diren.

Plazen adjudikaziodunek Biziz aplikazioaren bidez eskura dezakete aparkalekua, edo larrialdietarako telefono baten bidez ere bai. Intelligent Parking enpresak egiten ditu sarbideak kontrolatzeko sistemaren kudeaketa eta mantentze-lanak, eta ANIMSA enpresa publikoak sortu zuen kobrantzak kudeatzeko aplikazio informatikoa.

## BIZIKLETAK APARKATZEKO EUSKARRIAK BIDE PUBLIKOAN EZARTZEKO PLANA

**Aurrekontua: 10.907,53 € (BEZa barne).** 2019an, urtero bezala, Udalak bide publikoko aparkalekuen kopurua berritu eta areagotu zuen, Mugikortasun Zerbitzuak urtero egiten duen ezarpen-plan baten arabera. Urtea hastearekin batera bizikletak aparkatzeko 40 modulu erosi eta jaso dira; «Unibertsal» motakoak dira, zeinak 6 aparkaleku-plaza baitauzka eta buruz behera jarritako hiru «U»-k osatzen baitute; altzairu galvanizatuzkoak dira eta bi pletinak lotzen dituzte, izan ere, haien gainean bermatu eta ainguratzen dira zoruari. Aparkatze-moduluak espaloietan instalatu ohi dira, baina galtzadetan ere badira, batez ere bidegorriei loturik, esaterako, Pio XII.aren etorbidean. Era berean, instalazioak egin dira ikastetxeetako esparruetan.

Espazio publikoko kokalekuak hautatzeko, kontuan hartzen da ofizioz hautematen direla ikuskapen-lanaren bidez bete beharreko premiak (eremu saturatuak edo sistematikoki bidegabeko aparkatzeak izaten dituztenak); narriaduragatiko ohiko birjartzea; administrazioen, elkarteen, erakunde publiko eta pribatuen eskaera edo espazio publikoaren birmoldaketa. Azkenik, kokapen-hobekuntzak ere egin dira irisgarritasun unibertsaleko irizpideen arabera, desgaitasuna duten pertsonek eskatuta. Urteko azken hiruhilekoan modulu berriak paratu dira Iturrama eta Arrotxapea auzoetan zuzkidurak handitzeko, zebra-bideak aldatzearen harira.

## «BIZIESKOLA HELDUENTZAT» HEZKUNTZA-PROGRAMA

Aurrekontua: 7.956,96 € (BEZa barne). Udalaren prestakuntza-programa bat da, eta haren helburua da eguneroko joan-etorrietarako bizikletaren aldeko apustua egiten duten helduen kopurua areagotzea. Bizikletan ez dakiten edo, jakinda, hirian barna ibiltzeko behar adina abileziarik eta konfiantzarik ez duten helduentzat da programa. Izen-ematea irekita dago gizonentzat eta emakumeentzat, baina programa emakumeentzat da bereziki; izan ere, biztanleriaren % 52 osatzen badute ere, estatistikek erakusten dute bizikletan ibiltzen direnen % 36 baino ez direla. Ikastaroak taldeka eta mailaka antolatzen dira.

Aurten 90 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute proposatutako ikastaroetan. Urteko hainbat sasoitan egiten dira, normalean udaberrian eta udazkenean, eta 2019an Mugikortasunaren Europako Astean ere egin dira. Aurten bederatzi ikastaro egin dira, eta hiru astean zehar hainbat saio ere izan dira.

## «BIZIKLETA ESKOLAN» HEZKUNTZA-PROGRAMA

Aurrekontua: 64.450 € (BEZa barne). Udaleko prestakuntza-ekimena hiriko ikastetxe guztientzat da, Lehen Hezkuntzako zein Bigarren Hezkuntzakoentzat, eta esparru-akordio baten bidez garatzen da. Akordio horretan, bi enpresa esleipendunek lantegiak antolatzen dituzte izena emandako ikastetxe eta ikasleentzat. Programa ikasturteka ezartzen da; hortaz, 2019. urtean, 2018-2019ko ikasturteko bigarren eta hirugarren hiruhilekoei eta 2019-2020ko lehen hiruhilekoari dagozkien lantegiak eman dituzte.

Programak aukera ematen die ikasleei hirian barna modu seguruan zirkulatzen ikasteko, arauekin bat eta beren eskubideak eta osotasuna bermaturik, bai eta beren bizikletak eta ekipamenduak egoera onean mantentzeko ere. Ikasgelan emaniko saio teoriko bat eta jolastokian eginiko saio praktiko bat ditu, baita bide-hezkuntzako bigarren fase bat ere, Udaltzaingoak hirian bizikleta erabiltzera bideratua. Azken urratsa ibilbide gidatu bat da.

2018-2019ko ikasturtean 10 ikastetxek eta 1.402 ikaslek parte hartu dute. 2019-2020ko ikasturtean, gora egin du parte hartu duten ikastetxeen kopuruak .

## IBILGAILU ELEKTRIKOAK KARGATZEKO GUNEEN SAREA

Aurrekontua: 6.109,53 € (BEZa barne). Garraioa da hiriarentzat sektorerik kutsatzaileena, berotegi-efektuko gasen isurketen % 57 eragiten baitu; horregatik, Udalak mugikortasun elektrikoa bultzatzen du 2005eko Mugikortasun Jasangarriaren Tokiko Itunaz geroztik.

2014an, Iruñeko Udalak hitzarmen bat sinatu zuen Iberdrolarekin, bide publikoan ibilgailu elektrikoa kargatzeko bost zutoin paratzeko. Akordioa 2017an berritu zuten, Smart Pamplona estrategiaren eta Stardust Europako proiektuaren barruan. Halaber, baimena eman du zenbait enpresak kudeatutako txandakatze-aparkalekuetan 23 kargagune ezartzeko. 2019. urtearen amaieran, eraberritu egin ziren itunpeko birkarga elektrikoko udal-zutoinak, eta, horretarako, hargune indibidualeko zutoinen tokian hargune bikoitzekoak paratu zituzten, bai eta hornitutako potentzia handitu ere (7,4 kW-ko birkarga-puntu konbentzionaletatik 22 kW-ko birkarga-puntu erdiazkarretara).

Udalak informazioa jasotzen du puntu horietan egiten diren kargei eta horrek eragiten duen energia elektrikoaren kontsumoari buruz. Datuok Stardust proiektuaren barruan oraindik garatzen ari den Hiria Plataforman iraultzen dira, kudeatu beharreko energia-fluxuen parte gisara.

Herritarrak ibilgailu elektrikoaren aldeko apustua egiten ari dira; izan ere, 2011tik, Udalak 181 txartel eman ditu, zero isurketa (% 100 elektrikoak) dituzten ibilgailuentzako aparkaleku arautu eta mugatuetako murrizketetatik kanpo uzteko, eta gehitze-prozesua progresiboa izan da: 2015ean, 9; 2016an, 16; 2017an, 15; 2018an, 30, eta 2019an, 81.

2019an, Mugikortasun Zerbitzuak bi baldintza-agiri prestatu ditu administrazio-emakida baterako (hirian horretarako ezarritako bi eremuak), erabilera publikoko birkarga-puntuen sistema ireki eta irisgarria instalatu, kudeatu eta ustiatzeko beharrezkoa den jabari publikoa emateko, eta 26 hargune jarriko dira martxan orotara. Kargaguneek ematen duten energia elektrikoak % 100 jatorri berriztagarrikoa izan behar du. Pleguak idatzi aurretik, aldez aurreko merkatu-kontsulta bat egin da interesa agertu duten zortzi enpresarekin. Aurreikuspenen arabera, birkarga elektrikoko puntuak 2020a amaitzerako egonen dira indarrean.

## NAFARROAKO AUTISMO-ELKARTEAK PIKTOGRAMA BIDEZ SEMAFOROETAN EGINDAKO SEINALEZTAPENA

**Aurrekontua: 5.000 € (BEZa barne).** Udalak, Nafarroako autismo Elkartearekin elkarlanean, 2013an Avilan hasi zen #UlertuHiriaPiktrogramekin ekimenean lan egin du. Kanpaina horretan, Nafarroako Gobernuak eta bertze erakunde publiko eta pribatu batzuek ere parte hartzen dute. 2019an, Iruñeko Udalak piktograma bat sartu du hiriko semaforo guztietan, autismoa dutenei semaforoetako argien kodea zuzen interpretatzen eta baimenduta dagoenean gurutzatzen laguntzeko.

## 2019KO EUROPAKO MUGIKORTASUN ASTEA

**Aurrekontua: 26.840,97 € (BEZa barne).** Urtero, irailean, Iruñeko Udalak Mugikortasunaren Europako Astearekin bat egin du, aurten «Walk with us» (ibili gurekin) leloarekin. Europako Mugikortasun Astearen bidez, parte hartzen duten hiriak mugikortasun jasangarria sustatzeko jarduerak egitera animatzea da helburua, eta 2019an oinez mugitzen direnen egitekoa nabarmen du. Iruñean, horiek dira protagonista nagusiak banaketa modalaren arabera (eguneroko joan-etorrien % 42 oinez egiten dira) eta horixe da, hain justu, Mugikortasun Jasangarriaren aldeko Tokiko Itunaren helburuetako bat.

Mugikortasunaren Europako Astearekin loturik, 2019an Iruñean egin diren jarduerak askotarikoak izan dira: Gazteluko plazako informazio-etxola, helduek bizikletan segurtasunez ibiltzen ikasteko ikastaroak («helduentzako bizikleta-eskola»), Mugikortasunari buruzko Udal Ordenantza berriari buruzko komunikazio-kanpaina eta informazio-hitzaldiak, berariazko hitzaldiak, Arrotxapea eta Arrosadia auzoetako bizikletentzako auzo-aparkalekuei buruzko kanpaina ludiko-informatiboa (ibilbide antzeztua), bi bizikleta-ibilbide kultural (Oteizaren eskulturak hiri-espazioan eta parkeak eta lorategiak), eta 8 ikastetxetako 600 eskola-umerekin eginiko bizikletada, zeinari «Bizikleta Eskolarekin» ematen baitzaio jarraipena.

# JASANGARRITASUNA

## IRUÑEKO UDALEKO ENERGIA-AGENTZIA (IUEA)

2019an, aldaketa batzuk egin dira Iruñeko Udaleko Energia Agentzian, eta jatorrizko izena berreskuratu du. Aurten, jarduera operatiboko bi ildo indartu dira, udal-kudeaketa energetikoa eta sorkuntza berriztagarria, baina ez da alde batera utzi aholkularitza-lana, barnekoa zein herritarrena, ez eta hiri-sareetan, Europako proiektuetan eta sentsibilizazio-ekitaldi eta -jardunaldietan parte hartzea ere.

### ENERGIA-TRANTSIZIORAKO ESTRATEGIA

2019an, 2030erako Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako Estrategia garatzeko oinarriak ezarri dira. Lan hori Iruñeko 2030erako Hiri Plan Estrategikoaren 1. dimentsioaren barruan sartzen da, Iruña 2030erako Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) lortzeko trantsizioaren buruan jartzeko.

### ENERGIA-DIAGNOSTIKOA

**Aurrekontua: 16.032,50 €.** 2019an hiriko Energia Diagnostikoa egiten hasi da, eta, urte amaieran, hirian hobekuntza-potentzial handia erakutsi du, eta jarduera-ildoak ere deskribatu dira.

### UDALAREN ENERGIA-KUDEAKETA

Aurten, udaleko energia-eskariaren ikuspegi orokorra izateko lan egin da. Udalak energia kontrolatzeko eta kudeatzeko zenbait tresna digital ditu: Arelsa argiteria publikoa; TREND Energy Manager eraikinak eta eguzki-instalazio fotovoltaikoak (fabrikatzaileen teknologiaren arabera). 2019an, iturri horiek guztiak kudeaketa energetikoko goi-geruza batean bateratzeko lehen urratsak egin dira, konpainia elektrikoko kontagailu fiskalak integratuz, eta, horrekin batera, lehen pausoak eman dira Hiria Plataformara iristeko, hura izanen baita Iruña benetako hiri adimendun bilakatzeko tresna nagusietako bat.

### UDAL-INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAK

Iruñeko Udaleko Energia Agentziak hilero egiten du udal-instalazioen jarraipen teknikoa, guztien funtzionamendu egokia dela ziurtatzeko. Aurten, gorabehera bakarrak kontrol-sistemen ondorioz izan dira; hau da, komunikazio-arazoak eta datu-bidalketako arazoak. 244/2019 Errege Dekretua argitaratzeak aldaketa garrantzitsuak eragiten ditu legerian, eta, horren ondorioz, 2018an gauzatutako instalazioak izapidetzen ari dira 2019an.

| INSTALAZIOA | ERAIKUNTZA | INSTALATUTAKO POTENTZIA (KWP) | EKOIZPENA (KWh) | ZENBATETSITAKO DIRU-SARRERAK (ESTALDURA % 100) | ZUZENEKO AUTOKONTSUMOA AURREZTEA | SOBERAKINAK AURREZTEA (€) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikastola Axular | 23/12/2002 | 2,1 kWp | 0 | - € | | |
| C.P. San Juan de la Cadena | 09/11/2001 | 2,0 kWp | 1.672 | 1.237 | | |
| C.P. Mendillorri lyll | 12/11/2001 | 2,0 kWp | 1.700 | 1.239 | | |
| C.P. Sanduzelai | 22/11/2002 | 2,1 kWp | 2.400 | 1.971 | | |
| Museo de Educación Ambiental San Pedro | 21/10/2003 | 2,1 kWp | 2.456 | 1.576 | | |
| Patxi Larrainzar I.P. | 15/06/2004 | 2,2 kWp | 2.301 | 1.103 | | |
| C.P. Vazquez de Mella | 15/06/2004 | 2,2 kWp | 2.473 | 1.119 | | |
| Ikastola Hegoalde | 16/10/2004 | 2,2 kWp | 2.455 | 1.748 | | |
| C.P. Jose Maria Huarte | 16/10/2004 | 2,2 kWp | 1.879 | 834 | | |
| C.P. Iturrama | 07/11/2005 | 3,6 kWp | 3.585 | 2.470 | | |
| C.P. Nicasio Landa | 07/11/2005 | 3,6 kWp | 4.146 | 2.511 | | |
| C.P. Ermitagaña | 15/11/2006 | 3,3 kWp | 3.655 | 2.119 | | |
| Ikastola Amaiur | 15/11/2006 | 3,3 kWp | 4.322 | 2.167 | | |
| C.P. Mendigoiti y Lago de Mendillorri | 15/11/2007 | 3,9 kWp | 4.772 | 2.195 | | |
| C.P. Cardenal Ilundain | 16/11/2007 | 3,9 kWp | 4.215 | 2.158 | | |
| C.P. García Galdano | 31/12/2008 | 4,1 kWp | 4.329 | 1.419 | | |
| C.P. San Jorge | 31/12/2008 | 4,1 kWp | 4.632 | 1.438 | | |
| Pérgola Sancho Abarca | 31/12/2008 | 5,0 kWp | 4.999 | 1.872 | | |
| Pérgola UPNA | 06/11/2009 | 4,2 kWp | 0 | - | | |
| Antigüo C.P. José Vila | 13/12/2009 | 3,2 kWp | 4.121 | 1.196 | | |
| C.P. Victor Pradera | 12/12/2009 | 5,9 kWp | 7.963 | 2.230 | | |
| Casa de la Juventud | 14/12/2009 | 9,7 kWp | 12.390 | 3.518 | | |
| C.P. Buztintxuri | 31/03/2011 | 25,0 kWp | 0 | - | | |
| Aquavox San Jorge. Fase II | 31/12/2009 | 54,0 kWp | 73.452 | 23.226 | | |
| C.P. Rotxapea | 26/11/2012 | 15,0 kWp | 0 | - | | |
| C.P. Azpilagaña | 27/11/2012 | 21,2 kWp | 0 | - | | |
| C.P. Doña Mayor Navarra | 03/09/2018 | 15,0 kWp | 20.806 | - | 2.518 | 200 |
| C.P Bernat Extepare | 23/07/2018 | 20,0 kWp | 27.081 | - | 3.277 | 260 |
| Biblioteca Txantrea | 02/08/2018 | 15,0 kWp | 20.287 | - | 2.455 | 195 |
| Albergue transeúntes (Trinitarios) | 10/10/2018 | 10,0 kWp | 14.404 | - | 2.179 | - |
| **GUZTIRA** | | 252 kWp | 236.495 kWp | 59.347 € | 10.428 € | 654 € |

Lehendik dauden salmenta-instalazioetarako, energiaren egungo fakturazio-sistemak eragotzi egiten du hilabete bakoitzeko energiaren % 100 sartzea; aldiz, diru-sarrerak ehuneko bati baino ez dio eragiten, eta, ondoren, kopuru hori zuzenduz joaten da. 2019an, baina, ez dira jaso soberakinen konpentsazio sinplifikatuko aurrezkiak, sistema elektrikoak ez baitu oraindik araudi berria aplikatu. 2019an, lehenenik eta behin, mikrosare adimendun bat sortu da Udaltzaingoaren eraikinean.

## MIKROSAREA IRATXEKO MONASTERIOAREN KALEKO ERAIKINEAN

**Aurrekontua: 217.850,00 €.** 2019an, estalki fotovoltaiko bat instalatu da, Europako Stardust proiektuari lotua, udal-potentzia instalatua % 25 handituko duena. Fabrikan instalatutako modulu malguak dira, plug and play teilatuko soluziokoak. 266 eguzki-panel horien konexio elektrikoa berritzailea da; izan ere, eraikin bereko mikrosare adimendun batean integratuta egonen da, eta proiektuko bi bazkidek garatu eta hornituko dute: Beeplanet eta Cener. Berrerabilitako baterietan biltegiratuko da eta mikrosareak kontrolatzeko teknologia izanen du. Udalaren jabetzakoa den handiena izanen da, bai sarerako salmentan, bai autokontsumoan. Guztira 78 kW-eko potentzia edukiko du, eta autokontsumorako energia elektrikoa emanen du, eraikinaren eskari osoaren % 10-15 bitartekoa.

## BEROA BERRESKURATZEA DATUAK PROZESATZEKO ANIMSAREN ZENTROAN

**Aurrekontua: 51.000 €.** Europako Stardust proiektuan bilduriko ekimen honetan, Boostherm bero-berreskuragailu bat instalatu dute datuak prozesatzeko ANIMSAren zentroan. Eguneko 24 orduez aritu behar du urte osoan eta beti hotz egon behar du. Berreskuragailua gai izanen da enpresaren Datuak Prozesatzeko Zentrotik ateratako beroa (13 kW-eko potentzia termikoa eta 140.000 kWh baino gehiagoko energia) etxeko ura berotzeko. Ur horren instalazioa berritu egin beharko da, Herritarren Segurtasuneko dutxei eta Udaltzaingoari zerbitzua emateko.

## LAGUNTZAK AUTOKONTSUMOKO INSTALAZIOETARAKO

**Aurrekontua: 5.000 €.** 2019an ere laguntzen ildo bat izan da autokontsumoko instalazio fotovoltaikoak paratzeko Iruñeko etxebizitzetan. Dirulaguntzaren balio-aldian, 30 kontsulta baino gehiago jaso dira (hainbat pertsonarenak), eta autokontsumoko 2 instalazio finantzatu dira familia bakarreko etxebizitzetan.

## BARNE-AHOLKULARITZA

2019an ere elkarlanean jardun da energiaren esparruan engaiamendurik handiena duten udal-alorrekin, eta ahal den laguntzarik handiena ematen die hala alorrei nola erakunde autonomoei eta udal-enpresei, energia-gaietan. Energiaren Mahaian parte hartu da; energia- eta aholkularitza-azterketak egin dira, eta laguntzak kudeatu dira, bai propioak, bai bertze udal-arlo batzuetakoak, eskualde eta estatu mailako baliabide ekonomikoak eskuratzeko.

Aholkularitza horren adibide gisa, 2019an honako hauek lagundu ziren: Gaiarre antzokia eta Comiruña (energia elektrikoko kontratuak kontratatzea edo berrikustea); Kirolak (San Jorge kiroldegiko berokuntza optimizatzea); Mugikortasuna (ibilgailua kargatzeko zutoinen egoera aztertzea); Proiektu Estrategikoak (egikaritze-proiektuak idazten laguntzea, energia-kontsumo nuluaren, berriztagarrien integrazioaren, energiaren kudeaketaren eta abarren ikuspegitik) eta beste. Gainera, Ingurumen Hezkuntzarekin lan egin da Ingurumen Hezkuntzako Museoan bertan eta bertze espazio batzuetan egindako sentsibilizazio-lantegiak eta -jarduerak definitzeko.

## KANPO-AHOLKULARITZA

2019ko herritarrentzako arreta-datuek erakusten dutenez, kontsulten % 70 baino gehiago partikularrek egin dituzte eta gainerako % 24a, berriz, enpresek. Kontsulten ia erdiak autokontsumorako udal-laguntzei edo estatuko eta/edo eskualdeko bertze diru-laguntza batzuei buruzkoak izan dira. Garrantziari dagokionez, bigarren gaia energia berriztagarriek hirian dituzten aukerei buruzkoa da. Herritarren kontsultak 63 izan dira.

## PLANETAREN ORDUA – WWF ESPAINI

2009. urteaz geroztik, Iruñeko Udalak urtero bat egiten du Espainiako WWF fundazioak koordinatutako ekimenarekin, klima-aldaketaren inguruan kontzientziatzeko. Argi apaingarriak 60 minutuz itzaltzen dira (harresiak, babes-hobia, katedralaren atzeko aldea, Erdi Aroko zubiak, San Nikolas eta San Zernin elizak eta beste), baita udal-eraikinetako fatxadak ere (hala nola udaletxekoa).

## HIRIEN EDO ERAKUNDEEN ENERGIA-SAREAK

Aurrekontua: 3.500 €

Iruñeko Energia Agentziak zenbait hiri-saretan parte hartzen du, bai Espainia mailan, bai nazioartean. 2019an, lanean jarraitu da; errate baterako, ENERAGEN: http://www.eneragen.org/es/ eta ENERGY-CITIES: https://energy-cities.eu/ ekimenetan.

# EUROPAKO PROIEKTUAK

**Stardust**

Europako proiektu honen xedea da energia-eraginkortasun orokorra areagotzea eta parte hartzen duten hirietako bizi-kalitatea hobetzea, baita tokiko ekonomia suspertzea eta negozio-eredu berriak sortzea ere. 2019an, jardueren ardatzak hauek izan dira: Iratxeko Mikrosarea, ANIMSAren datuak prozesatzeko zentroko beroaren berreskurapena eta Hiri Plataformaren inplementazioa. Ekintza horiezaz gainera, Iruñeko Energia Agentziak energiaren arloari buruzko bere ikuspegia eman du hainbat neurritan, hala nola gamifikazio-tresnan, negozio-ereduen garapenean eta argiteria adimendunean.

**POTEnT**

**Aurrekontua: 4.000 €**

Aurrekontua: 4.000 €. Proiektuak aurrerapausoa egin nahi du, eskualde elkartu bakoitzean 2023rako aurreikusi edo espero den baino % 10 karbono-murrizketa handiagoa lortze aldera, agintari publikoek ematen dituzten energia-zerbitzuen hobekuntza bidez. 2019an, bertze hiri batzuekin, zenbait agentzia eta unibertsitaterekin lankidetzan, Lorienten (Frantzia) egin den topaketa batekin hasi da egitasmoa. 2019ko jarduera nagusiak honako hauek dira: tokiko (barneko eta kanpoko) eta eskualdeko eragileekin harremanak garatzea energiaren arloan (Tokiko StakeHolders Taldea), eta Iruñean azaroan egindako ekitaldi tematiko bat, zeinak Europa osoko 40 pertsona baino gehiago erakarri baitzituen (adituak eta teknikariak).

**mPOwer**

**Aurrekontua: 3.000 €**

Iruñeko Udalak, 2019an zehar, Energia Berriztagarrien arloko talde espezifiko batean parte hartu du, Bartzelona, Frankfurt, Viena eta Metz hiriekin batera, online topaketa batzuekin eta urrian Frankfurten aurrez aurreko topaketa batekin. Proiektua 2018ko maiatzean hasi zen, eta lau urte iraunen du. Berdinen arteko ikaskuntza-programa bat jarri nahi du abian, eskala handikoa eta sistematikoa. Programa horretan, tokiko 100 agintari publikok parte hartuko dute gutxienez, udal-energiaren arloko jardunbide berritzaile onenak errepikatzeko eta trantsizio energetikorako planak garatzeko.

**PROSEU**

Proiektu honen helburua da energia berriztagarrien «prosumitzailearen» irudia garatzea Europako sektore elektrikoan. Udalak aurrez aurreko bi lan-saiotan parte hartu du Bartzelonan (autokontsumo energetikoaren inguruko negozio-ereduak) eta Madrilen (goi-bilera klimatikoko autokontsumoari buruzko mahai batean).

### Ekitaldi eta jardunaldietan parte hartzea

2019an zenbait ponentzia egin dira:

- Martxoa. Energia Trantsizioari eta Hiriari buruzko Kongresua. Bartzelona
- Martxoa. Autokontsumo jardunaldia. Iruñeko San Pedro museoa.
- Maiatza. Ulertu zure energia-faktura eta nola aurreztu. Iruñeko San Pedro museoa.
- Ekaina: Energia berriztagarriak Iruñeko Udalean. NUPeko CREAS programarako ekitaldia, Egiptoko ikasle eta irakasleekin.
- Urria. AUTOKONTSUMOARI BURUZKO NAFARROAKO I. KONGRESUA Nafarroako Industri Ingeniarien Elkargo Ofizialak eta Nafarroako Industria Fundazioak antolatua.
- Azaroa. Autokontsumoa. Ekonomia Sozial eta Solidarioko azoka. Geltoki.
- Azaroa. Forum Navarra Nuevas Energías. Diario de Navarra.
- Azaroa. Autokontsumoari eta hirietan duen ahalmenari buruzko mahai-ingurua. COP25 Madril.
- Abendua. Energia eta Teknologia Smart Cityrako. STARDUST Academy, Iruña.

# IRUÑEKO TOKIKO AGENDA 21

## AGENDA 21EKO ADIERAZLEAK EGUNERATZEA

**Iruñeko Tokiko Agenda 21ek jasangarritasun-adierazleen sistema bat dauka; adierazleak lau kategoriatan (gizartea, ekonomia, ingurumena eta erakundeak), eta gaien arabera osatutako 11 arlotan sailkatuta daude. 2012an adierazleen aldaketa bat onetsi zen, eta 2019an edukiak eguneratzeko lanarekin jarraitu da.**

## HIRI-BARATZE KOMUNITARIOAK

**Aurrekontua: 47.557,78 €.** 2019an, hiriko bosgarren baratzea jarri da abian. Mendialdea elkarteak kudeatzen duena (Arrotxapea auzoan, Barkazio Gurutzearen kalean dagoena). Orotara 1.365 m2 ditu, 162 m-ko perimetroan.

Hiri-baratze komunitarioetan egiten den hiri-nekazaritzak lotura du autogestioarekin, tokiko garapenarekin, ingurune degradatuen hobekuntzarekin, gizarteratzearekin, komunitatearen indartzearekin eta ingurumen-hezkuntzarekin; horretaz gain, hiriak jasangarriago egiten ditu eta biodibertsitatea babesten du. Baratzeak lagungarriak dira hirietako garapen jasangarria sustatzeko, hiru ikuspuntutatik: ingurumenekoa, soziala eta ekonomikoa. Udalak baratzea sortzeko beharrezko baliabide ekonomikoak eskaintzen ditu.

Hauek dira Iruñean irekitako gainerako lau instalazioak: Alde Zaharra (Piparrika elkartea) 2016an irekia eta Txantrea, Krispilak elkarteak kudeatua, Mendebaldea (Ermitaldea elkartea) eta Donibane (San Juan Xar elkarteak kudeatua), guztiak 2018an abiatuak.

## HAURTZARO HAUR-ESKOLAREN HONDAKINAK KUDEATZEKO PLANA

**Aurrekontua: 500 €.** Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoak hamar zentro ditu, 0-3 urtekoen zikloa eskaintzen dutenak. Haur-eskolek ildo argia hartu dute jasangarritasun-irizpideak hezkuntza-ereduan txertatzeko, eta hainbat proiektu eta aldaketa garatu dituzte ikastetxeetan, bertze onura batzuez gainera, hondakinen ekoizpena murriztea lortu dutenak. Haurtzaro haur eskolak 82 haur hartzen ditu, 0 eta 3 urte bitartekoak, lau adin-taldetan

banatuta: bularrekoak, ibiltariak, ertainak eta nagusiak. Aurten, eskolak proiektu hauek eginen ditu: sortutako hondakinak karakterizatzea, dituzten edukiontziak identifikatzea, falta diren edukiontziak osatzea atzematen diren beharren arabera, hondakinak gutxitzeko plana ezartzea eta talde osoari ezagutaraztea. Ekimen pilotu horren ondoren, 2020an bertze 9 haur-eskoletan egingo da.

## UDAL-HILERRIAREN HIRI-HONDAKINEN KARAKTERIZAZIOA

**Aurrekontua: 300 €.** Iruñeko udal-hilerrian, batez bertze, 60 tona hondakin sortzen dira urtean. Eraispen- eta uralita-hondarrak eta inausketa- eta lorezaintza-hondakinak izan ezik, gainerakoak ez dira bereizten. Urtean bitan zabortegira eramaten dira. 2019an, garraioaren eta isurketaren kostua 6.000 € izan da.

Aurten, Santu Guztien Egunaren aurreko astean eta otsailean, panteoi eta nitxo eta kale nagusietako 3 gunetan sortutako hondakinen karakterizazioa egin da, zati bakoitzaren ehunekoa zein den jakiteko, bai pisuari dagokionez, bai bolumenari dagokionez; hala, eredu-aldaketa bat planteatu ahal izanen da kudeaketan. Horren emaitzari erreparatuta, honako hau ikusi da: sortutako hondakin handiena, pisuan, organikoa da (guztiaren % 41); bigarrena, errefusa (% 35,68); gero, lurra (% 11,64), ontziak (% 5,64), papera (% 3,82) eta beira (% 1,49).

Gainera, 20 litroko 142 azikula-zakuren konpostatze-esperimentu bat egin da, eskuekin ekortzeko hondakin hori konpostatzeko modurik onena zein den jakiteko, zeina eskuarki lurrarekin eta harriekin nahastuta lortzen baita. 2019ko abenduko uholdeak eta ureztatze faltak —isolamenduaren ondorioz— Miluzen egindako esperimentuaren zati bati eragin zion, eta, beraz, emaitza baldintzatua izanen da.

## EDALONTZI BERRERABILGARRIA FESTA-EKITALDIETAN

**Aurrekontua: 55.310,60 €.** 2019an, Udalaren edalontzi berrerabilgarria 17 ekitalditan erabili da, eta horietan 80 lokal eta kolektibok baino gehiagok hartu dute parte. Guztira tantaren 72.604 udal-edalontzi eta 400.000 edalontzi berde banatu dira sanferminetan. Ez-itzultze tasa % 42 ingurukoa izan da.

## HEGAZTIAK IRUÑEAN

**Aurrekontua: 2.999,95 €.** 2019an, Ornitolanen eskutik, hegazti arrunten populazioaren tamainari buruzko azterlanaren bertze edizio bat egin da, bizi-kalitatea eta garapenaren jasangarritasuna neurtzeko adierazle nagusietako bat den aldetik (SEO/BirdLife, 2010). 57 hegazti-espezie detektatu dira; 2017an ikusitakoak (61) baino gutxiago badira ere, urte hauetan detektatutako kopuruen artean bigarren tokian dago aurtengoa aurkitutako espezie-aniztasunari dagokionez. Aurten egindako transektuetan (aurrez diseinatutako ibilbideak), 55 espezietako 1.808 hegazti ikusi dira, horietatik 27 ez zeuden maila espezifikoan identifikaturik.

Aniztasunik handiena Ezkabako (25 espezie ), Gaztelugibeleko (21) eta Aranzadiko eta Unibertsitate Campuseko (20) transektoetan dago. Dibertsitate gutxien dutenak, berriz, Arrotxapea (10 espezie), Iturrama eta Landaben (9) eta, azkenik, Alde Zaharra (7 espezie baino ez) dira.

2019an, duela hamar urte laginketak hasi zirenetik aurkitu ez diren hiru espezietako aleak aurkitu dira: galeper arrunta (Coturnix coturnix), hiru koartzatxo itzain (Bubulcus ibis) eta txio lepazuri bat (Papialbo phylloscopus Bonelli).

Kontuan hartuta 2009tik egindako laginketa guztietako emaitzak, guztira 84 espezie hauteman dira hirian. Auzoz auzo, hauek dira espezie kopuruak aurten:




## HABI KOPURUA




Hiru espezietatik, ehun buru baino gehiago detektatu dira: zozo beltza (Sturnus unicolor), sorbeltz arrunta eta karnaba europarra (Carduelis carduelis).

## HEGAZTI NEGUTARREN PRESENTZIA IRUÑEAN

Aurrekontua: 3.581,60 €. Ikerketa honen helburua da Iruñeko hegazti negutar ohikoenen ezagutza handitzea hiriko birika nagusietako batean, Arga ibaian.

Azterlana ibaiaren hiru zatitan egiten da: Burlata – Aranzadi amaiera; Aranzadi hasiera – Biurdana amaieran eta Biurdana hasiera – Barañain amaiera. Guztira, 37 espezietako 767 hegazti hauteman, ikusi eta/edo entzun dira, 2018an baino % 13,82 hegazti gutxiago. Bi urteetako laginketen artean, 42 hegazti espezie detektatu dira neguan.

2018-2019ko neguan, 71 hegazti detektatu dira ibilitako ibaiko km bakoitzeko (batez bertze, 82 hegazti 2017-2018an). Espezieen artean, 18 basahate detektatu ziren, 3,5 zozo arrunt baino gehixeago, 3 ubarroi handi eta ia 4 txantxangorri ibaiko kilometro bakoitzeko. Adierazgarria da basahatearen, karnabaren, txonta arruntaren eta usapal turkiarraren kopuruaren jaitsiera. Aldiz, handitu dira mika arruntaren, etxe-txolarrearen eta buztanluzearen maiztasun erlatiboa.

## GAU-SAGUZAR ERTAINAREN URTEROKO BERRIKUSPENA

Aurrekontua: 3.949,69 €. Gau-saguzar ertaina (Nyctalus noctula) saguzar handia da, migratzailea eta zuhaiztarra. Iruñekoa izan zen aurkitutako lehena eta ugarienetako bat, baina azken bi hamarkadetan nabarmen egin du behera. Denbora horretan, gutxienez 45 babes-zuhaitz desagertu direla ikusi da. Espezie hori hiru eremutan dago: Nafarroako Unibertsitateko campusean, Miluzen eta Trinitarioetan. Ale kopuruaren eta banaketa-eremuaren murrizketa direla-eta, espezie mehatxatutzat jotzen da, egoera zaurgarrian Espainian, eta arriskuan, Nafarroan.

2019an kutxa eta babes-enbor guztiak berrikusi dira, eta, gainera, gau-saguzarrek erabiltzen dituzten babesleku naturalak (zuhaitz-zuloak) bilatu dira, egungo egoera hobeki ezagutzeko.

Hiru gunetan baino ez daude gau-saguzarrek okupatutako kutxak: Trinitarioak, Hilerria-Miluze eta Nafarroako Unibertsitateko campusa. Aldizka berrikusitako 37 kutxetatik 18tan okupazioa ikusi da (% 49); dena den, bisita batean ikusitako kutxa okupatuen gehieneko kopurua 12 izan da.

## BELATZ HANDIAREN LANDA-HAZKUNTZA EDO HACKING-A.

Aurrekontua: 4.186,60 €. Hirietako usoen populazioa handitzeak eta horiek kontrolatzeko hartutako neurriek kezka handia sortu dute azken urteotan. Hori dela eta, hainbat udalek belatz handia sartu dute hirietan, landa-hazkuntzaren edo hackingaren teknikaren bidez. Iruñeak 2019ko maiatzean egin zuen, Iruñeko katedraleko terraza batean, Bardeako Falco peregrinuseko (Brookei azpiespeziea) bi alerekin. Kumeak 25 egun zituztela ezarri ziren, elikatu, eta 40 egunekin, maiatzean, hazleku zuten kaiola ireki zen. Ekainaren erdialdean, erabat independente zirenean, habiara egindako eguneroko bisitak amaitu ziren, baina kontrolak jarraituko du GPS bidez. Arrak bakarrik iraun du bizirik, emea hilabete horretan bertan hil zen deshidratazioaren ondorioz.

### HEGAZTIENDAKO BABESLEKUAK (HABIA-KUTXAK)

**Aurrekontua: 8.076,75 €.** Habia-kutxak instalatzea teknika bat da, hegazti eta ugaztunen espezieak «birkolonizatzeko» aukera hobetzeko eta handitzeko erabiltzen dena eremu degradatuetan. Gainera, haien okupazioak azterketa zientifikoetarako datuak ematen ditu eta ingurumen-hezkuntzako jarduerak egiteko balio du. Azkenik, izurriteen kontrol biologikoan laguntzen du.

2019an 309 ikasle bildu dituzten lantegiak egin dira ikastetxeetan, eta 30 kutxa berrikusi dira (hontz europarrarenak eta belatz arruntarenak ). Kutxen % 40 paridoek (kaskabeltz handia eta amilotx urdina) eta buztangorri ilunak okupatu dituzte, eta horrek handitu dezake hurrengo urtean kutxa apo-hontzak erabiltzeko probabilitatea. Proiektu hau Ilundain fundazioarekin egin da, eta kutxak diseinatu eta muntatzen dituzten gazteak, zeinek zailtasun sozialak dituzten, gizarteratzen eta laneratzen laguntzea du helburu.

# INGURUMEN-HEZKUNTZA

### INGURUMEN-HEZKUNTZAKO ZERBITZUA

**Ingurumen-hezkuntzako Lantaldeak hiru lan-ildotara bideratzen du bere esku-hartzea: ingurumen-hezkuntza eskoletan, hiritarrentzat eta Udalean. Lan-esparru horretan, 13 programa propio egin ditu, hainbat erakunderekin lankidetzan. Esparru horretan, 18.014 parte-hartzaile lortu dira 2019an, aurreko urtean baino % 5,25 gehiago.**

### ESKOLA-BARATZEEN HEZKUNTZA-PROGRAMA

**Aurrekontua: 7.099,91 €.** 2019an, zazpi ikastetxetako 3.066 ikaslek parte hartu dute Eskola Baratzeetako programan. Lan-ildo horren helburua da espazio horiek ikaskuntza-gela bihurtzea eta curriculumean integratzea. Aurten honako ikastetxe hauek parte hartuko dute: Rochapea IP, Sanduzelai IP, Mendillorri IP, Mendigoiti IP, García Galdeano IP, Doña Mayor IP eta Amaiur Ikastola. Aurten, gainera, Iruñeko Eskola Baratzeen I. Topaketa egin da, eta «Baratzeko saskia» ezarri da; hau da, baliabide pedagogiko bat (jolas kooperatiboak, liburuak, haziak, eta abar), zeina ikastetxeek maileguan har baitezakete.

### IRAKASLEENDAKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMA

2017-2018ko ikasturtean harremanetan hasi zen Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuarekin, eskola-baratzeen udal-programan parte hartu behar zuten irakasleen prestakuntza egiaztatzeko. Aurten, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleei emaniko lau saioko prestakuntza-ikastaroa berrargitaratu da. Irakasleek zuzenean eta zeharka ikasleengan izandako eragina 1.002 parte-hartzailekoa izan da ikasturte honetan, 38 taldetan banatuta.

## MENDILLORRIKO AINTZIRAKO HEZKUNTZA-PROGRAMA

**Aurrekontua: 9.358,27 €.** Mendillorri aintziraren hezkuntza-proiektua 2017-2018ko ikasturtean hasi zen, eta partaidetza-prozesu bat ekarri zuen berekin. 2019an, auzoko ikastetxeetako ikasleek proposatutako ekintza batzuk bildu ditu. Aurten, zuhaitz eta zuhaixka autoktonoak seinaleztatu, lakuaren inguruan iragarki-taula bat jarri eta Land Art jarduera bat dinamizatu da: gelan lantegiak egitea, obrak jartzea, obrak kentzea eta prozesuaren argazki-dokumentazioa. Mendillorriko lakuaren unitate didaktikoaren edukiak ere eguneratu dira.

2019an Mendillorri Lakuaren hezkuntza-programan 1.330 pertsonak parte hartu dute, Mendillorriko bost ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako eta DBHko azken zikloko irakasle eta ikasleen artean: El Lago HLIP, Mendillorri LHIP, Elorri IP, Mendillorri BHI eta Mendigoiti IP.

## ITSASLAMINAK EUROPAKO PROIEKTUA

**Aurrekontua: 4.801,18 €.** Aurrera egin du 2018an hasitako proiektu honek, Miarritzeko Malandain baletarekin eta Donostiako Cristina Enea fundazioarekin batera. Programa 2018-2019ko ikasturtean hasi zen, modu pilotuan, Iturrama BHIko DBHko 5 talderekin (117 parte-hartzaile). 2019an 15 taldetara zabalduko da. Helburua da ikasleak kontzientziatzea plastikozko hondakinek itsas ekosistemetan duten eraginari buruz. Bi edizioetan, Iturrama BHIko, Jesuitinen ikastetxeko eta Iparralde BHI ikastetxeetako 407 parte-hartzaile izan ditu programak.

## ECOZINE NAZIOARTEKO JAIALDIA

**Aurrekontua: 10.479,38 €.** 2019ko maiatzean, Golem Baiona aretoetan, topaketa honen bigarren edizioa egin da Iruñean (Zaragozan 12 urtez jarraian egindako jaialdia). Zinema-jaialdiko Gazte Atala Bigarren Hezkuntzako ikasleak ingurumenaz sentsibilizatzeko espazio bat da, eta ikus-entzunezko lanak baliatzen dira horretarako. Atal hau Civivox Iturraman egin da, eta bertan 497 ikaslek parte hartu dute.

## «JASANGARRITASUNA LANTZEN ELKARREKIN» PROGRAMA

**Aurrekontua: 7.295,16 €.** Ingurumen Hezkuntzako Museoaren programa da, eta, 2019an, 58 ikastetxetako 3.499 parte-hartzaile izan ditu, 146 taldetan banaturik. Hezkuntza-etapei dagokienez, esku-hartzeak Lehen Hezkuntzan egin dira batez ere (% 71,51). Bigarrenik, Haur Hezkuntzan izan dira (% 18,43), eta ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (% 5,38). Gainerakoa Lanbide Heziketan, Unibertsitate-mailan eta ikasgela berezietan banatu da.

Jasangarritasunean hezten programaren aurtengo proposamena hiru ildotan oinarritu da: jarduera puntual dinamizatuak, Maleta Bidaiariak eta Zeureganatu Museoa.

## JASANGARRITASUN-ESKOLAREN PROGRAMA

**Aurrekontua: 18.257,76 €.** Jasangarritasun Eskolaren programa hiru programazioko formatuan egiten da, hiruhileko bakoitzean bat, eta hor sartzen dira talde antolatuentzako eskaintza, haurrentzako sasoian sasoiko jarduerak eta herritarren zientzia-alorreko boluntario-jarduerak Jasangarritasun Eskolaren programan 4.483 pertsonak parte hartu dute 2019an. 11 hitzaldi eta 52 ikastaro eta lantegia programatu dira (1.018 parte-hartzaile), 1.376 parte-hartzaile dirurik gabeko truke-azoketan; 576 parte-hartzaile jostailuak elkarrekin trukatzeko azoketan; 353 parte-hartzaile aldi bateko erakusketetan; eta 835 parte-hartzaile talde antolatuentzako jardueretan eta haurrentzako sasoian sasoiko jardueretan.

Ingurumen-boluntariotzan, «Herritarren Zientziari buruzko lantegia: Iruñeko orkideak (maiatza)» egin da Gorosti Natur Zientzien Elkartearekin lankidetzan, baita «Hegaztien populazioen bilakaera Nafarroan» hitzaldia ere. SACRE proiektua. 20 urteko jarraipena» (2019ko azaroa).

## EDALONTZI BERRERABILGARRIEI BURUZKO KOMUNIKAZIO-KANPAINA

**Aurrekontua: 7.621,18 €.** Ingurumen Hezkuntzako Taldeak bertze zerbitzu batzuetan eginiko ingurumen-ekimenak laguntzen ditu. 2019an, hirugarren urtez jarraian, ekimen horiekin aurrera egin da: Edalontzi Berrerabilgarriaren Kanpaina diseinatu eta martxan jarri da.

## EGOITZA ARTISTIKOA

**Aurrekontua: 5.250 €.** lankidetza-hitzarmen bat egin da Huarte Arte Garaikideko Zentroarekin, lan-esparru artistikoaren eta ingurumenekoaren arteko sinergiak indartzeko eta babesteko. Ildo horretan, «Gutun-EKO sistemak Iruña» arte-egonaldia egin da, eta erakusketa bat prestatu da Ingurumen Hezkuntzako Museorako, non 100 pertsona inguruk parte hartu baitute.

## INGURUMEN-HEZKUNTZARAKO MUSEOKO JARDUERAK

**Aurrekontua: 3.751,49 €.** Ingurumen Hezkuntzako Lantaldea arduratzen da Ingurumen Hezkuntzako Museoa kudeatzeaz. 2019an, arte-egoitzari lotutako espazioa hobetzeko esku-hartzea egin da, eta, horren ondorioz, erakusketa bat antolatu ere bai.

2019an 1.314 bisitari izan dira Ingurumen Hezkuntzako Museoan; horietatik % 78k kontsultaren bat egin nahi izan dute, eta gainerako % 22ek erakusketa iraunkorra bisitatu dute. Gainera, aretoen 65 lagapen egin dira 1.795 parte-hartzaile bildu dituzten jardueretarako. Udal-administrazioari egindako lagapenen artean, honako hauek daude: Mugikortasuna, Gizarte Enplegua, Hiri Ekologia, Energia, Parte-hartzea eta EISOL. «Zeureganatu Museoa» ekimenaren barnean, Udalarenak ez diren kolektibo eta entitate hauek ere eskatu dituzte Museoaren espazioak: Etxekonak kolektiboa, SAME, Biomaratón, NUP (Biomasa ikastaroa), Nafarroako Gobernua (Minerética erakusketa eta horri lotutako jarduerak), Arantzadiren lagunak, El buen vivir elkartea, Bizikume, San Pedroko liburutegia eta ANEA (Ingurumen Hezkuntzako Nafarroako elkartea).